

# EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca

L'Academie Populaire de la Langue Basque

XLV-XLVI Zenbakiak

1999

Urtarrilla-Ekainilla

Uztaila-Gabonilla

EUSKERAZAINZA .....

ERRIZ ERRI .....

ERRI-EUSKERA LANTZEN .....

EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia. Z.N.A./C.I.F. G  
20/127.759

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de Larreategi, 14-2<sup>o</sup> 48001 BILBAO

# GURE IRAKURKEARI:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, aldogun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen djgutenak «laguntzaile» taldera sartuko ditugu.

Gure kontuaren zenbakia au da:

KUTXA. Getaria, 9. DONOSTIA. 2101/0200/46/000668/1589.

---

**XLV-XLVI Zenbakiak**

1999

Urtarriia-Ekainiia

Uztaiia-Gaboniia

## AURKIBIDEA

	Orr.
<b>Atarikoa</b> .....	5
<b>Aramaiio'n euskal-jaia (Puxana"tar Pedro)</b> .....	7
<b>Oska'n euskeraz noz? (Latiegi "tar Bixente)</b> .....	12
<b>Orixe"ren Euskaldunak (Murua"tar J.M.)</b> .....	35
<b>ZE/EZ/EZEZE/E/EHE/UL (Puchulu"tar Róbert)</b> .....	41
<b>Latxagaren Liburu Barria (Alkain"dar Jesus M<sup>l</sup>)</b> .....	52
<b>Lino Akesolo: Gizona ta lana (Arostegi tar Luis)</b> .....	55
<b>San Roke Dantza (Arrinda"tar Anes)</b> .....	69
<b>Azoka Elkarte (Urruña'n) (Arzeluz"tar Paulo)</b> .....	71
<b>Bidalgo ikurak euskeraz? (Latxaga-Atutxa)</b> .....	73
<b>Selluak euskaraz</b> .....	75
<b>Euskera Errioxa'n (Latxaga)</b> .....	78
<b>Euskal-Asteak eta Lanak (Euskerazaintza)</b> .....	81
<b>Euskera: Deba'ko jakingarriak (Arrinda"tar Anes)</b> .....	108
<b>Euskararen arerioak (Umandi zana)</b> .....	113
<b>Nere bizitza (Umandi zana)</b> .....	117
<b>Olabide'ren asmoak (Urrestarazu lar Andoni zana)</b> .....	121
<b>Andoni ta euskera</b> .....	130
<b>Euskera Aldatz-Gora</b> .....	136
<b>Esaerak, esaldiak, esaldi traketsak, atsotitzak</b> .....	137


---

## Laguntzalleak

**Gipuzkoako Aldundia**



**Eusko Jaurlaritza**



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

# ATARIKOA

Aspaldjon, urtebetean beintzat, gure aldizkari au ez da agertu eta orregaitik zenbaki onetan zenbaki bi batuta agertzen ditugu.

Baiña, zergatik ez da agertu? galdetuko dute gure irakurleak eskubide osoarekin.

Ona emen gure erantzuna: aldizkaria bjderatzen alegin aundia egjn dau gure bazkjde degun Zubjkaraj'tar AugUstjn'ek eta Augustin bazkide guztiz langillea, gaiso luze eta sakon batek jota daukagu. Ez da erreza izan ola edo ala berak egin dauan lan aundia bideratzea. Dana dala, irakurle, emen gaude zurekin berriro alkar-izketa beroan. Uts batzuk aurkitzen badituzu, lana len bezela bj kain egjten ez badogu, parkatu irakurle. Saiatuko gara geroago ta obeto geure egiteko aU beteten.

Zer argitaratu? Zer atzeratu? Orra or idazkolan izan degun zalantza. Idaz-lan asko izan ditugu esku-artean. Batzuk izkuntzalari-girokoak. Auek dira beiñenak aldizkari onetarako. Beste batzuk edezti-bidekoak. Auek gure elburu dan "erri-euskera sendotzekoa dan" elburuarekin alkartu bear ditugu. Zeregin ori bete nai leuke atariko jdzaz-lan onek. Beste batzuk elburuarekin zer ikusj gutxi dutelako, alboratu egin bear izan ditugu, beste aldizkari batzutan agertzeko.

es•

Puxana'tar Pedro arabarraren lana dogu lenengoa. Edesti girokoa da, baiña oso egokia ta bearrezkoa ain maite degun Aramaioko euskeraren jakingarri batzuk batzeko.

Oska'ko euskarari buruz diardu Latiegi"tar Bixentek. Noiz arte Oska'n euskera mintzatu dan argitu naj du eta orretarako, Jaurlaritzaren laguntzarekin eta Latxaga ta Atutxa'tar Paul lagun dituala, ekiñaldi naikoa luzea burutu dau Oska'n, bertako billatzaileak, Gotzaiña be bai, lagun dituala. Lan au Euskeraren edestia osotzen joateko oso egokia da.

Orixe'ren Euskaldunak liburuaz aztertzen dausku Murua'tar Jose Mari'k. "Orixe" gure elertian, euskera jdatzian, giza-gurena degu.

Puchulu'tar Rober idazle ipartarrak bere lanean euskera bera aztertzen du, luze eta sakon. Asko poztuten gaitu ipar-euskaldunak gure artean lankide izateak.

Latxaga gure lankideak liburu berria du irarri barri eta liburu onen jdzazpurua "Euskal sena" da. Iñaki deunaren parroko aretoan, Donostian entzuleak ugari dituala egjn dau liburu orren aurkezpena eta Alkain'dar Jesus Mari jzan du aurkezle jdzazleak berak. Aurkezpen ori agertzen diegu gure irakurleai.

EUSKERAZAINTZA'ren lenengo lendakari izan gendun Aita Lino karmeldar ospetsua eta, idazle ezagun onen gjzontasuna eta lana agertzen djzkigu Aroste-gi"tar Luis'ek, Urkizátar Julen en liburutik artuta. Idaz-lan au "Karmel" aldizkarjtjk artu degu, gure lenengo lendakariari ornen lez irakurlej eskintzeko.

Arrinda'tar Anes'ek idazlan ederrak eta asko bialdu dizkigu, geienak edes-tj-arlokoak, baiña euren artean bat aukeratu bear jzan degu "San Roke dantza". Geroago,urrengo orrialdeetan, agertuko degu beste lan bat ere, idazle onena, Deba'ko jakingarriak agertzen dituana. Or ikusi dezakegu errjetan diran kale-ize-nak eta toki-jzenak euskera ulertzeko eta gure edestia ezagutzeko dauken garrantzia. Euskaldunok, zori txarrez oso gitxi idazten degu, geure jdatz-ikurrjk ere ez degu, gure iskuntza gozoaren edestia, toki-izenetatik atera genezake.

Ipar-aldean liburu-azoka aundja izan dute eta artan sartuta ebillan Arzeluz"tar Paulo. Guk Arzeluz"tar Amale lankjdearen eskutik artu ditugu ango barri batzuk. Gu ere kideko izan giñan erakusketa aretan eta jakingarri asko ez ba'dira ere, aipamen lez, zerbait agertzen degu aldizkari onetan.

Aspaldion bidalgo-ikur edo seilluari buruz arduratuta ikusten degu gure Latxa-ga. Gauza garrantzitsua litzakela uste du guk erabilten djtugun bidalgo-ikurrak euskal-gjrokoak izatea. Eta baiezipen ori oiñarri sendoz ziurtatzen du.

Latxaga berau, gaiñera, Naparroa'n eta Errioxa'n asko jbjllja eta bertan dan euskeraren arazoaz kezkatua degu. Errioxa'ko euskerari buruz jdaz-lan gogoan-garri bat aurkjtko du irakurleak zenbakj onetan.

Euskal-asteak gure izkuntzaren ardura errira sartzeko oso egokiak dira. Joan diran urte bietan egin dira iru euskal-aste aipatzen ditugu. Zorj txarrez, jzlarj batzuk idatzi bagarik egiten dute itz. Orrein idaz-lanak ezin agertu. Beste batzuk gidari dan orri bat idazten dute, baiña au ere askok "non in folio sed in capitolio" eukiten dute. Iru astetatjk al dana argitaratuko degu.

Umandi edo Urrestarazu"tar Andoni Araba'ko euskazale benetakoa ez dauka-gu aiztuta. Antziña ez dala joan zjtzaigUn gure artetik, baiña bere idaz-lan batzuk, argitaratugabeak ere bai, agertzen ditugu. Bere bizitzako zertzeladak ere bai, nor-baitek idatziak. Ber-berak idatzitako bere bizitza ere bai, eta gaiñera bere lan eder bat Olabide josulagun ospetsuarj buruz. Eta beste idaz-lan bat Andoni ta euske-ra. Maite gendun Andoni eta pozik eskintzen dizkigu orri batzuk aldizkari onetan. Bere arrebak ekarri dizkigu idaz-lan auek.

Askue ta Ipuiñak idazpuru duan lan baten aipamena ere egiten degu,au neronek jdatzia eta Donostiko Euskal-Astean mintzatuta.

Eta amaitzeko, orrialde bi eskiñiko ditugu esaerak eta esaldiak, atsotitzak eta esaera traketsak agertzeko. Nerau, Arzeluz"tar Amale eta Prieto"tar Iniaki dira or adierazle. Ekintza onetan lan aundia egiten eban joan zitzaigun Oñatibia'tar Manu'k. Ba ditu jarraitzailleak, zori onez.

Irakurle biotzekook, orra or gure lana. Atsegin izan bekjzue eta urrengorako zerbajt aldatzea edo obetzea nai ba-dezute, arren esan ezaiguzute. Eta, gaiñera, euskal-gajren bat aldizkari onetan argitaratu nai ba-dezute, alboratu nagjkeria, artu lumea eta idatzi. Eskerrik asko.

OLAZAR"tar Martin

Euskerazain-buruak.

# 1899 URTEAN ARABAKO ARAMAION IZAN ZIRAN FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JATEN MENDEURRENA/EUNGARREN URTEA.

Bai, eun urte joanik dira ARAMAIO'n egin zjran FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JALAK erjtxenak izan zirala.

Ospakizun areen mendeurrena edo eungarren urtea amaitu barri dogu.

Irailla guztian zear izan diran ekitaldiak guztjtarikoak doguz: kirolaldi, kantaldi, eta abar.

Egunik garrantzjtsuena eta esanguratsuen, alan be, jrailla'ren ogetasejgarrena izan zan. Egun aretan EUSKALTZAINDIAK, EUSKO IKASKUNTZAK eta ARAMAIOKO UDALAK, jrurak batera esku-adu eben eungarren urtearj amaiera emon eutsan ekintza nagusi/jaitsu eta txalogarrian.

Eta gauza arrigarria! Niri beintzat biotzondoko mingarria emon eustana! Gizarte-bitartekariak ajtatu be ez eben egin euskal kultur barrutjan orren joan-etorri aundiko jazokizuna. BAITEK BE EZ! Nik beiñjk-bein urrengo egunean ez neban ezer entzun, ez irakurri, ez ikusi. Kirol-ekitaldi/leiaketa bat izan balitz, orduan bai, orduan burua bero-bero egiteraiño e <sup>9</sup>ingo euskuen. Euskal kultur-alorrari eta euskereari egokion aldarrigarria zanez, baiña, "Orkonpon, Marianton!", eta kitto.

Lotsagarria eta negargarria noz eta gure egunotan, nun eta geure-geure errjan onangorik jazo bearra! Negargarria, ez negarbera garealako, jazoera bera, bere jzatez eta beste barik, negar eragitekoa dalako baiño.

Zizeron, erromatar izlari goren-gorenak, ulu egiñez, jñoana, neuk be bir-ulu egingo neuke: "¿UBINAM GENITIUM SUMUS?" (Zein errialdetan bizi eta gara?) "¿QUAM REM PUBLICAM HABEMUS?" (Zein erri-gobernu-era ete daukagu?)

BIZENTE GOIKOETXEA ERRASTI, eleiz-ereslari/musikari entzutetsu eta, adituek dirauskuenez, XIX mendean izan zan eleiz-eres/musikaren sortzailleetan onenetari-koa, semez ARAMAIOkoa izan zan, eta, eun urte dirala, ARAMAIO'n, bere errian izan ziran FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JAI areetan eta baita areen gomutaz aur-tengo irajllean egin diran ospatzealdi/ekitaldietan be, berak berarjazko zer-jkusia dauko, eta ao bete-beteko zer-esana be bai, beerago argituko dogunez.

Bizente Goikoetxea abadea jaio, 1845garreneko jorraillaren laugarrenean jaio zan. Aita INAZIO GOIKOETXEA izan eban, otxandioarra, eta ama JOSEFA ERRASTI, Aramaiokoa, Azkoaga elizate/auzokoa.

Iñazio, Bizenteren aita, gizon "urtena" eta jauntxoa izan zan bere errian, diru-dianez. Ainbat ekinbide eta lanbide "goragarri/aintzatsu" izan ebazan bere bizi-tzaldian zear, erriko alkate izateraiño.

Bizi izan zan aldia/aroa, baiña, oso naastua, labankorra eta irristagarria izan ebala.

**BIGAREN KARLOSTAR GERRATEAN** gagoz. Gerrate-aldi orretan **SANTA KRUZ** izeneko abadea -gerrari ausarta/bulartsua bera- edozein egunetaz eta ordutan agertzen zan Aramaioko lurretan, joan-etorri edo sartu-urten ausarti-sarri egiten ebala. Aren burua "diruz-emongarritzat" jota egoan burrukan ziarduen arerio-talde bien aIdetik, au da, "karlostarren" eta "liberalak" eritxenen partetik.

Aramaioko Alkateak -Bizenteren aitak- oar/agindu zorrotz au arturik eukan: Santa Kruz abade gerraria Aramaioko lurretan ager badadi, ainbat lasterren Gasteiz-ko Agintariak jakin-eragin bear eutsela, eriopeko zigorraren meatxuz.

Eta ona, bat-batean eta uste-uste barik non agertzen dan inguruan be iñork ikusi gura ez eban abade "bildurgarria".

Aramaioko Alkateak -Bizenteren aitak- urrengo egunerako itxi barik, orduantxe bertan bialdu eban albistaria -oin bateko orpoan idatziz albistea eroiala- Gasteiz-ko Agintariengana. Emakume bat zan.

Baiña, gerra-garaia izan eta Santa Kruz abadearen begiralaria "begi-luze-zorrotz" ebiltzan zokondo guztietan nor nondik ibilliko zaintzen, eta ara emakume albistaria, Legutiano aldera mendiz eta oiñez joiala, abade gerrariaren zaintzailleen eskuetan jausi, eta onek, ondotoxo arakaturik, orpo baten eta ezkutu-ezkutuan eroian "mezua" arrapatu. Ai, ene, bada! Ai, ene, bada!

Gerrate-aldian ez dago iñorentzat begiramenik, ez errukirik. Beingo-beingoan eta ber-bertantxe su-izkilluz bizitza urratu eutsoen andrazko errukarriari, eta kitto!

Ezin, beraz, gaztigua Gasteiz-ko Agintarien eskuetara eldu.

Urrengo egunak larriak eta "gorriak" izan ziran Aramaioko Alkate zan Bizenteren aitarentzat. Aramaioko Udaletxean bertan burutu zan **GERRA-EPAIKETA ZORROTZ-ZORROTZ** baten ondorengo, erio-zigorpetua izan zan Bizente Goikoetxearen aita. Ai, ai, ai!!!

Bizirik urten eban, alan-da. Alan eta guzti be, errikide asko aren alde agertu ziralako eta 5.000 errealeko ordezeko zigorraren truke.

Gertaera onek naiko argi eta zeatz-meatz darakus Bizente Goikoetxea gaztearen aro naastu, illun-illun eta arriskutsua.

Erri-egoera labankor eta jauskor aretantxe girotu eta gertau bear izan eban musikari ezin-obeia izango zan Bizente gazteak bere ibilbidea etorkizunerako, eta gizarte-giro onen ondorenak bere "aragi bizi-bizian" jasan bear izango ebazan, urrengo agergerri onek darakuskunez.

Bizentek lege-ikasketak ondu zituan Oiñatiko Ikastetxe Nagusian, gero Aramaioko bere erriko Udal-Idazkaritza lortzeko ustez. Orixe zan izan be, aita Iñazoren ames bizi-bizia: semea erriko Idazkari ikustea. Eta, bide batez, Bizente beraren gogoa be bai, lanbide emonkor bat eskuetaratu gura eban eta. Eta orretarako aalegiñak eta aalegiñak egin zituan.

Eta ara, aren asmo loratsuak eta gurari zuzen-zuzenak oker urten. Oker eta oker!

Erriko trikimailu utsal eta antzuakaitik, Bizentek bere aal-izate guztiaz beretzako gura eban izendapena ez eban eskuetaratu.

Udalbatzak, burrukaldi Sutsu/orroatsu/zitalkeriz gaiñeztu baten ostean, Idazkaritza ukatu egin eutsan lege-jakituriz jantzita etorren erriko semeari, aurkakoari izendapena emonez.

A izan zan "ostikadea", a, Bizenterentzat!

Ain mingarria, Bizentek bere erri maite-maitea itxi eta bere burua "erbestertu" egin eban, erritik "ospa egiñez". Nora eta LEKEITIOra, beraren arreba bat, Angela, Julio eta Alejandro Valdés Goikoetxea -biak musikari onak- anaien ama

izango zanaren etxera. Eta antxe, itxas-ertzeko uri panpiña aretan bizi izango zan bost urtetan Aramaio bere erriaren maitale-maitale zan semea.

Norbere-ustez okerra dana, baiña, mesede eta "iturri on" biur daiteke usteka-bez eta iñok be antzik emon barik.

Itxas-ertzeko erri lirain aretantxe egingo zan R. M<sup>a</sup>. AZKUE artean abadetzarako ikasle eta geroago euskalari ospetsu izango zanaren adiskide min, egi-egiaz min. Eta jazokizun au guttiz ongarrri izan zan Bizente beraren gero-aldiko bizitzarako.

Eta orra miraria!

R. M<sup>a</sup>. Azkue jauna bera be, Bizenteren aoz Aramaiori buruz entzundako goralpenak bide zirala, Aramaioz, ezagutzen ez eban erriaz maitale-maitale egin zan. Olakorik!!!

Eta....au be jendaurrean esatekoa da.

Bizente Goikoetxea ez zan bera bakarrik Aramaio erriaren maitale izan, beraren txakurra be bai, antza danez.

Bizentek txakurtxu bat eukan, guttiz milikaria zana. Lekeitiora alde egikeran, zer egin "Fiel" izeneko bere txakurtxuagaz? Aramaion itxi? Ez, Lekeitiora eroango eban erbestealdirako. Eta eroan be bai.

"FIEL" txakurtxuari, baiña, ez jakon, antza, begiko egin itxas-ertzeko udatiarren erri "eztia", ezta gogoko be. Egun gutxi barru, desagertu egin zan. Ene, bada! Bizentek zokondo guztiak arakatu ei zituan, zeatz-zeatz arakatu be, bere txakurtxu kutun-kutunaren billa, guttiz ardurati eta kezkatu. Eta iñon agiri ez. Zer jazo ete jakon, ba? Itxasoak iruntsi?

Ez, ez eban itsasoak iruntsi.

Zortzi egun geroago ortxe-ortxe, Bizenter barriro irri-barre ezta beraren ezpanetan loratu jakola, agertu zalakoaren albistea etorri jakon. Nun eta ARAMAIO'n!!, ankatxuak odoldu-odoldu ibilliaren-ibilliaz egiñik. Nundik-nora eta zein bidetatik, ibilli be, ibilli ete zan txakurtxua, barriro Aramaioz itzultzeko? Batek badaki!!!

Lekeition, bere arrebaren etxean bizi izan zan bost urteetan, ez uste izan Bizente iñoren kontura eta txabola baten barruan sarturik, txori-zain lez, ezer egin barik bizi izan zanik. Ez orrelakorik. Lan da-lan egin eban, eten barik bear eta bear eguneroko bere ogia irabazteko eta arrebeari eta onen familiari "astun" eta "gogaikarri" ez izateko. Eta bost urteok joan ekiozanean/jakozanean, barriro Aramaio bere erri maitera biurtu zan.

1885garren urtean il jakon aita Iñazio. Jakokizun erabakiorra izan zan Bizente Goikoetxearen bizitzaldian aitaren eriotza.

Bizenteren kolko-barruan, aspaldi-aspaldidanik, ordurarte ezin asetu izan eban "egarri" bat eukan erdi-lotan edo erdi-ekutaturik: abade izateko asmoa eta guraria. Baiña, aita bizi zan artean, ezin "egarri" ori ezelan be asetu.

Eta aita il jakon ezkeru, bere-eskuko gelditzen zan bere asmoa aurrera erroteko, eta biztu be, biziro biztu jakon gurari zaar ori.

Unada aretan, baiña, eragozpenak eta atzerabideak ezin gaintu daitekezanak zirudien.

Ogetamalau urte eukazan, batetik, eta gerratearen erruz, diruz eta ondasunez guttiz urri egoan, urri baiño urriago, eta naitaez, lan egin bear eban bizitzeko.

Eta ara, guk, fededunok "Jainkoaren esku salbagarria" deitu dagiokeguna Bizenteren bizitzari urtenbidea emonez, etorri.

EGUILUZ arabar senar-emazteak, Valladolid-en etxebizitza ebenak, eta udako opor-aldia Aramaion eta Bizente beraren ostatu-etxean egiten ebenak, Bizenteren asmoak zeintzuk zirean jakiñik, gutzizko esku-zabaltasunez egokiera arrigarri au berari eskaiñi euren semea balitz lez senar -emazteok ez eukan ondorengo-

rik- eurakaz Valladolid-era eroango ebela, euren etxean biziko zala eta, geiago oraindik, ikasketa-ordaingarri guzti-guztiak euren ardurapeko izango zireala... eta onelan, abade izateteko aukerea izango ebala.

Bizenteri barriri "irri-barre ezitia" ekarri eutsan ez panetara agintzari onek, izan be, gutxiagorako ez zan eta.

1888garreneko irailaren 29-ean -egun orretan bertan abestu eban Meza Barria Lekeition adiskide min eban AZKUE aundiak- Eguiluz senar-emazteen Valladolid-go etxera aldatu zan, eleiz-ikasketak asteko eta, bide batez, "Notario"-ri egokiozanak amaitzeko asmoz.

Andik urte bira -artean abadegai zala- "Maestro de capilla de la Catedral de Valladolid"-erako nor-geiagokaren/leiaketaren bidez loduriko izendapena bereganatu eban.

Urtebete geroago abadetu zan, Meza Barria, Azkue adiskideak egin ebanez, Lekeition abesturik. Urrengo egun baten joan zan bere biotzeko Aramaiora, gurasoen, senideen eta beste askoren alderako otoitz egiteko asmotan.

Esan dot: 1888garren urtean alde egin ebala Bizente Goikoetxeak guztiz maite eban bere Aramaiotik Valladolid-era, eleiz-ikasteak ostu eta abade izateko egarritz.

Urte batzuk geroago -1899garrenean- izan ziran Aramaion ain aitatugarri -Oletan esaten dogunez- doguzan FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JAIK, Azkue gizaundiak -gorputzez, jakitez, ekitez, egitez eta euskal arrobian izan eban ekarritz- eratu eta antolatu ebazala.

Une onetan itaun auxe egin gengike: zer dala eta aukeratu ete eban Azkue jaunak Aramaio, Araba errialdeko udalerrri baztertua, ez-ezaguna eta errepideetatik aldendua FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JAIK bertan ospatzeko?

Ekarri daiteken erantzun bakarra auxe baiño besterik ez da: BIZENTE GOIKOETXEA adiskide ezin-aundiagoren gomutaz eta omenez.

Egia onen agergarri eta sendogarri, xeetasun auxe aitatu daiteke: aldi aretan "Maestro de Capilla de la Catedral de Valladolid" zan Bizente Goikoetxea musikari ezagun-ezagunari Azkue jaunak auxe eskatu eutsan: FIESTAS EUSCARAS/EUSKAL JALareetako ERES-MEZA ABESGARRI bat musikaz jantzi egiala euskal ekitaldion aintzagarri eta goresgarri.

Eskari onek Bizente Goikoetxea aramaioarrari biotzeko gun-gunean ikutu eutsan, eta, geiago ezin alako pozez gaiñezka, egintza a egi-egia biurtzeko erabagi sendoa artu eban, berak musikarako eukazan aalbide guz tiak ezin-geiago urturik eta buruko garaunak be estu-estu egiñik.

Sorrerazo eban, bada, abestuko eben ERESDUN MEZA BARRIA, lau abotsetarakoa. Amaitu eta Aramaiora bialdu.

Baina..."Anbotoko sorgiñak -edo uste- uste barik agertu izaten dira Aramaio inguruan". Nok esango eta Aramaio Udalbatzak ez eban ontzat artu semez bertakoa izan eta Valladolid-en musikaren arloan MAIXU AUNDI zan BIZENTE GOIKOETXEAREN ERES-MEZA BARRIA, ezetsi, baztertu eta alboratu baiño.

Ulergatx dirudian "kirtenkeri" au baiño aundiagorik lubira zabalean izan ete da gero?

Ezin esan alakoa izan zan Bizente Goikoetxearen biotzondokoa eta bere erri maiteak emon eutsan ezetza! Ezin esan alakoa!! GORRITI musikariaren MEZA abestu eben Goikoetxearenaren orde.

Azkue bera be zalantzatan gelditu zan, Goikoetxearen ederrez JAIALDIA eratu eta gero, ARAMAIO alde batera itxi eta FIESTAS EUSCARA/EUSKAL JAIK eritzen ospakizunak beste leku batera eroango ebazan ala ez.



Bizente Goikoetxea ez zan gizon sapotsu-zitala. Ez eban oker egiña berak be oker egiñez ordaintzen. Bere biotz barrenean ez eban mendekuaren, ez gorrotoaren alerik gordetan. Ezta Antzik be.

Bestetara bai, ostera.

Bizente Goikoetxeak agiri-agirian erakutsi ebazan Aramaio bere sorterriari eutsazan ondo-gurea eta txeraren txera: bere musika-lanak ekarri eutsozan leenengo irabaziak Aramaio Gaixo-etxearentzat izan ziran, eta il zanean, bere erriko eleizeari itxi eutsazan abade-jantzi eta beste ainbeste gomutagarri.

Eta asieran aitatu dodana: oraintsu burutu dan mendeurren edo eungarren urtean be, Bizente Goikoetxea musikari gogoangarriaren izena eta aipua aramaioar guztien ao-miñean erabili izan da: eun urte dirala abestu bearreko ERES DUN MEZA BARRIA, joandako irailaren ogetaseigarrenean Aramaioko eleiza nagusian AUNDIKIRO abestu zalako, leenagoko uts eta oker guztien kitagarri eta ordaingarri, SABIN SALABERRI, berau be aramaioar musikari on-onaren zuzendaritzapean. ALAKOREN BATEN!! Eta ZORIONEZ!

BIZENTE GOIKOETXEA ERRASTI Valladolid-en il zan 1916-garreneko jorrailaren 9-an, irurogeta bi urte ebazala. 1915garreneko martian Katedraleko Kalonje izendatua izan zan COS Kardinalaren obariz.

"Ilda gero, salda bero?" (esan oi danez)

ala

"Ilda gero, alda gero?"

Ez, Aramaioko erriak ez eban iñoz be begi-begiko izan Bizente Goikoetxea Errasti, bertako seme ospatsua, bizi izan zan bitartean. Beti zearka eta begi-okere begiratu eutsan.

Ilda gero, alan be, arenganako jarrera guztiz aldatu eban. Bera il zan urtean bertan, 1916garrenean, sekulako edo berebiziko OMENALDI EDER-EDERRA eta BIKAIN-BIKAIÑA eskaiñi eutsan Gasteiz-ko Gotzaindegia, Arabako Foru Aldundia, eta abar tarteko zirala, eta aren jaiotetxeko orman arlandu bat ipiñi eban, idazkun auxe agirian zala:

"EMENTSE JAIO ZAN JAUN  
ARGITSU ELIZ-MUSIKALARI BIKAIN ETA  
ELIZGIZON BIOZTSU  
VICENTE GOIKOETXEA ERRASTI.  
Aramayo'n 1916'ko Urriaren 22'an"

Begoña, zemendiak/azaroak 22, 1999  
Pedro Puxana Agirregabiria, oletar/arabarrak

# EUSKERA UESKA"KO URIAN XIV MENDETIK XVII"ERA

Esker onez  
Eusko-Jaurlaritzan Kultur-Arazoen  
Arduradun Nagusia dan  
gure MARIKARMEN GARMENDIA Andreari.  
Bere laguntzarik gabe  
ez bait genuan lan au egiterik izango.

Badira urte batzuk, Euskerak Oska edo Ueska urian XVII mendera arte bizirik irauteko izan duan aalmen arrigarriaz Aldizkari ontan bertan idatzi nauala.

Osoki ez, baiñan bazan alare nolabait beintzat ezaguna Euskeraren gaitasun miresgarri ori, RiCARDO DEL ARCO'k "Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos" deritzan Madrino aldizkarian (1913.11.432) Oska'ko Udalak, bere artekarrej —"als corredors"— azokan salerosketak Euskeraz legeztatzea "hacer mercaderías en bascuene" galeraziz 1349"n artutako Erabakiaren transkripzio edo berri-dazketa bat argitaratu zuan ezkeru.

Garrantzi aundikoa dala iduritzen zait Euskeraren iraupen miresgarri orj. Ez, bakarrik, gure Erriaren antziñatasuna argitzeko, baizik eta, baita, Aragoi'ko edes-tiaren sustraiak egokiago, jta zintzoago! ezagutzeko ere. "ARA"- "GOI" —atzizkiz "ARA"- "GOIA"— jzenean bertan bait darama Aragoi"ek bere jatorrijko euskaldun-tasunaren adigarri nabari ukaeziña.

Guzi orrek eraginda, Oska'ko urira maiz joana nauzute. 1999"garren urte ontako Ekaiñillez azkeneko aldiz. Atutxa'tar Paul eta Latxagátar Joxemari eraman nituan nerekin. Biak dira Euskerazaintzakoak: au, osoa; ura, laguntzaillea.

Ondo jakiña dan lez, Latxaga Frantzi"ko Ikastetxe Nagusietan iru Doktoradutza irabazitako laguna dugu: Teologizkoa, Antropologizkoa, eta Izkuntziztikoa. Azkeneko au Sorboná n. Ez nuan noski nolanaiko-laguntzaillea, orrelako gizon bat, Oska'n egitea pensatzen nuan lanerako, ots, urj ortan Euskerak izan zuan bizkortasuna aztertzeko (1).

Bizkortasun orri-buruz bagenekigun OIHENART"ek bere "Notitia Utriusque Vasconiae" deritzan liburuaren bidez XVII mendean aldarrikatu zuanari eskerrak,

---

(1) Zoritzarrez, —osasan arras makaleko mutila bait dugu Latxaga—, soilki aste batez egon aal izan zuan lanean, eta berriro Oska'tik Donosti'ra itzuli bearrean aurkitu zan. Izan zan ori, neretzat, galera, galanta!

Oska"ko mendietan, bai, Euskera erdiarohan ez eze aroberrian bertan epe luzez itzegin zala.

Guk, ordea, noiz arte itzegin zan jakin nai genuan, eta, bereiziki, noiz arte, Oska Uri berbereko enparantza ta karriketan.

Azkeneko ibillaldi onen aurretik, nere aurreneko urratsa, RIARDO DEL ARCO'k argitaratutako "Ordenanza" edo Oska'ko Kontzejuak emandako "Agindu" zar berberaren fotokopi bat Oska'ko Udal-Artxibura eskatzea izan zan.

Atsegin aundiz argitaratu nai dut emen, andik jaso nuan erantzuna. Eta ori, arrazoi bigaitik:

Bata, On FEDERICO BALAGUER aipatzearekin, neri, Jaun txit jakintsu orrekin arremanetan jartzeko bidea eman zidalako.

Bestea, XVII mendea mintzatzerakoan, ordurako ere naiko aundia zan nere jakin-naia anitz aundiagotu zidalako.

Ona emen andik jaso nuan eskutitz orren mamia:

"Excmo. Ayuntamiento de Huesca. Archivo Provincial: 4 de noviembre de 1996. Nos dirigimos a Vd. para indicarle que, después de haber consultado al anterior Archivero y Cronista Oficial de la Ciudad, D. Federico Balaguer, podemos proporcionarle la siguiente información: la cita que Vd. hace sobre el conocido texto de las ordenanzas municipales de 1349, cuya fotocopia le enviamos, se halla en el "manuscrito n° 2" de este archivo. La prohibición se re.ite en .osteriores ordenanzas hasta Ile ar al silo XVII" (azpimarraketak nereak).

Ona berriz, orain RICARDO DEL ARCO'k argitaratu zuan bezala, Oska'ko Kontzejuak agindu zuanaren itxura:

"Itero nuyt corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas faulando en algarabia ni en abraych nin en basquenp; et qui lo fara pague por coto xxx sol".

Idazki zar ortan izkera laukoitzeko uri agertzen zaigu Oska XIV mendean: elizgizonen eta gizakume ikasien LATINA aipatzeke ere, bai bait dira lau an itzegiten ziran eleak: EBERKERA (abraych), ARABIERA (algarabia), Euskera (bascuenq) eta, jakiña, oraindik sortu-berria zan Aragoi'ko ERROMANTZEA.

Laukoitzasun orrek askoz merezimendu geiagokoa egiten du Euskeraren mendeak-zeako irauomena, ezpairik gabe, naiz laueta errikoiena bai, kulturaren eta elertiaren aldetik bera bait zan eskierki txiroena.

Eta, askoz aundiagoa gertatuko zaigu oraindik Euskeraren irauomen orren arrigarritasuna, onoko au gogora erakartzen badugu: Oska, Krist'aurreko II mendearen azkenaldetik eleketa bat baiño geiagoko uria izan zitzaigula, eta SERTORIO'k, Sila Erromako Diktatorearen aurka 82"-tik 72"era koldarki erailla izan zan arte amar urtez garaille egindako gudaeen, Oska bere lurraldearen Uri Nagusi biurtu zuala, bertan Senatu bat eta Latiña ta Erromáko Kultura erakusteko lkastetxe Nagusi bat eratuz ta era ortan OSKA "Bigarren Erroma" biurtu zuala.

Alatagutziz, ez zuan Euskerak, an, bere bizirik galdu.

Ta, ez askoz geroago, JULIO ZESAR'ek, Ispani"ko Jaurle izanez gero, Ispani"ko uriek azokarako argitaratzen zituzten txanponak Ispanietako izkeraz idatzirik ateratzea galerazi zuan.

Ez dirudi, ordea, bere debeku orrek eragin aundia izan zuanik, Euskaljerri zarreen bertan, Oskan'n, adibidez, dirua IBERIERAZ idatzirik argitaratzen jarraitu bait zuten.

Iberieraz daude idatzirik Euskalerriko beste "txanpondegietan" tajutu ziran diruak ere, "Bascunes" itza daramatenak, adibidez (2).

Txanpon oiek danak iberieraz ornen daude idatzirik. Ala jzafen da, baiñan nere ustez Euskerazkoa da izki-ikur (3) iberiar oien bidez eman nai izan zan mezua.

Beraz, Euskalerrri Zarrean agertutako txanpon oiek Euskeraz idatzirik daude, naiz iberkeraren izki-ikurrez idatzirik agertu. Orregaitik, ikerlari guztiek idazki oien esannaia igartzeko Euskera erabilli oi dute. Eta zitu bikaiñiak jasoz, gaiñera, beraiek diotenez. ¿Nola ez?, idazki oiek euskaldunak diralarik!

Ez gaitezen esan dedanaz arritu: euskaldunok ez bait dugu beiñere, idazteko, gure jatorrizko izki-ikurrik izan. Alboratu zaizkigun izkerenak artu izan ditugu beti: Latiñarenak orain, Arabierarenak lenago, aiek menderatu zuten Euskalerrriaren zatietan, eta leenago oraindik, ¿zergaitik ez? txanpon auek azoketara agertu ziran urteetan, iberkerarenak.

Itxuraz, JULIO ZESAR"en jardunkerak et zuan Oska'ko errikideen artean indar aundirik izan; dirua betiko eran sortzen jarraitzeaz gaiñera, itzegiten ere len bezala Euskeraz itzegiten jarraitu bait zuten, ori adierazten duala dirudi ba, askoz geroago ere, XIV, XVI, eta XVII mendeetan uri artako Jauntxoek beren buruak eta bere erro-mantze maitea Euskeraren erasotik babesteko artu bear izan zituzten neurriak (4).

Alare, naiz Oska"ko Jauntxo aien agindua Euskeraren aurka emandako lenen legea izan, ez zitzaizen lege ura gero emango diranak bezain gogorra atera. Ez beintzat gure denbora auetan ezagutu dugun bezain anker, zipotz, eta koldarra.

Ikus:

- 1349"ean Oska'ko Udalak emandako agindu ura ez zan Oska'ko erriarentzat emana izan;

---

(2) Ez dakit esan dedan gaurko Ueska OSKA izendatu zutela erromatarrek. Zalantzan ibilli naiz idazlan ontan zer izen erabilli, oroitzen bait nintzan, Lekuona Zarrarentzat Ueska ta Eusko izen bat bera dirala. Oska erabiltzea erabaki dut idazkera zarrenganako eraspenez. Oskan tajutu ziran txindiek BOLSCAN daramate idatzirik, baiñan itz orren baitan dago izkutaturik OSKA: BOLSCAN. Azkeneko "N" ori atzizki toki-adiarazle euskalduna izan daiteke: OSKA'n. BASCUNES itzari dago-kionez, agirian dagon gauza da beintzat BASCONES itzarekin duan antza. "Nekerik txikienaren" legeak eraginda, izkuntza guztietan O errez biurtzen da U. Alderantziz, lege beraren araura, U ez da ain errez O biurtzen.

Baleike ordea, ordurako, O, euskaldun aien agoskeran U biurturik egotea, eta izen ori, Baskones, beren txanponetan, agoskatzen zuten bezala BASCUNES idatzi izatea. Zaillagoa zaigu azkeneko "S" ori zer izan daitekean igartzea. Iberiarrak ez ziran indeuroparrak. Bai ordea Keltiarrak, eta lurralde artan zebiltzan auek ere Keltiberitarren enda osotuz. ¿S ori, gaurregungo Inghlanderarena bezala "genitivum germanicum" bat ote da? Orrela ba'litz BASKOIARENA izango genuke txindie-tako BASCUNES ori.

(3) "Izki", "parte de la palabra"; "ikur", "signo". Ortaz, egokia derizkiot "Itz-Ikurra", gaztelerazko "letra escrita" euskeratzeko.

(4) "Nere ustez", ez zuten, agian, 1349"an Oska ko Kontzejukoek eta geroago 1561 "ean Kofradi'ko Zuzendariak, Euskera ezabatzerik billatzen. Oska izkuntz askoko uria izanik, bearbada, adminis-traketa errezagotzeko ez zuten dokumentu ofizial guztiak izkuntza bat berean idazteratzea beste-rik billatzen. Baiñan ori besterik ez ba'zan billatzen zutena, ¿zertarako zinketa aiek, eta alako inda-rra-erabilli-naia?

- Soilki Uriko "azokarako" baizik.

- Ta, azokaren barruan ere, soilki artekarietzat, ots, Udal beraren langille ziran gizakumeentzat; ez azokara saltzera edo erostera urbiltzen ziran jendeentzat.

- Ta, ainzuzen, ez da Euskeraz itzegitea (faular en bascuenc) artekarietara galarazten zaiena. Galerazten zaiena soilki salerosketak Euskeraz legezkatzea bait da (facer mercaderia ninguna).

Bearrezkoa derizkiot "facer mercaderia" orren zentzua pixka bat argitzea, dakarren zentzua ez bait da, itz oiek berez dutenari estuegi lotuz, guk gaur emango geniekena. Artekarietara ez dute ba beraiek ezer saltzen ez erosten. Beste batzuek beren artean bitartekari gabe saltzen eta erosten dutena, edo artekari beraien bitartez saltzen eta erosten dutena legearen indarrez sendotu besterik ez bait dute egiten.

Orixe adierazten digu Udalak erabili zuan esaerak ere: "mercaderia que compre nin venda" esatean, "salerosketako ekintza", ots, gaztelerazko "operación de compra y venta" bait zan itz oien bidez esan nai zuana, eta "facer mercaderia ninguna entre ningunas personas" esatean, berriz, -artekari beraiek salerosketarietara egiten ez duten ezker- , "beste pertsonen artean egiten ziran salerosketak legezkatzea izan zan (saleroslei) debekatu nai izan ziena.

Eskierki, artekari aiek, beren eginbearra betetzeko, ots, Oská n egiten ziran salerosketak legezkatzeko, luma ta papera erabiliko zituztela uste izatekoa da. Idatzi guzti aiek, jakifia, galduak ditugu. Ez nolanaiko galera Euskera maite dugunontzat eta mundu zabaleko izkuntzalari euskerazaleentzat. Idatzi aiek izango bait ziran Euskeraren dokumentu idatzirik zarrena, Baskoni eta Aragoi'ko aurreneko izkuntzaren lenengo pitxiak (5).

Galde bat gelditzen zaigu, oraindik, erantzunik gabe: Onako au: Oska'ko Kontzejua ainbeste kezkatzen- ¿eta bildurtzen?- zuan "bascuenc" ura itzegiten zuten gizakume aiek ¿nor ote ziran?, ¿nongoak ote ziran?

Erantzun ezberdin asko jaso nuan antxe bertan oskatarren ezpaitatik. Ona jakingarrienak:

1°. "Naparroatik etorritako argiñak ziran. Argiñ aiek, Euskeraren bidez, emengo jendea atziptzen zuten, dirudianez, eta ori eragozi nai izan zuan Kontzejua".

Baiñan,

- Alde batetik, zail izanen zitzaien noski argiñ aiei erriko jendea Euskeraren bidez atzipetzea, auek, erdaldun utsak ba'ziran, edo berdin dana, Euskeraz ez zekitelako argiñ aiek esaten zietena ulertzeko gai izan ez ba'ziran.

Beste alde batetik, naiz Oska Probintziko eliz eta jauregietan lan egitera etorritako argiñak, dokumentu asko ta askok adierazten digutenez ugari —anitz ugari— izan, argiñ aiek ez ziran multzoka bat-batean etortzen, egunez-egun eta bakankaka baizik, eta, Kontzejua-baitan alako kezka sortarazteko aifia ez ziran beñere urian alkartu.

- Gaiñera, Kontzejua bere erabaki artan argiñak jaipatu ere ez zuan!

2°. "Probintziko landa ta mendietako nekazariak ziran: azokan uritarrei beren abere ta barazkiak saltzera etorriak".

- Ori bai, ori ezpairik gabe egia da. Urira zer-jana saltzera etortzen diranak nekazariak izaten bait dira. Aiek uriko jendeari zerbait saldu al izateko, bearrezkoa da, ordea,

---

(5) Euskerak iru izakera ditu: Sortaldekoa (Zubero-Erronkari'koa), Erdikoa (Gipuzku-Naparru-Laburdi'koa), Sarkaldekoa (Bizkai'koa). Irueta'tik ¿zein ote zan Oska'n itzegiten zana? Nere ustez, iparreko arantetan Erronkari'tik aruntz, Sortaldekoa, Auñamendiaren alde bietan lez. Egoalderago, Oska urian eta uriaren alde bietan, Erdikoa, Naparroa'ko euskaldunek eman oi dioten doiñuz.

uriko jendeak aiek esaten diena ulertzeko gauza izatea. Ekonomiazko esakeraz, Oská'n ESKAINTZA ("oferta") EUSKALDUNA bazan, ESKEA ere ("demanda") EUSKALDUNA izango zan; naitanaiez, salerosketak aurrera aterako aal ba'ziran.

- ¿Agian keiñuen bidez alkar adituko zutela? Kontzejuak ez zuan keiñuka ibilzerik galerazi. Itzegitea, ("faular") galerazi zuan: ("faular en bascuenp")

3°. "Edonundik, baita Naparroa'tik ere, Uriko "feri" edo azoka nagusietara etorritako jendeak ziran. Ainzuzen azoka nagusi oietarako emana izan zan Kontzejuaren agindua, eta bertan aipatzen diran artekariak, artekari bereziak dira, "azoka nagusietarako artekariak".

- Baiñan Kontzejuaren "Ordenanza" ark, naiz luzea izan, —50 atal bai bait ditu—, iñon ere ez du, ez alako "feri" aien aipurik egiten, ez aipatzen dituan artekari "artekari bereziak" edo "ferietarako artekariak" esaten.

Eztare, ez du orrelakorik egingo laister aztertuko dugun 1561 "ko dokumentuak. Beraz bi dokumentuetako eta bi dokumentu oien denboretako artekariak berdin-berdiñak dira: Egunero Oská n lan egiten zuten artekari euskaldunak.

¿Euskaldunak... artekariak ere? Bai noski, bestela ez bait zitzaien Euskera erabiltzea debekatuko.

4°. "Oská moroengandik yaretu zanean, Jaka-aldetik etorritako menditar kristauak dira 1349'ko Ordenantzak aipatzen dituanak. Antziña-antziña, bai, Euskera itzegiten zan Oská'n baiñan, aurrena erromatarrek, gero bisigotak eta azkenik moroak etorri ziran ezkerre, Euskera zearo galdurik zegoan. Oská yaretu zuten On Santxo eta On Pedro erregeen gudariak dira Euskera berriro ekarri zutenak, eta uritik moroak bidali-ta bertan bizitzen gelditu ziralako, menditar aien belaun-ordekoak ditugu 1349'an Oská Urian bizi ziran euskaldun aiek".

- Egia da On Santxo Erramirorena" k Oská ri ekin zionean eta On Pedro Santxorenal< menderatu zunean, Oská ren iparreko biztanle danak —eta ondorioz, bi Errege ajen gudari danak— euskaldunak ziralak. Eta baita Errege bi aiek ere. Ez bait dugu aztu bear biak Naparroa'ko III Santxo "Aundia ren odolekoak ziralak: billoba On Santxo, (orregaitik ainzuzen zeraman aren izena), eta birbilloba On Pedro, eta bai ura eta bai au Aragoi'ko Errege ez eze Naparroako Errege ere bazirala.

- Baiña... erromatarrek, eta bisigotak, etorri ziranean, ez zan Oská'n jende-aldaketarik izan.

Ezta arabitarrak etorri ziranean ere. Ez zuten bertan aurkitu zuten jendea erail, edo uritik jaurti, eta aien ordez beraiek an bizitzen jarri. Bertako jendeak bertan jarraitu zuan. Jauntxoek eta gudaiburuek bakarrik izan ziran aldegin zutenak. Etorri-berrietatik soilki agintariek eta gudaibururen batzuk izan ziran, beren babesperako bearrezkoak zituzten gudariekin Oská'n gelditu ziranak.

- Ala, Oská'n, uriko jendea, beti, enda eta izkuntza berekoa izan zitzaigun: euskalduna.

- Ez zan jende aldaketarik izan On Pedro Santxorena Oská'n sartu zanean ere. Milla aldiz entzuna izango duzu, Espáñi'ko edestia-zear ain aipatua izan dalako, "reconquista" itza, Espáñi'ko liburuetan anitz goi-goratua, ta sagaratua! Sarkaldetik eta sortaldetik asita egin zan "lur-galduen-bir-nagusi-biurtze" ura. Sarkaldetik, Asturi-Leon-Gaztelako erregeen eragiñez; Sortaldetik, aurrena Euskalerrriaren eta gero Aragoi'ko erreñuaren ekitez.

- Gauza bat da edesti-liburu espáñiarretan esaten ez dana: "lurrarenbir-nagusitze" aren izpiritua ez zala berdiña izan sartaldean eta sortaldean.

Sartaldean, Asturietako erregeak, bisigotak ziran, oso-osoki "inperialistak", eta aien asmo bakarra, lengo ERREIÑU BISIGOTA birregitea izan zan, ortarako etsai guztiak, arabitarrak adibidez Afrika ra jaurtiz, eta ori lorkaitza gertatzen ba'zitzaien,

danak —eta, inola ez? bisigotiarren etsairik gogorrenak izan ziran euskaldunak ere-  
ankapera menderatuz.

Arabitarren aurka bezala, Euskaldunen aurka ere borrokan ibilli ziran; eta izpi-  
ritu orrekin jarraitu zuten Gaztela'ko erregeek ere, ta Aragoi'ko erreñuari ez zioten  
beññere begi goxoz begiratu.

- Ez zan ori izan gudari ta Errege kristau sortaldetarren izpiritua. Euskaldunek,  
galdutako lurraldea berrirabaztea billatzen zuten. Berdin Naparroa'ko erreñutik  
jaiotako Aragoi'ko erreñuaren erregeek ere; bai beintzat emen erregeak baskoien  
endakoak eta baskoien pentsakerakoak izan ziran bitartean. Euskotarrak izanda-  
ko lurrak —oszitarren eta ilergetarren lurra— irabaztea izan zan Aragoi'ko lenen  
Errege euskaldun aien elburua.

- Naparroa'ko eta Aragoi'ko Erreñuetan moroak ez ziran gorrotatuak izan ezta  
zigortuak eta lapurtuak ere. Uri bat galtzen zutenean, buruzagiek eta Jauntxoek  
bakarrik aldegiten zuten, eta aiek utzitako lekua, buruzagi eta jauntxo kristauek  
artzen zuten.

Erriko jendea bertan gelditzen zan, Errege kristaurekin dokumentu idatzien  
bitartez beren eskubide eta bearkizunak antolatuz gero.

Oroi aztertzen ari geran bi dokumentuek Oska'ko artekariei salerosketen  
legeztaketa, Euskeraz ez ezê Arabieraz ere egitea, galerazi ziela. Ori, bai noski,  
"arabitarra" Oskan jarraitzen zutelako adigarri zorrotza dugu.

- Gaiñera, On Santxo'k eta On Pedro'k Oska'ko Urira sartzekoan an aurkitu  
zituzten "moroak", naiz erlijioz musulmanak, endaz On Santxo, On Pedro, eta  
auen gudariak bezain euskotarrak ziran eta aiek bezain euskaldunak.

Oskan eta Ispanietako Erdi-Ugarte guzian, arabitarrek arrapatutako beste  
lurralde danetan bezala, jendea, ia-ia dana, musulman egin bait zan eun urte  
baiño leenago. Oso gutxi izan ziran ba kristau jarraitu zuten "mozarabitarra",  
naiz izen eta eraginmen aundikoak bai.

"Al cumplirse el siglo de la conquista, la inmensa mayoría de la población his-  
pano-visigótica había abrazado el islam" (Diccionario de Historia Eclesiástica de  
España, III, 1747. Azpimarraketa, nerea)

Al, ta Arabiarren menpera jausiz gero "moro" biurtu ziran euskaldunak, ostera  
Errege kristauen mendera itzuli ziranean, kristau egin ziran berriro. Oraingo ontan  
ere, lengo artan kristau jarraitu zuten "mozarabeak" bezala, oso gutxi izan ziran  
musulman jarraitu zuten "mudejarrak", naiz auek ere bai eraginmen aundikoak,  
erti-lanetan batez ere.

- Arrisku geiago darama, nere aurka, On Pedro Oskan sartu zanean uri ada-  
ko jende errikoia odolez bakarrik ez eze izkeraz ere On Pedro bera ta bere guda-  
riek bezain euskalduna zala esatera ausartu izateak.

Ez dut alare ori esatea logikaren arauen aurkako jardunkera izan daitekeanik  
nere ustez XIV mendean eta baita XVI'ean ere bizirik jarraitzen zuan "algarabia"  
ura, soilki "arabitar" aberatsen eta jakintsuen izkuntza izan bait zan musulmanak  
Oskan egon ziran aro guztian. Iduritzen zaitenez, erriak, erri landerrak; naiz  
musulmana bihurturik egon, Euskeraz mintzatzen jarraitu bait zuan beti.

Oska 'ra azkar iritxi ziran arabitarra, Ego-Ispani'n oiñak ipiñi zituztenez gero,  
baiña, ez zuten an bikaintasun aundirik lortu, IX eta X mendeetan Muskari'ko (arabi-  
tarren Tuterako) BANU-KASI sendi erdieuskalduneko erdi-errege indartsuek Oska  
beren babespean adu zuten arte; batez ere sendi altsu ortako II Muza k, oskatarrak  
beregianatu zituan ezkerro. Gero, Aragoi'ko Erreñu jaioberriko gudari euskaldunek XI  
mendean adu zuten Oska: 1085'ean inguratu zuan Aragoi'ko I eta Naparroako V  
On Santxo'k eta 1096'ean artu, Naparroako ta Aragoi'ko I On Pedro'k.

Berriro gogora ekarri bear dugun gauza da Arabitarren aroan ere, txit ugariak eta arras adiskidetsuak, eta la beti paketsuak, izan zirala Oska"ko inguruko jendee-kin izan zituan arremanak: alde guztietatik euskaldunak zituan landa ta basoeta-ko aberezain eta nekazariekin, gaiñ-gaiñean Prepirineo edo Auña-Aurreko mendietan, zeuzkan Aragoi'ko Konterri"ko biztanle orokorki euskaldunekin, erdi-euskaldunak edo bai beintzat erdi-euskotarrak ziran Banu"Kasitarrekin, eta baita Auñámendi"z aruntzko "frankiarrekin". Auek ere, lurralde luzez eta zabalez, ¡zearo euskaldunak, garai artan!

Ez du noski iñork ezbaiean ipiñiko Espasa iztegiaren epañizaletasuna. Ikus ba iztegi ospetsu orrek zer dion: "El contacto entre ambas vertientes de los Pirineos era mayor y más constante que el que por largo tiempo se ha creído".

Ez gaitezen ba zalantzetan gelditu. Ez da arrazoiaren aurkako gogoeta, Oska"ko "moroak", odolez euskotarrak ziran "moro" aiek, izkeraz ere euskaldun jarraitu zute-la uste izatea, batez ere arazo ta arrisku guztien gaindik bizirik jarraitzeko Euskerak duan aalmen zoragarria begien aurretik galtzen ez ba' dugu!

Oska"ko "moro" aiek Euskerarik ez galdu izateaz arritzen danari onako au gogoerazi nai nioke nik: Aztertzen ari geran 1349"ko dokumentu onek eta berea-laxe aztertuko dugun 1561 "koak erakusten digutenez, bizirik jarraitu zuan Oska"n "algarabia"ko, ots, arabierak. Ortaz ez zaigu españizale bat ere arrituko.

Ba, "moroek" Oska artu zutenetik III Felipe"ko "moriskoak" Españi"tik jaurti zituan arte "algarabiak" uri artan AMASEI MENDEZ bizirik jarraitu izateaz arritzen ez dana ¿zer dala-ta arritu daiteke, moroek Oska artu zutenetik I Pedro'ren eskuetara galdu zuten arte, Euskerak IRU mende t'erdiz bizirik iraun izateaz?

- Oskátik itzulita-gero jaso dut, era isekagarrian esana, Aragoi'ko gauzen azterketan aritua omen dan arabar baten ezpaiñetatik, uri artako euskaldun zar aiei-buruz azalpen bernia:

"Talde koxkor bat izango zan Oska;n 1561 "an Euskeraz itzegiten zuana. Araba'n ere izango dira lau, bost sei, inglanderaz dakitenak, baiña orrek ez du Araba'n inglanderaz itzegiten dala esateko eskubiderik ematen".

Aurkakunde erreza duan azalpena: bai noski. Araba'n izango dira inglanderaz dakiten lau, bost, sei. Baiñan lau, bost, sei oiengaitik ez da Araba'ko Aldundia kezkatuko, eta ez da lau, bost, sei oien aurka legeak eta aginduak ematen eta erabaki zorrotzak gertutzen asiko.

Ba, ez ziran Oska'ko Agintari eta Jaun altsu aiek ere, lau mende luzeen epean orrelako neurriak artzen ibilliko Oska'n Euskera itzegiten zutenak soilki lau, bost, sei izan ba'lira.

Igaro gaitezen orain Oska'ko Probintzi-Artxiboan (protocolo 615. folio 13 y) gordetzen dan 1561 "ko dokumentu orri ikustaldi bat ematera.

Bertan, baratarj edo notario baten aurrean Uriko Salerosleen Kofradiak arteka-rj berri baten izendaketa nola egin zuan jakiñerazten digu: guri, ordea, ajola zai-guna, auxe besterik ez da: artekari arri, beste artekari guztiei ordura arte bezala, Euskera ERABILTZEA DEBEKATU zitzaiola.

Dokumentu onen doiñua aro artako barrokeraren girokoa da: naasia, birresat-kezetaz, ots, gauzak-alperrik-bi-aldiz-esaten-ibiltzez, eta aunditasunkeriz betea. Sarrera, aro artako baraterien idatzi geienek bezala, latiñez du:



"Osce (6). Die XXX aprilis anno MDLXI. \ eodem die llamado convocado y ajuntado el \ capitulo de los magnificos los priores \ confrades de la confradria bulgarmente dicha de los \ mercaderes de la Ciudad de Huesca so la invo \ cation de Nuestra Señora de Salas y del señor \ Sant Francisco..."

Ez dut idazki zar orren astapena oso-osoa, arrazoirik gabe jaso, idazkia Oska"ko Probintziarena ez baiña Oska"ko Uriarena eta Oska"ko Uriarentzako dala ederki adierazten bait digu. Gero ere, idazki osoan ez bait da bein bakar batean Oska'ko Probintzirik edo Probintzi ortako erri bat bakarrik aipatzen.

Bere astapen orren bidez zintzo agertzen digu, beraz, Oska"ko Salerosleen Kofradia oraingoan esatera ta agintzera zijoan guztia —1349"ko arek esan eta agindu zuan guztia bezala— Oska Urirako bakarrik esana eta agindua izan zala.

Ortaz, bai au eta bai ura, Oska URIKO dokumentuak ditugu, Oska URIAN idazkiak, Oska URIKO erakunde biren (Udalaren eta Kofradiaren) eskariz, Oska URIKO artekarientzat, eta Oska URIKO azokaren jardunkearako sortuak.

Aundinaikeriaren aizea, dokumentua Batzar artan artutako erabakiak aurkezten asten danean dagerkigu berriro:

"Et así, todo el dicho capi \ tulo de aquella a capitulo llamados \ convocados y llamados capitulan \ tes capitulo hacientes tenientes cele \ brantes y representantes todos confor \ mes..."

Eta besterik gabe agindu guztietan nagusiena ematera dijoakigu: Salerosketak legeztatzerakoan Euskera erabili aal izateko debeku. Orokorra. Au omen da ba artekariak egin bear dutena:

"Habrà de hacer tratos lícitos y no prohibidos, \ y hacer relación y memoria de los tratos \ y conciertos que se harán, y que en los dichos \ tratos no se hará parada ni hablará en gerigonza \ bizcayno nabarro ni en el al \ garabia ni en otro estranyo lenguaje \ sino en nuestra lengua materna" (7).

- Berriro, 1349"an bezala, Agindua ez da Oska'ko erriarentzat, eta ez du Euskeraz itzegiterik galerazten. (Oraingo onek ez zezakean orrelakorik egin ere, au ez bait da beste ura bezala Oska'ko udalarena, Oska"ko sal erosleen Kofradiarena baizik).

- Orduan bezala, oraingo au ere soilki artekarientzako da: Udalekoentzat ura, Kofradikoentzat au.

- Artekariak ere, ez orduan ez orain, ez zaie, ez karrketan ez azokan bertan, Euskeraz itzegiterik galerazten; salerosketak Euskeraz legeztatzea baizik.

- Ez da berdiña ori adierazteko bi dokumentuek darabilkiten izkera: "hacer mercaderia ninguna entre ningunas personas", 1349"ko arek; askoz argiago l 561 "ko onek: "hacer RELACION y MEMORIA de los tratos y conciertos".

---

(6) Rosa Ayerbe paleografilarik gipuzkoarrak egin du dokumentu onen idazkera zarretatik idazkera berri-rako aldakuntza, nere eskariari erantzunez. Berari darraikiot nere idazlan ontan. Berak "OSCE" ori ez du jaso, eta ez da arritzekoa, dokumentuan idatzirik dagoan bezala geiago bait dirudi zentzurik gabeko marraketa edo orduango baratarien ikur bat zentzudun itza baiño. Berez "OSCAE" bear zuan idatzirik, latíñezko genitibu toki-adierazle bat bait da. Bere esannaia, "Oska""n da. Nik aurreneko lerroaren asieran ipiñi dut. Dokumentuan, lerro orren gaiñekoan dago, bera bakar-bakarrik.

(7) "Parada" . Orrela, dagoan bezala, itz laguntzaillerik gabe, idazki ortan dakarren zentzuan Erroman-tze Aragoitarretik artua izan bear du. Zentzu berori eman aal dezan, Gaztelerak "mala" aurre-ipin-tzen dio: "mala parada". Beraz, gure idazki ontan, "que en los dichos tratos no se hará parada" orrek, artekariak "beren ariketan zikinkeririk ez dutela egin bear", esan nai du.

- Ori beteko zuala, ziñegiñez agindu bear izan zuan 1561 "an artekarigai berri batek. Dokumentu au Kofradiaren artekari izan nai zuan gizaseme orok, onartua izateko bete bear zituan baldintzak adierazteko izan bait zan idatzia.

- Ona, berriz, nere ustez dokumentu guztian gauzarik garrantzitsuena:

Zinketa ori ez zala oraingo artekarigai onentzat bakarrik asmatua izan. Aldeantiz, artekarigai guztiak zeudela zinketa ber-berori egitera beartuak.

Garbi diosku ori dokumentuak berak: Artekari berriak egin zuan zinketa "el juramento acostumbrado de los otros corredores" zala, esaten bait digu, eta zinketa orren bidez artekarigai berria "a tener todas las otras cosas que la dicha correduria tiene de obligaciones et que LOS OTROS CORREDORES son obligados a tener, servir y cumplir" bearturik gelditzen zala.

- Orrek; neretzat beintzat, au esan nai du: 1349"tik 1561 "arte, XIV, XV eta XVI mendetan Euskeraren aurkako lege ori indar bizian egon zala Oska'ko Urian, eta, alatagutziz, Oska"ko urian, Euskerak, bizirik jarraitu zuala! Eta ori bada noski zerbait, Euskerak, edozein giropean bizirik jarraitzeko, bere-baitan daraman kemen miresgarria lotsarik gabe goraiatu aal izateko!

- Ta... ¿ez ote du beste zerbait ere esan nai? Alegia, aundia zala, Oska Uriko agintarien eta "indar bizien" (barkatua bekit gazteleraikeri txolin ori) Euskeragana-ko kezka? Danadala, au beintzat adierazten digu: ez zala nolanaikoa iru mende aietan Euskerak Oska Urian izan zuan indarra.

XVI mendeko dokumentuan ez da "Abraych" edo Eberkerarik agertzen. 1492"ean Ispanietatik jaurtiak izan bait ziran juditzak, Errege Katolikoen aginduz.

Eta On Federiko Balager adiskideak agindu didan, XVII mendean Oska"ko Euskerari-buruz itzegiten duan dokumentua 1609"z ondorengoa bada, ez da bertan "algarabiarik" ere agertuko, "moriskoak" urte ortan izan bait ziran III Ferlope'ren aginduz Ispanietatik uxatuak.

¿Zer geratuko ote da ba XVII mendeko Oska'n, bertako jendearen ezpaiñetan bizirik? Gaztelera, guztiaren jaun eta jabe, eta Aragoi'ko Erromantzearen ondarrak: eta Euskera, Oska'ren jatorrizko izkuntza, gazteleraizko ugalde oro-porrokatzailearen azpian ere miresgarriki oraindik iltzeke!

Badira 1561 "ko dokumentu ontan iru esakera arrigarri: "gerigonza", "lenguaje extraño", eta "lengua materna".

- "GERIGONZA"!!! Besteren lepotiko lotsa suma dezake edozeiñek itz ori dokumentu ortan irakurtzerakoan! Sumatu bear luketenek sumatzen ez dutelako, aiek ez sumatzeagaitik guk naitanaiez sumatzen dugun lotsa mingarria.

"Gerigonza" zer dan gauza jakiña da: gaur "jerga" esan oi zaion izkera traketsa. Berez, "gerigonza", —orain "jerigonza" idazten da—, itzak ez du iñori zergaitik lotsarik sentierazi. Baiña kulturik gabeko jendillaje arlotearen izkera esan nai dualako eta mai-zenik izkera trakets ori naskeriz eta lizunkeriz orbandurik agertzen dalako, oso zentzu makurra erantsi oi zaio beti itz orri. Eta, ondorioz, onako, olako, edo alako izkuntza "jerigonza" bat dala esatea, izkuntza orri iñork egin lezaoikean iraiñik aundiena egitea da.

Ba zentzu makur ori guztia dakar 1561 "ko dokumentu ontan itz orrek: i"gerigontza"! Dokumentu ortan "gerigonza" Oska"ko Salerosleen Kofradiko zuzendariek Aragoi"ko Erromantzeari esaten bait diote!

Ez zaitez arritu. ¿Zenbat aldiz ez duzu zuk entzun españiar erdaldunen ezpaiñetatik gure Euskera onuragarria "UNA JERGA" besterik ez dala? "Un galimatias" dala. "Un guirigay". "Un chapurriau"!

Oska'ko Jaun aiek, ordea, "gerigonza" galerazterakoan, ez zan kultur-ororen-aurkako "jerga" izkelgaitz orren erabilketa beren artekarietara debekatu nai zieten, bazekiten ba, mordollokeri baldar eta naiko zikin ori ez duala iñongo artekari ofi-

zial batek oiturazkoa lez dokumentu ofizialak idazteko erabiltzen. Ta, bai 1561'eko onek bai 1349'ko arek, bi dokumentuek, beren artekarri ofizialei zer izkuntza ez erabili agintzen dietenean, oiturazkotzat errez erabili daitezkean izkuntzak dauzkate buruan.

Orrela, Jaun aiek "gerigonza" izendatzen duten izkuntza beraien izkuntza berbera da: Oska'n bertan, eta Oska'ren inguruan, Jaun beraien gurasoek sortu zutena, eta beraiek ere umetan beintzat eta seguruaski ori idatzi zuten unean ere beren etxeetan eta karrika ta enparantzetako lagunartean mintzatzen zuten izkuntza: Aragoi'ko Erromantze onuragarria! Izkuntza onuragarri ori bait da beste izkera arlote, baldar, mordoillo eta maiz aski lizun aren kide egiten dutena!

Orregaitik, 1349'ko larruki ark ez die, artekarie, "gerigonza"rik galerazten. Dokumentu ura, ain zuzen, Erromantzez idatzia bait dago. "Gerigontza" bazan orduan ere Oska'n, jende arlotea-baitan. Erdiaroan, "sermo rudis" edo "vitiosa locutio" esan oi zioten mordollokeri ori arras bait zegoan zabaldurik. Baiñan Oska'ko Kontzejuko Jaunek ondo zekiten beren artekariei dokumentu ofizialak mordoillokeri ortaz idazterik ez zitzaiela sekulan burura etorriko.

Gaurrengungo oskatarrek bai, lotsaren antzeko zerbait sumatzen dute beren baitan-da, dokumentuko "gerigonza" ori ijitoen izkera izango zala, esan didate. Orrela D. Federico Balaguer adiskideak ere.

Ez, ordea, ez. Ez da ijitoen izkuntza, ijitoak diru-arazoen zuzenketarako, iberei-ziki diru-arazoen zuzenketarako! jende egokiak, ots, "konfiantzako" jendeak izan daitezkeanik, ez bait du iñongo agintarik, iñongo kofradik, iñongo pertsonak, iñongo iñork sekulan pentsatu ere.

Ijitoak, eta ijitoena daitekean oro, ijitoen izkuntza adibidez, legezko azoka-dokumentuetatik eta beste edozein dokumentu legezkotik at egon dira beti. Aragoi'en batez ere, ijitoak agian beste iñon baiño zakarkiago erabiliak izan diran lurrean!

Orregaitik, txorakeria dirudi Oska'ko Salerosleen Kofradi artako Zuzendariek salerosketa bat ijitoen izkuntzan legezkatua izan zitekeala pentsatzeko gauza izango zirela uste izate utsak!

Batez ere, garai adan, ijitoen adiskide motza zan Aragoi'en, kofradiak, baita politikagintzan bertan ere, oraindik indar aundia zuten erakunde ofizialak zirala gogoratzen badugu.

- "LENGUAJE EXTRAÑO": Izen ori damaie kofradikoek Arabierari, Aragoi'ko Erromantzeari eta Euskerari.

Arabiera, egiaz zan "erbesteko izkuntza". Iguingarriki ibilli ziran ordea Aragoi'en bertan jaio ta azitako Erromantzeari "extraño" "erbestekoa" esan ziotenean. Anitz okerrago oraindik Euskerari izengoiti arbuaiagarri ori ipiñi ziotenean.

Beste Euskalerrietan bezala Aragoi'en bertan, era berean eta garai berean, edestiarreko "arrizar" edo paleolitik'aroen jaio zan eta arrezkero etenik gabe Aragoi'en indartsu bizituz zetorren, eta, geiago oraindik, Aragoi berari nolakotasuna ta nortasuna, ots, azala ta mamia, eta izena berbera eman zizkion, eta izena beintzat oraindik ematen jarraitzen zion izkuntza ¿nola —eta nork!— "lengua extraña" edo "erbestetiko izkuntza" izendatu dezake? Lotsagarria benetan!

"LENGUA MATERNA". Ikusi dugun bezala, jatorriz aragoitarrak zituzten eta bearbada agian umetan beraiek ikasi ta Oska'ko karriketan itzegin zituzten izkuntza biak irainduz gero, "Lengua Materna" esaten diote Gaztelerrari.

Galde au datorkit bat-batera gogora: "lengua materna", non eta Aragoi'en baldin ba'da, ¿Gaztelerriko "lengua materna" ¿zein ote da?

Ez bitez, ordea, Aragoi'ko nere adiskideak, beren Arbaso aien txorakeri oiek dirala-ta, geiegi kezkatu. Aiek bezain txorakeri mardula egin bait zuten berreun

urte geroago gure Euskalerrri ontan "Azkoiti"ko Zalduntxoek" Bergara'n Batzar batean bildurik.

Ezaguna da Gipuzkoa'ko uri ortan sortu zuten Ikastetxe bikain berdin gabea. Bertan, jakaña, gaztelera ez egiñerazi zuten irakasketa guzia. ¿Nola ez, urteetan eta urteetan, soilki latinez irakasten zuten Espainiko Unibersitateetan irakasketa oro "en lengua materna" egin bear zala, ori lortu zuten arte, oiuka ta oiuka ibilli zira-nez gero?

Laister jausi zitzaizen gaiñera itxaroten ez zuten tximista: Eskutitz bat iritxi bait zitzaizen Araba'ren egoaldeko muturrean aurkitzen dan Armiñon izeneko errixkatik: Irakasketa oro "en lengua materna" egin bear dalako ori, egi aundia da. Baiñan Bergara'n "la lengua materna" ez da Gaztelera, Euskera baizik, zion eskutitz artan armiñondar batek.

Larritu ziran "Zalduntxoak". Bildu ziran Bergara'n. Eta asko eta sakonki pentsatu ta asko ta arretaz itzegin eta birritzegeñez gero, onako au erantzun zioten armiñondar onuragarri ari: Bergara'n "lengua materna" ez da Euskera, Gaztelera baizik. Euskera, Bergara'n, "lengua doméstica" da. Parragarria? Ez ote... negargarria?

\* \*

Eman dezagun urrats bat aurreruntz. Esan dugun guzti ori, XVI mendeari dago-kio. Baiñan, ¿XVII"ean ere itzegiten ote zan Euskerarik Oskara Uriko karriketetan?

Oskako Probintzian bai, mende ortan Euskeraz itzegiten zala, zalantza orotik at dagoan gauza da, Oihenart"ek mende ortan bertan "Notitia Utriusque Vasconiae" izeneko liburua argitara eman zuan ezkerero.

Onela bait dio, nik emen "Bi Euskalerrri-erburuzko Berriak" itzuliko dedan liburu ortan:

"Vasconum populi alii citra Piryneum in Iberia, alii ultra Piryneum in Aquitania sedes habent: Citra Pyreneum sun Navarri, Jacenses, Alavenses, Ypuzcoates, et Biscayni. Ultra Pyreneus (sic) Gascones et Vasci".

Euskeraz:

"Erri Euskaldunen Erriak, batzuk, Auñamendiaren alde ontara, (beri"n dagoz. Beste batzuk, Auñamendiaren beste aldera, Akitani'n. Onako auek dira Auñamenditik onuntzakoak: Naparrak, JAZETIARRAK, Arabarrak, Gipuzkoarrak, eta Bizkaitarrak. Auñamendiz aruntzakoak, Gaskoiñak eta Baskoiak" (8)

Itz borobillak dira Oihenarte'n itz oñek. Ezbaiean asteko zirrikurik uzten ez dutenak. Oihenart"ek ongi ezagutzen du Euskalerrria, eta Oihenart"ek badaki bera idazten ari dan garaiean Euskalerrria osotzen duten Erriak zein diran. Eta, zalan-tzarik gabe, ago betez, Erri oietako bat Jazetiarrena dala esaten digu.

"Jazetiarrak", "Jacetani", erromatarrek erabilli zuten itza da. Jazetiar oiek Jaka zuten uri-buru, eta Oskako Probintziaren Iparraldean bizi ziran. Eta ikusi dugun lez, XVII mendean Euskaldunak ziran. Euskeraz mintzatzen ziran; eta, nola gaiñe-

---

(8) "Vaci" idatzi zuan Oihenartek "Vasqui" idatzi naiez. "Baskoiak" , itzuli dut nik, "baskoak" esatea itxuragabekeri bat iruditu zaidalako. "Euskaldunak" esatea, berriz, ez zait egokia iduritu, euskaldunak berak aipatu dituan Erri guztiak diran ezkerero.

ra mintzatu!, Euskal erria osotzen zuten Errietako bat beraġen Jazetania, ots, Oskaren Iparraldea, bait zan!

Oar gaitezen gaiġera Oihenart"ek bere garaieko Euskalerrriaren barruan sartua izateko Jazetania" k euskalduntasuna beste arrazoirik ez zuala, geografiz, eta politikaz, Jazetania ez bait zan orduan "pars Vasconiae", Euskalerrriaren zati, "pars Aragoniae" edo Aragoiaren zatia baizik.

Euskera Jazetani"tik aruntz XVII mende artan ġ noraiġo itzeġin zan Oská ren iparraldean? Zoritxarrez ez zigun Oihenart"ek orrelakorik esan. XVII mende artaz gero ere ġ antxe bertan noiz arte itzeġin ote zan? Ez digu orrelakorik ere esaten. Ez zezakean esan ere, bera edestilaria bait zan, ez, oraindik etortzeko zeuden gertakizunen azti igarlea.

Badugu ordea bi galde oiei erantzuna emango digun gizon egokia. Frantzi"ko Iraultza Nagusian ain izen aundikoa izan zan Garat politikari txit ezaguna.

Jaun ospetsu onek, adiskide zuan Napoleon Bonaparte Inperatoreari, Euskalerrriko lurralde guztiak batute, laterri gare bat sortu zezala eskatu zion. Espāñatik eta Frantzitik berezirik Laterri yare izango zan Euskalerrri zabal orrek Napoleon bera izanen zuan Laterri-Buru.

Ta, eskari bikain orġ eġiġez bidali zion txostenean, Laterri berri orren mugak marraztu naiez, **EUSKALDUNAK AUÑAMENDIAREN EGOALDEAN KATALAUNI"KO MUġETARAİÑO IRISTEN ZIRALA** esaten zion.

ġ Zer ote da Garate" k izkera orren bidez adierazi nai zuana? XIX mendean, ġ oraindik! Euskera, Jazetani" n ez ezé, sortalderago llergetarrenak izandako Sobrarbe" n (latiġez "Super Arben" Euskeraz Arbe edo Arpe-Gain), eta baita Ribagorzá n bertan ere itzeġin zala? Bai, noski, nere ustez (9).

ġ Idatzi zuana idaztean Garate" k Oská ren Iparraldeko gizakume aien euskalduntasuna ez baiġa soilki jende aien jatorrizko euskotartasuna aipatu nai izan ote zuan?, ots, jende aien izkuntzaz ez baiġa jende aien endaz ari izan ote zan?

Ez, noski, ez!

Eġia da Garate" k ez duala esaten aien izkuntzaz ari danik. Baiġan eġia da, baitare, aien enda utsez ari danik ere ez duala esaten.

Garat ez zan edozein: Laburditarra, euskalduna. 1789ko "États Generaux" edo Laterri-Maillen Batzar Orokorrerako Laburdi" k diputadu izendatua izan zan Dominique bere anaiarekin batera, Batzar artan Laburdi" ko Lege Zarra babestu zezaten; Iraultza-aroko Jaurlaritzan Justizi-Arazoetako Ministro izan zan eta orregaitik XVI Luis Erreġeari berak irakurri bear izan zion eriotzara galtzen zuan sententzia, naiz len bera sententzi aren aurka autarki emana izan. Barne-Auzietarako Ministro ere izan zan, eta beste eġinkizun askotan era berean ari bear izan zuan lanean, atzerrian Frantziren ordezkari bezala, adibidez. Legiztilari ospetsua, filosofi, eta elerti irakaslea, izlari yayoa izparringilari zorrotza eta idazle txukuna, Frantzi" ko Akademian aulki baten

---

(9) Riba-Gorza, euskeraz Gortza-ibar izango litzake. Gortza, berriz, gaurregun Naparro" an, gazteleraz Salazar eta euskeraz Zaraitzu esaten zaion Araneko erri baten euskal-izena da. Gazteleraz, Güesa. Danadala, ez da noski Ribagorzá ko toponimia izango Garat gezurti utziko duana, jatorriz euskaldunak diran toki-izenez beterik bait dago guzia: Benabarre, Benaske, Tolba, Ellon, Laskuerre, Kalasantz, Aren, Salga, Areto, Altzamora, Baliera, Esera, Isabena (len Isaleena), etabar, etabar...

jabea, et beste ororen gaindik euskeraren maitale sutsua eta Euskalerrriaren ezagule aundia, ederki zekian Napoleon'i bidali zion txosten adan zer aritu zan idazten.

Orregaitik, ez daiteke ulertu zergaitik —Euskalerrriaren edestia ain zearo ezagutzen zuan Garat arras jakintsu arek, Oska'ren iparreko jendeak aipatzean— soilki-soilki ajen enda utsez mintzatu nai izan balu, jatorriz eta endaz aiek bezain euskotarrak diran Errioxar, Burebar, Bearnotar, Bigorretar eta gaiñerakoak zergaitik ez zituan aipatu (10).

Oihenart'ek idatzitakoaz mintzatzean esan duguna birresan bearko dugu oraingoan ere: Geografiz eta politikaz "pars Aragoniae" ziran XIX mendeko oskar tar aiek Euskalerrriaren barrukoak bezala Inperatorearen aurrean aurkeztu aal izateko, Garatek ere, aien euskalduntasuna beste arrazoirik ez zuala.

Euskeraz itzegiten zuan lurraldeak nai izan zuan Laterri yare biurtu, eta, orregaitik, Euskaldunen mugak, ots Euskeraz itzegiten zutenen mugak erakutsi nai izan zizkion Inperatoreari, eta Oska'ren iparraldeko biztanleak muga aien barruan zeudela, ots, EUSKALDUNAK ZIRALA esaten zion.

Ta, Garat'ek, Napoleon'ekin txantxetan eta gezurretan ibiltzerik ez zuan, eskatzen zion guzti ura lortu na; bazuan beintzat.

\* \*

Baiñan guk orain, Oska'n, Urian bertan, XVII mendean Euskeraz itzegiten zan jakin nai genuke.

Ez dut, -joraindik!-, abotsa jasoz baietz esateko dokumenturik, baiñan badut izango dedalako itzaropena. Ots, ordea, ezetz esateko ere ez bait du iñork dokumenturik. Eta ezetz esateko aztarna txikienik ere ez dan bezala, baietz esan aal izateko bat baiño geiago badira, eta logikarik zuzenenaren araura uste on osoa merezi dutenak.

Ezetz esan aal izateko, eta baita ezetz uste izate utserako ere, nere gazteiz"ko adiskide arek bezala, irudipen soilla besterik ez duzu aipatu aal jzango: Oska Urian XVII mendean, Euskeraz itzezin izatea ezin izan daitekean gauza iruditzen zaizula.

Eta irudipen ori ziurtatzeko, irudimen bñllutsaren esparrutik at, ezin izango duzu deus aurkitu.

Ain txiki, ain pñttñn, an ezereza, ain aula, ain txiro eta garrantzi gabea uste izan dugu gure Euskera-ta, ezin pentsatu ere dezakegu, bere azken-ondarrak iltzear aurkitzen diran mendi-zokootatik ain urruti, Oska bezalako ur; aundi baten karrিকা ta enparantzetan XVII mendera arte bizirik, jeta indartsu!, jarraitu aal izateko gauza izan zitekeanik.

---

(10) "Gu ez gara aspaldiz gero euskaldunak; ez izkuntzaz ez kulturaz: baiña odolez ordea zuok, gipuzkoarrok, baiño askoz baskoi" garbiagoak gera. Edestiaurretik asita gaurregun arte mota oroko Erriak igaro bait dira, mordoka, Gipuzkoa-zear goruntz eta beeruntz, an beren odolaren aztarnak utzi. Onera, ordea, ez da sekulan iñor etorri, azkeneko une auetan turismo-zaleak izan ezik. Alderantziz, emendik alde egin du, aal izan duan orok", esan zidan bein Jaun batet Arpe-Gain edo Sobrarbe'ko Ainsa erri txukunean. Egia zion. Alare, Euskera galdu da Ainsá n. Baiña bizirik jarraitzen du Gipuzkoa'n. Ori, zergaitik ote? ¿Bai ote du zer-ikusirik garai aietan ain eraginkorrek ziran elizgizonen jardunkerak? ¿Aragoi artako gizakumeek izkuntzari-buruz azkeneko bi-iru mende auetan izandako mentalitatearena ote da errua?, edota, agian, garai ortako izkerra berari sortutako gaitz ezezagun batena? Arazo orri-buruz azterketa sakon bat egiteko, Teologian Doktore, Antropologian Doktore eti izkuntziztian ere Doktore dugun Latxaga izango genuke Euskerazaintzan, ezpairik gabe, gizonik egokiena.

Birresan dezagun, ordea, guzti ori lur sendoan oiñarri ziurrik ez duan irudime-naren jardunkera besterik ez dala, ta alderantziz, ordea, uste uts oien aurka min-tzatzeke oiñarri zindorik, bai, badugula.

- 1<sup>a</sup>: Euskeraren bizirik iraun aal izateko gaitasuna. Euskera edesti-aroaren barruan Ajo (Axo, Atxo, gazteleraz "Rokedo") izeneko aitzmuturretik Lurrat itxa-soraiño, eta Iber-Mendikatearen egoaldeko maldetatik Garona Ibaiaren ibarretaraiño, eta agian baita iparralderago Dordoña ren ibarretaraiño itzegin zala, gaur iñork ukatzen ez duan gauza dala.

- Orduango beste izkuntzak illik dauden bezala, Bizirik irauteko beste izkun-tzek ez bezalako iraunmen miresgarri bat baduala erakutsiz Euskerak bizirik jarraitzen duala, eta ez duala laister iltzeko asmorik batere erakusten, eta ori danok ikusten dugun zerbait dala.

- Edestiaurrean sortua izan zanez millaka urtez geroago, XIV mendean bizi-rik-eta-indartsu-irauteko-aalmen bereizi orren ondorioz, kezka mardulik eta baita bildurrik aski sortu zizkiela Oska'n Uriaren Kontzejuko agintari eta jauntxo nagu-siei, ikusi dugula.

- Urte mordo bat geroago, XVI mendean kezka ta bildur berdiñak sortuz jarrai-tzen zuala Oska artan bertan, Kofradiko salerosle eta Uriko "indar biziiei" (barkatua bekit gaztelerakeri trakes ori).

- 2<sup>a</sup>: Izkuntza orok bizirik jarraitzeko baduan kemena: Izkuntza bat ez da bizi-tza bizkorretik eriotz orokorrera urtetxo baten epean, adibidez 35 urteren epe motzean igarotzen. Are gutxiago, -Euskerak mendeak zear baduala erakutsi duan bezala-, besteek erakutsi ez duten mendeak -zear-bizirik- irauteko kemen arrigarri bat baduan izkuntza.

- Ba, bizirik eta bizkor -"indar biziengan" kezka arduragarriak sortu aal izate-ko bezain bizkorra- agertzen zaigu Euskera 1561 ean. Orra ba: 1561 tik XVII men-dera 35 urte besterik ez daude. Logika ororen aurka zoroki jardutea izango litza-ke, beti alako iraunmena erakutsi duan, eta orduan bertan -dokumentu auek ditugu lekuko- erakusten ari zan gure izkuntza, Euskera, 35 urte oien epe labu-rraan zearo ezabaturik gelditu zala uste izatea.

Beraz, zalantzan ibilli gabe aldarrikatu dezakegu, Oska"ko Urian, Euskera itze-giten zala XVII mendean. Itxaron dezagun ordea gure uste ori izkera ukaeziñez sendotuko digun XVII mendeko dokumentua. Berak dokumentu ori ezagutzen zuala, eskuetan euki zuala, billatzen saiatuko zala eta aurkituz gero bidaliko zida-la agindu zidan Federiko Balager jakintsuak. Badakit bere agindua betekoa duala, Aragoi'ko zaldun zintzo oietako bat da ba bera, aguretxa omengarri -ta ornen-dura- iritxi dan arte beti itza-betetzaille txukuna (11).

Latiegitar Bixente

---

(11) On Federiko itzal aundiko eta edesti-gai auetarako Aragoi'en gizonik jakintsuena dalako, XVII mendera arteko Euskeraren iraunpenari-buruz, ni Gazteitz'era itzulita bereala bidali zidan gutunak baditu baratari baten legezko "akta" edo "agiri" baten garratzzi, balore, ta indarra. Orregaitik eman nai dut emen osorik:

\*Oska, 1999'ko uztailak 22. Le acompaño fotocopia sobre la disposición que solicita. No ha salido muy bien, pues el volumen fue restaurado hace poco y el papel que colocan los res-tauradores dificulta la visión. Del siglo XV no conozco ninguna mención. Los de los siglos XVI y XVII, los encontraré en los protocolos del Archivo Histórico Provincial. Cuando consiga las fotocopias ya se las enviaré. Un saludo muy afectuoso de Federico Balaguer".





acusador; et de todas las cosas sobreditas aya la tercera part lacusador.

Item establimos que ninguno non gete agua por finiestra; et qui lo fara pague de cato ij

Itan estanlimos que ninguno non sia usado de fer femarales en las carreras publicas de la ciudat ni en las placas ni peten binaÇas; et qui lo fara pague por coto ij sol.. et que pierda el fiemo.

Item mi vl carnicero non sia osado que taylle carne de vella o tayllara carnero, ion nu.";cle una carne con 011,1; et qui l fa!; a H yui' poi' coto V sol,  
Item nuvl. corredor non usado 11 nwr cadar la iinguna que compre nin venda entre ningunas personas, liudando algaravia ni en abraycli nin en bansquenc; et qui lo tara pague por coto NXX sol.

Item establimos que ningun picador nin cubero ní auaiar carpentero que el dia que sera logado que non vaya a iantar a su casa sino on obrara et coma del so proprio; et qui esto non fara ra!ne I ,or coto Et que ninguno no sia osado de pagarles res por liniar sus picos en pena de V.º St)!. a u los pagara et q ni los recebra,

Item establimos que IOs corredores de vino que juren que sian líales et verdaderos, et que por malquerienca nin por mala volnnun non tiengan ante lagar a ninguno ni a ninguna de vender so vino añas que 'ayude bien t lialment; et que prengan de cada cuba iij dineros et no mas, et que puedan vender con quarta, et que prengan iij milleras del mietro, es a ssa ber I dinero del conprador et minera del vendedor; et assi que ninguno non sía usado de prender servicio ninguno de ningnna persona, ni diivro dollrenda nenguno, nin candela ni oblada nin bevan en tavierna nengum sino el dia que lo cridarán o lo comenonm a vender nin jueguen a sseco exceptado a solar I dinero de vino al dia que pueda jugar quiscuno sis qUerran, sino el que dito es de susso; et qui contra esto **que sia** gitado del °nido por siempre, et quel coste x sol,

Item otrosi los corredores de la guerra que juren que Sian hales, que por malqueriença nin por mala voluntat non tiengan ante logar a. ninguna persona de vender so vino, mas antes lavude bien y lialment et que venggan del ruetro j dinero del comprador et niillera del vendedor, et no mas; et si lilas en prenda pierda lofficio por siempre, et pague por coto x sol.: et que fagan todos companya et partan la ganancia por mcycat, soto la dita peim.

ítem establimos que los corredores de las heredades usen de la corre-

1913, pag 2)



niramento acos/tumbrado hecha la dicha admisión, y tener toda, las otras cosas que la dicha correduría tiene de obligaciones et que los otros corredores son obligados a cumplir. Et los dichos señores / prior y confragres dixerun y • S 1re flhç 11 vtoderon que confiando de la bondad, virtud / sufficientia y legalidad del dicho Dardo/Vomé de Sant Vicente, Lodos conformes / dixerun que le admittfan como le admitie/ron e la dicha correduría con los cargos / y obligaciones que ella e ins ut ras tres Le/nes y no de otra manera, eh prestando / el juramento acostumbrado.

EL el dicho Partholom4 de San Vicet la dicha , admisión con acción de gratias accepó/los y aprobó et prometif tener y / cumplir Lodos los cargos y obligacio/nes de le cliché su correduría y de ser / obidiente a ellos, et juró en manos / poder del dicho señor prior por Dios etc. / de bien y lealmente haber e / habrá cave o guante fuere corredor / de la dicha corredufa y / de hezer tratos Ifeltos y no prohibidos / y hazer relación y memoria de'los tratos / y conciertos que se aráwy que PU los dichos / tratos no hará parada ni hablará en / gerigonça, bizcayno, nabarro ni el al/garabía ni otro estrenyo lenguaje / sino en nuestra lengua materna, so Las / penas del privilegio y oídinaciones de / la dicha confradría, etc," Testigos.

Birridazketa <sup>cal</sup> U KC±SA Aierbe <sup>v</sup> k egin digu. Berak Lr." id,  
duan tokian, zarrak, irakurri daite n iru  
ditu.



memoria. Item de Tribuna minor q' nro d'no  
procurator. f'ab m' b' n' o' f' conf' p' d'ict' d' e' l' d' i  
e' h' a' n' f' a' d' i' a' e' t' a' l' e' f' i' t' o' p' r' e' c' e' d' i' o' c' a' p' i  
t' u' l' o' a' c' q' u' e' l' l' a' a' c' c' i' p' i' t' u' l' o' s' t' o' m' a' d' o' b'  
c' o' m' m' o' d' a' d' o' b' q' u' a' d' i' m' t' a' d' o' b' C' a' p' i' t' u' l' a' r'  
t' o' b' c' a' p' i' t' u' l' o' s' a' p' r' e' t' e' r' t' e' n' i' e' n' t' e' l' e' c' t' e'  
t' r' i' m' e' t' r' o' q' u' i' p' r' e' s' e' n' t' e' t' o' t' o' b' c' o' m' p' r'  
n' e' t' e' t' a' n' t' e' c' e' d' e' t' q' u' i' n' e' d' i' t' o' c' a' p' i' t'  
c' o' c' o' m' o' a' c' c' i' p' i' t' q' u' i' p' r' e' c' e' d' e' n' t' i' b' u' s'  
c' i' t' r' a' q' u' o' b' a' r' o' h' o' l' o' m' e' f' u' n' t' v' i' c' a' r' i' o' s' d' i' p'  
e' t' c' i' t' a' s' f' o' n' d' e' f' u' n' t' v' i' c' a' r' i' o' s' n' o' s' d' e' l' e' g' a'  
t' o' s' c' o' r' r' e' s' p' o' n' d' e' n' t' e' s' d' e' o' b' i' t' a' t' i' o' n' e' c' o' m'  
p' a' r' i' a' e' q' u' a' l' e' d' i' o' s' q' u' i' p' r' o' m' e' s' s' e' d' e' c' e' d' i'  
t' u' s' f' i' g' u' r' a' t' b' a' r' o' n' e' c' a' d' i' t' a' f' u' n' d' e'  
t' u' m' d' e' a' l' a' q' u' a' c' e' t' h' a' n' i' a' f' u' n' d' e' n' o' s'  
h' e' r' e' d' e' n' t' i' u' m' i' n' e' x' p' l' i' c' i' t' a' s' s' u' p' p' l' i' c' a' n' t' e' s'  
e' q' u' i' f' e' s' s' e' n' t' i' m' e' t' e' r' n' a' t' a' t' a' c' o' m' o' e' l' e' c'  
t' i' o' n' e' s' u' n' t' p' r' o' p' r' i' e' t' a' t' e' s' a' q' u' e' l' l' o' s'  
c' o' s' d' i' c' i' t' o' s' q' u' a' t' o' s' c' o' r' r' e' s' p' o' n' d' e' n' t' e' s'  
i' n' t' e' r' i' o' r' e' s' f' u' n' t' a' c' c' i' d' e' n' t' i' a' l' i' t' e' r' s' u' n'  
t' u' n' t' i' m' b' r' a' d' e' q' u' i' p' r' o' p' r' i' e' t' a' t' e' s' a' d' m' i'  
t' a' d' o' b' e' t' a' t' i' o' n' e' s' e' t' p' r' o' m' e' s' s' a' d' o' b'  
t' i' m' b' r' a' d' e' f' i' d' e' l' i' t' a' d' i' t' a' a' d' m' i' s' s' i' o' n' e' s'  
n' e' x' t' e' r' i' o' r' e' s' l' i' b' e' r' a' t' o' b' e' t' a' t' i' o' n' e' s' q' u' i' p' r' o'  
p' r' i' e' t' a' t' e' s' t' r' a' n' s' a' c' t' u' s' a' b' a' n' o' n' e' q' u' a' d' i' t' o' s'  
t' o' b' c' o' r' r' e' s' p' o' n' d' e' n' t' e' s' f' u' n' d' a' t' o' r' u' m' t' e' n' e' f' o' r'  
u' a' r' y' c' o' m' p' l' e' t' i' t' e' x' p' r' e' c' e' d' i' t' o' s' f' u' n' d' o'  
P' r' i' o' r' y' c' o' n' f' a' r' i' u' s' d' i' c' e' n' t' e' s' R' e' s' p' o' n' s'




# OIHENARTEN LIBURUAREN AZALA

NOTITIA  
VTRIVSQUE  
VASCONIÆ,  
TVM IBERICÆ,  
TVM AQTIVANICÆ,  
QVA, PRÆTER SITVM REGIONIS ET ALIA  
scilicet digna, NAVARRÆ Regum Cateratumque, in iis,  
insignium vetustate & dignitate familiarum stemmata  
ex probatis Authoribus & vetustis monumentis  
exhibentur.

*Accedunt Catalogi Pontificum Vasconia Aquitanica,  
hactenus editis pleniores.*

Auctore ARNALDO OIHENARTO Maucosolensi.



PARISIIS,  
Sumptibus SEBASTIANI CRAMOISY Typographi Regij,  
viâ Iacobæ, sub Cloonis.

M. DC. XXXVIII.  
CVM PRIVILEGIO REGIS.

# OIHENARTEN LIBURUTIKO GURE AIPUA

*Notitia*  
*Utiusq; Vasconia liber Secundus = qui tractationez*  
*de Vasconibus Iberis continet.*  
*De Navanis eorumq; Regum Navana dicta. cap. 1.*  
*Vasconum populi, alij circa Pyrenæum in Iberia, alij ultra Pyrenæum in Aqu*  
*tania sedes habent. Citra Pyrenæum sunt. Navani, Jaccense, Bascones,*  
*Opuscoates, & Biscayni. Ultra Pyrenæum Gascones, & Vari. De Prædictis de*  
*libro, et alijs vero in sequenti agitur. Initium fiat à Navanis, quibus potissime.*



# ORIXE-REN EUSKALDUNAK

J.M. MURUA

Aurrena esan bear dizuet, nere lantxo au ez dela "Euskaldunak" poema liburuaren azterketa lana, baizik eta liburu orretan azaltzen diren norkien aipamena, bide batez jakintsu baten iritzia, tarteka, jasotzen badut ere.

Euskaltzale guztiok badakigu nor izan zen "Orixe". NIKOLAS ORMAETXEA. Gipuzkoa-n, Orexa-ko Iriarte etxean, jaioa, 1888ko Abenduaren 6ean. Jaio bertan Uitziko Errekalde baserrira eraman zuten azitzera. Eta esaten digute: iruxkia izanik, amak bi titi besterik ez, eta iñudearengana. Eta antxe biotz zabalez artu zuten, batik bat Asuntxi amandreak. Eta orrelaxe Errekalde baserrian, azi eta ezi, amazapi urte bete arte bizitu zen.

Gero ikasketak Jesuitetan egin zituen, Xabier, Loiola, Oña, Tudela eta Comillas-en. Euskal idazle, poeta eta itzultzaile. Euskalki guztiak menderatzen zituen. Euskaltzaindi-koa, Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue leendakari zelarrik. Azken arnasa Añorga-n, Donostia-n, eman zuen, 1961 eko Abenduaren 9an, bere iloba Joxemari Aranalde, apaiz euskaltzale jakintsuaren besoak laguntzen ziotelarrik.

Bere lanetan, batzuk aipatzeko:

SANTA KRUZ APAIZA (1929), MIREIO (1930), TORMES-ko ITSU MUTILLA (1929), BARNE MUIÑETAN (1934), EUSKALDUNAK (1936), URTE GUZIKO MEZA BEZPERAK (1949) SAN AGUSTIN-en AITORKIZUNAK (1956), KITO-n ARREBAREKIN (1951), JAINKOA-ren BILLA (1954). Eta beste ainbat lan, EUSKO-GOGOIA, KARMELE, JESUS-en BIOTZAREN DEIA, EUSKERA, RIEV, ARGIA, EUSKADI, EGAN, YAKIN, e.a., aldizkari eta egunkarietan.

Esan dudan bezala, lerro gutxi auetan ez natorkizue Orixeko azaltzera. Ni ez naiz nor sakontasun orretan sartzeko. Badira liburu egokiak luze, zabal eta sakon Orixeren berri jakin nai duenarentzako.. Orain gogoan ditudan batzuk aipatuko ditut:

Santi Onaindia-k: "Euskal Literatura IV"

-Enrike Zabala-k: "Euskal Alfabetatzeko Literatura"

-Juan San Martin'ek: "Escritores Euskericos".

Luis M. Mujika-k: "Orixe-ren Aportazio Literarioak"

-Paulo Iztueta-ren ikerketa sakona

Koldo Mitxelena: "Idazlan Hautatuak"

Euskaltzaindiaren ardurapean: "Orixe Omenaldi-1965"

"Zer dugu Orixeko alde" "Zer dugu Orixeko kontra" Joxe Azurmendi-renak.

(ETBn. maai inguru batean argitu zuen, berak ez daukala ezer kontra. Ori lan bat izan zela, eta ez bi, baiñan bi liburutan argitaratu zela; eta izen buruak ez direla bereak).

Eta batez ere, Joxe Mari Aranalde, bere illobak, idatzitakoak eta esandakoak kontuan izan bear. ETBn leen aipatutako maai inguruan Azurmendi-k zioen: "Asko ikasi dugu Orixeko-rengandik". "Bai baiñan sintonizatzen eta ikasteko, ik

bezala, etxetik euskera daukana izan bear" Erantzun zion Aranalde-k. Eta emen bearrezkoa da esatea, orain ogeitamar urte inguru, euskaldun berri batzuk, ortxe ibilli zirela lardaskan zerbait egiten zutelakoan.

Orixe nor izan zen jakiteko, labur zurrean esanik, Koldo Mitxelena izkuntzalari jakintsuaren lerro batzuk jasoko ditut. Ain itz gutxitan, geiago, ain egoki, esaterik ez dago; eta berak zion miressgarritasuna ederki asko azaltzen du. Auexek dituzue lerro oriek:

"Mixelena-ren Idazlan Hautatuak" liburutik:

"Orixe ere joan zaigu. Zaratarik gabe, har izkutuaren antzera, azpilanean ari den denbora iheskorak erauzi du gure artetik udaren erdian. Guztiok -ez jakinean edo jakinaren gainean- irakasle genduen galdu dugu guk eta zeukan haberik sendoenetariko bat galdu du euskerak. Euskal literaturaren oroitzapenak lurtean diraeino ez da noski itzaliko haren izena eta amena."

Bazirudien Mitxelena jakintsuak Orixe-ren eriotzean esandakoarekin denok bat izango giñela. Eta ez zen orrelakorik gertatu. Eta tarte orretan euskeraren batasunaren munduan artu zen joera berrian batzuren arrazoi bakarra auxe izaten zen: "Mixelena jaunak esan du". Baiña askotan gertatzen den bezala, Mixelena-k esandako guztiak ez zituzten kontuan artzen. Eta Orixe-ri buruz ez zetozen bat Mixelena jaunarekin "mitxelenazale batzuk". Gero orien euskera irakurri, eta Koldo Mitxelena-renarekin elkartu, eta tokitan gelditzen duk <sup>iii</sup>

Euskaltzaletasunaren munduak orain ogeitamar urte zatiketa aundi bat izan zuen. Aize berriak sortu ziren. "Poesia soziala" izenekoak indar artu zuen, eta batzuren jokaera, Orixe infernuetara bidaltzea izan zen. Aresti santifikatzeko.

"ORIXE OMENALDI" liburutik. ATARIKOA L.M Mitxelena-k. Zati bat "(...) Ez nintzake, aatik, egiaren aldeko agertuko guztiok dakigun zerbait ixilduko baldin banu. Diodan, bada, labur bearrez, zerbait berri agertu dela gure artean gerraondoko urte oetan: Bestelako pentsabidea bestelako bizimoduen eskutik, giro aldaera larria, erriko eta atzerriko aize berrien eragiñez (...)"

Eta onela jarraitzen du L.M. Mitxelenak, aipatutako "Orixe Omenaldi" liburuan: Ez naiz ni emen mintzatuko ez giro-aldaera orren alde ez kontra. Gertatua da eta ezin bestekoa, gertatua den ezker. Esan bearke dut, ordea, ortaz ari bait gera, aldakuntza orrek- usteak, sinesteak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera izanik- ez diola "Orixe"ri ere, ustez edozein eztabaidaren gaiñetik geneukan "Orixe" ri berari, begiramenik gorde. Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta gidaritza ukatu dio oraintsu batek baiño geiagok(...)"

Beste zati batean, Mitxelena jakintsuak: "(...) Gure ondorengoek, orain pixkaren bat aazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean "Orixe", arrimenez eta espantuz. Gurasorik gabe mirariz jaioa balitz bezala, or bait dago gure aurrean ez oraingo, ez egungo eguneko, iñoizko aldi urren bateko seme dirudiela(...)"

Orduan entzundako batzuren edukia auxe izaten zen: "Orixe-ren euskal mundua ez da benetakoa, sozial arazoa ez du kontuan artu"

Eta Orixe-k "Euskaldunak" liburuaren itzaurrean onela dio:

"Au izan dut leen asmo: Nik moldatu dudana poema au, ERRIAK MOLDATUA litzan egitea; Nik egin ditudan bertsu ok, ERRIAK egin zezaken gisan egitea. Ortan ez dezu gertakizun ontan maratil askorik billatu bear, ez naspil aundirik bereizi bear,

ZENBAIT NOBELA TXARRETAN BEZALA. Ez da eriotzik eta beste gauza lazgarri-rik daramanetan bezala. ERRI bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuietan, bizian, eriotzean agertu nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez ..."

Beste zati bat:

"Istoria bera ere, oraintsu arte gerra kontua besterik ez da izan. Egun, ordea, erri baten agirikoak oro sartzen ditugu istorian. Baita nik ere poema deritzadan ontan, istori zearo baitut egin, guzia toki batean eta mende batean, egiña litzan gisan. "(..) MENDE ZAARRIK ERE ASMATU BEARRIK EZ; BIZIMODU ZAAR ONEN GEIENAREN LEKUKO NERAU IZAN BAIT NAIZ (...) "ERRIA DAN BEZELA AZALTZEN SAIATU NAIZ. ZERTAKO NI ASMATZEN ASI?" EUNETATIK LAROGEITA AMABOST, GUTXIENIK, NEURE BEGIZ IKUSIAK, NEURE BELARRIZ ENTZUNAK, NIK JOSI TA MOLDATUAK ORDEA, BATASUNA AR DEZATEN(...)"

Gero onela jarraitzen du:

"EUSKALERRI OSOA DUT KANTA GAI, EZ BIKO BAT EDO BESTE..."

Eta, orrekin Orixe-k zer esan nai ote du? Bere poeman euskal lurralde osoa sartzen duela ?.

LEEN ESAN DUDAN BEZALA, UITZI-n AZIA ETA EZIA IZANIK, UMETAN BIZITUTAKOA OSO BARNEAN ZEUKAN, GUZTIOK BEZALA, ETA NEURE USTE APALEZ, ORIXE-k AIPATUTAKO MUNDUAN, BASERRI GIRO ORRETAKO JENDEA ZUEN KONTUAN, BATEZ ERE, . ETA JENDE ORREK EUSKERA SOILLIK ERABILTZEN ZUEN; EZ BAIT ZEKIEN IÑONGO ERDERARIK, ETA EUSKERA ZUEN BENETAKO GAUR EGUN ESATEN DEN, IZKUNTZA NAZIONALA. BERAZ, ESAN DEZAKEGU ORIXE-rentzat, BERE POEMAN, NORKI ORIEK DIRELA EUSKALDUNAK. beste iñor ukatu gabe. Eta Uitzi, Barakaldo eta Neguri-kin naastea ez dut uste bidezkoa denik.

Eta gure erri onen kultura osatzea eta izkuntza lantzea, guztioaren lana da. Beraz, itxuragabea da, Orixe-k aipatzen duen munduari, "euskera urbanoa" eta Barakaldo-ko labe garaiak kontrajartzea. Euskal Erriko lurralde osoa bada-kigu oso ezberdiña dela, geologia aldetik, soziologia aldetik eta izkuntzaren aldetik.

Eta zenbaitzuren jokaera orain ogeritamar urte, leengoaren apurtze lan bat besterik ez ote zen izan? "Euskera urbanoa" izen orrekin, sasi-euskera bat erabiliz, mailla obeagora iristen ez zirelako. Elizak euskeraren alde egindakoa ere, "klerikalismoaren zapalketa" izan zela, batzuren aotik entzuteko ere aukera izan genuen.. Kanta berriak sortu ziren, baiña aldi berean ere zaarren baztertze lan bat nabari zen. Orain zer da kontua eta: Ordungo kantari gazteek, burua zillar koloreko illez jantzita edo burusoil, eta azala zimurtuta, berea egiten jarraitzen dute, beste zaar batzuren malkoak lagun dituztelarik "beren denbora ezin obeagoa" gogora datorkielarik. Ondo dago, besteei berea ukatu gabe ordea.

Aipa dezadan "EUSKALDUNAK", "Uitzi liburua" deitua izan den orretan, leengo orrian azaltzen den olerkia:

"Zatozkida goi arnas eizu nerekin lan/ Erri baten arnasa mamitu dezadan./ Geroak esan beza: "Erri bat izan zan"; / edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan" .

Bi esaldi bereiziko ditut:ERRI BATEN ARNASA. Euskera dela esan nai ote du? Nik baietz esango nuke. Eta ori noruk ukatu?

ERRI BAT IZAN ZAN: Beraz euskera gabe ez dago Erririk? Euskal Erririk? Ori denok esan oi dugu.

Orixe-k poema liburuan erabillitako gaiak auxek dira:

Pestaburu- Artazuriketa-Gaiztaiñaro-Iruleak-Olentzaro-Iñauteri-Denok Bat- Axudaro-Letari-Artajorra-Belarrekoan-Eultzia-Eztaietan-Eztaiondo eta Amonaren Illetak,

Orixe aundia, bere apaltasunaren lotsaz edo, poema argitaratu nai ez da ibilli ornen zela, diote. Lizardi bere lagun miñak bultzatu omen zuen argitaratzera. Beraz euskaidunongandik, eskerrik onena, merezi dute biak, betirako gelditu zaizkigun "Euskalduna-k" poemaren urrezko letra oriengatik.

"Euskalduna-k" liburuan azaldutakoren bat bearko nuke nere lantxo onen amaieran azaldu. Baiña, zillegi bekit ori ez egitea, eta Orixe-k Lizardi il ondoan idatziriko poema irakurriko dut. Benetan ona, sarkorra eta unkigarria.

## BETI LAGUN

(Orixe-k Lizardi-ri)

Non ago? Non aut? Ez ote da auxe  
neretzat leengo Tolosa?  
Ez al dezaket entzun berriro  
mintzo goxoaren otsa?  
Bego negarra, lurrindu bedi  
begian malko mingotsa,  
ala ere ez uke nik iregatik  
negar egitea, lotsa.

Ire erraiñua ikusten diat  
nere begion txingarra;  
argí biurtu dela níokek  
ire ezpañen irriparra.  
Dante-ren itzal isillak beude,  
betorkit neri ire garra,  
bete dezadan azken aginduz  
eman idaken bearra.

Biotz-bertsoak egin nai eta,  
Jainko billa nauk oldartu;  
ik esan idan bein ta berriro  
ontan nendilla leiatu.  
Lagun egidak argi orrekin,  
nere bigarren aingeru,  
ígan íkusten díat garbien  
Jaungoikoaren erraiñu.

Jainkorik ezin, ez da aingerurik  
gorputz-antzean iduri;  
siñesten iñoiz konturatzen nauk  
itzalpean nautela ni.  
|| un ortatik bizi ontara  
i aut bitartean argi;  
erraiñu onen dirdaia lagun  
aurrean zeuzkeat beti.

Beretarbiden, iturri askan  
agertu didak begia,  
osto tartetik iragazirik  
eguzkiaren izpia.  
Nere aurretik, ibilli gabe,  
igaro uan mendia,  
ikusi genin basora antzean  
loretan den sagastia.

Leen lagun zintzo gorputz bizitzan,  
orain are lagunago,  
tokiz aldatzen nekerik ez duk  
ez,egal, eta ez zango.  
Begi-orde ok aurreko ormara  
eguzkiak joa baiño,  
zintzoago abil nere aurrean,  
abil ni bizi naizaiño.

Oroitu ta aaztu, burruka diat,  
tartez bakar eguzkia,  
erraiñu onek irauten balu,  
auxe da nere zoria.  
Goibeltzen bazait, gainbera bedi  
bego barren au gorria,  
gorputz ustel au, gandu naasi au  
daiteken arte eroria.

Biga atera duk, begiak lauso,  
ikullu-zoko beltzetik,  
begiak urez igurtzi eta  
lauso orrek aldegiten dik.  
Egun otako negar-malkoak  
truka ditudanean nik,  
ni il arte ez beza Jaungoikoak nai  
ire erraiñua galtzerik.

Nere bigarren albo-aingeru,  
nere Jainko-erakusle,  
il arte lagun, ortik onera  
ez zegok leen ainbat bide.  
Bakar-bakarrik nakustenean  
jendeak esan bezate:  
bekokian dik aren itzala,  
lagun dik oraindik ere.

Zenbateraiñoko lotura izan zuten Orixe-k eta Lizardi-k jatiteko, irakur bitza aapaldi sakon zorigarri auk. Eta bein eta berriz irakurrita ere ez da aspertuko.

Emen, neure lantxo onen bukaeran "Orixe Omenaldi" liburutik beste zatik aldaturiko dut. Onela dio Mitxelena jakintsuak: "(...) Gizon bezala, eta ori da noski leenbizikoa, ezin-obeia da "Orixe" k utzi digun eredu. Egiazko gizon, bere buruarekin borroka eta Jainkoaren billa, egiazko euskaldun eta euskaltzale. Euskal Errian seme jator, ez itzez eta oiuz, egunoroko lanaren Janez baizik. Goian bego eta bildu zigun uzta onerako izan bekigu, bizi zitzaigunean bezalaxe"

Gizaldi batetik bestera, badakigu aldaketak sortzen direla, tira-birak ere bai. Nik lantxo onetan aipatutakoak, beste zerbaitez ez ote du azaltzen?. Agian, austura, mozketa, etena, leenaren apurketa neurri batean...? Gera bedi ortxe nere galdera. Bakoitzak eman dezaion bere buruari edo besteei iritzia edo erantzuna.

Etenak ez dira onak izaten. Errotik erria eta lepotik uztarria.. Gure erriaren euskera eta kultura lantzen, orotarikoak dute leku. Leengoen egiñak, gaurkoenak eta gerokoan. Denek osotasunean agertzen dute eta agertuko dute erriaren muiña.

Amaitu dut.

Joxemari Murua  
| 1999ko Abendua

# EUSKAL EZEZKO ZENBAIT ZE/EZ/EZE/E/EH E/U L

ZE/EZ/EZE/E/EHE/UL zer dira ezezko hoik eta zertako zerrenda hori? Orain danik ez daiteke ihardespenik. Elgarrekin ibiliz bidea eginen dugu emeki eta jakinaraziko dugu zertako hitz hoik elgarrekin, ezarri izan diren hemen ezezkotzat. Beraz zerrenda ahantzirik mementoko, has giten ZE ezezkoarekin.

## 1) ZE ezezkoa:

Ze ezezkoa oral ezpeita gehiago erabilia, luzago aipatuko dugu ikusteko zer izan den hareo lekua ezezkoen artean. Hizkuntzalari batzuek, Azkue (1923) Lacombe (1937), Lafon (1943), Michelena (1961), Morvan (1992), denek aipatu dute ZE aditzondo ezezko bat egun galdua dena, nahiz XIX. mende artio Bizkaian erabili duten. ZE hori agertzen den liburu zaharrena da Los Refranes y Sentencias 1596-an, idazle izenik gabe, Iruñan Pedro Porralis Amberesekoak argitaratua. Julio de Urquijoren arabera, 536 atsotitz hoi biltzailea liteke Esteban de Garibay, erregearen kronikalaria.(1)

Atsotitz guzietan, ZE doa agintaldiarekidan. Hala nola:  
refr.501: "Ce eguic gachic ta ce euc bildurrik."

- ce eguic: ikus refr 162, 536 edo cequic hitz batez: Refr 73, 366 berdin bada ce eguioc Refr 152 edo ceguioc Refr 217.

refr 166: "Hurdinetan assiazquero prestuesta seyzaroa, ynoc pebez aurqui guero ce aldia eldudoa."

refr 189: "yraunic pe emac yñori."

refr 257: "Ezcageaquio daucanari ta vay onderextanari."

refr 312: "Gach peerexqueoc yñori, ta emac vereea edogeyni."

Azkuek bere hiztegian erraicn du atxeman duela ZE ezezkoa ez Los Refranes liburuan bakarrik, baina Ere Rafael Mikoletaren (1653) eta Midl'Otxoa kapagakoaren idazkietan (2). Eta gehiago dena, beti Azkue-ren arabera, ZE ezezkoa ainitz erabilia zen oraino XIX. mende bukaeran Bizkaiko Bermeon, Gernikan, Mundakan, Plenzian. Eta denetan ZE hori gertatzen zen agintaldirekin edo subjuntiboarekin.

Beraz duarik gabe izan da ZE aditzondo ezezko bat euskaraz. Idazten zen rE edo CE. Usu agertzen zen "egin" aditzlaguntzailearekin. Eta "egin" aditzarekin, aditzaren lehen bokala E eta ezezkoaren bigarren bokala E batzuetan baterazten ziren. Zu usuenik agintaldirekin zoan, baina aurkitzen da ere subjuntiboarekin. Hala nola erraldi hau, Azkuek Mundakan entzun zuena: "gordeizu kati-llu ori, ausi zedaizun" (3).

ZE aditzondorekin bada ere ZE aurrizki bat. Hala nola:  
ZEhar: oiher < ez xuxen, ez har  
ZEken: zizkoitz < ez ken  
ZEmatu: mehatxu egin < EZ ematu  
ZEmendi: azaro < mendia ez; batzuek latina semen ikuste dute (Azkue). cf  
zezeil: otsaila?  
ZE atzizkia ere aurkitzen da euskaraz. Hala nola: bertZE < EZ bera  
atZE < kanpotiar, EZ aterik

## 2) ZE eta EZ ezezekoak

EZ hitzerraldi ezezkoa eta EZ aditzondoa ontsa ezagutuak dira; baina badu-  
gu ere EZ aurrizkia eta EZ atzizkia. Huna aurrizkia:  
EZazol < EZ azol  
EZar < EZ har  
EZkondu < Ez kuntu edo kundurik  
EZtei < Ez thairik  
EZer, EZontsa, Ezohiko...  
EZ atzizkia, hala nola:  
bizkaiarrez: gaiEZ, naiEZ, ondoEZA, erruEZ...

"ZE" aditzondo ezezekoak denek ezagutu EZ aditzondorekin zer du ikusteko-  
rik? Azkueren ihardespina hau da: ZE edo EZ hitz bera da. Hizki itzulikatze hori  
metatesi bat da (ikus: Morfología Vasca, Bilbao, 1923, p. 470-471). Lacombe'k  
huna nola aztertzen zuen ZE: EZ eta ZE jiten dira lehenagoko "EZE" hitz galdu  
batetik. Alde batetik EZ ezezekoaz delako EZE-ren bigarren bokala erori da (apo-  
kope), bertzetik ZE ezezekoaz, EZE-ren lehen bokala desagertu liteke (aferesi).  
Ikus Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, XXXVIII, 1937, p.155.

Lafon'ek aldiz gauzak bertze gisaz ikusi zituen. Euskara Kaukazeko mintzaire-  
kin parekatzen baitzuen, "etzuen" formatik ageraratzen zuen TZ ezezekoaren erro-  
tzat. Ikus Lafon, Le Système du Verbe Basque au XVI siècle, Saint Sébastien,  
1980, pp. 438-439). Baina ideia hori ezta onhartua izan. Ezen euskal fonetikan,  
bi zeta segidan gertatzean, hiatsua aldarazteko hay da bidea: Z+Z= TZ.

Luis Michelena (Fonética Histórica Vasca, San Sebastián, 1977, p. 442, 1° ed.  
1961) eta Morvan (les Origines linguistiques du Basque, Presses Universitaires,  
Bordeaux, 1996, p 164, tesi Bordelen 1992) jarri dira Lacombe-ren alde, begira-  
tuz bakarrik forma EZE edo ESE.

Morvan-ek xekatzen du zoin mintzairekin parekatzen ahal den EZE ezezkoa.  
Eta atxemaiten du aditzondo ezezko berdina badela bai tunguztarrez, bai japo-  
niar zaharrez, eta bai mongoliarrez. (oc. pp. 165-167).

3) UL ezezkoa: Azken mintzaira hortan, beraz mongoliarrez, bertzeak bertze  
badute ere üLü atzizki ezezkoa. Erran ditaik Morvan-ekin euskarak ere baduela  
-UL atzizki ezezkoa. Harek eman etsenpluetaz bertzalde huna bertze hitz zombait  
(Morvan, o.c., p. 165, n.20).

ützül: atzera eman < EZ üt  
mintzül: mutu < mintzo EZtena  
ahul: indarrik ez < ahorik EZ  
mardul: biskor < EZ mardo



-UL atzizki ezezkoa atxemaiten da ere Senegalen, woloftarrez:

nor: egosi # norUL: gordin

fees = bete # feesUL: huts (ikus Michel Malherbe, *les Langages de l'humanité*, Robert Laffont, Paris 1995, p. 1644): bertze etsenplu p. 1639:

am: avoir # amul: Il n'y en a pas

p. 1643: mén am: possible = ménUL am:impossible.

Bertzalde euskaraz UL erabiltzen da ere hil hitza orde (Lhande, hiztegi). Halaber hil erraiteko, Txadeko Bouarez (niri OULOU), Yilimbarrez (OULOU), Mbommtarrez (HUL), Toupouriarrez (HULE). Txadeko berri hoik xuxen handik jinak dira, David Mouldjidé apezgei adixkidearen bidez. Beraz aldi huntan, euskara lotua da ez bakarrik Ekialde Urruneko Mogoliarrekin, baina ere Afrikarekin.

#### 4) E ezezkoa

EZE/F7-aren erroa ez da TZ Lafon-ek uste zuen bezala, bainan [E]. Ez dugu erraiten EZ naiz, bainan [E] naiz, ezaren zeta desagertzen baita N konsonantaren aintzinean. Halaber Z konsonanta erortzen da H edo L baten aintzinean: ez da erraiten EZ hiz, bainan [E]hiz eta berdin "EZ luke eman" ez da xuxen, bainan "[E]luke eman", bai. Beraz erran daitaie [E] hori nolazpait EZE/EZ-en erroa dela.

Bainan [E] aurrizki ezezko bat daitaie ere:

[E]kuri: geldi < EZ kuri (ka)

[E]baki: moztu < EZ bat egin

[E]deki: zabaldu < EZ tegirik

-Rondaleko Uztarrozen, Azkue-ren arabera:

[E]ur: nehor

[E]uiz: nehoiz

[E]un: nehun

[E]unla: nehola. (4)

Korearrez ere bada aurrizki ezezko bat [AE] e frantsesa bezala ahozkatzen dena:

[AE]bol: lehen aldi < EZ (AE) pare (bol)

[AE]oksallim: bizi behartsu < bizi (sallim) EZ (AE) harri-bizi (ok)

[AE]imori: lehena < EZ (AE) bi (i) buru (mori)

Ikus Minjungseogwan's *Pocket Korean-English Dictionary*, Seoul, 1958, pp 828-829. Morvan-en aipatu liburuak dio finlandiarrez ere badela [E] erro ezezko bat Morvan-en aipatu liburuak dio finlandiarrez ere badela [E] erro ezezko bat eta hiztegietan aditzondotzat emaiten dutela [E]i bai finlandiarrez, bai estoniarrez; samoyedoarrez ere erabiltzen dutela [E] erro ezezko bat, eta VII. mendeko olerki japoniar batean ere aurkitzen dela (Morvan O.C. p 169).

#### 5) [E]h[E] ezezkoa:

Euskaraz [E] ezezkoa errepikatuz badugu [E]h[E] hitzerraldi ezezko bat. Bi [E]-en arteko H-ren ofizioa da bi [E] soinuen berextea. [E]h[E] onomatope bat da. Ez

da Zalgizen baizik entzuten, ezagutua da bederen Xiberuan eta Basa Nafarroan. Huna nola gerta daitaie: "oraino nekatua ote zira?" — "ehe, eniz batere akitua". [E]h[E] ezezkoak ez du indar handirik. Eleketan, jendeek usu erabiltzen dute, kasik uste gabean, norbaiti erakustek harekin ados dela [E]h[E] erraiteko edo ustez eleketariak jadanik badakila [E]h[E] erranen dutala. Beraz ez dut burua bor-txatu nahi EZ EZ erraiteraino.

[E]h[E] hitzerraldi ezezkoa aurkitzen da ere Hego-Afrikan sesothoarez eza da e-e. Bainan sesothoarez, bembarez, lingalarrez, sangoarez baia diote E. Eta Afrikako ber-tze herri frangotan, baia erraiteko, E errepikatzen dute: hala nola setswanarez, kiluba-rrez, luoarrez, masaiarez, doualarrez, iboarrez, ewarrez. Senegaleko diolarrez baia diote EHE. Ikus Michel Malherve, les Langages de l'Humanité, Robert Laffont, Paris, 1995. Hortatik ageri da [E]h[E] euskal onomatope ezezkoak baduela zerbait ikusteko-rik Afrikako onomatopeekin, bederen formaren aldetik.

Eukaraz [E]h[E] ez da bakarrik hitzerraldi ezezko bat bainan ere artizki ezezko bat. Hala nola:

Nor ^ N + [E]h + OR  
Noiz ^ N + [E]h + OIZ  
Non ^ N + [E]h + ON  
Nola ^ N + [E]h + OLA

Lapurdin [E]h bilakatzen da [I]h eta diote nihor, nihoiz, nihon, nihola. Xiberuan N erortzen da eta badugu: ihur, ihoiz, ihon, ihola. Dena den, forma [E]h zaharra da, aurkitzen baita, bai Oyhenarten idazkietan ([E]h + or, [E]h + oiz, [E]h + uIa eta N + [H]h + OR), berdin Axularren idazkietan (N + [E]h + OR/OIZ/ON).

Ez ditugu aipatu euskal ezezko guziak, bainan zerrenda hau bakarrik: ZE/F7/F7E/E/EHE/UL eta ikusi dugu nola hitz hoik lotuak diren elgarrekin. Zerrenda hori ohargarri da zeren eta hitzerralditik hasiz, aditzon doan, aurrizkian eta atzizkian gaindi eta artizkia artio hor baita sistema ezezko oso bat. Erran daitaie ere sistema horrek zorrik ez duela indoeuropearrekilan. Gehiago dena iduri du indoeuropearra baino zaharrago dela. Dena den zerrenda ezezko horri esker, bidai miresgarri bat egin dugu Ipar Europeatik Mongolia artio eta Korean gaindi Japonia artio, baitaere Hego Afrikatik Mendebalde urruneko Afrikarat. Han hemenka aurkitu ditugu jente gu bezala-koak, urruneko ahaide edo ezagun, nork daki. Hor baitugu froga bat mundua ez dela aurthen hasi eta arbasoak bidekari eta eleketari gaitzak izan direla noizbait.

Oharrak :

1- Liburu horren titulu egiazko eta osoa da: Refranes y sentencias comunes en bascuence declaradas en romance con números sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas, Pamplona, 1596, ed. Pedro Porralis de Amberes. Ikus edizio kritika, Joseba Lakarraren lana, Refranes y Sentencias (1596) Euskalzaindia, Bilbo 1996. Urquijoren edizioa, Los Refranes de Garibay, San Sebastian, 1919.

2- Marti Otxoa Kapanaga 1656

3- Diccionario vasco-español-frances T.II, la gran Enciclopedia vasca, Bilbao, 1969, p.423.

4- Diccionario v.e.f.T.I, p.212.

### Summary:

This article takes place in the development of Michel Morvan's work, *les Origines linguistiques du Basque*, Bordeaux 1996. EZ, the principal Basque negative is part of a whole which includes ZE, E, EHE and the proto-euskarian EZE. Comparisons don't limit themselves to Eurasia, they can be extended to Afrika.

As for the negative UL, it is very significant for an African comparatism, since it is found in Mongolia, together with ESE as well as in Senegal.

### Sommaire:

Cet article se situe dans le prolongement de l'ouvrage de Michel Morvan, *Les Origines linguistiques du Basque*, Bordeaux 1996. La principale négation basque EZ fait partie d'un ensemble qui comprend ZE/E/EHE et le proto-euskarien EZE. Les comparaisons ne se limitent pas à l'Eurasie, mais elles peuvent être étendues à l'Afrique.

Quant à la négation UL, elle est très significative pour un comparatisme africain, puisqu'on la retrouve aussi bien en Mongolie, aux côtés de ESE, qu'au Sénégal.

### Resumen:

Ez dut egiten ahal. Eginen duenari, eskerrik asko.

Robert Puchulu  
Miarritze, 1999/10/5

# A/NA/KA/LA/SA

## ezezkoen zerrenda

A/NA/KA/LA/SA ezezkoak dira eta denek batean egiten dute zerrenda bat euskaraz (1). Horra zer frogatu nahi dugun. Abiatuko gira A ezezkotik, nola aurkitzen den kanpoko mintzairetan eta ondarrean euskaraz. Gero erakutsiko dugu badela lokarri bat A ezezkoaren eta NA ezezkoaren artean eta nola den ezezko berri hori bai kanpoko mintzairetan, bai euskaraz. Azkenean atxemanen ditugu KA/LA/SA ezezkoak NA ezezkoarekin lotuak.

Uraleko eskualdean mordvetarrez badute A ezezko bat. Samoyedarrez, AhA ezezko bat. Bi forma hoik aipatuak dire Morvan-en liburuan. A aditzondo ezezkoa erabilia da Ipar Pakistaneko burushaskiarrez. Eta azken mintzaira hartan bada ere A aurrizki ezezkoa, hala nola:

A(k)henas: EZ jakin henas: jakin.

A(y)etas: ahal EZ dena etas: ahal dena.

Korrearrez ere ezagutzen dute A aurrizki ezezkoa, hala nola :

Asuipta: ez aisa izan ^ suipta: aisa izan. Grekoaz A aurrizki ezezkoa ainitz erabilia da, adibidez:

Aptos: hunkitzen anal EZ dena

Aatos: asetzen chal EZ dena

Abatos: gainditzen ahal EZ dena

Agamos: EZ ezkonturik

Aphonos: Botzik EZ

Apatheia: Deus EZ sofritzerik

Alethes: egia < EZ gordea

Shonarrez eta sesothoarrez, Hego Afrikan aditzondo ezezkoa da hA. Mendebal Afrikako sererez eza diote hAa. AA hitzerraldi ezezkoa bada kanouriarrez, kilubarrez eta haoussarrez, bai eta ere Txadeko dangaleatarrez, ndemearrez, goulayerarrez.

Euskaraz badugu A aurrizki ezezkoa, hala nola:

Amotz: KAmuts, lanputz < F7 muzten

Ager: azaldu < F7 gerizan, F7 gorderik

Agin: manatu < EZ egin

Agor: idor < EZ gor(din)

Adei: begirune, jendetasun < EZ deirik

Apur: pixka < EZ burutu

A ezezko horren sort-lekua aisa ikus daiteke Afrikan dela. Biziki zaharra da zeren eta atxemaiten baita urrun Uraleko eskualde arijo eta Korea artio. Grekoak ezpeitu bertze aurrizki ezezkorik, pobrezia horrek erakusten du mintzaira hori ez dela hain zahar. Euskara aldiz zaharrago baita baditu ezezko frango, ikusiko dugun bezala.

NA ezezkorat igan aintzin erakutsi behar da nola NA eta A ezezko zerrenda berekoak diren. Alethes hitz grekoa bezalako hitz bat bada Kazaktarrez, nun ere A ezezkoaren orde aurkitzen baita NA ezezkoa. Huna:

NAghyz: egia < EZ(NA) + giz, turkoaz= gorde. Bertzalde euskaraz bada apur eta napur, agin eta nagi, Horrek erakusten du badela pasaia bat A eta NA artean. Bi ezezkoetarik zoin den zaharrena? A soinua arruntena baita, eta Uraleko eskualde artio hedatua baita, zaharrena ditaik.

NA ezezkoa nun agertzen da? Ez da ageri Ipar Europan, baina errege da Indian eta Indiaren inguruan. Erabiltzen dute NA hitzerraldia eta NA aditzondoa singalestarrez, bengaliarrez, sindhiarrez, poshtuarrez. Eza bakarrik NA diote oriarrez, Gujratiarrez, pandjabiarrez, persandarrez, kurdoarrez. NA aditzondoa bakarrik balutchetarrez, kashmiriarrez, tadjiktarrez.

NA aurrizkia ere gertatzen da Hala nola:

persandarrez: NAdare = ez da  
NAdanestan: EZ jakin danestan: jakin  
-tadjiktarrez: NAdonistan: EZ jakin donistan: jakin  
bengaliarrez: NAjana: EZ jakin jana: jakin  
tziganoarrez: NAjin: EZ jakin jin: jakin  
NAkuc: merke + kuc: kario  
NAzhuzho: zikin zhuzho: garbi  
NAshukar: itsusi shukar: eder.

India utziz, mendebal alderat joan ete, huna Turkia. Erraiten da hango mintzairak ez duela aurrizkirik, hitz guzien erroak lehen silaboan daudela. Bizkitartean ez da ukatzen ahal badirela hitz zonbait NA aurrizkia dutenak. Hala nola:

NAPar: ahul < EZ indarrik (gare: indar)  
NAhak: zuzenkontrako < EZ zuzen (hak: zuzen)  
NAhos: higuingarri < EZ goxo (hos: goxo)  
NAfile: alfer < EZ egintzarik (fill: egintza). Azken hitz horrekin parekatzen ahal da euskaraz :  
NAGi: alfer < EZ egin . gi/egin-ez ikus Norvan, La Langue basque parmi les autres, Izpegi, Baigorri, 1994, p.75.

Turkoarekin ahaide den Kazaktarrez ere jadanik aipatua izan da NAghyz: egia < EZ gorda. Huna bertze bi etsenplu NA aurrizkiarekin:

NAdan: ez jakina # dana: zuhur, buru argi  
NArasy: mutur < EZ pozik (razy: pozik)  
Mendebal Europarat jin egiten. Suisako Erromanxtarrez eza diote NA.

Bertzalde espaniarrez, badute NA aurrizkia. Hala nola:

NAda: deus EZ  
NADie: nEHor

Frantsesez bada NA hitzerraldi bai ezezkoa, bai baiezkoa. Haur ttipien erranmolde bat da. Erraldi ezezko baten ondoan gertatzen denean, badauka indar ezezko gaitza. Hala nola: haur batek aitari dio: "Je n'irai pas au lit, NA! oherat eniz joanen, NA! NA horren baitan bada eza baitaere denbora berean aitaren alderako desafio bat. Onomatopea dela erraiteak ez du erakusten nondik haurrak ikasi duen holako mintzatzeko manera.

Ezpeita bertze NA ezezkorik Europan, joan giten Afrikarat. Han peultarrez badute NAa aditzondo ezezkoa: 15 miliun mintzatzaileekin, peultarra Afrikako mintzaira hedatuenetarik bat da.

Munduko itzulia eginik, jin giten Euskal-Herrirat, guk ere baitugu NA ezezkoa: huna hitz zonbait NA aurrizkiarekin:

NAgi: alfer < EZ e(gi)n

NAbari: ageri ezagun < EZ bar/berri

Nabusi: buruzagi < EZ buxi/gutxi, cf NAgusi

NAkar: gogogabe < Karrik /bururik EZ ,cf karsoil

NAbar: kolore askotako < EZ bar/berdin

NAhi: gogo desira < EZ hi!

Azken hitz hortan geldi giten ixtant bat. Hitz horren erroa zingularreko 2gn persona izen ordaina da, gure etimologia xuxen bada. Bainan NAhi/NAi hitza silabobakarrekoa ote da ala bisilabokoa? XVI.mendean, bizkaiarrez, bisilabokoa zen. Huna Luis Michelenak eman etsenplu bat Refranes delako liburutik hartua:

-336- Galdu pe eguic aldia Ez gal parada  
ta ydoro dayc naya eta aurkituko duk nahia.

Hemen argi da hiru silaboak ahozkatu behar direla, NA-i-ak errima egiten baitu al-di-a hitzarekila (Fonética histórica, San Sebastian, 1990, p. 526).

Bertzalde nahi hitzak ahal baiezko bat erakusten baitu, hitz horren etimologian, nola ager ditaik ezezko bat? "EZ hi" horrek ezezkoa erakusten du dudarik gabe; bainan ez ditaik uka "EZ hi" erranez, norbaitek bere nortasuna ezagutarazten duela. Ezen "hi" baztertu-eta, hire lekua hartu nahi deiat ala hire orde bertze norbait nahi diat ezarri.

Beraz bietan ez ote deiat jakinarazten ni ere hor nizala eta badutala hor zerbait erraiteko ahala? Halaber, jadanik ikusi dugun bezala, kazaktarrez, NAghez eta grekoaz Alethes, bi hitz hoi etimologia izanki "EZ gordea", erran nahia aldiz "egia", hitz ezin baiezkoagoa, bizkitartean etimologiaren barnean bada hor bi ezezko.

Bertze galde bat "NAhi" hitzaren etimologiaz: "hi" izenordea nola izen arrunt baten erroa izan ditaik? Ez ote da gauza bera "sehi" hitzarrekin? Hemen "hi" izenordetzat har ditaik. "se", lehen silaboa aldiz aukitzen da ere hitz hunetan: SEaska, SEin, SEmin, SEme, erran nahi baitu: haurnoa . Halaber grekoaz, "pais" hitzak erran nahi du haurra ala sehia, solasinguruaren arabera.

Azken ohar bat "hi" izenordeaz: Morvan-ek Ch. Haguenueren lanaz baliatuz erraiten du Tungustar mintzairek eta mandxuarrak badutela "SI" zingularreko 2gn persona izenordetzat, bizkitartean tungustar mintzaira batek, Lamutarrak baduela "HI" euskarak bezala (3). Beraz gure "HI" sartzen da EZ/ZE/E/EHE zerrendaren eremuetan. Afrikan, Txadeko dabarez "hi" erraiten dute "hihy" beti Txadean, baguirmiennetarrez, goulayez, nagambayez . "i", mbayez, gorrez, kengarrez, Sarrez "ii"; Txadetik kanpo Nigerian iboarez, Burkina Fasoan morearez, Malian bambaraz "i". Erran ditaik bederen eta artetik, Afrikako jende hoik oroek aisa ikas lezaketela gure zingularreko 2gn persona izenordea.

Beraz gure etimologia xuxen balinbada, NA eta "hi" berex behar dira. Ezen "hi" NA ezezkoa baino zaharrago ditaik, noizbait Afrikatik etorria lehenik. "Hi" hori ZE/EZ/E/EHE gure ezezko zaharrenekin ikusi behar da.

Aski hola "nahi" hitzaz (4). Aipatu ditugun NA aurrizkiak, bertze hitz baten gainean geldi giten memento batez. Hau dugu hitza: NAhar. NAhar: sasi, txistatzen duen landare basa bat; etimologiaz: EZ har. Zertako EZ har? preseski txistatzen

baitu. EZ har: nor da hola mintzo? Bi hitz hoik ezjakinentzat dira, haurnoentzat. Haur ttipien zaintzaleak ez dira gizonak, bainan emazteak, amak edo amatxiak, ahizpa edo arreba zaharrenak. Holako etimologia arruntak ez ote dauku erakasten nahar hitza ez dela batere orai sorba?

Nahar hitzaren bertze berezitatuna: lehen sil aboaren hizkia kanbiakorra da. Beraz NAhar bilaka daiteke LAhar/KAphar/SAphar. Hortaz huna galde bat: alde batetik NA aurrizki ezezkoa izanki, bertzetik erran ote ditaikela LA/KA/SA/NA bezalako ezezkoak direla?

Hoik hola, euskaraz NA lehen silaboa dela LA bilaka ditaikela. Hala nola:

Nabela / labela

Napur / lapur

Naba / laba

Nasai / lasai

Narru / larru,

Bertzalde bada LA aurrizki ezezko bat, adibidez:

LABur: motz < EZ burutu

LAhar/LApar: sasi, XAhar < EZ har

LABaki: luberri, zuhaitzak mozturik < cf ebaki, moztu = EZ bat egin

LApur: fiapur, gormant < EZ apur

LA ezezkoa aurkitzen da, bai hitzerraldia eta bai Aditzondoa arabiarrez.

Aramearrez badute LA hitzerraldia, aditzondoa eta aurrizkia, hala nola

LAKbala: EZ onhartu kbala: onhartu

LAtova: gaixto, EZ on ^ tova: on

Hego Amerikako mapuxtarrez badute LA aditzondo ezezkoa eta hitz berak erran nahi du herioa.

Huna ere KA aurrizkia:

KAMuts: Amotz, lanputz < EZ muzten

KAphar: NAhar < EZ har

KAuke: pobre < EZ ukan

KAusitu: aurkitu < EZ usatu

KAbe: GAbe

Mendebal Afrikako Bissauko creolez KA aditzondo ezezkoa aurkezten da. Eta Hego Afrikako Zulutarrez CA hitz erraldi ezezkoa.

Bada ere euskaraz SA aurrizki ezezko bat. Adibidez :

SABor: samur, bera < EZ bortitz

SAharte: bihurtzeko sarde < EZ arterik

SAihes: alderatu, desbideratu < EZ ihes (bazterretik)

SAkune: xiloka < EZ gunerik

SAMur: bera < EZ murriz

SAPar: NAhar < EZ har

SAkatu: zangopilatu < EZ zztatu

SAMar: guti < EZ mara

SASi: nahar landare basa < EZ hasi

Afrikan SA aditzondo ezezkoa gertatzen da senufoarrez eta Hego Afrikako Chichewarrez. Artetik erraiteko, bada Korearrez hitz zombait, SA lehen silaboarekin, SA hori Xinatarra da eta erran nahi du herioa. Hala nola:

SAmiong: herioaren mozorro

SApiong: eritasun hilgarri

Saso: nork hil nahi duen tokia

Saja: une personne decedée etabar. Bainan SA ezezkorik ez da. Bainan SA ezezkorik ez da.

Beraz NAhar / Lahar / Kaphar / SApapar euskal hitz zerrendari esker, atxeman ditugu NA/LA/KA/SA ezezko zerrenda bat badela euskaraz eta ez girela ezezko hoi en erabiltzaile bakarrak mundu huntan. Agertu zaiku Afrikan lekuka badituztela ezezko hoik guziak. Nola ez pentsa Afrikatik nolazpait ateratu direla munduko hizkuntza eta kulturak.

Aurkeztu ditugun 2 zerrendak, alde batetik EZ/ZE/E/EHE zerrenda eta bertzetik A/NA/LAKA/SA zerrenda parekatuz zer erran ditaiké?

1) EZ/ZE/E/EHE zerrenda (5) agertzen da Ipar urruneko EuroAsian, Finlandatik Korea artio. Eta hortik kanpo Euskal Herrian eta Afrikan. EuroAsiako eremuan direnak Afrikatik urrunenak dira eta horren gatik pentsa ditaiké Afrikatik lehenik ateratu direla eta tokiko populuz zaharrenak.

2) A/NA/LA/KA/SA zerrenda aldiz gertatzen da Hego EurAsian, Espainatik Ekialdeko Indiako Bengali artio bai eta haratago Korea artio, Grezian, Turtlan, Perzian, Afghanistanean gaindi eta hortik kanpo Euskal Herrian eta Afrikan. Afrikatik hurbilago baita hego EurAsiako eremu hori, pentsa ditaiké Afrikatik jali direla Ipar urruneko EurAsiakoen ondolik.

3) Afrikan, Korean eta Euskal Herrian bi zerrendak elgarretarazten dira.

4) Hitz zerrenda berriak aurkitzen dira ezezkoen zerrenden parekatzetik. Hala nola:

HAR zerrenda: zeHAR, ezAR, naHAR, IaHAR, kapHAR, sapHAR.

BUR/PUR zerrenda: aPUR, ñaPUR, (aBUR, (aPUR, erroa dela BURu

5) azken oharra: euskaraz bada ezezko ainitz. Jadanik 2 zerrenda atxeman dugu, bainan bada bertze ezezko zombait. Iduriz ezezkoak mintzairaren sortzailak izan direla.

Robert Puchulu  
Miarritze 1999, 10, 19

## Liburu erabiliak

-Atzekoz aurrera, hitz-bukaeren hiztegia, Uzei, Donostia.

R. M. de Azkue, Diccionario vasco-español-frances, ed. La Gran Enciclopedia vasca, Bilbo, 1969.

-J. Casenave Harigile, Hiztegia, euskara-français, xiberotar euskalkitik abiatzez Hitzak, Graficas Lizarra, 1993.

P. Ezanno, Dictionnaire sérère-français, Mission de Joal (Senegal) Dakar 1960.

D. Indjoudjian, Dictionnaire kazakh-français, Publications orientalistes de France 1983.



- P. Lhande, Dictionnaire basque-français, T.I,Beauchesne, Paris, 1926.  
 H.G.Liddell, R. Scott, H. Stuart Jones, A greek-english lexicon, Oxford Clarendon Press, 9<sup>o</sup>ed. 1953.  
 -N.Malherbe, Les langages de l'humanité, Robert Laffont, Paris 1995.  
 M.Morvan, Les origines linguistiques du basque,Presses universitaires de Bordeaux, 1996.  
 Dr Pars Tuglaci, türkge-fransisca, Inkilop Kitabevi, Istanbul, 5<sup>o</sup>ed 1998.  
 Pocket korean-english dictionary, ed. Minjung Seoghan, Séoul 1958.  
 -I. Sarasola, Euskal Hiztegia, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1996.  
 Sinonimoen Hiztegia, antonimoduna, adorez 3, Elkar, Bilbo 1988.  
 Txadeko mintzaireraz: P. Palayer, Dictionnaire sar-français,Tchad, Geunthner Dictionnaires, Paris 1992. Gainerako berriak, David Mouljidé jaunaren gutunetaz.

## Oharrak

- (1) Ikus aintzineko artikulua "Euskal ezezko zombait ZE/EZ/EZE/E/EHE/UL. Hor aipatu dugu lehen ezezko zerrenda bat. Artikulu huntakoa beraz bigarren ezezko zerrenda bat da .
- (2) Les origines linguistiques du basque, p.168
- (3) Les origines linguistiques du basque, p.220
- (4) "Nahi" hitza bera izan daitake ezezko bat. Ikus Indiako gudjrtiarrez eta marathiarrez. Bada ere "nahin" Indiako Hindiarrez eta Pakistaneko Urduarrez. Inguruko mintzairerak erabiltzen baitute NA ezezkoa, nundik heldu da "hi" eta "hin" bigarren silaboa? Zer diote indianistek?
- (5) Gure bi ezezko zerrendak eginak izan dira gauzak euskaratik hartuz. Laburki gauzak aztertzeko zerrenda hitza baliatu dugu ez bakarrik bere erran nahi hertsian (zerrenda osoa ikusiz), baina ere erran nahi zabalagoan (zerrenda elementu bakoitza zerrenda osotzat hartuz). Hala nola Korea sartzen da EZ/ZE/E/EHE zerrendan, E aurritzia baitu, horrengatik errar daitake zerrenda bera han dela, haren elementu bat han izanki.Gainerakoan zerrendarekin lotua da mintzaira eremu bat: Eman dezagun Ipar urruneko EurAsiako eremua lotua da EZ/ZE/E/EHE zerrendarekin.

## Summary

In a first article, it has been shown that among bask negatives there is a series ZE/EZ/EZE/E/EHE/UL. In this new article, the matter is another series Of bask negatives A/NA/LA/KA/SA compared with similar forms in South EuroAsia and in Afrika.

## Sommaire

Dans un premier article il a été question d'une série de négatifs basques ZE/EZ/EZE/E/EHE/UL. Dans le présent article, le sujet traité est une nouvelle série de négatifs basques A/NA/LA/KA/SA comparés avec des formes similaires d'EurAsie méridionale et d'Afrique.

## Resumen

Ez dut egiten ahal. Eginen duenari, eskerrik asko!

# LATXAGAREN LIBURU BERRIAREN AURKEZPENA

Don Jose Maria San Sebastian jaunak, Latxaga euskaltzaleontzat, oraingoz, bere azken idaztia den EUSKAL SENA-ren aurkezpena egitea eskatu dit. Oore handia neretzat, eta, ez dakit niregan Latxagak jarri dituen gogo eta itxaropenak betetzeko gauza izango ote naizen.

Aspalditik ezagutzen dut Latxaga, Fefitxu Eraso andereñoak Koruko Amaren kalean, Gaztelubidetik genu, zuen ikastolan biltzen baitginen, euskeraren inguruan genituen kezkeei erantzunez. Han konturatu nintzen gure D. Jose Mariak zuen euskera maila, bere euskalzaletasuna eta irrika.

Ondoren denbora luzean ez dugu arremanik izan, direla bi une berriro elkar ikusi arte, D. Miguel Pelay Orozco zenaren eriotzaren ondoren, Aralarko San Miguelen gure laguna zenari, egin genion omenaldian, bertan eman baitzuen Meza D. Jose Mariak eta galdu berria genuen Miguel Pelay-ren aipamen ona egin ere.

Don Jose María San Sebastian apaiz jauna, Latxaga, Euskeraren ikerlariaren curriculum a egin naiean, an eta amen bila ibili ondoren, Donostian jaiotako jaso dut 1933.an. Pariseko Notre Damen apaiztu zen, 1958.an, Pariseko Instituto Katolikoan Teologiako Doktoradutza egin zuen 1976.an. Ondoren Pariseko Ikasketen Goreneko Eskolan Antropologiako doktoradutza egin zuen 1979.an, eta 1983.an Sorbonan Lingüistikako doktoradutza lortu zuen.

Estatu Batuetan eta Mexikon bizi izan zan ondoren.

1974.an, Orexan, Nikolas Ormaetxea, Orixe zenaren lurraldetan, aurkitzen dugu, bere apaizlanak betetzen. Bere euskal kulturarekiko griñak, bere parrokiako gazte talde bati txistua erakustera bultzatzen du eta horrela idazten digu egunkari batean: "Euskal erri txiki batek, gizonak arnasa bezela txistua behardu. Txistulariekin Euskalerrriak beste kutsu bat dauka. Oresa'n nere egunik zoragarrienak, gure gaztetxoek txistua entzunez igaro ditut... eguraldi guztiekin gaiñera; euria edo eguzkia, lanbroa edo elurrarekin. Txistuarekin Oresa k beste usai bat dauka."

Latxagaren Literatur lana oso aberatsa izan da, zabala eta anitza. Bertan egiaztatzen da, nolako den euskerari buruz berak duen ezagupen gorena, gizarte erlijiosoarena eta beste abar luze bateko gaiak buruz ere. 1964.an "Sistemas de Educación en los Seminarios" argitaratzen du. 1973.an "Aralarko San Miguel". Une beran "Naparroa Euskal Arrobia". 1974.an "Errioxako San Millan". 1975.an "Oresa Etnografia Aldetik", urrengo urtean "Jaka'ra oñez Naparroan zear". Urte berean, 1976.an "Arkaitzeko Bizigotiko Baselizak Araban", iru izkuntzetan. 1978.an, "Eglise Particulière et Minorités Ethniques". 1979.an "Minorités Nationales et Liturgie Romaine". 1979.an ere "La Comunidad Hispana en la Iglesia Católica de USA" 1981 an "Iglesias Particulares y Grupos Etnicos". 1982.an "El Pueblo Hispano en USA". 1984.an Euskalerrriko Sinodua. 1984.an Akto para la Noche Buena de Pedro Ignacio de Barrutia. 1990.an El Sinodo del Pais Vasco. 1991.an: "La Misión de Nuestra Señora de Guadalupe de Paso del Norte en Ciudad Juarez", eta zenbait aldizkaritan argitaratutako artikuluak.

Lehen esan dugun bezala Pariseko Sorbona Unibertsitatean Lingüistikako doktoradutza lortu zuen. Han 1983.ko Epailearen 22.an bere Tesia irakurri zuen

"La representación del tiempo en el verbo vasco", "Euskal aditzaren korapiloa" askatu nahirik, eta egunkari batean egin zioten elkarrizketa batean berak esango digun bezala, aditz korapilotsutik aditz menperatura igaroz.

("Pasando de Situación de verbo enigma a la de verbo domesticado") esango digu.

Ikerketa hau egiteko, mailaka joan bar izan zuela esango digu: lehenengo, aditz grekolatinoa eta indoeuropeoarra ikertu zituen eta euskal aditzak horiekin inolako erlazio punturik ez zuela ikusi zuen.

Bigarren maila aipatzerakoan, Elvira Cipitria andereño paregabekoaren gorai-pamena egiten digu, Donostian hainbeste gazte euskera erakutsi eta irakatsi zuen andereñoa eta "nork-nori-nor" aditzaren jardutzaileei buruz berak egindako aurkikuntzak, tesi doktoralaren prestakuntzarako izan zuten garrantzia.

Nere iritziz orain arte aipatutako guztiak, gaur aurkezten den idazlan honetako itzaurrean Antonio Zavala Aitak esandakoa frogatzen dutela uste dut "Latxaga, ez geldirik egoteko jaioa da, gizon saiatua eta langile purrukatua."

Don Jose Mariak bere apaizgoaren betebeharrak betetzen ditu eta baita ere euskerarekin eta gure erriaren kulturarekin zerikusia duten gauza guztien ardura bizia artu du eta artzen du.

Ardura auen ondorioa da gaur aurkezten dugun liburu berri hau, EUSKAL SENA. Sendoa argitaletxeak argitaratua, 260 zenbakia duen, Auspoa bildumako atea.

"SENA" izenez, Mujikak, zera adierazten du: nortasuna, zuertasuna, zentzua eta bestalde, Ibon Sarasolak "SENA"ri buruz onela dio: "Zentzu ona. Gogo oreka. Gogoetaren, esperientziaren edo heziketaren ondorioa".

Itzaurrean, Aita Zavalak onela esango digu: "Euskal Sena izenburua, egoki aukeratuta dago, gaia zer den adierazteko: Gure erriaren izakeraren berri eman nai luke. Baiña ez azalean geldituta, gure barruko izkutuak argira azaldu nairik baizik. Egileak lortu nai lukeana liburu onekin zera da: irakurle bakoitza, liburu ontako orrialdeak irakurri alean, gure izakera eta sena zer diran ikasi eta jabetu nairik, pentsatzen eta ausnartzen asi dedilla".

Aita zavalaren iritziz "Liburu au orain arteko liburuetan ongi oiñarrituta dago. Baina ez du ori iturri bakarra. Beste oparoago bat arkitu du Latxagá k: Gure Erria. Orrialde auetan orixe ikusten degu argi eta garbi Egilleak konta-ezin aal ordu pasa dituala gure erriarekin artu-emanetan, belarriak adi eta erne, aren ezpainenatik gure izakeraren izkuturen bat noiz azalduko zan.

Gure erriak, izan ere, mundu guztiko beste erri guztiak bezelaxe, alderdi onak eta dizdiratsuak baditu noski baiña bai txarrak eta illunak ere. Sarritan, ordea, auek izkutatu eta besteak neurritz gain altxatzen aalegintzen gera. Bide ortatik ez diogu geren buruari mesederik egiten, kaltea bai ugari.

Latxagák gure birtuteak goraiatu eta gura akatsak salatu egiten ditu. Ori egiñez, gizon librea agertzen zaigu.

Bere liburuan Latxagak 73 gai ukitzen ditu. Denak oso jakingarriak, irakurtzeko errazak eta gogoeta egitera, ausnarketara, bultzatzen gaituztenak. Ez ditut denak aipatuko. Adibide bezala ordea, auek aipatu nai nituzke: "Euskal Nortasunaren jakintza", "Euskaldunaren bakardadea", "Lanari eusten", "Gorra, gogorra, eosgorra", "Etxea zorretan ez utzi", "Gure gaitza, maltzurkeria", "Billeretan egoten jakin", "Baztertzen iaioak", "Erdibidearen billa", "Itzari eutsi", "Ez neretzat, ezta ere iretzat", eta abar, eta abar.

Auetatik zuei zati bat irakurtzeko auxe aukeratu dut "Erdibideraren billa" izen buru duena. Erdibidea zein beharrezkoa den gizakien arteko eztabaidak konpon bidean jartzeko.

Ez dut uste azkar irakurtzeko lana denik. Lasai irakurtzeko baizik bere orrial-  
datan azaltzen diren gai bakoitza ausnartuz. Gaur egun gure Erriak bizi dituen  
une zail auetan, egunero sortzen zaizkigun egoera korapilatsuak zuurtasunez  
aztertzeko lagungarri izango zaigula uste dut apalki, egileak itzostean esaten  
digun bezala:

Euskaldunok nortasun aundiko gizon emakumeak dauzkagu: baiñan zailak  
gera, ikusi dezakegunez idatzitako orrialdeetan, euskal nortasunaren alderdi  
nabarmenak azaltzen bait dira, gogoan artzen direla onak eta txarrak, eta batak  
eta besteak ezagutzeko laguntza aproposa eskeintzen digu Latxaga jaunaren  
liburuak.

Don Jose Maria San Sebastian, "Latxaga" zorionatu nai dut bere lanarengatik.  
Euskera eta euskal kultura maite duten donostiar guztiak liburu au ezagutu eta  
irakurketarekin gozatu daitezela nai nuke.

Eskerrik asko eta Zorionak Latxaga Jauna, zure bizitzan zear gure euskera eta  
kulturaren alde egindako lan aundiagatik, eta bereziki liburu berri onengatik.  
Zugan bait daukagu Donostiarrok nun ikusi eta ikasi. Eredu bikaiña bezala artzen  
zaitugularik.

Jesus María Alkain  
Donostia: San Inazio Parrokiko aretoan  
1999'ko Azaroaren 5'a

## EUSKERAZAINTZA 'KO LEENENGO LEENDAKARIA

# LINO A:KESOLO: GIZONA ETS, LANA

### 1. Bizitza-zertzeladak

Frutu oparodun gizonaren adimena eta biotza ze girotan, zelako leenaren milla bidetan azi ta gorpuztu diran jakitea eder jaku. Ur andiko ibaia nondiko erreka eta goi-iturrietan sortu dan.

Lino Akesolo Bizkaian, Arratiko Diman jaio zan 1911. IV. 7an, Oba auzunean eta Akesolo deritxon baserrian. Aita, Antonio Akesolo Bikarregi, dimostarra, eta ama, Praxedes Olibares Intxaurbe, Zeanurikoa.

Oban egin ebazan leenengo ikasketak lau urtetik bederatzirarte, auzuneak jarritako auzo eskolan. Maixua euskalduna zan, eta euskera zan eskolako izkuntza. 4x4=16 eta antzerako esaerak bakarrik entzuten ziran erderaz euskera artean. Katekismo liburuia euskeraz euken; aldiren baten gipuzkerazkoa be erabili eben, eta "gatxa" eritxi eutsoen. Bederatzi-amar urte bitartean Diman jarraitu eban eskola ikasten Donato Bernaola maixu partikularragaz.

Alejandro Akesolok, aitaren osaba eta Dimako parroko izanikoak, itzita latin, erdera eta euskerazko liburuak egozan etxeko gela baten. Gurasoak domekentan elizara joaterakoan, umeak Gela orretan zarratzen ebazan, kalte egiterik ta miñetik jagoteko. An emoten eben nebarrebak denporea liburuetako "santuak" ikusten. Moguel eta Añibarro eta Gregorio Arrueren Brabanteko Genobebaren bizitza...

1921 ean, zemendian, amar urteko, Zornotzara aldatzen da Lino mutikoa, Larrako karmeldarren ikastetxera, latin eta beste gai batzuetan gertatu eta urrengo urtean bigarren maillako ikasketak asteko asmoz.

Larrako ikastetxean (1921-1926) umanidadeak gaztetxuai emoten eutsen lenengo gogo-zabaltasunaz ganera, euskerearen duintasuna sartu jaken gogo-biotzetan. Irakatsi egiten zan beste gaien artean (Angelo Jauregi irakasle zala); eta an be katekismoa euskeraz euken. Latinetik euskerarako itzulpenak egin azoten eutseezan. Jauregi irakasleak *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketan parte artzera be akulatzen ebazan. Astean egun baten euskeraz egin bear eben guztiak, erdeldunak be bai. Jantokian, astegunetan, irakurri egiten zanez, Kirikiñoren *Abarrak*, Txomin Agirrereren *Auñamendiko Lorea*, *Kresala*, Azkueren *Ardi galdua*, *Txirristadak*, *Bein da betiko*, eta olako idatzi errezak ezagutzeko erea izan eben. Aita Erroman (Leon Urtiaga) zuzendaria (gero 1937ean errailla izan zana) garbizalea el zan; eta ondorioz, ikasleen arteko giroa be orrelakoa zan; Frantzizko (Agustin) Atutxa olerkariak, esate baterako, gero, garbizale utsa jarraitu eban. Akesolo gastetxoak izan eban eztabaidaren bat zuzendariagaz, eiren oizko berba bizien alde agertuz. Orduan izan zan Gernikako Eusko Ikaskuntzaren batzarra (1922-IX-10-17). Euskera eta euskal gaiak agirian olako batzar ospetsuan erabilteak, jakintsu eta erakunde guztiak parte artzen ebela, euskerearen garrantzia sendotu eban ikasle gasteen gogoetan.

*Euskal Esnalekoak* J.M. Barandiaran bialdu eben bein Larrako ikastetxera, euskera ikasteko ze ikasbide erabilien ikertzeko. Eta Madrillen Txekoslobakia'ko

enbaxadan lan egian Norbert Taue ek be idatzi eban ara irakasten zan euskera metodoa eskatuz. Euskera inguruko olako jazoerak be bizkortu egien ikasleakan aren gora eta zalatasuna.

1926-1927 nobiziadu urtea profesu txikiagaz burutu eban Larrako komentu istorikuan (1927.VII.1.14). Gero Markiñara aldatu ziran gazteak, urtebetez bigarren maillako ikasketak osotzen. Urbano Manzisidor'ek kondaira euskeraz azaltzen dautse. Emen da ikasleentzat euskal norasuneko agertzen dan A. Lontzi (Kepa Ormaetxea); onek, esate baterako, egundoko altxortzat goستن dau Garoa, gazteai miresmen berbera naastatuz. Jantokian euskerazko liburuak be irakurten ziran. Eta ikasleak euren esku eukezan *Zeruko Argia* eta *Jaungoiko-zale*. An eme jakon Akesolori Bartolome Madariaga eta beste leengo idazleak irakurteko zaletasuna. Markiñan asi zan Campiñon'en *Gramática* ikasten gero Gasteizen jarraitzeko. Campiñon izan zan Auñamendiz andiko euskalkietarako atea edegi eutsuna.

Gasteizen iru urtez (1928-1931) ekiten dautsoe ikasleak filosofia eta inguruko gaiak ikasteari. Gai-egitamueta ez da onezkero euskera sartzen, baiña orain arte artutako eziketak sustrai sendoak bota ditu, eta ikasleak eurak landuz doaz. Udako oporretan, alan be, berarizko eskolak ditue oindiño. Akesolok Markiñako irakurgaiak ditu emen be. A. Gabirel Jauregik (*Pisia ta kimiaren egilleak*) zirikatuta leiketera bialtzen ditue lanak. Cervantes'en *Novelas Ejemplares* sailatik eleberrri bat itzuli bear zan. Akesolok "El Celoso Extremeño" (Agure kezkatia) aukeratu eban. Sasoi atan Larramendiren iztegia be aztertuta eukan, eta emendik artu eban lanaren goiburua: "Aukeraren maukera atzenean okerra". Ambrosio Abasolo irakasle gazteak (gero Indian Gotzain izango zana) eta Akesolok eta Onaindiak eskuratu eben saria Donostiako *Euskal-Esnaleak* 1930ean eratutako leiaketa orretan: liburuak erosteko da ikasle biak arturiko eun pezetako banaren zati bat. Akesolok Azkueren Iztegia eta Morfologia erosten ditu.

Gasteizen asi zan irakurrjala berba eta esaldi jatorrak batzen, gauzak egoki eta zeatz adierazteko. Orduan konturatu zan Ibagutxi'k, esaterako, Bartolome Madariaga eta idazle zaarretatik artzen ebazala itz eta esakera asko. Lopez Mendizabal'en iztegia, bere neurri apalean, lagungai izan jakon.

Mendiburu'en *Otoitz-gaiak* eta Agirrerren *Auñamendiko lorea* ekarteko eskatu eutsen etxeokai.

Filosofia ikasketak amaitutakoan Lino gaztea gurasoen etxera doa osasuna indartzen. Umetan, amar urte leenago itxitado etxe eta alderdiak zirarra bizi sakona eragin eutsoen. Eta ia mundu orren arnasa euskerea zan. Umezarako euskerea, beti be barruan eroaina, iratzarten jako indartsu. Ordurik asmatu eban erri-euskeraganako maitasuna, eta bera ondo ikasi eta menperatu bearra. Emen eltzen da bere eskuetara Azkueren *Cancionero Vasco*, leenengo atea, eta griñaz ikasten dau udako hilabete bi areetan, ia buruz jabetu arte.

Ostean, teologi ikasketen aldia dator. Lau urtez leiatuko da Begoñako Karmeldarren ikastetxean (1931-1935). Oindiño ikasle zala mezakotu zan bertan (1934 VI.8), S. Onaindia eta beste amar gazte lagun ebazala. Azken urte onetan euskera onezkero bakotxak lantzen dau bere beretara. Akesolok, besteak beste, *Euskal-Erria* aldizkaria irakurten dau. Jakintza egarrirako urte onugarriak dira oneek. Ganera, Errepublikak garai atan, aurreko urteetan ixilpean aziz joian euskal bizi-indarrak leer egiten dau. Entusiasmu alaia zabaltzen da euskal kulturatan, naiz ta inguruko jazokun illun zemaitsuak ezin aaztu. Oso ezagunak jakez Lauxeta, Lizardi, Orixe... Azken bultzada artzen dau euren euskal deiak, arnas andi eta goimallako literatura naiz eguneroko eta jakintza maillako lanak burutuz euskerea beste izkuntzen parera jasoteko. Akesolok, giro

gaztearen arnasa artzen ebala, ez eutson itxi liburu zaharrak irakurri eta aztertzeari be, Gasteizen asitako lanean.

Begoñan asi zan, beste ikasle euskalzale batzuekatz batera, 1931 ean sortutako *Karmengo Argia* aldizkarako idazten. Aldizkari ori izan bide Onaindiagaz alkarlanean Avila"ko Teresaren *Camino de Perfección* (Onbidea) euskeraz jarteko, gero osotu ta liburu eran agertu zana.

Amaitu ditu ikasketak, eta Zornotzako ikastetxe barrira doa irakasle (1935). Beste gai batzuen artean, euskera irakasle. Urrengo urtean, *Karmengo Argiaren* zuzendari be bada bertan; gerra aurretik zenbaki pare bat atera aal izan ebazan. Lau milla arpidedun eukazan orduan aldizkari orrek. Urteko iru pezeta kobrauta diru-irabazia itzi ei eban ixildu bearra izan zanean. Arpidedun orreen izan zerrendak lagungarriak izan jakozan gerra ostean, urteak geroago, Onaindiari *Karmengo Egutegia* (1915) eta jarraian Karmel egaz lanean asi zanean.

Zornotzan egoala, (au be bere biziko zaletasun eta lanaren agergarritzat aipatzen dogu) erosi ebazan, adibidez, J.Etxepare'ren Berebidez eta Buruchkak, Salla-berri"ren Kantutegia (*Chants populaires du Pays Basque*), M. Duhalde'ren *Medi-tacione handiac*, P. Lafitte'ren *Euskaldunen Lorategia* (nagusiarri jarregi gastetan ebala liburutan erizteraiño).

1936eko urrillan Basurtuko kuarteletik deia artzen dau. Eusko gudarien Teniente Kapellau izan zan Itxasalde batalloian, Matxin taldean. Otxandio-Legutianotik, Orduña, Lekeitio, Axpe-Arrazola, Euba (Zornotza), Matxitxako ta Lezama-Baranbio zear Santo Domingo'n amaitu arte. Bizitza-eskolea izan eban gudaldiko urtebete eskas orretan; euskeran be bai, euskeraz egiten eben ezkerorrialde guztietako lagun artean.

Gudaldian eguneko amar pezetako ordaiña eukan, eta batez be liburuak erosten eralgiten eban. Adibidez, Manterola'ren *Cancionero Vasco* orrela eskuratutakoa dau.

Gero espetxera. Leenengo, Begoñako Karmelon berton, zati baten kartzela biurtuan, 1937eko garilletik 1938eko udaberrirarte; Nanklares'en 1938eko udaberritik urte bereko urrillaren 16 arte; Palenciá ko Dueñas'en 1939eko agorrillerarte; eta Carmona n, 1939eko agostu azkenetik 1940eko 29rarte. Emen, Carmoná n batu ziran abade eta fraile euskaldun asko, Besteiro euren arteko eta adiskide ebela, atzerrietan zabaldu zan argazki sonatu batek be erakusten dauan lez.

Espetxe zigorrerako errazoiak oneek zenduzan: *Karmengo Argia* aldizkarian idea nazionalisten zabalkundea egin ebala, eta gudarien kapellau izanaz guda-matxinadara suztatu ebazala. Fiskalak, beraz, 12 urte eskatu ebazan Akesolorentzat eta jueza 16 bota, arrigarri izan arren. Bearbada juezaren aurrean berba sendoegi edo maltzur egiteagaitik. Fiskalak: "Karmengo Arjia" izena be nazionalista dau, salatu eban. Aldizkarian gauza normalak, beste aldizkari eta egunerokoetan agertzen ziranak, batzuetan laburturik, emoten zirala azaldu eban Akesolok. "Afilación política" itaundu eutsoenean, Euzko Gudalosteko kuartelean gauza berbera itaundukeran, erlijiosoa zala esan ebala erantzun eutsen. Orduan, juezak, urduri, "jarri zaitez, naiko da!".

Ez dau Akesolok garrastasunik agertzen, ezta bere lagunak be, espetxeko urteak gogoratzerakoan. Anaitasuna eben euren artean, eta orduarte betetakoaz kontzientzi lasaia. Ori bai, erriaren ondamena ikusten eben, ainbeste itxaropen oraingoz galduak, etorkizuna ezbaizko edo baltz. Samiña negargarria zan, baiña ez itxaropenbakoa. Espetxean ikasteari ekin eutson gogoz, batez be izkuntzak ikasteari. Leen ikasitako Frantzesá landuz ganera, alemanera, inglesa eta italiera nai izan ebazan menperatu. Orretarako baeukezan gramatikak, iztegiak eta ele-

berriak. Alemanerarako, ganera, Hitler"en itzaldiak eta be eltzen jakezan. Nanklares'en euskeratu eban Salve, Mater Misericordiae abestia, joan-etorrika eguras-ten ebillala. Eta Carmona'n Toselli'ren Serenataren frantzes testoaren ordez olerki bat asmau eban, espetxeko aria zale batek euskeraz abestu eikean.

Espetxe ganean egaz biraka ebiltzan belatz txikiak eskeiñi eutsoen irudi eragillea:

Ontzean zear zabilten usoak,  
al nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraino nintzake egalari  
erbestetuaren maitasun agurraren geznari!

Etsaiak erasota  
ara non dan lur jota,  
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,  
gaur ene gogoa,  
espetxeko ordu beltzetan,  
maitezko egoetan  
zugaraño egadan doa.  
Zu zaitut, aberri,  
neure zorigaitzaren azkarri:  
zeu, aberri!

16 urteok (edo ogetamarrok be bai) sei urtera jatsi eutseezan. Akesoloren alde oneritzi zabalak lortu ebazan bere aitak, egia esan; baiña zigor aldatze andi au orokorra izan zan. Iru urte beteta eukezan ordura ezkeru, eta beste irurak askatasun baldintzatu bidez betetekotan espetxea izteko baimena eldu jaken. Sevilla ta Madrid'etik zear etorri zan Akesolo beste karmeldar bategaz (Sebastian Atutxa) bere errialdera. Baiña Euskalerrian gelditzerik ez euken gobernuaren aginduz. Orregaitik, Artola Diputaziño-buruaren laguntzari esker bere gurasoen etxean illabete emon ta gero, Hoz de Anero'ra, Kantabriako karmeldarren Desertura bialdu eban Probintzialak. Urtebete barru iruñara (Nafarroa ez zan sartzen debektutako barrutian) Nafarroako uriburuan jarraitu eban 1943eko azkenerarte, liburu zaharrak aztertzen, eta danetarikoak billatzen. RIEV'eko aleak emen irakurri ebazan. Baiña liburutegiko autsak abots barik itzi eban, eta Zornotzako ikastetxera bialdu eban nagusiak, antza danez esandako debekua aaztua. Orduan ikastetxea andrazkoen espetxea zan, eta A.Leandro Etxebarriak egiten eban kapellau. Alan be, illabete bi barru kanpora joan bearra izan eban Akesolok Nanklares'en ezagutu eban zuzendaria etorri zan inspektore eta. Aldi labur onetan, *Euskal-Erria* aldizkariaren kolekziñoa (Arrese-Beitiarena) arakatu eban pozez.

Esandakoagaitik, Nafarroako Korella'ra joan bear izan eban, 1944 eko garizuma aldian. Iru illabete ondoren, Santander aldeko El Soto'ra, an 1944etik 1948era egotaldi luzeagoa izanez. An erosi ebazan, esaterako, *Euskalerraren Jakintzaren* azken iru aleak. 1945etik aurrera Ponte Viesgo"ko parroko arduradun izan zan.

1948eko jorraillean teologoen irakasle izendatzen dabe; leenengo Gasteizen, ikasturtea amaitu arte, eta, gero, ikasturte barritik aurrera Begoñan. Emen jarraitu eban 1969 erarte, amazortzi urtez eri-kondaira, Karmengo Ordenaren kondaira, antxiñako eliz-literatura (patrologia) eta misionologia irakasten. Eliz-kondaira



sakondu eta azaltzea izan zan, beraz, bere lanbidea. Urte orreetan, batera, itzul- tze lan luze neketsuari ekin eutson, gero ikusiko dogun lez. Euskera bere izkun- tza eban, eta euskal kultura bere berezko kultura. Orregaitik, kultura eta jakin-nai orokorraren barruan aduraz eta maitez landu izan ditu. Baiña ez ebazan bere eginkizun berezi mugatutzat anu. Asko eta asko ereA, lagunak, erakundeak eskatuta burutiko lana izan da, bereak ditun zeaztasun eta maixutasunez.

1954etik aurrera liburutegirako euskal liburu zaar ta barri erosteari ekin eutson etengabe, Donostiko "Manterola" liburu-dendaren bidez, eta Bellokeko eta Laz- kao'ko beneditarrakaz artuemonetan.

1963ean Euskaltzain Oso izendatua izan zan. Izan be, R.M. Azkue bizi zala (1951 ena aurretik) artu izan eban parte euskaltzaiñekaz batzarretan. Alan be, barruko naaste eta burruka giroa asmatu- rik, uko egin eutson izendapen ari, laguntzeko beti be prest egoala agertuz. Orrela, beste agiri barik, baiña txartel baten bidez, Urgazle izendatu eben. Eta, egitez, laguntza eskaria eldu jakonetan or izan da, euskal idazle, naiz euskerea bera aztertzen daben lanak eskeiñiz.

1964ean Bizkaiko Eliz-barrutiko Liturgi Batzordekoa izendatua izan. Eta gero Elizbarruti arteko Liturgi euskaratzaile Taldekoa, Bizkaikoen buru (1968).

Donostiko karmeldarren nagusi autatzen dabe 1969ean, 1972erarte. Donos- tian egoala bisortu zan Kardaberaz Bazkuna, 1970ean, eta asikeratik bazkide izan jakon. 1972ean Markiñara doa ango karmeldarren nagusi. Aztertze lanez gaiñera, euskal liburutegia aberasten egiten dau aparteko eraz aalegin. Nagusi- tza amaitu ondoren, 1975ean, eta Retana jaunaren eskariz be bai, Begoñara bial- zen dau karmeldarren Probintziko Nagusiak, *Diccionario de Autoridades* liburuan urragotik lan egin eikean, eta komentu atako liburutegiko, batez be Euskal libu- rutegiko, arduradun.

1978ean Euskerazaintza sortu barriak bere buru autatu eban.

Begoñan jarraitzen dau. Euskal idatzietan, azken urteok izan dira bearbada emonkorrenak, idazti-zerrendak erakusten dauan lez. Baiña, dana dala, bere bizi guztiko lanaren frutua da, alderdi askotako urak orain ibairatu dira. Eta bizitza osoan zear lan ixillean kontaezinala ordu bakartade sakonean emon ta gero, azkenaldi onetan badatorkioz autormenak be. 1984eko bagillaren 14an, berari eta J. Kerexeta, S.Onaindia eta Pedro Puxanari Bizkaiko Eliz-barrutiko eliz-gizona omenaldia eskeiñi eutseen "urteotan euskeraz egin dituezan Eliz-idazlan ederrakaitik" (Batzor-deia, Bilboko Gotzaitegitik, 1984. bagillaren Sean). 1987ean (garillak 10) Labayru Ikastegiak omendu eban Derion, udako ikastaro barruan. 1989eko jorraillaren lan, barriz, Bizkaiko Aldundian, aundi- kiro. Eusko Jaurlaritzak 1989eko Euskal Letretako Merezimenduzko Saria emon dautso. Dimako erriak, Euskerazaintzak eta Euskera-zaleak eratuta dauke omenaldia urte onetako uztailaren lenengorako. Alako jaunari, alako omena.

## 2. Izakera

Akesoloren erretratua, iraizean bada be, zirriborrotu bear dogu orain. Lee- nengo, egizalea dozu gizona, eta honek argitzen ditu bere izakera eta lanaren berezitasun asko. Baketsua, lan ixilaren laguna. Ez dauka astirik ez gogorik iñoren bizitzako barne-geletan sartzeko. Atsegin jako, ostera, jakintsa gaiak dirala edo bizitzako gairen baten garrantziak eraginda, alkarrizketa bizian parte artzea, eta nekatu bage. Aundikeri eta arrokeriaren arerioa. Pentsakera eta arrazoiketa sendokoa.

Bere erlijioso bizitzan (au be giza-izakeran guztiz sarten dala), danetan lez, benetakotasuna da nagusi, zintzotasuna eta leialtasuna. Ori, baiña, berezko joke-raz, eta ez itxura gogorrez eta teatro-antzean. Bere gurasoen etxean ikasi eban eta gero erlijioso eskolan, ondo ikasi be, serbitzurako prest egoten, naiz etxeko bearretarako, naiz bere jakintza arloan, argibide eske datozanai laguntzeko. Gogoko jako karmeldar bizitza, eta bertan bere jakintza lanerako erea, askatasuna eta bakea aurkitu ditu; jakiña, bere borondate, indar eta doaiak orretara jarriz eta eralgiz. Neurritsua, gitxigaz naiko dauana, biziteko bear diran gauzetan.

Egizale eta langille izatea bere ikerlanetan egizatzen da. Onetarako, ganera, oroimen argi tinkoaren jabe dogu (lanik asko aparteko lagungarri barik, liburutegiai, bere oarrai eta oroimenari esker burutu aal izan ditu). Epaimen zorrotza, funtsgabeko baieztapenik ez egin ez onartzeko. Iraunkorra lanean. Eta lanean zearo bildu eta bestez aastuteko gaitasun bereziaz. Baiña doai gutzi oneek ez dira naiko bere lana argitzeko. Bada or beste zer bat, esandako guztien bizi-indarra: "Beti izan naz ni jakingurekoa". Berezko jakingurea. Ikusi eta ikasi, jakitearren; jakitearen atsegiñagaitik. Edozein komentu eta lekutara doala, beingoan asiko jatzu bertako liburua eta paperak azertzen. Bere joan-etorriak bide batez liburutegiren bati ikustaldia egiteko asmatzen ditu. Akesolo, beste eginkizunik ez badau, liburu artean aurkituko dozu. Bere begiak edo irakurgairen baten josita, edo (autuan edo ixillik zerbaiten zain) apur bat gorantz eta urriñerantz zuzenduta eukiteko jokera dau.

Sarriugarte margolariak (Bizkaiko Aldundi-etxeko liburutegian gordeko dan erretratu apaiñean) Akesoloren jakintza eta seriotasuna adierazi naiean, pizka bat asarre-aurpegia ipiñi eta dautson nago bekokiko tximur sakon eta begi urrinduetan. Badago or egia, baiña ez dana. Zintzoa, benetakoa, ikerlea. Baiña badau beste alderdirik be: alkarrizketa bizia, inoz zirtoa, eta irribarre esker onekoa.

### 3. Bilduma onetatik kanpoko lenak

Egoki idatzi eban Lon Arteagak: "Berez ugaritasun zale izan ez arren, asko idatzi dau Aita Akesolo'k, bai euskaraz eta bai gazteleraz. Geiago barik ez dau ezer idatziko; jakingarri ta esan bearreko zerbait daukanean baiño" (*Akesolo*"tar Lino Aita, in Kardaberaz-5, 1976, 20 orr.).

Jarraian aurkituko dau irakurleak J. Urkizak gertatuko bibliografia osoa, *Karmel* aldizkarian be argitaratu dauana (*Karmel*, 1989, 1,26-45 orr.), ale bi oneetan datozenak eta beste, urte urte eratuak. Or ikusten da L. Arteagak aurreko berba zuzenak idatzi ebazanetik andia izan dala Akesolok argitaratua.

Lanik geiena euskal gaien inguruan burutu izan dau, naizta, ikusiko danez, zabala izan bestetarikoa be. Euskera bera, euskal idazle eta kondaira, erlegiño gaiak. Alan be, urteetan irakasle izan zanean, ez zan bere egiteko berezia euskal kultura landu eta irakastea, eliz-kondaira baiño. Bere ikasleentzat arlo orretan zan lenengo ta bein maixu autortua. Euskal kulturako gaiak erabiltean, beraz, esan daiteke alboko lanean sartu zala, zaletasunak erakarrita. Gero, azkeago geraturik, orretara jarri ditu bere indarririk onenak. Jakingura eta kultura zabalaren barruan euskal kultura batu dau aalegiña ogetaka urteotan, bizi guztiko lanaz ganera.

Aipaturiko bibliografian datozan arren, lanik beiñenak azpimarratu daiguzan:

3.1. Akesoloren izena *Diccionario de Autoridades del Euskera* iztegi andiari lotuta geldituko da (ez, alan be, liburu orren azalean, bai egitez eta zuzenbidean).

Bederatzi aleko iztegi onen leenengo liburua 1976ean atera zan, eta azkenengo irurak 1989ean, diru-ezagaitik urte batzuetako etena izanik. Manuel de la Sotak, Pierre Lafittek eta Lino Akesolok egiña dala agiri da leenengo oian, beste oneen laguntzaz: Jose Lasa, Justo Garate, Damaso Intza, Gabirel Manterola, Jaime Kerexeta, eta azkenengo lau aleetan Luis Ortega koordinatzailea. Egi zeatzagoa baiña au da: asikeratik amairarte Lino Akesolo izan dala bere eskuz eta erantzukizunez lan osoa zuzendu dauana, L. Ortégaren laguntzaz. Olan autortu dau Alpontso Irigoienek Iztegiaren egillea Lino Akesolo dala sendoro esanez (Euskal Telebistan, 1989eko jorrraillaren 3an, eta Iztegiaren Aurkezpenean, Bilbon, kil beraren 4an). Irakurgarria da iztegi oni buruz eta Akesoloren lan osoari buruz J. A. Etxezarragak idatziriko zentzunezko eritzia: *Lino Akesolo* (ldatz eta Mintz, 18/19).

Iztegi onetan idazle zarrak, aurreko iztegiak, gaurko idazkiak eta erriari entzundakoak jaso dira, itz bakotxa eta bere adierazpenak jasotako esaldian edo adibidean kokatuz. Baiña irurogei urte inguru danetariko idazkiak arakatzen ibilli dan gizon onek oindiño erriaren iztegiaren ikerketa zeatza osotu bear dala deritxo.

3.2. *Gaztelerazko idazkiak.* Latiñetik, frantzesetik eta batez be alemaneratik itzuli izan dau (ingles itzulpen baten be izan eban esku: *Yo escogí el claustro* kontakizuna berak orraztu eban, eta Dinor'en agertu zan argitalpenari itzaurrea berak jarri eutson). Itzulitako liburuak zortzi dira, batzuk ondo mardulak (alemaneratik gazteleratuak bi milla eta bosteun orri badira). Lan au, geienez, amar urteren barruan egin eban, 1952-1962 bitartean. Frantzesia ikasturteetan, baiña beste izkuntzetarako espetxea izan jakon izkuntza-eskola, ikusi dogunez. Alan be, gero urte luzeetan aalegin iraunkor barik ez dira burutzen olako itzulpenak. Jakiña da itzulpen lanak gaitasun berezia eskatzen dauana: izkuntza biak ezagutuz ganera, beste doai bat: egillearen ideia eta gogoa ulertzeko adimena eta bigarren izkuntzaren senean giar bardintsuz jarteko doaia. Olako lanaren esperientzirik daukanak ikusiko dau Akesolok badauala gaitasun ori. Itzulpenen zeatza agirikoa da.

Sasoi atan mugaz andiko kultura eta teologian irakiten eben ideiak (emen barri ziranak) jakiten emon ebazan Dinor argitaltxean izan ziran argitaratuak geienak. F. Tillmann teologoa, W. Nigg kondaira ta saiogillea, E. Przywara pentsalaria, E. Stein filosoia ondo eio bear izan ebazan, eraz itzultzeko. Bere izen barik agertu ziran itsulpenok, bat izan ezik.

Gaztelerazko itzulpen atal onetan, oartarazi daigun oindiño Bernat D'Echepare'ren *Linguae Vasconum Primitiae* erdera orretara biurtuta daukala.

3.3. *Euskerazko itzulpenak.* Asko itzuli dau Akesolok euskerara, geiena bere izen barik; gero aipatuko doguz jakin daitekezanak.

Bere izenaz urtendakoetarik gogoragarrienak oneek ditugu:

- 1) Santa Teresa'ren Camino de *Perfección* (*On-bidea*), Santi Onaindiagaz alkarlanean.
- 2) *Salmoak*. Iratzeder'en lana, bertsoan, bizkaieraz jarria eta egokitua.
- 3) Manuel Fuentes, *Jaungoikoak Beretzat Gura nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra*.
- 4) *Domingo Fernández Mendiola. Aita Aureliano Karmeldarra*.

Olerkiak itzultzean dauan trinkotasun dotorea azpimarratu daigun:

Avemaris stella  
Dei Mater alma,  
Atque semper Virgo,  
Felix caeli porta.

Agur, jainkoaren  
Ama maite ederra,  
zeruko atea,  
itsasoko izarra.

Virgo singularis,  
Inter omnes mitis,  
Nos culpis solutos,  
mites fac et castos.

Birjiña ta ama  
denen gain ezitia;  
Emaiguzu biotz  
apal ta garbia

Vitam praesta puram,  
Iter para tutum:  
Ut bidentes Jesum  
semper collaetetur.

Jesus bedi gura  
bizi ta bidea,  
azken-poza dadin  
Ura ikustea.

Erdi Aroko eliz-kanta onen aapaldi batzuk aukeratu doguz. Adibide onetan doinu jakinari egokitu bear izan dautso itzulpena; orretarako silaba kopuru bardiña lortuz ganera, euskerazko kantikan atsegin dan amaiera oskidetza jarri dautso.

Leenengo aapaldian "felix" eta "semper Virgo" falta dira, baiña osoan itzulpen egokia da: irudi esentzialak or zeruko atea eta itsasoko izarra dira. Latiñeko "alma" ren orde z "maite ederra" esanaitsuago eta eraginkorragoa dogu.

Bigarrenean, "singularis" "ama" biurtu da, orrela bakantasuna konkretoago eta samurrago egiñaz. "Denen gain ezitia" bertsoaren doitasun txairoa ez dago azpimarratu bearrik. Azkenengo bertso bietan, euskerazkoak erruan eragon barik jarrera baikorragoa erakusten debe.

Iruharren aapaldiko lenengo bertso biak bakun eta trinko ditugu: "puram" ez da agertzen, au aurreko aspaldian onezkero eskatu danez. Eta bizitza ona eta bide ziarra Jesus'en inguruan gauzatzen dira.

Itzulpen osoak zaintzen dau ideien betetasuna, latiñaren trinkotasuna eta elizkantari dagokion ebokaziño neurritsua.

**3.4. Euskal idazle zaarren argitalpenak.** Bilduma onetako idazkiak sarri dabez gaitzat idazle zaarrak eta euren testoak. Eta irakurleak ikudisko dau egillearen ezagupena eta begi zorrotza. Berak lau diazle zaarren lanak agitaratu ditu: 1) Bernat D'Echepare'ren *Linguae Vasconum Primitiae* gaztelerazko itzulpenagaz eta idazkera gaurkoturik. 2) Joannes Etcheberri'ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*. Testu birrikusia, sarrera eta oarrakaz. 3) Bernard Gazteluzar'en *Eguia Catholicac*. 4) Gregorio Arrue'ren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza*. Testu berrikusia, sarrera eta oarrak.

**3.5. Izenbako alkarlanak eta beste zenbait lan** (euren izakera bereziagaitik ondoko bibliografiak be artzen ez dituanak): 1) Leenengo aipatu bearrekoa *liturgi liburuetan* burutu dauan lana dogu. Bizkaian asi eta, jarraian, Eliz-barruti arteko Taldean gaur arte, ogeta bost urte dira. Bearbada euskerara egin dan itzulpen

lanik sakon zabalen onetan Akesolok garrantzizko partea izan dau Euskalerrri guztirako gertatu diran liturgi testotetan. 2) Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruñea 1984. *Eraskiña*, Bilbao, 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo, 1987. 3) *Kosmos I eta II*. Salamanca (Anaya), 1975. 4) *Eusko Lurra* (Iñigo Agirre, egilea). Donostia (Etor) 1976. 5) 1963ean argitaratu zan *Eguneroko Meza* esku liburua (Kerexetar Jaime'k eta Aita Onaindia'k eginda eta Kretaxeta'ren ardurapean atondua Bilbao 1963). Or be izan eban Akesolk esku; liburu ori argitaratu aurretik S. Onaindiagaz alkarlanean ainbat domeka eta jaietako meza gertatu ebazan, txortatan urten ebenak. 6) Guztiz gomuta galdu ez daiten, au be eraso daigun: Bizkaiko Aurrezki Kutxak dantzariak buruzko liburu bat gertatu eban, euskerazko testoa Akesolorena zala; alan be, erderaz bakarrik urten eban. 7) *Abel-lur* aldizkariak (Bizkaiko "Camara agropecuaria" sailak argitaratua) Akesolok euskeratutako artukulu batzuk atera ebazan. 8) Gotzaitegietako agirik batzuk be, Bizkaiko eta gipuzkoakoak, misiño-egunetakoak, euskeratu izan ditu.

#### 4. Bilduma onetako idazlanak

4.1. *Iker/e eta umanistaren lana*. J. Urkiza argitaratzaille zorrotzak bost sailletan batu ditu ale biotako idatziaik: Euskera-Literatura-Kritika, II. Euskera eta Biblia, III, Euskal testodun idaz-lanak, IV. Kondaira eta biografi-artikulu eta oarrak, V. Liburuaren barri-emoteak. Egokia da sailkapen au. Eta oindiño estuago laburtu nai izan ezkeru, euskera eta kondaira dirala gaiak esan geinke, bere berezko deia eta bere lanbidea izan dan irakasletzako gai orokorra (kondaira).

Baiña olan muiñeraiño eroanaz mugatu dogun arlo orretan arrigarria da gaien eraskotasuna. Egillearen jakingura urduri eta zabalaren agergarri. Zaletasun aberats orren barruan, gero, idazkirik asko aldizkari zuzendariak eta beste ekintza antolatzaillak eskatuta onduatokoak dira. Iñoz be ez arinkeriz eta berak ondo menperatzen ez dauan arazoaz berba egiñez.

Idazkiaik, jakintza aurkezpenetik begituz, iru motatakoak dirala esan daikegu: jakintzazkoak zientz-ornigaiez jantziaik; benetako ikerketak zientzi-ornigai bakoak; eta zenbait maillatako zabalpen-idatziaik, beti be sendo eta jakingarriak.

Eruditoaren idazlanak dira izan. Danetan datoaren zeaztasuna, gaia erabilkeraren seriotasuna eta jakintza-sena berezgarritzat dituanarenak. Baieztapen eta erabilkera oiñarrituak eskatzen eredu. Funtz gabeko topikuetatik urrin, errazoi eta oiñarriak billatzen. Baiña datoak eta zeaztasunak jaso bakarrik egiten dituan espezialista ez da, la materialki artu eta bere eritzi barik alkarren atzean sailkatzen dituana. Zeaztasun kondretoen zalea da, esan dogu; baiña kultura zabalaren barruan. Ez dot orain gogoan bere era askotako jakingurea, beste au baiño: era askotako idazlan zeatz orreek pentsamentu sendoaren barruan egiñak dirala, euskera naiz literatura naiz kondaira naiz erlejiño dala.

Euskera eta kondaira gaiak agertzen dira geien. Kondaira tontorrek barik, sarriago benetako istorian eragin izan daben gizonak eta jazoerak ikertzen ditu. Abandoko abere-sendatzailllea nor zan; Pedro Madariaga, kaligrafo eta Valendia'ko irakaslea, aurkitu dau (au be jakintza zabalaren maitalea) eta Joaquín de Santa Bárbara nongoa zan... Edo testo-kritikan, Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* testoa ikertu, eta Eusebio Maria Azkue'ren testoa... Ez dira mundu guztian arrakasta dauken gaiak. Baiñamundu guztiko kultura aurreratuak lantzen dabez arretaz olako gaiak, ikuspegi edatuaren barruan, erri bakoitzaren bizitza parte diranez. (Aipatzen ditugun izenak adibideak baiño ez dira, beste ainbaten artean. Orrela, idazlan oso onetan).

Gomutan ez dana edo aaztuz doana zaindu dau kultura bizitzarako (*Euskaltza-leen batzargogoangarria*). Egunereko kultura agirian bapez edo gitxi ezagutzen diran idazle, personal eta jazoerak ateraten ditu argitara, literatura eta kondairako bitxiak (*Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: Enbeitatar Imanol*). Leena berbizte orretan ez dau indiferentziaz lan egiten, orretara jo dauan ikerle mekanikua balitzan. Leengo gizonak, egite eta bizikizunak gogoratu eta ateratean, bizitza dau ond-ondoan maite, giza adimenak eta biotzak bizi eta sortu dauan edozein frutu maitagarri. umanistaren lana, berazk, itxura neurritsuaren azpitik. Umanista, ez darabilzan gaiak arlo orretan sartzen diralako bakarrik edo-ta euren eraskotasun zabalagaitik, eurak erabilke- ran bizitzaren aurrean dauan giza-jarreragaitik baiño.

Orrela ulertzen dogu obeto berak ezaguturiko ainbat idazleren gomutagarriak idatzi izatea. Bada or sarritan adiskidearen oroipena eta esker ona. Baiña baita joandakoak (euren izate eta kultura ekintza argitan jarritz) gizabizitzan iraun azoteko leia.

Izan be bilduma onetako idazkietatik la irurena personak edo euren alderdi eta egite garrantzitsuren bat aurkezteko idatziak dira. Geienak, aldi guztietako euskal idazleak; edo euskal istoriak personaiaren batzuk; eta gizon-emakume santida- dez eredugarriak. Orretan, asikerarik aukera egiten dauanez, alderdi onak, ikas- bidezko alderdiak agertzen ditu (kritika-sen zorotza dauan onek), personen emoi onuragarriak begi aurrean jarritz.

Jakingaiak eurak eta euren objetibidadea ain maite dituan idazleak, personaiak aurkezteari orrelako arretea eskeintzeak badau esanaia: personenganako onespena, personen balio ezilkorrak, gizatasun alderdiak garatu dituen personak bizitza barruan zaindu naia (adimenak eta biotzak eratzen daben bizitzan, au da, kultura bizitzan). Umanismoaren alderdirik berezietariko bat.

Umanismoa dario Kepa Enbeita ri buruz diñon ori: "Norberena maitatzeak eztau biotza besteen alderako estu egiten". "Ezagunak dira Oatiko mitin baten bota zituen bertsoak be "Viva España" bat entzutean. Olango bertsoen egillea ezta biotz-txikia, ezta barru-estua. Or eztago estukeririk ez txikikeririk. Or ikusten dogu Enbeitaren biotz zabala, benetako giza-kulturaren jabe dana" (*Enbeita, "Urretxindorra", gure erri-kulturaren agertzaille eta aurrera eragille*).

Benetako giza-kulturaren jabea biotz zabala da. L. Akesoloren beraren lanaren zentzuna eta norabidea. K. Enbeitaren adibideak sakonago biurtzen dau pertsamentua: "Urretxinsorra"ren "zabaltasuna" ez etorren eskola anditik, ez zan esko- la-kulturaren zabaltasuna. Baiña benetako gizakultura zan, eta biotz zabaltasuna.

Leen oar azotako jakintza aparato-eza be askotan aututari giza-xalotasuna emotearren da eta bear ez dan lekuan zientzi-jantzi larregirik ez agertzearren. Benetako ikerlan barruan be goza-girozko ateraldiak aurkitzen doguz: "Loiolako zaldun azkarrak, Iruñako zaurietatik sendatuz zijoanean, liburu onak irakurten ematen ornen zituen asti-orduak, an bere gurasoen jauregiko gela batean. Asi ornen zan liburu bat idazten ere; eta Jaunaren itzik paperera aldatu bear zuenean, gorritz idazten ornen zuen; Andre Mariaren baldin bazan, berriz, urdiñez" (*Andre Maria euskal-literaturan*). Gero idazkian zear ikerketa dagi betiko maixutasunez; baiña asikera orrek giro andinai-bakoa damotso lanari.

Ez dauka bere burua sortzailletzat, poesigintzan naiz beste literatura arloetan. Izan be, gaztetako ipuin bat (*Joxeparen larriak*) eta liturgi testoren bat (*Eskatu dai- gun*) kendu ezkerro, izkuntza eta ikerketa lana izan da berea (itzulpen lan andia emen sartzen ez dala). Baiña bada espresibidadea bere idazkietan. Eurotarik asko alkarrizketan lez egiñak dira, norbaitegaz berbetan balebil lez, norbaiti ber-

bea zuzenduz edo erantzunez. Batengaiño geiagotan itaunak errezkadan urteten dautsoe.

Biotzondokoa agertzen neurritsua da eta, obeto, urria. Alan be, leen aipaturiko idazleen gomutagarriak, esate baterako, begirune bioztiz idatziak dira. Eta, antzera, aurreko idazleak eta beste kondaira personaiak biotz urbiltasunez gogoratuta agertzen jakuz idazkiotan (*Etxepere laureun urte geroago*; *Euskal-Esnale eta euskal-idazle*: Yose Paulo Ulibarri, *Okendoko semea*). Oneritzia merezi dautsoen idazleak ganora gitxiz erabillak dirala uste dauanean min bizia agertzen dau eta sutu be egiten da (*Bakotxari bere Aita Kardabaraz dala-ta*). Ezagutu dituanen artean biren itzala dala aparteko eraz nabari esan daikegu: R. M. Azkue ("Azkue andia", "euskal-maixu andia": *orain 68 urte. Egun gogoangarria Markiñan. Azkue jaunaren itzaldia*). Bere alde leku askotan dagi; edozein aipatxeko: *Pedro Ignacio de Barrutia*. Indartsu dagi M. Lekuonaren alde be (*Luis Mitxelena Jaunari Errenderiari*; beste lekuetan be bai).

Aparteko biotzondoa agiri da bere jaiotetxe auzunea gogoratzean, bere umezaroko bizikizunak eta kanpoko munduagazko leenengo artu-emonak: "Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste-aldeti ekarten euskuen umeai Marie Basoko-ren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lenago emendik ara joana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoka jaiai bizitazuna emoten.

Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure erria baño askoz geiago ez. Mundu orren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko-aldeko mendierrezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, ta an, urrin baten, Burtoaldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzuena, guretzat izen bakoa (...).

Mendian zear ibilli oi ziran gure antxiñakoak. Olanxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat ezkontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko (...) (*Atx-osteti Atx-ostera*).

Eta or gogoratzen ditu Pedro Madariaga (eta aren azken agurra mundu ezezagunerako bidea artzean), Durangoko zidargiñazk, autsa saltzen eben neskati-llak... Umezaroko lenengo mundu eta ebokaziñoak eta aurrekoen bideak eta bizitza-katea, alkarte eta bizi-illuraz beteriz. Eta joandakoaren miña. biotzondo eratsua, baiña sakonekoa. Bada or zirrara, eta bada poesia. Orregaitik, E. Erkiagak Aldundikko omenaldian oneetariko lerro batzuk irakurtean, L. Akesolok biotz-dardara asmau eban. Izen kondretoz eta bizikera zeatzez egiñiko poesia, erri, ikuspegi eta kondaria.

4.2. *Egiaren aldeko eztabaida*. Leenagoko agiri eta liburuak ezeze oraingo argitalpen barriak be begi zoli irakurri izan ditu eta irakurten ditu Akesolok. Bere jolasa eta bere zama. Idazkiotan, beraz, aldian aldiko oiartzunak sarri-askotan entzuten ditugu. Esan dogu alkarrizketa eran ulertu bear dirala barnean idazkio-tarik asko. Eta begirunea zor jaken personaiak gitxietsi edo, bere ustez, ganora-bako gauzak baiezten direnan, alkarrizketa eztabaida biurtzen da. Orduan iñoz arrazoiketa zartada dialektikuakaz apaindu daroa. Naiko ironia zuzena, ez zear-kakoa, baiña gaiari dagokiona. Euskal bertsolarien zirtoaren aztarnik eta zaletasunik badogu emen, eta leenago, euskal senak (bear dan lekuan eta eraz) gogoko dauan zirto aztarna. Benetako gaiak benetan erabilkeran be ez daitela falta noizik bein gozagiro pizka bat.

Euskerazko idazkietan erabili daroa geien-geien baten. Gaztelerazkoak akademikuagoak izan oi dira. Jakiña, euskerazkoak be asko ditu olakoak. Baiña euskeraz berba egiteran bere etxean dagoala esan daiteke eta etxeokai berba agiten. Agirika egiteko be askatasunez.

Batzuetan idazpuruak eurak dira esangura bizikoak: *Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin; Kontu adar-jotzaillleekin eta Borbonkeriekin; Norentzat da arrikada ori?*

Egiaren eta zentzunaren zaldun onek olan urteten dau iñoz idazplazara: "Ea berbalapiko baizen lotsagalduren baten aozabalkeriak agirian jarten ditugun" (*Euskaltzaleen batzar gogoangarria*). Esakeraren bat be ondo jakorko orretarako: "Egiteko ortarako, ez al dugu denok ere aantziko Txinata en esaera urregorritzko au: "Zere buruaz eltzea yota, baldi uts-durundua asmatzen daduzu, baitezpada ez uste eltzea dagoela utsik" (*Aldapeko Jaunari azken-itza*). Edo inguruko bizitza-tik ateraten dau ikasbidea: "Norbaitzuei begiko zaie, itxura denez, Oñatiko artzai-zakurren txapelketan ikusia, ango zakurren egiteko bat: ardiak esi estu batean ate estu batetik barna sartzea" . (*Bi buru eta bi aburu zakur, otso eta azeri*).

Badaki bere berbak ez dirala beti atsegiñak izan: "Goazen orain beste zuretzat asarrebide izan den gai batera" (*Aldapeko Jaunari azken-itza*). Baiña asmo txar larregi, geienetan, geure irudimenak sortuak dirala gogorazoten dau: "Gauzak nola artu, alaxe dira guretzat sarri" (*bertan*).

Akesoloren eztenkadatariko batzuk artutakoak bere adiskide eta euskalzale-kideak dira orraitio. Ezagutu dabe bere gogo-tankera, eta badakie aren barruak ez dauala txarrik gordeten, ez urrik be. Urrengo baten argibideren baten billa beregana joan bear balaba, laguntzeko arduratsuen aurkituko leukee. Jakint-sueen goi-aserreak ditugu. Eta burruka dialektikuak odolik ez. Oneek be, baiña, baretu dira apur bat, aspaldion. Ez uste orregaitik moteldu egin danik; egiaren alde eta arinkeriaren aurka berba sendo egiteko, eztena pizka bat erabilliz be bai, beti dago gertu: ikusi 1988ekoa dan *Diasporako euskal-idazleak*.

Gure idazleak, bere apartez, badaki bere esanen zuzendu edo osotu bearra autortzen (*Aclarando: La H aspirada en Oihenart*).

4.3: *Non eta nola*. Ogei ta amaika aldizkaritan eta lau bat bilduna lanetan artu dau parte Akesolok.

Gogoeta biri emoten dautse bide agite onek. Leenengo, ez dala zekena izan edonon euskera etaeuskal kultura barreiatzeko. Idazkiotarik asko men egin eta txeratsu izatearren bidaldutakoak dira, beti be euskal kulturari arnasa emotearren. Bigarren, aldizkari oneen artean batzuk jakintza maillakoak dira; besteak zabalpena elburutzat daukenak, azken oneetan be, jakiña, maillak diral. Akesolok, irakasle eta ikerle ziñezkoak, ainbat eta ainbat erri-maillako aldizkaritan argitaratu ditu lanak, beti benazko gogoz eta zeaztasunez. Aldizkarien zuzendariak idazlanen billa lerrenak egin bear izaten zituen aldietan, or egoan Akesolo be, doako idazkidea.

Erderaz eta euskeraz idatzi izan dau. Erderazkoak euneko amalau dira ozta-ozta bilduma onetan. Geien baten jakintza maillakoak, aldizkarien izaerak eskatzen ebanez. Izkeraz be akademikua dau orduan, ondorioz.

Euskeraz iru euskaldi landu izan ditu bere idazkietan: Bizkaiera, gipuzkera eta gipuzkera-lapurdiara: zein lekutan itz egin bear izan dauan (itzaldietan), zein aldizkaritan edo liburutan idatzi, nok eskatu dautsan idazlana, eta gaia zelakoa dan be bai inoz, euskalkiari omena eskeiñi naiez. Ori egikeran, ez dau ariketa edo espe-



rimenturik buruta nai izan, begirunea erakutsi eta irekitasunez alkartasun-bidean jarri baiño, euskaldunak berezko izan daben legez.

Ori da ain zuzen be Akesoloren eritzia euskera bateratu-bear arazoan be. Norberaren euskaldia eta besteren bat ondo ikasi. Eta arazo guztian, erri-bideari jarraitu; erri-bidea berezko bidea da, edozetariko artuemonakaz egunean-egunean egiten dan bidea, ez bapatean, ez eginduz eta beartuta (*Bi buru eta bi aburu zakur, otso eta azeri*). Baiña alkarganako bidean benetan jarri bear dogula be irakasten dau (*Batasunera bidea eta Kardaberaztarrak*).

Zillegi bedi emen jakintsu jator onen samiña erakusten dauan esanen bat azpimarratzea:

"Guztiok egin bear geunkena da geurea dogun euskalkiaz gañera, besteena dan bat ikasten alegindu. Ori egin dabe Bizkaiko idazle askok, eta eztago esku-biderik bizkaitarrak beste euskalkietarako edegiak eta zabalak izate ori Bizkaikoen aurka artu ta biurtzeko. Eztago eskubiderik iñori, laguntzeko besoa eskiñi deuskula-ta, burua eta dana eskatzeko. Bizkaiereari bizia ukatzea, illik ikusi nai, eta orretara alegintzea, erderearen indargarri baiño ez da izango. Euskerearenak Bizkaian egingo ezpadau, bizkaiereari lagundu ta eutsi egin bear jako. Euskerea bizi, euskalkietan bizi da, eta euskera bizirik ez dogu baztertu bear, ez dogu il bear. Guztiok gagoz alkarren bearrean" (*Bizkaiko elebarrigintza*). Guztiok alkarren bearrean! Bide barri baten ikuritza izan daiteke au, euskera auzian eta barrurago (batez be), ia iñozkorik zatituen dagoen Euskalerrri onetan.

4.4 *Idazkera*. Idazkera argia dau Akesolok; berezko eta apaindura bakoa, orekatsua eta nare-sendoa. Argi edukia eta argi esaldiaren ixuria. Esaldi luze-samar bat aukeratuko dogu adibidez: "Egunotan, Sokoako erretor eta euskal-idazle andi izan dan Peru Larzabal zanaren illeta-meza izan dala-ta, entzun eta irakurri dogu, Baionako apezpiku jaunak, jaiotzaz Euskal-erritik urrunekoa dan arren, euskera ikasi eta euskeraz itz egiteko gai dala, illeta aretan egin eban lez" (*Baltran de Etxauz-en 1584ko Gutuna*).

Morfologian eta joskeran ez ditu atsegin betiko erak. Esaterako, aditz laguntzaillearen adizkera berberak bein ta barrero esaldiak amaitzen dituanean. Edo joskera bardiñeko esaldiak burutzean. Era ezbardiñak erabiltea da berezko apainduratariko bat: "Euskaldunok aazkorrek gareana naiko argi dago. Aazkorrek, edo ikasinai gitxikoak. Ona erakutsi bat. Oraintsuan aurkitu dabe aintxina bateko Oihenart zaarraren esku idatzi bat, orain irureun urtekoa. Eta bertan euskerazko bertso batzuk; eta euren artean, moro errira aitag saldu eban bateanak. Eta ez dauskue esan, ba, ezezagunak eta egundo argitaratu bakoak ziralat?" (*Arabako euskal abestiak direala ta*). Esaldi laburraren eredua, aurki; labur berezkoa, berariz eta naitaez billatu barik. Laburtasunean be luzeagoa eta laburra naastaten dirala. Kasu onetan, aditzaren elipsiak be eragin bizkorra dau.

Sarriegi ez, baiña erabilten ditu esakerak: "Bakoitzak bere opillari su, eta bere santuari erregutu" (*Larresoro and Company, ez gauzak nastu!*). "Gezurak zaiñak labur omen ditu. Lenago arrapatzen omen da gezurtia maingua baiño" (*Koldo Mitxelena eta Euskal Liturgia*). "Zuretik ezpala, asitik landarea" (*Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: Enbeita"tar Imano!*).

Idazlana idazterakoan, astitsu eta fatxadaz asten da, iñoz luzatu be egiñez, berak autortzen dauan lez: "Itzulinguru luzeegia egin dut noski zugana etorteko". (Denok apez). Baiña bere izakera eta tankera, erritmo lasaian, astirik galdu barik, bear diran berbakaz gauza asko esatea da (*Beltran de Etxauz-en 1584ko gutuna*).

Bere morfologia aztertu naiez idazlanok irakurten dituanak, laster idoroko ditu onako erak (esate baterako): -rik (txikitarik), -ti (ganeti, Atxosteti), -ganik (Erregeganik), deuto, deion, betetan, gertetan, ditugu eta doguz, zituen eta ebazan (bizkaieraz idaztean)... Jatorrak eta antxiñaak diralako, edo beste euskalkietara urreratzeko.

Euskera eta euskal kultura pizkunde aldian, guda aurrean, landu eban bere euskerea eta finkatu bere erizpideak. Pizkunde arek euskaltasuna eriotzetik zaindu bearrez, jatortasuna billatu bear izan eban euskal arlo guztietan; garbitasuna, beraz, euskeran. Garbizale jokera orren asmo sakonik ez dau inoiz ukatu Akesolok, ez bere erizpideak agertzean, ez idazkeran. Bere ustez garbizaletasuna bearrezkoa dogu gaur be. Baiña gazterik idazle zaarretan ezi eta erriko euskera bizia gozatzen ikasi ebanak, idazkeran leial izan jake iru eziketa-iturri edo erizpide orrei. Leendik daukagun euskal altxorra ezagutu eta erabilli, leenengo. Ideia eta gauza barriak esateko, edo berezko itz errezak eratu edo errealidade orreen sortzezko izenak mailleguz artu. Jatortasun eta edegitasun bera agiri da joskerari buruzko erizpidean be: Altuberen arauak, esate baterako, onartzen ditu eta berezkotasunez erabilli; baiña larregi lotu barik, arau orreek ez dabe euskal joskera osoa esitzen eta (*Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste*). Idazkera jatorra, aberatsa larikeri barik, berezkoa argia eta zeatza.

Labur: zer zor dautsogu Lino Akesolori (gaztelerazko itzulpenak alde batera itzita?)

- Iztegi Andia
- Bilduma onetako idazlanak, eta berton
- euskera eredugarria
- Danetan, kultura gaiak menaz eta jakintza-senez aztertu bearraren irakatsia.

1989eko maiatza


Luis Arostegi

"IDAZLAN GUZTIAK" Julen Urkiza'ren, liburutik



# SAN ROKE DANTZA EZPATADANTZA

1972"ko Abustuaren 16"an (1950"garren urtetik bezela; ni Deba'ra etorri nintzan urtea), 9,30'ko Meza ondoren, prozesioa eliz-parrokitik irten zan. Plaza-zaarreko iturriari jira egin, eta Iturkaletik Santa Kruz ermitara, San Rokeren irudia eta estandartea gurekin genduela.



Erriko dantzari taldeak egin zituen bere saioak eliz-atarian eta Santa Kruz ermita-aurrean. Andik gora igo genduan bakoitzak aal zuen eran. Eta San Roke ermitaren aurrean, berrito, dantza aldi bat. Meza ondoren, beste bat. Salda eta lukaika muturra artu eta guztiok errira. Prozesioa elizara eta gendea zezen-plazara...

1972"etik aurrera aldaketa egin zan: San Roke-kaleko Zubeltzuko irudiaren aurrean, dantza aldi bat eta beste bat Portu-kaleko santuaren aurrean. Baña, arrezkero San Roke ermitan Meza Aurreko dantza-aldia galdu da. Zortzi dantzari eta kapitan bat aurretik. Kapitank bi makil (sable-eskuleku itxura dutenak) eta beste guztiak bana. Makillak galartsu gorri zuriekin bilduta agertzen dira.

Luis Idiakenez Garate (Txerturi) jaunak 1972'an zioenez (orduan 60 zituen eta gaztaroan dantzaria izana): "gure garaian dantza askatasun aundian egiten zan eta zenbat eta saltu geiago desberdiñak egin eta obeto".



Josefa Etxeberria 82 urteko debarrak (1972) esan zigun bere anai Gregorio k San Roke'ren ezpatadantzan parte adu zuela, fotografi bat era-kutsi ere bai, eta onela jazten zirela: alkondara zuriak manga zabalekin, praka eta zapatilla zuriak eta kapitanaren zintak gorritz eta larrosez. Beste dantzariak, alde batekoak gorritz eta bestekoak urdiñez. Besoetan galartsu gorriak eta urdiñak.

Luis Idiaketz, (Txerturi), ezpatadantza deitzen zion. Eta arazo orreri buruz ba degu 1884'ko jakingarri bat: Antonio Flores periodistak onela dio Madrid'eko "El laberinto Periódico Universal" Azaroa 1 "koan: "... *delante de San Roque marchan ocho jóvenes aldeanos en mangas de camisa con pantalón blanco y llenos de cintas y lazos de todos los colores... Con una espada desnuda en la mano... y los aplaude el público que sale a ver la ezpatadantza (o danza de las espadas) pues así se llama esa broma*".

Beraz, dudarik ez dago, dantzariak eskuetan eramaten zituztenak ezpatak zirala eta ez makillak...

Arretaz begiratu izan diogu bertako dantzei: SAN ROKEREN EZPATA DANTZARI batez ere; baita Jorrai dantzari ere.

Izurritik libratzen omen zuen santuari dantzatzen zaio ez dakigu noiztik San Roke jaietan, abuztuaren 16an, ezpata dantza au.

Debako auzo jakin bateko gazteek, Artzabalgoek izurritetik libratzeko promesa bati jarraiki, bizkar gainean jasotzen dute santuaren irudia eta prozesioan mendi aldean dagoen San Roke ermitara igotzen dute.

Bertan gauzatzen da San Roke dantza.

Gaur egun Gure Kaien 130 bat lagun gabilta. Autariko 100 bat umeak dira. 1999'an lenengo aldiz aurren dantza eskola Debako musika eskolan barruan sartu dugu, euskal dantzaren etorkizuna bermatze aldera. Dena dela, Gure Kaiak eramaten du orren ardura.

Nagusien taldea 30 bat lagunek osatzen dugu eta elkarlanean aritzen gara Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka dantzari taldeekin. Deba beeko dantzarien izendape-naren azpian metodologia bat, filosofia bat eta lan egiteko modu bat aurkituko duzue.

Arrinda"tar Anes



# AZOKA ELKARTEA -Xango Baita



64122 ZOKOA-URRUÑA

## Agur t"erdi

Urtero bezala zuengana jotzen dugu ohiko Donibane Lohizuneko VII. liburu da diska azoka prestatzen ari garela jakin dezazuen.

lazko edizioan gure azokari eman nahi izan genion bultzada berria arrakastatsua izan zen eta 7. honetan bide berari eutsi nahi diogu, Donibane Lohizune gure Euskal Herriko kulturaren erreferentzia ezinbestekoa izan dadin.

Antolaketa egokia izateko, ondoren aipatzen direnak kontuan har itzazue:

a) Liburu eta diska azoka heldu den ekainaren 12an izanen da Donibane Lohizuneko Urdazuriko Kijoldegian, ordutegia 10:00etatik 19:00tara izanik, etenik gabe.

b) Azokan parte ahal izateko erantsitako fitxa gure helbidera (Azoka Elkartea. Xango Baita. 64122 Zokoa-Urruña. Lapurdi. Iparralde) igorri behar duzue Era berean, honekin batera doakizuen araudia onartzea, sinatzea eta igortzea nahitaezkoa izanen da... Eskaera osoa martxoaren 31 baino lehenago igorri ezazue, otoi.

d) Partehartzaile bakoitzak mila liberatik goitiko salmentaren ehuneko hamar Azoka Elkarteari diru sari gisa eman beharko dio.

e) Aurten galdetzen dizuegu liburu zerrenda bat osatzeko. Zerrenda horretan aipatu behar dira:

**Liburu/diskoaren izenburua**

**Bilduma**

**Egileen izen-abizenak**

**Argitalpen urtea**

Berrikuntzei leku aproposa ematea estimatuko genizueke.

Zerrenda hau ere martxoaren 31 baino lehenago jaso beharko dugu.

f) Berrikuntzarik aurkeztu nahi baduzue gurekin harremanetan jar zaitezte, lehen aipatu helbidean edota (00.33)(0) 5.59.47.08.43 - (00.33) (0) 5.59.26.22.16 telefono zenbakietan.

Besterik gabe, jaso ezazue gure agurrik goxoena.

Paulo Arzelus  
-Azoka Elkarteko Idazkaria-

diak, Inuit edo Groelandar"ean eta Danes'ean argitaratzen dauz seilluak, eta Dinamarkan Feroe ugarteak; Aland ugarteak, Finlandian Sueziatarra izkuntz bakarra dan lekuan; Man'eko ugarteak, manx"ean eta Ingeleseaz argitaratzen dabezanak seillu batzuk Britania Andian; Kaledoni Barrian, Frantzez'en Polinesian, Saint Pierre et Mikelon, Reunion eta abar Frantzian. Gainera, Eskozia eta Gales'en erriak urte ontan zear (eta Iparraldeko Irlanda balekite, bakerako bidea amaitzen danean), euren Parlamento'en bir-eskuratu bateratasunaz Britania Aundiaren jabetasunetik, postaren askatasuna lortu dabe. Britania Aundiak 1958 ezkeroztik "Errialdeko" edo "Lurraldeko" seilluak argitaratzen ebazan, Eskozia, Gales'ko erriak eta Iparraldeko Mandan; erreginararen argazkiak izaten ziran eta ikurdien irudiak zoko baten. Eskozia eta Gales'en erriak urte onetatik aurrera, euren seilluak daukiez, erreginararen argazkiak txiki ta illun geratu direnak seillu zoko txiki baten. Eskoziako seillu barriak eta lenagoko batzuk, Eskoziá ko ikurrinari eskeinuta dagoz: ikurrinarekin argitaratu lez, idatzitakorik gabe eta erregiaren irudia zoko txiki baten. Gales'eko Erriak, Galesez eta Ingeleseaz argitaratzen dauz seilluak.

Espainan, FNMT'k urte bakoitzean 50-70 arteko seillu barriak argitaratzen dauz, baimena emango leukenak lege bat baieztu ezgero, FNMT'k argitaratzen dauan seillu ta postako arlo guztian arauratu edo neurri berruan lotu ezgero, berealako seilluetan erantsia. Organizació pel Multilingüisme, seilluak daukiezan izkuntz-arauak ikertu ondoren, bost asmo-erakuste teknikoak antolatu dauz, balio bear leukienak, Euskara, eta bai beste izkuntzak ere selluetan sartzeko. Bost asmo onek, laburtzapeneko era baten olan murrizten dira:

- a) Selluak, lau izkuntzatan. (edo zazpi izkuntzatan).
- b) Selluak, izkuntza bitan.
- c) Izkuntz bateko seilluak.
- d) Postaren askatasuna, edo askatasun osoa, edestian zear diran berejabetasunezko erkidetasuna (edo autonomiko erkidetasun guztiai diranentzat).
- e) Aurreko lau ereduaren arteko-jokoa, askatasunezko erkidetasun bakoitzak, al izanaz selluak argitaratzeko askatasunezko aukera batzuetan.

Asmo tekniko auek, beste-aldeko; etorpide bat bear dabe, arauaren bidetik, izkuntza baten edo izkuntzatan argitaratzen diran selluak erabakitzeko euren ugaritasuna, alan ere, selluen zabaltasuna eta salketa, erabilten daben izkuntza-jokoan ala ez.

1998'ko urtean zear, Bidalgo eta Urrutizkinako 3'garren Lurraldean, Euskadi, Nafarroa eta Rioja osatzen daben artean, 305 milloi posta-ondorioak sortu ziran (guztirik % 67 diranak) eta 382 milloi banandu ziran (guztirik % 8,4'ak). 1998'an ere, Espaina osoan 162 milloi posta-ondorioak atzeritik artu ebazan eta 174 milloi atzerrira bialdu. Espainan, guztiz, 1998 urtean zear 4.573 milloi posta-ondorioak banandu ziran. Zertzelada auek, naikoa izan bear ziran burutasun bat gogoan eukiteko: ikaragarritzko Yaurtaldia izango zala Euskerarentzat (bai beste izkuntzari ere), selluetan sartuta egon bazan eta FNMT" k beste posta-ondoriotan bialtzen dabezenetik. Ikaragarritzko Yaurtaldi bat, diruaren aldetik ezer ordaindu gabe.

Urtarrilla en amaieriko, 22 erakunde ziran Estatu guztirik "Seillu Anitzak-en zabalu-nera erantsita. Berta, 2000'ko Urtarrilla"ren 1 'ra orduko, jokuan dauan erabagia egin bearrezko arloan, autonomi esberdinetako lege-biltzarrak, baieztu dagian egin-gaiak, gaztelera egaz izkuntz ezberdinak ere selluetan sartuta egon daitezkan eta egin-gai auek Aldundiko biltzarrera eldu daitezkan.

Burutakizun au, 2000 urterako, Euskerazko seilluak egon daitezcan, katalane-raz eta Galegoraz (bai, Asturieran, Aragoieran eta Okzitanoan) da; teknikako arloan artzen dan erabagia kontuan euki barik. Selluak, izkuntz esberdinetan agertzea edo ez agertzea, danon ardura da.

Oarra: Argibide-aldi ontara erantsiteko, edo argien egarria asetzeko, ikusi leike Web Organització pel Multilingüisme [www.omplural.org/sells](http://www.omplural.org/sells), Euskaraz, Katalaneraz, Galegoraz, Asturieraz, Aragoieraz eta Okziteraz, galdera egin leiken lekuan.

MOLES I CARRERA"k  
DEIAN 1999"an AZARO"ko 10"ean

ITZULTZAILLE: ATUTXA'tar PAUL

# EUSKARA ERRIOXAN BERPIZTEN

Gaur egun garrantzi aundiko berriarekin gatoz: Errioxan euskara berpizten ari zaigu. Indar aundiko ekintza daukagu or eta ez nolanaiko gizonak, benetan bere-  
xiak. Berri au, berri bezala, gaurkoa da, bañan berri onen gaia, gaia bezala, ez da  
neretxat gaurkoa aspaldikoa baizik.

## Amets Izkutua

Orain dela ogeitabost urte, Iparameriketara joan aurretik, Egitazko Errioxara askotan joaten nintzan eta sugurrearekin nabaritzen nuen zein den lotuak dauden lurralde aiek gaurko Euskalerriarekin. Zenbait toki ikusita ortxen uste dezu Baztan'en zabalik zaudela. Adibidez oso lotua agertzen da Kameros Baztangoko lurraldearekin.

Edozein aitzaki Errioxara joateko ona zen aruntzko bidea artzeko. Euskararen aztarnak ikusten nitula arrituta gelditzen nintzen, emen izkuntzan entzuten ziren euskal itzak, berriz tokietako euskal izenak, garbi ta argi gaur arte gorde dituztenak. Merino Urrutiaren lanak esaten digute ori bere liburuetan, ta ezin aztu dantzaz zarrak daukaten euskal usaia ta garai berdiñean oraindik bizirik arkitzen ditugun urratsak.

Egitan lurralde oiek dire Euskalerria zati berexiak; nunai ta ugari agertzen ziren eta beti gure ikusle taldean sortzen zen eztabaida bat. Gero ta ugariago ikusten nitula euskal urratsak Errioxa'n sortzen zitzaidan galdera bat: noiz esnatuko dugu erri onen euskal izaera? Orrela sortu zen nik egindako liburuxka "errioxa'ko San Millan euskal iturri", larogeitamaika orriko liburuxka, lendabiziko aldiz euskaraz egiña, bertako semeak esnatzeko eta "baskones" aien urratsetan jartzeko.

Liburuxka onetan nai nuen agertu euskaldun zarrak adierazten zien gaurko deia errioxatarrei. Salgai jarri nai nuen bereziki San Millango santutegian. Asi ziren saltzen eta andik gutxira agindu nagusia etorri goitik bera, ez saltzeko. Ez zuten ikusi nai ere emengo lurraldetan liburuxka ori. Orduan ni Estatu Batuetan nengo Ameriketara. Lenengo aukera nuela onera etortzeko joan nintzan liburuak jasotzeko. Orrela nere liburua, esan zidaten asko esnatuko zitula Errioxan, leku-ko mutua biurtu zen.

Dena dela nere barrenean jarraitzen zuen zutik nere ametsak, eskatuz orko gizarte orren esnatzea. Nere ametsa beti aurrera. Nere barrenean pensatzen nuen ziurtasun osoarekin noizbait eta ustekabean, sortuko zala euskal nortasuna Errioxan.

## Andola'ko Joxe San Adrian'en

Josetxo Teres dugu Andosilla'ko gaztea, euskaraz ondo egiten duna ta irakasle bezala zebillena Erriberá n erri batetik bestera.

San Adrian'go "gaba-eskolaren" zuzendaria zen. 1997"garren urtean ilbeltzan, ain zuzen, joan nintzan Josetxo Teres agurtzera San Adrian'era ta elkarizketa amaituta galdetzen nion "Kalagurritik ain bertan zeratela ez al da oraindik errioxa-tarik agertu euskeraren ikasketak egiteko baimenaren eske?"

Auxe da erantzun zidana: "Taldetxo bat da nai dutenak etorri, baiñan ez nituen artu".



Auxe da nere erantzuna: "Ostiko bat emango nitek gogotik. Oso gaizki egin dek. Ezin genituen ikasle oiek bazterrean utzi, naparrak ez direlako". Bi aldiz geiago bildu giñen Kalagorria'n emengo euskalzaleekin "Gazte oien izenak, zuzenbideak eta urrutikoizkiñak bear ditut eta banoa ezagutzera danen buru dena", nion nik. Esan eta egin. Gaur egunero, Kalagorri"tik Lodosara, gaueskolara dijoaz biz-pairu ikasle.

### Laguntza eske

Gazte oien alde laguntza eske asi nintzan. Naparroa"ko jaurlaritzaren atean jo nuen, bainan garbi asko erran zidaten "ez da gure eginkizuna". Ostiko ederra artu nuen.

Gazteiz"ko jaurlaritzan ere asi nintzan ate joka. Itz politik eman zizkidaten. "Emate ori" luzatzen zijoan...

Laguntza ori, batez ere, irakasle batentzat zan.

Nerau ikaskaiak ematen astea ere bururatu zitzaidan.

Bainan beste bide bat gelditzen zitzaigun ikusteko eta galdera auxe zan bidezkoa: "Euskara ikasteko zergatik ez dire joaten San Adriango gau eskolara? Irtzen biderik egokiena auxe zeritzaigun".

### Arzubialde"en berria

Eugenio Arzubialde nere adiskide miñak berri ederra ematen dit. "Deia" aldizkarian (Deia 1999-VI-29) agertzen da eskutitza orrialdeetan eta erraten dute Logroño'n sortu dala euskalzaleen elkarte bat eta lamiñeen iturri izena eman diotela: Berria ezin zitekeen ohea. Egun artan bertan lortu nuen urrutizkiña. Deitu nien elkarte orren arduradunei ta urrengo egunean Logroño"ko bidea artu nuen....

### Logroño'ko bidea

Logroño"ko ikastetxe nagusian arkitu nituen bi Errioxatar gazteak euskal elkarte sortu zutenak, Biak guztiz argiak, Martin Martinez Saez de Jubera bat, eta bestea José Maria González. Euskaraz naiko ongi egiten dute. Oion eta Biana'ko ikasleak gaba eskolara joaten direnak erdiak Errioxatarrak dire, erraten zidaten.

Talde onek antolatatu zuen 1996'garren urtean Abenduan aste bat itzaldi ederez osatua, euskal kultura Errioxa'n ezagutzeko egiña. Itzaldi bakotxan eunen bat entzule izan zituzten. Arrakasta borobilla. Aste onen iragarki galantak nunai ikusten ziren Logroño'n. Enrike Knbr, Gazteizko irakasleak ementxen bertan eman zuen itxaldi bat.

Berri guzti auek emanez idazlan bat agertu nuen "Diario de Navarra" egunkarian. Irakurleak zoraturik gelditu ziren ori dena entzuterakoan.

### Idazlan arrigarria

Ikerketako lana guztiz ederra egin zuten: nolakoak ziren euskaldun zar aien izenak emen kristautasuna sartu aurretik... Idazlan ori Naparroa"ko aldizkari batean argitaratzea bidezkoa zela iduritu zitzaidan. Ala esan eta ala egin. Joxe Maria Satrustegiri erakutsi zioten lan ori. Oso interesgarria iduritu zitzaion. Ala agertu zen "Fontes Linguae Vasconum" aldizkarian. Askok irakurri zuten, baita aipatu ere oso ona bezala. Separata ederra egin zien, bitxi bat.

### Donosti`ko errioxatarren elkarteakin arremanak

Errioxatarrak elkarte bat daukate Donostin. Luis Fernandez zuzendariak artu ninduan. Errioxa'ko euskalzaleen berriak emen eman nizkion... Oso ondo artu zituan eta agindu zien urtean zear ematen zituzten itzaldietan, oietako bat Errioxa'ko euskalzalei eskeintzea.

Itzaldiak eman zituzten jorrailan 181ik 23"ra. Gure Errioxatarrak izan zuten bere eguna Jorrailaren 22"an, Berrogeiren bat lagun etorri zitzaaien entzutera.

### Afari bat oso bestelakoa

1999"garren urtean otsailaren 26"an afari bat antolatu nuen Errioxa'ko euskalzaleentzat nere etxean Lizarra'n.. Lenengo aldiz kalagurritarrak Logroñotarrekin alkartzen zirala ta arpegia nolakoa zuten ikusten zutela. Gañera, ibero ibaiaren inguruan bizi diren euskalzaleak deitu nituen ere: bai Oion, Biana, Mendabia, Lodosa, Lizarra, Andola et Iruña'tik. Zortzi itxaro nituen eta amasei etorri ziren.

Paulo Atutxak bakalloa pilpillen egin zigun. Ogei milla pezetaren bakallua jan zen gaba artan. Arabatik ere deitu nuen Antonio González. Araba'ko toponimia jaso du gizon jakintsu onek. Ondo entzuten zuten ango gazteak eta Errioxa'tarrak jakindakoekin zoraturik gelditu ziren.

### Ojocastro"ko ibilli aldia

Errioxa'ko tokien izenak nolakoak ziren euskaraz ikusi nai genituen. "Laminen iturri" delako izen ori ezagutu nai genuen. Jose Antonio Gonzalez Salazar eta Atutxa, Martin Martinez etani joan giñan, Ojakastro'ra iritsita aiton bat guztiz argia arkitu genuen. Benetan aberatsa. Aitona bersolaria zen. Garbi dago euskaraz an garai batean anitz egiten zala. Andik Ezkarai"ra joan giñan.

### Errioxa'n euskararen urratsetan

Elkarrekin Errioxa'ko lurren nortasuna ikusi nai genuen eta alkarturik Jose Antonio Gonzalez Salazar, Paulo Atutxa, Martin Martinez de Jubera ta J.M. Gonzalez eta ni berebil batean giñan. Anguiano'ko dantzariak ikusi genituen, gero Viniegra "de arriba y abajo", Ormazas delako mendi katea San Andres de Kameronos eta erriko museoa. Azkenik San Esteban de Biguera.

Aipatutako gai nagusietan auxe agiri: euskal barnetegi baten beara Logroño'n eta diru ateratzeko "Errioxa oñez" delako egun bat nai ta naiez an antolatu bear... Txistuaren ondotik Naparroatik araño joango giñake, egun berexi orretan.

Alaxekua izango litzake gure zoria.

Latxaga

EUSKERAZAINTZA  
EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA  
TOLOSA.Gipuzkoa  
1192 Posta kutxatilla 20080 DONOSTIA

# **EUSKERAZAINTZAREN LANAK (EUSKAL ASTEAK)**

## **1999KO JARDUEREN TXOSTENA**

### **1. EUSKERAZAINTZA" ren legeztapena.**

EUSKERAZAINTZA-EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA. 1979an sortua, MADRID'EKO MINISTERIO DEL INTERIOR CS/CC ASOCIACIONES'en, legeztatua izan zen, Ministerio de Universidades e Investigación- Oficialía Mayor'en txostena kontuan izanik. Au 1979 Urrillaren 13koa da. Eta 1981 ko Otsailaren 21'eko 45 zenbakia duen B.O.E.'n azaltzen da jaso zuen Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (Asociación declarada de Utilidad Pública). Eta onela dio: Legalmente constituída e inscrita en el Registro Nacional de Asociaciones con el número de orden 32.921.

EUSKO JAURLARITZA"K ardurak artu zituenean, (TRASPASO DE COMPETENCIAS Y SERVICIOS A LA COMUNIDAD AUTONOMA) delakoan, onela azaltzen du: 1984ko Maiatzaren 21 eko Eusko Jaurlaritzáren idazkian:

- "Visto el Real Decreto 3069/1980 de 26 de Septiembre, el Decreto 2930/1972 de 21 de Julio y la Orden del Departamento de Educación y Cultura del Gobierno Vasco de 21 de Octubre de 1983".

- Ori dela eta, geroztik, Eusko Jaurlaritzaren ardurapean gelditu zen Euskerazaintza'ren legeztapena. Eta era onetan agertzen du: : Eusko Jaurlaritzá Justizi, Lan eta gizarte Segurantzza Sailak: (Agiria erderaz dago)

"Dña. María Burguera Gasca, encargada en Gipuzkoa del Registro de Asociaciones adscrito al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, certifica: Que la Asociación Euskerazaintza- Euskeraren Erri-Akademia-Academia Popular del Euskera de Tolosa-Gipuzkoa, figura inscrita en la Sección 11 de este Registro en virtud de Resolución dictada en fecha 23 de Noviembre de 1979, con el número de Registro A.S.R.P. G. 01136, y que fue declarada de Utilidad Pública en virtud de acuerdo del Consejo de Ministros adoptado con fecha 3 de Octubre de 1980".

### **2. URTEKO JARDUERAK: ERRI EUSKERA, EUSKALKIAK ETA EUSKAL KULTURA LANTZEN, LAN BATZARRAK**

||lean bein, gure ordezkio egoitzan Bilbao'n Colón de Larretaegi 14-2° eskubialdean izaten ditugu batzarrak, eta an jorratzen ditugu bakoitzak prestatu ematen dituen gaiak. Aldi berean ere "Euskerazaleak" Bilbao'ko elkartekoeekin ere mamitzen ditugu arremanak. Euskararen sustapena dugu gure

gaien ardatza, eta euskalkiak lantzen saiatzen gera, aldi berean ere euskeraren zuzentasunak toki berezia duelarik. Ortik ainbat asmo sortzen dira, eta bazkide idazleak idazten ari diren liburuen berri ematen dute.

## EUSKERAZAINTZA ALDIZKARIA:

Eusko jaurlaritzak eta Gipuzkoa'ko Foru Aldundiak ematen diguten dirulaguntzari esker, aldizkari ori argitaratzen dugu, eta ainbat lan azaltzen ditugu, gipuzkeraz, bizkaieraz eta baita era lapurteraz. Aurtengoari dagokionez zebakietan auxek dira kontuak

- 2 aldizkari zenbaki bikoitzean. 140 orrikoa. 20 gai argitaratu dira. Gaiak:

Atarikoak .....	5
Aramaio'n euskal-jaia (Puxana'tar Pedro) .....	7
Oská n euskeraz noz? (Latiegi"tar Bixente) .....	12
Orixe'ren Euskaldunak (Murua'tar J.M.) .....	35
ZE/EZ/EZEZE/E/EHE/UL (Puchulu'tar Róbert) .....	41
Laxagá ren Liburu Barria (Alkain'dar Jesus M <sup>a</sup> ) .....	52
Lino Akesolo: Gizona ta lana (Arostegi tar Luis) .....	55
San Roke Dantza (Arrinda'tar Anes) .....	69
Azoka Elkartea (Urruña'n) (Arzeluz'tar Paulo) .....	71
Bidalgo ikurrak euskeraz? (Laxaga-Atutxa) .....	73
Selluak euskaraz .....	78
Euskera Errioxa'n (Laxaga) .....	81
Euskal-Asteak eta Lanak (Euskerazaintza) .....	90
Euskera: Deba'ko jakingarriak (Arrinda'tar Anes) .....	108
Euskararen arerioak (Umandi zana) .....	113
Nere bizitza (Umandi zana) .....	117
Olabide'ren asmoak (Urrestarazu'tar Andoni zana) .....	121
Andoni ta euskera .....	130
Euskera Aldatz-Gora .....	136
Esaerak, esaldiak, esaldi traketsak, atsotitzak .....	137

## EKITALDIAK

Batzarretatik kanpo egiñiko ekitaldi nagusiak aurtan auexek izan ditugu:

## ITZALDIAK

EUSKAL ASTEA- EUSKAL KULTURA LANTZEN-LINO AKESOLO-ren OROIMENEZ (Euskerazainzá ko leenengo leendakaria)

2.3.1 DONOSTIA'n : Urrillaren 25etik 29ra

2.3.2 ZORNOTZA'n Azaroaren 8tik 12ra

(Ikus eraskiñean Egitarauak, zeastasun guztiekin)

## GURE IDAZLEAK

Aurten gure bazkideak argitaratu dituzten liburuak edo eskuartean lantzen dauzkatena:

MARTIN OLAZAR, gure leendakariak: "ZU, MARTIN!" Nire bizitza izenburuaz. Abadea da, Mungiáko erretorea. 445 orrialde. Bizkaieraz Filosofia eta letretan lizenziatua. Denera, 18 liburu argitaratuak eta 1.000 idazki baiño geiago egunkari eta aldizkarietan.

LATXAGAK -"EUSKAL SENA"- 191 orrialde. Ainbat urtetako lana, erriarengan murgildurik. Oarrak eta elkarrizketan emaitza eta ondorio batzuk. Aita Zabalá ren Itzaurrearekin. Gipuzkeraz. Emezortzigarrena du. Egunkari eta aldizkarietan dena, 1.000 idazkitik gora. Antropologia, izkuntzalaritza eta teologian doktorea.

BIXENTE LATIEGI'k Euskal eleizaren edestiaren barruan 9gn. liburua dauka argitaratzeko. Izenburua "EUSKAL KRISTAUTASUNAREN ZABALKUNDEA. 500 orrialde. Gipuzkeraz. Gazteiz'ko "Instituto Politécnico Diocesano" izeneko ikastetxearen edestian eragille eta zuzendari. Egunkari eta aldizkarietan 4.000 idazki.

IÑAKI ZUBIRI'k: Eleberri bat osatzen diardu. Amabigarrena du. Bizkaieraz Egunkari eta aldizkarietan 800 idazki inguru argitaratuak. Ingeniari.

PAULIN SOLOZABAL'ek: Amabi olerki liburu argitaratu ondoren, itz lauz osatzen ari da bigarrena. Bizkaieraz. 1.000 idazki argitaratuak egunkari eta aldizkarietan. Mungián abade

ANES ARRINDA'k. Guztira amairu liburu idatziak ditu, eta aurrera dijoa lan berrietan. Aldizkari eta egunkarietan 2.000 inguru idazki argitaratuak ditu.

Gure idazle oparotsu auek, berrogei urte illun, luze aien gau illunean argi. Bere oizko eginkizunaren atsedenaldietan, lan eta lan, eten gabe euskeraren alde jardunak dira. Diru etekiñik ez dute jaso. Patrika ustu bai sarritan, liburuak argitaratzeko eta doañik banatu.

### LIZARDI AUNDIAREN ALAKO URA KONTUAN IZANIK:

Baiña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aumat ere noranaikoa:  
yakite'egoek igoa,  
soña zar, berri gogoa  
azal orizta, muin betirakoa.

Tolosa'n, 1999ko Abenduak 31  
J. M. Murua

# PAMNTIA

Eusr

Popular del

LICENCIATU

Artículo de 3erreo. -11-7- P(5la

2111 i)(NOST: AISAN

MINO-DE: C011,11

48001

1999

SKAL ASTEA

EUSKAL KULTURA LANTZEN

Lino Akeisolo ren orowenez

icenciu.lo icendakarit)

DONOSTIA'n

**Egunak; Urrillaren 25'tik 29'ra**

**ASTEAREN EGUNAK**

ittaldien

LA[. FRISTALI'r•NS( : AREN SENDOKIJETZ.A. 1.,(ente

)lc i illU ía/.2kifia. Iba!: 7...!!

1/.KUNTI BA.1.(.11:: ALA BAT BAIÑo

Osteguna-28:

NORT• SI. A Paui

Ostirala- 29

13r/K AI ILRA LL.UN.OR.AIN. GISO Martin Olazar'ek  
Un L" G( )RRI AR .M..1:1K17.1.)V\LA

**ORDUAK: Arratsaldeko 8'etatik 9' ak arte**

kua San Inazio Parrokiaren aretoan  
(Zabaleta kalea 18)

i m : i i i )  
I JI iru Crolli III J emango zaio

ifi

T

11/1431...Públi;

ri

l

"191-z•L

# fVSKfPAZAiNTZ

AUadernia  
POPiar rr.tvskura  
PoPe' oife del:: :

Ardo de (..orreos- K.It \ Atila  
20.1)M41.1 OM/ST1 S1 EIAS•11AN  
III ...i\(\i C010,1 1 Larreategi.

**1999**

## **EUSKAL ASTEA**

### **EUSKAL KULTURA LANTZEN**

Lino Akesolo ren oroipenei  
(Etiskenitaintza · ko lecnentzo leendakal la)  
/ORNO iZA'n -Bizkaia  
**gunak: Zemendiaren 8'tik 12'ra**

## **ASTEAREN EGUNAK**

itzaidien aurkezpena' Paul Atas,

Et SKAL KRISTAUT.ASUNARFN SUNDOKI

1.1ixeru.,J JticH

Manit/clia 11

ETA BIZKAIFRA h

Zubiri-k

1/K1: •17

.1.(YI

MA BAT 11|I Ño UIIAGO?

na

NORTAS(.1

P. H

BIZI(AIERA ()IRAIN. (iktI() Mari in ()Ia/ai.

GORIZAARFIN

! N'I. N |aln.11.1 I

**ORDUAK: 7'etatik 8' ak arte**

**Lekua: Karmelo Ikastetxean**

(.1puzkon · ko uoru Aldundiarvo ( Ia,tinurai)

01 itzaidien mi tul itt I bi ru im liaren ale (oal: emango iaka.

111' : dan

1.3 d 1.134: 11.1.

20 P7.159

Urri

Aidarrikapena:1),...1 de Utilidad Publica |31|E45."1 981 -

91V1984)

# ZU, MARTIN!

et Martin

NIRE BIZITZA, GELAKOZ DE NI, VIDA



OLAZAR ETIA URISE TAS MARTIN



Laxaga

Euskal sena





### **AGURRA:**

Ondo etorriak izan zaitezte emakume-gizon eta gazte, kultur aste ontara etorri zarenok.

Akesolo"tar Aita Lino, Karmeldar eta Euskaldun aundiaren, eta Euskerazaintza"ko leenengo lendakaria izan zanaren oroimenez egiten dogun aste-au, Karmeldarren areto ontan.

### **SARRERA:**

EUSKERAZAINTZA'ren izenak zer esan-gura dauan, izenean daroa bete-be-tean eta zergaitik be bai.

EUSKERAZAINTZA noz sortu zan: Ba-dira 30 urte Arantzazu"ko batzarra bete zanetik, eta andik datorrena da EUSKERAZAINTZA.

Baiña guztiok obeto jakingo dozue, amaieran baktzari emango dautsuedan, EUSKERAZAINTZA"ko LIBURU GORRIA irakurriaz.

Alango aste-bat zergaitik egiten dan: Danez-gain, Euskeraren zaletasuna, Euskaldunaren giza-barneko ardurapean ezartzeko.

Zertarako dira aste oneik?: Euskara erabiltzeko eta astertzeko.

Orreik dira aste onen elburuak!

Muruátar J.M.

### **IZLARIA"REN AURKEZPENA**

Asmo-on oneik ezagututa, goazen leenengo izlariaren aurkezpena egiten: Latiegi eta Eraso"tar Bixente dira bere abizen izenak.

Apaiza, Euskalduna ta Euskaltzale sutsua bera, Euskerá ri, bizitza ezkeintzen dautson arraldoi aundi-bat da.

Eta guzti-ori ziurtazen dauana, Euskal-Eleizaren edestiko bidetik, egin dituan ainbat liburu eder, ikerketako lan-utsak, dira. Emon daiogun berbea berari ba, azaldu daiskun EUSKAL KRISTAUTASUNAREN SENDOKUNTZA, berak ondo baino obeto dakian-lez.

Atutxa'tar Paul

ZORNOTZAN 1999"an AZARA"ko Tan

## **EUSKAL ASTEA**

### **EUSKAL KULTURA LANTZEN**

### **AGURRA:**

Ondo etorriak izan zaitezte emakume-gizon eta gazte, kultur aste ontara etorri zarenok.

### **IZLARIA"ren AURKEZPENA:**

\* Zubiri"tar Inaki: Txikitatik, eta gero gudaldian, Euskalerrriaren eta Euskeraren laguna.

- \* Aspaldion, urtero elebarri, nobela, bat argitaratu izan dau. Elebarri oso onak dira.
- \* Bertso ta olerkigintzan be, egin dauz bere lanak.
- \* Gaur-lez, itzaldi egokiak be bai.
- \* Gaur bere gaia "BIDETIK AMETSETAN" deritxon, bere olerki bilduma da.
- \* Entzun daiogun gogoz

Atutxa"tar Paul

ZORNOTZAN 1999"an AZARO"ko Tan

## **EUSKAL ASTEA**

### **EUSKAL KULTURA LANTZEN**

#### **IZLARIA`ren AURKEZPENA:**

- \* San Sebastian"tar Joxe Mari da bera, baina beren Baserria izan zanaren izena artu eban gauza guztietarako, Latxaga deritxona.
- \* Lan asko egindakoa da bera, bai iru irakasle-mail edo dotoretza irabazita Sorbonako ikastetxe nagusian, ameriketatik lan egiten ibili zan artean.
- \* Bere azkeneko liburuan, Euskalerriko Giza-Iztia (antropología), beren eritxiz ezagutzera emoten dau. Egunkaz argitaratu dau liburu au.
- \* Gaur, Euskera izkuntza bat ote-dan, ala bat baino geiago? Bere gogapene-ko arrazoiari, ezagutzera emango dausku gizon jakintsu-onek.
- \* Latxagak dauka berbea.

Atutxa"tar Paul

ZORNOTZAN 1999"an AZARO"ko 11'an

## **EUSKAL ASTEA**

### **EUSKAL KULTURA LANTZEN**

#### **IZLARIA"ren AURKEZPENA:**

- \* Bigarren itzaldia gaur Joxe Mari Murua Gipuzkoarrak egingo dausku labur-labur.
- \* Joxe Mari Murua beti izan da Euskaltzalea eta Euskalerraren alde bere estuadi; ugariak igaro ditu.
- \* Orain, bere eguneroko lana itzi bear izan dauanean, Euskérazaintzan egiten dausku lan aundi ta sakona. Esker-ona zor dautsagu.
- \* Euskerazaintzak, liburu gorria deritxona argitaratu dau beronen ardurapean eta Joxe Mari Muruak eskeñiko dausku liburu-ori guztioi.

Atutxa"tar Paul

ZORNOTZAN 1999"an AZARO"ko 11 "an

### **AURKEZPENA:**

Entzule ta adiskideok, agur:

Gaurko itzaldia Atutxa'tar Paul'eri dagokio eta beronen gaia Arana'tar Sabin'en nortasuna.

Lankide bizi-bizia dogun Paul guztiok ezagutzen dozue. Beti izan da euskalzalea eta abertzalea, baiña lantegiko lana itzi eban ezker eta azken-urteotan, euskerearen arazoetara oso-osoan sartuta dakusgu gure Paul.

Bere gazte-aroan, burruka-urte gogorak ziran urte areitan, emen Zornotza'n lan ederra egin eban entzule dogun Barrio-ategortua'tar Pedro adiskideagaz. Urteak geroago Aita Santi Karmeldarragaz etorten jakun gure batzarretara, Santi'ren txofer lez eta antxe alkar ezagutu gendun. Euskerazaintzako giroa atsegin izan jakon eta geroago ta sakonago sartzen da lanera, lenengo ta bein euskeraz idazten eta gure aldizkariak bialtzen eta olakoetan. Lan au bearrezkoa da eta idazleak eurak ezin egin izaten dabe. Orrez gaiñera, aste onetan, lez, beste gauza asko eratzen be alegiñak egiten dauz.

Arana'tar Sabin'en nortasuna artu dau gai lez eta ziur nago sakon eta argi azalduko dauskula gai au.

Paul! Entzule gozuz!

Olazar'tar Martin'ek

ZORNOTZAN 1999'an AZARO'ko 11'an

## **EUSKAL ASTEA**

### **EUSKAL KULTURA LANTZEN**

### **AGURRA:**

Ondo etorriak izan zaitezte emakume-gizon eta gazte, kultur aste ontara etorri zarenok.

### **IZLARIA'ren AURKEZPENA:**

\* Gaur, azkeneko egun onetan, Martin Olazar dogu izlari; EUSKERAZAINTZA'ren lendakaria da eta beronek zuzentzen dau ZER gure aldizkaria.

\* Oraintzu argitaratu dau beren oroipenen-liburua "ZU MARTIN" eta au guztioi opari-lez eskeintzen dautzue. Berak esango dau zerbait onetsaz, gala izkuntzalaritza edo linguistikakoa da eta gure Euskerearen lena, oraina ta geroa arteztuko dauz.

\* Martin'ek dauko berbea.

Atutxa'tar Paul

ZORNOTZAN 1999'an AZARO'ko 12'an

# EUSKAL ASTEA

## DONOSTIA" N

1998-10-27"an Itzaldia

GAIA: Ipuiñak Euskalerrian (Azkue'ren "Euskalerraren Jakintza" liburua aurkeztu.

Jaun-Andreok, gabon guztioi eta ondo etorriak.

Itzaldi onetarako gaia, Azkue'ren liburu irakurgarria dan "Euskalerraren jakintza" aurkeztea zan, baiña liburu ori ber-ikusi ondoren galdera au egin neutson neure buruari: Zugatzez beterik dagoan oian baten antzekoa dan liburu aipagarri au zelan aurkeztu ordubete-barruan? Ori eziña da. Baiña labur-labur egingo dot aurkezpen-antzeko bat eta gero liburu orretan dan ipuiñen sailla kontuan artuta, IPUIÑAK EUSKALERRIAN izango dira nire gaia.

Gure artean Ars Poetica edo elertigintza azaltzen dabenak argi diñoskue idazleak iru elburu izan daikezala idaztean: Irakatsi, atsegin izan eta besteen eritxia norberagandu. Irakasteko or dagoz esku-liburuak, edesti-liburuak, alegiak eta irakasle-lan aundi ta txikiak. Atsegin izateko antzerkia ta lirika batez be aukeratzan dira eta besteen eritxia norberaganatzeko izlaritza (epaitegian, eleizan eta abar).

Gai lez artzen doguzan ipuiñak irakasteko izan daitekez, esaterako alegiak, baiña atsegin izateko be bai. Iru elburuok ba, sarritan nastauta aurkitzen doguz.

Zer da ba ipuiña? Asmamen-bideko kontakizun laburra. Eta ipuin orretan piztiak norki diranean, orduan alegia esaten dautsagu. Ikusi esaterako, ipuin-antzeko alegiak, deritxon Zarate"tar Mikel"en liburua.

Euskalerrria benetan ipuin-zalea da. Ugari ditugu errian sortutako ipuiñak, ez gitxi kanpotik etorriak, gogoratu esaterako Polifemo"ren ipuiña bertoko biurtzen dauan Tartalo.

Ipuiñak batzutan mitolojikoak izaten dira. Olako asko daukagu gure artean: Basajaunak, lamiñak eta antxiñakoen antzera gaur asmatzen diran ipuin asko. Ipuingintzan idazle oso ona dogu Goikoetxea"tar Iñaki josulaguna.

Ipuin-mota bat alegiak dirala esan dogu... Oneik beti izaten dabez abereak norki eta irakatsia ateraten da abereen jokabideetik, "moraleja" deritxona. Idaz-tankera au, sortaldean, Indian, sortua da, orain dirala lau milla bat urte. Izan be sortaldetarrak irudimen aundiko gizakiak ditugu.

Sarritan, ebanjelioa entzuten dogunean ez dogu irudimena alboratu bear. Esaterako, Jesus il zanean gertatu zan eklipse edo illunaldia, trumoi, zaratak eta abar irudimenaren itzak dira.

Eta Jesus'ek la beti irakasten dau parabolon bidez. Parabolak ipuiñak dira, baiña ez alegiak. Paraboletan sekula ez da agertzen sortaldean abereak izketan ipinteko agiri dan jokera zabala. Zergaitik ez ete eban Jesus'ek artu alegien bidea? Ez dakigu, baiña bai parabolon bidez ederto irakasten dauala: erri-maillan, erriko jazoerak artuta: alta batek seme bi eukazan... andra batek orea artu eban eta legamiña ezarri, ereilea ereitera urten zan...

Sortaldean zabal ebiltzan alegi oneik gure artera be eldu ziran, baiña nondik nora?

Ona emen bidea: Indian bertan alegi-moltzo bi egozan: Hitopadeza ta Pantxandra. Moltzo bi orreitako alegiak Indic"tik Pertsia igaro ziran, Pertiátik Grezia"ra. Emen Esopo izan zan nagusi. Eta Greziatik Erroma"ra. Emen Fedro nagusi Persiá n Zend-avesta liburuan aurkitzen doguz India"ko ipuiñak edo alegiak. Persiátik zuzenean, Grezia ta erroma"ko bidea artu barik, arabiarren eskuetara eldu ziran alegiak. "Milla ta bat gau" deritxon liburuan asko aurkitzen dira. Eta arabiarren bidez erdi-aroko idazleengana. Idazle batzuk aitatu daiguzan: Santillanaren Conde Lucanor, edo Rabi Dom Sem Tob (erriak Don Santos de Carrion esaten eutsen, antzeko izeza ezarrita), Hitá ko artzipresteak be ortik artu ebazan. Orintsuagoko alegi-zaleak bi beintzat euskaldunak eta ospetsuak doguz: Iriarte ta Samaniego errioxatarra.

Gogoratu zelako ikutua izan dauan munduko literaturan eta zinean Emakume ankerraren ipuiñak: "La fierecilla domada". Au Conde Lucanor"en dator, baiña Indic"tik etorria da. Antzera esan bear esne-saltzaillearen ipuiñari buruz.

Nondik etorri eta dira alegiak Euskalerrira?

Batzuk antxiñatik bertan sortuak dira, beste batzuk oraintsu asmatuak, len aitatu doguz Mikel Zarate ta Iñaki Goikoetxea. Beste asko aitatu leikez.

Mikel Zarate"k bere alegi-liburuan uts-une bat betetera datorrela diño, gure elertian alegi gitxi daukagulako. Berak bere liburuan, ipuiñak geiago alegiak baiño, iru motatakoak dakaz: Politikoak, izkuntzazkoak eta gizartezkoak. Batzutan izekazkoak dira, saura-antzekoak. "Bestela ondo", politika-girokoa da, "Erdibidea" deritxonak euskera batua dau gai, "Beste gari-mota bat" ek gizartea, "Aberastasuna ta aberekeria" ekonomi arazokoa da.

Itzaldi onen alegi-arloa amaitu baiño len, gogoratu daiguzan gure artera alegiak, Indic"tik etorritako alegiak, sartu ebezanak, eta onein artean batez be Mateo Zabala. Ori idaz-tankera bat da eta bizi-bizi dago gure elertian.

Eta amaitzeko begiratu Azkue'ren lana dan "Euskalerrriaren Jakintza" liburua: lau ale bete-beteak dira. Lenengo alean gai asko dakaz eta ez arlo batekoak: Abereak, aldia, gorputza, bedarrak, egaztiak, egilleak, eguratza, eleizea, eriotzea, etxeak, ezkontzea, santuak, jaiak, jaiotza, izate bildurgarriak, langilleak, zomorroak, soiñekoak, tresnak.

Lenengo ale au antropoloji-arlokoa da eta bigarrena ipuin luze ta laburrak osotzen dabe. Irugarrenean atsotitzak eta esakerak eta laugarrenean: otoitzak, olerkiak, dantzak, edaleak, eleizako gauzak, eskaleak, edesleak, elejiak, ipuiñak egualdiarenak, erri-sendokuntza, umeen jolasak.

Len esan dogun lez, oian zabal bat dogu liburu eder au, eta banan banan zugatzak aztertu baiño naiago izan dot alboko menditik zugazti osoari begiratu.

Irakurri nai badogu, ba-daukagu Euskalerrrian zer irakurri. Gabon guztioi.

Olazartar Martin'ek

# **EUSKERA, BATEZ BE BIZKAIERA, LEEN, ORAIN ETA GERO**

## **ITZALDIA**

### **AMOREBIETA 'KO KARMELDARREN IKASTETXEAN**

1999-11 -12  
OLAZAR "tar Martin"ek  
AGIRI GIDARIA

#### **1.-LEEN**

##### **1.1. EUSKEREAREN SORRERA:**

Cromagnon gizakiaren aurretik eta beronen aldiari: Euskaldunak emen sortua. (Barandiaran)

Noz? Asieran gizaldietan, astiro. Arri-aroko berbak: aiztoa, aitzurra, aizkorea...

Asieran aditz-bagekoa? Nondik aditz jakintsua? Izadiak izakien barruan kodea: landarak, abereak, gizakiak. Gogoratu estalaktiten edertasuna... Izkuntza?

Fededunentzat or dabil Jaungoiko Egillea, izkuntzan be bai.

##### **1.2. SUSTRATOA EDO AZPI-EGITUREA:**

Beste izkuntzak, esaterako gaztelereak.

Euskerearen azpi-egiturea zein ete zan? Beste izkuntza batzukaz batera?

##### **1.3. ADSTRAKTOAK EDO ALBO-EGITURAK:**

-Zeltak: gogoratu "gona", fraka, landa.

-Iberoak: Bilbao-n aldi batzuk egin ebazan jakitun baten eritxia: Iberoek idazkiak euskerearen antza.

-Fenizioak: Idazten ez euskuen irakatsi, dirua egiten be ez, baiña itxas-ontziak egiten? Gitxi urreratu jakuzan.

-Erromatarak: Ikutu aundia: Aditzean -tu eta laguntzaillea. Atzizki asko, esaterako -tsu, -ari, lugin-arloan: solo, kipula, porru. Landara arloan: Pago, keriza. Lege-arloan: Lege, bake, errege. Izketa-arloan: berba egin, ez parabola/Palabra, ez fabula/habla.

-Erromantzeak: Aragoi"ko edo naparroakoa: II (akullu, maillu, teilla, olio, maila...), azkeneko u, sartaldetik autrigoak euskera arin galdu eben, toki-izenak aztertu ezkerok, bizkaiera zala dirudi.

Guk eurak: Itz asko emon dautseguz: Bost bokalak, minaia, miatxa. Joskerea, gaztelereak asieran parasintaktikoa eukan, gero hiposintaktikoa. Ori euskeratik eukan.

Frantzetarrak: Sommes arrivés, hemos venido, etorri gara. Un autre, beste bat. Il ny a pas de pain, ez dago ogirik.

Gaurko albo-egiturak: Euskera batuak Frantzeratik ugeri artzen dauz. Aditz biren arazoa euskeran: Estar/ser eta Haber/tener Frantzetarren eta gaztelerearen indarra or. Euskeratu "ni están todos los que son ni son todos los que están". Frantzeraz?

-Maillego-itzen arazoa: Zenbat artu? zeintzuk?

## **2.-ORAIN**

-Erria bera bide txarrera: Aditz galduak (Puxana"k ZER en Aurre Apraiz"eri). Oker erabilten diran aditzak: igon dot, ikusi dautzuk atzo...

Euskaldun barrien utsak: gitarrea ikutu, ni asko lagun dauzkat.

Euskerearen gaurko laguntzaileak: Euskaltzaindia? Euskerazaintza, Jaurleri-tza be bai gogoz, ez beti zuzen, ikastegiak mailla guztietan, ETB baiña... Irarko-lak eta liburua, aldizkariak eta egunkariak: ZER aztertu.

Arerioak: Indar aundiko TVE, ikasi nai ez daben etorkiñak, erdera egiten daben euskaldunak... Erri-euskera il nai dabenak (besoa galdu?). Batu-zaleak: Gurasoen eta umeen arteko gatazka. Politikan arerio diranak: PP, PSOE... ELEBITASUNA?

## **3.-GERO**

Gaurko giroa ikusita, noz eta zelan amaituko da naste aundi au? Ogei ta amar bat urte?

Zer geratuko da? Euskerea ikastetxe txiki ta aundietan bai (latiña lez), baiña errian? Bai. Baiña zelakoa? Geure izakerea galtzen dogun neurrian galduko dogu euskera jatorra. Ogei ta amar urte barru, asko aldatuko da euskerea eta ez onerako: erriko utsak aurrera, batua aurrera, errikoa be nastatu.

Noz-arte iraungo dau euskereak? Ez da izango betirakoa, baiña bai eundak urte batzutarakoa.

Ori uste izanik, zer egin bear dogu? Gaisorik dagoan amari egiten jakona: Zaindu, lagundu, ikasi, irakatsi, itz egin, idatzi batez be, beste euskalkiak be onartu ta ikasi al dan neurrian. Gitxienez entzun eta ulertu.

-Bizkai'ko euskerea: Or giro orretan dago. Galtzeko arriskua? Ez dot uste epe labur baten beintzat. Baiña zerbait egin bear da ETB'n, aldizkarietan eta liburuetan erabilteko. Batua da gure arerioa, arerio indartsua, baiña geureari eutsiko dautsagu. Or daukagu atxearen arazoa be. Baiña onetzaz sarritan egin dogu berba eta EUSKERAZAINTZA'ren Liburu Gorrian agertzen da ondoen arazo ori.

Olazar"tar Martin'ek

**SABINO ´REN NORTASUNA**  
**ITZALDIA**  
**AMOREBIETA"KO KARMELDARREN IKASTETXEAN**  
1999-11 -12

Atutxa'tar Paul'ek

- Danok maite dogula Sabino, argi dago!.
- Baina ze gutxi dakigun Sabino'ren buruz!
- Ori danori gertatzen jaku, gaur daukaguzan ez-jakineko arrokeri zitalagaitik. Danok gura dogulako zeozer esan, Euskal-Nortasauna kontuan euki-gabe; eta or!, ez dago arrazoi en zentzurik.

- Nire aldetik asi-naz Sabino ezagutzen, aita Elizondo"tar Mauro'ri ezker; berak, eginda daukazan iru liburu ederren bitartez. Eta eurakaz, azko ikasiko dogu, jakinda: "zerk, txist egin dautson aita Mauro"ri".

- Orregaitik, Sabino'ren Nortasuna azalduko dogu, lau zatitan bananduta:

**a) GIZON BEZELA.**

**b) KRISTAU BEZELA.**

**c) ABERTZALE BEZELA.**

**d) ERRI-GIZON BEZELA.**

**e) SABINO ETA NAFARROA.**

Aurretik, nolako egoera edo mailla Nortasanaren aldetik egon zan Euskalerrian, orduko denboratan, jakinda.

- Sabino, 1865'an Urtarrilla'ko 26"an jaio-zanean, Euskalerrian bizi-bizi zan: menperatuaren zigorra, 1839"an leenengo karlista"ren gerla galdu-egin gendunetik Espaniá ko gudalozte"aren aurka. Geiago, jakinda, bigarren gerlarako 1872-76, abiamenak antolatzen alegin aundiakaz ibili zirala talde biak.

- Baina gerlako aleginak galduta, Sabino'ren ardurak, Nortasanaren argiak biztutzea ziran, Euskalerriko gizon/emakumeen indarrakaz, borroka nagusia irabazteko.

- Aita Maurok ikusten dauan-lez, Sabino'ren buruz daukan urrezko altxorretik, "berez diran erri guztien AITA" deitzeko lotzarik-gabe eta bai ardura, bai begirune aundiaz: "Berak ikusten ebalako, erri bereziak diranen artean, arazoak konpontzeko bidea gaurko egoeran, nolakoa zan". Jakin ebalako, arrazoirako edo erriak-agintzeko, leenengo pausoak: "bakoitza"ri berea, ardura ta guzti", diralako beren elburuak, eta espataren arrazoiak amaitu egin bear zirela egunen batean, arrazoi berezien edo egiaren bidetik, andik aurrera argi eta garbi jokatzeko.

- Bartzelonan, ikas-bidea betetan egon zanean, eskutu-eskutan ikasi egin bear ebalako, beren erriaren esku-bideak zeintzuk eta nolakoak ziran!, berak bakarrik esan gura dau, ez gendula jakin gure nortasun aldetik ezertxo-be, edo gauza gutxi baiño beintzat, Euskalerrria ardurapean edo jabetasunean ezartzeko.

Beste aldetik, etsaiak, ondo moztuta euki ebalako jakintasanaren bidea izan zan ori.

- Baina... ; gure erriaren il-zoriko orretan eta euskal- seme guztien artean, bat agertu jakun indartsu!, biotz guztiaz esaten ebana: "EZ DA EGIA ORII!, EUSKADI DA EUSKALDUNEN ABERRIA!".

- Ortik aurrera, Sabino egille izan zan, eta ikaragarritzko lana egin euskun lumaz ta mingainez.



## SABINO, GIZON BEZELA:

\* **Leenengo** gauza ikusten doguna da, beren kide eta sendiarekin daukan samurtasuna, eta ori, eskutitz guztietan azal-azalean agertzen jakuna da. Adibidez: beren arreba Paulina eta anai Koldobikak, euren maitetasunaz nola laguntzen daben, bai on-biguntasunaz beren kementasuna zelan goratu. Eta, Arantzadi"tar Ingartziri Sabinok idazten dautsona 1896"an Otsailla"ko Tan:

"Nire arimako lagun miña eta gogaide bikaiña".

"Berorrekin, zenbat biderrez gogoratu naz!".

"Nere bizitzako lagun miña, zure orduz-kanpoko aitortua, zenbat gaiztotu nau

Alderantsiz, eurak euki eben Sabinogaitik arridura. Adibidez, Arriandiagak Arantzadi i idazten dautson 1902"an Agorrillá n 22"ko eskutitzan:

"Ezin diteke, ain ezin-obeko gizatsua, ain abertzale: aundia eta ulermen gain-gainekoa, Eusko Alderdi Jeltzalea'ren aita, beren bizitzagaitik berea ondatu dauena ezin-bestean". eta abar. "GUZTIZKO eta GARRANTZIDUN" (Grave y transcendental), idatz-lanaren gora-bera gaitik.

A!, nolako begirune alde-bietatik.

- Baina, badago beste unetxo-bat, aita Maurok bikain argitzen dauana. Sabino 19 urte il-zanetik zala, bere lagun-min bateri egindako alkar-ikuste baten bidez da. Onek, itanari erantzuten eutsen: "Sabino biotz oso-osokoa izan zala".

Beragaitik etsaiak esate ebazan, Bizkaitar aldizkarian agertutako idatz-lan bategaitik: Sabino 'rentzat, maketoak ikus-ezinezkoak zirala; laguntzarik, ez-dakiela emon bear iñundik-iñora be, esaten ebala; Euskalerritik, bota egin bear zirala eta abar.

Jakin al dau berorrek, nolako gizon eta benetako kristaua izan zan Sabino?.

Martxan ipini daigun ba. Sabinok euki eban gorroto zital-ori maketoagaitik: Sabino, Larrinagako espetxean egon zanean, beragaz batera maketo-bat egon zan, abizena "Huertas" euki ebana. Bere zigorra eriotzea zan, Lekeitio"ko euskaldun bat il-ebalako, diruen lapurketagaitik.

Biotz-gabekoa izan zalako, iñork ezin eban lortu, azkoren alegiña izan arren, espetxeko abadeaz autortzea. Eta begitu nundik-nora agertzen dan Sabino bere ondoan (gorrotoaren gizona), erlijio egiak irakasten; Berentzat, etxetik eroandako baskari bereziak maketoari emoten; ardo guztia (baskari bakotxagaitik pinterdi bat): bai ke-belarra eta berarekin denbora guztia berbetan.

Ez eben bakarrik Huertas biotzez damututa aitortzea lortu; beste abade biren laguntzaz, beren barkamena irabazi be-bai. Beragaitik, zekula! ez ebana egingo.

Sabino'k, Huertas'en biotza, oso-osoa irabazi eban; eta begitu noraiño izango ziran maketoaren esker-onak, beren aita baiño geiago maite ebala esateko. Bai Larrinagatik atara ebenean Ceuta edo Melilla ko espetxera bigaltzeko, Sabino agurtu eban, esanda: "iges egiten dodanean, Sabino jauna, eta ziur egon zaitez, espetxetik iges egingo dodala, danerako berorren naierara ipiniko nazela". Andik iru illabete orduko, ego-Ameriketatik idatzi eutsen, agindukoa osterabe berrizatzen.

Gure solas-lagunari esan geuntson, gertaldi-ori ezagutzen gendula, ain-beste-ko xeetasun barik. Eta gertakizun orrek bakarrik erakusten dau, Sabino, biotz oso-osokua izan zala.

\* **Bigarrena.** Nolako ardurarekin entzuten eutsen gizon jakintsuak. Adibidez:

- Beren etxeko guraso, anai/arreba ta senideak.
- Olandar Van Eys'en iztegi ta gramatika; Kanpion"tar Arturo'ren gramatika baskongadá rekin; eta, ikas-bidean eukindako maisu guztiai.
- Bere anai Koldobika"ri, Euskalerriko arazoak dirala ta.
- Irujo"tar Daniel"en aolkuari.

- Beren denborako Azkue, Unamuno eta kideak zirenai.
- Euskalerriko etsai nagusien esanak; Canovas del Castillo eta beren mallakuak zirenai eta abar.
- Eta dan guzti-ori ziurtatzeko, ez da begitu baino bear, jakintzako arlo guztietan, nolako mailla artu eban.
- On-artzea, naiz damu aundia euki-arren, beren kideak, bidea moztu egin eben orduan, kable-idazkiren bidez bigaldutako mezua Inglatera"ko erregeari, Afriká ko gerla amaitzeagaitik; espetxean eta gaisorik egon zalako, len Roosevelt Amerika"ko lendakariari bigaldu eutson mezua gaitik, ezkerak emoten, Cubá ri askatasuna emon eutsolako.

Sabino, bai sendimen eta bai ulermenean mailla aundikoa zan, eta orregaitik buru argiaren begi zorrotzekoa; bere denboran bizi ziran gizon aundiaren aolku mezuak, era ez-berdinetan goi-mallako jakintzaren arloan, gai baktxaren jakitea eta izateagaitik; ardura aundiekin, entzun eta aintzakotzat artu egite-ebazan egia- ren astarnarekin oso zintzoa izan zalako, esku-arte bikaiñakaz goi-mallako uler- menean, bai lege-barruan jokatzeko.

\* **Irugarrena:** Nola asi-zituan gauzak eta amaitu, gogo aundiko gizona izan zalako. Eta au ziurtatzeko, begitu baiño ez da bear, berak egin eban lan guztiari.

Ondo ikusten dan bidetik, argitaratu ebazan aldizkarien bidetik da; Espania"ko jaurkintzatik debekatuak izaten zirenean be, laster atarako eban beste bat, edo izena aldatuaz, Euskal erritarrai mezua emateko. Ikaragarritzko lan bikaina erakus- ten dausku, arlo onek bakarrik.

Euskeraren arloan bardin: nolako lan bikaiña itzi euskun oso gazte azita, ba, ez ebazan euki 20 urte baiño "Bizkaiko Euskera'ren Gramatika osotu ebanean, beste lan batzuen artean 1888"an argitaratua izan arren".

Emen esan leike iñondik-inora okerrik esan gabe, bere bizi laburrean baiña luzea ekintzan, ez ebala galdu denboraren unetxo bat bera esanda be, nai ikasbidean nai bizitzako ekintzan, ain denbora gutxian, ainbeste goi-mallako lan egiteko.

Zuzentasuna bere adizkidekin, edertasun aundikoa izan-zan asieratik amaie- rarte, eta orretarako begitzea baiño ez da bear gure gurasoai, nolako maitasuna eta fedea euki eutsoen Sabino"i eta berak egin eban lan guztiari Eusko Alderdi Jeltzalearen bitartez. Nolako fede zintzo ta indartsua!!, guk, apur-bat baino geia- go galdu doguna.

- Laburpen-baten bidez, gizaldi aldetik agertzen jakuzan alderdi argitsuak izar dirdiratsu-lez, oneik dira:

- \* Xamurtasuna arremanetan.
- \* Neurri gabeko ardurak, giza jakintsuen mezuak ezagutzeko.
- \* Gauza asiak amaitzen ikasi.
- \* Ganez-gain zuzentasuna, nai adizkidetasunaren beste-aldetik asiak izan.
- \* Goi mallako lanetan, egindako astarna kementsuak.

Eta, ori da azken baten, gizon aundien ulermenari neurria artzeko tresnarik onena.

### **SABINO, KRISTAU BEZELA:**

Bigarren atalak erakusten dauskuna da, fede aundiko gizona zala, bai bere izatean, bai bere ekintzetan.

\* **Leenengo.** Beren Nortasuna. beti, JAINKOari begira dago, ortik artzen daualako bere argitasun osoa.

Sabino'rentzat, JAINKOA, Nortasun osokoa (personal). eta BEREN ardurapekoa (providencial) dalako au.

Begitu daigun bestela, aita Mauron liburutik, Sabinok, zer esaten dauan Larrazabaleko Itzaldian; ba..., itzaldi bat baino geiago, esan bear da, bere oinarriko kristau fedearen aitortza dala: "Nere erriarentzat, katolikutzaren adierazpena egiten dot, bere ao-jakintza (tradición), bere izatea gizartean (civil) eta politikoa, katolikuak diralako; orrela ez-balitz, berdin aldarrikatuko (proclamar) neban; baiña..., nire erriak katolikutza'ri aurka egingo báleuskio, neure abendatik "uko" egingo neuke, JAINKO'rik gabe, ez dogulako gura ezer!

\* Bigarrena: Bere nortasuna, JAINKOari begira dago beti, ortik artzen daualako indar guztia.

Eta au ikusteko, artu daigun beste azkoren artean, Arantzadi"tar Ingartzi"ri 1895-an Irailako 14'an idazten dautson eskutizatit zati-au: Gudá ko agintarien aldetik, oso ilun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, JAINKOA'ren ardura-pean itxiten dot ori". A! nolako ezkeintza JAINKOA'ri.

\* Irugarrena: Gauza guztiak, JAINKOA'ren izenean egiten dauz, ez daualako ikusten bizitz-au JAINKOarik gabe.

Artu daigun ba, aita Mauro"ren liburutik (Gizona eta beren Bidea 58 orrian) aipu-au: "JAINKOA" k askatu gaizan (Sabino'k adierazi egite eban), liberalkerian ikasita, politika bat agertu daiten, gure Aberriaren askatasuna aldarrikatuz. Ez da zalla ala-ere, eta erne egon bear dogu, Euskaldunen artean eta abar, badagozelako bereiztiarrak (separatistas), baina danok dagokigun-lez, JAINKO-gabekoak.

\* Laugarrena: JAINKOari emoten dautsoz eskerrak, bere Aberria ezagutu ebalako: "Bedeinkatua izan daitela, nire Aberria ezagutu neban eguna, eta betirako esker-onak, arrotzsuneko illuntasunetik atara nauanari".

\* Boskarrena: JAINKOA'z nai du bizi daiten beren sendia eta Erria, JAINKO"tik kanpo, ez daualako jakin gura ezertxo be.

Danez gain alegintzen da sakramentuak artzera, berak nai-dauena da, eredu bat izan, nai gizon/emakumeen aurrean, nai Errien aurrean.

Berak, alan gogoratzen daualako izan bear dala Euskalduna, fededuna eta biotz garbiko emakume/gizona.

Bere ekintza guztiak JAINKOari begira dira, berak, dei-bat dala gogoratzen daualako. Orregaitik beren lotura kristau sinismenarekin. Eta orrelan onarritzen-dau J.E.L., bere kristau eta abertzale joka-bidea.

Sabino'k, JAINKOA'ren bidetik ikusten daualako, Errian danok bat izatea; ari-maren gorputzarekin, Aberriaren askatasunean edestiko jarraian JAINKOA'rengana igoteko. Or! ikusten daualako, danon indarrak alkartuta, nai gure izkuntza, lege-zar eta etxe nagusiak bear dabezan gauza guztiak, lortu dagikezala, beste errien aurrean on-artuak izateko, eta arriaren aberastasuna oiturazko arloan goimallakoa izateko, bizitzan aurrerakoiak izateko, eta ez gordetzilleak; Beti! JAINKOari begira.

Badago beste atal-bat, Sabino'ren kristautasun fede sakona argitzen dauana; eta onen aitorraldia, monsiñore Pierolá k emon eban, orduan Gazteizko gotzaiña zala. (Gizona eta beren Bidea, 46-47-ko orrietan).

Ego-ameriketatik etorritako erlijiozko erkidego talde bat, Gernika inguruan ezarri ziran. Eta gura Erriaren oiturarik ez eben ezagutzen; onein gogamenak ziran, ondartzara joan leikezala askatasun guztiaz. Baiña askatasun orrek, bertako baserritarren gogaeragaz topo egite eban eta ez ziren adostasunean egon.

Sabino, baserritarren urduritasunaz arduratu zan, kristau aldizkari baten bidez gertakizun-ori zabalduaz.

Baiña, Gazteizko gotzainak Sabino'ri txizt egin eutson eskutitz baten bitartez, ez zabaltzeko aldizkaritan galdu-bideok:

"Ezagutzen dot zure katolikotasun garbia eta zuzentasuna (esate-eutson), baina berorreri eskatzen dautsat, ez egiteko aurrerantzean gal-bidezko olakorik".

Sabinok, lotsagizun aundiko eskutitz baten bidez erantzun eutson: "fedea aundiko kristaua zala, JAINKOA"ren itur-buruko (causa) zerbitzuan eta eleiz nagusiarena".

Baiña, ez eben ontzat artu, edo naikoa ez-zirala beren azalpenak, eta Sabino bera aurreratu zan Gazteizko gotzain eta bertan egon ziran eleiz-gizon"en aurrera.

"Bai, esan eutson gotzaiñak, niren-gana etorri bear eban berorrek; nik artuko nebazalako neurri egokiak, galdu-bide ori ebagitzeko".

Sabino'k, lotsagizun aundiaz entzun eban gotzaiñaren oarkizuna, eta gotzai barrutiko'en oar-pideakaz andik aurrera arduratuko zala esan eutson.

Sabino'k urten ebanean, gotzaiak, bertan egon ziran eleiz-gizonai esan eutsoen: "Ori da, eleiz-barrutian (diócesis) daukadan kristaurik onena".

Eleiz-gizonen artean Mujika"tar Mateo zan, Gazteizko gotzaiña izango zana, eta berak esan eutson on-Joxe Miel Barandiaran gertakizun ori.

Sabino gaurkoratu egin bear dogu, beren oiñarrizko esandakoak eta eginda-koak gaurkoak diralako.

Orregaitik, ez da arritzekoa, giro ontan, ezia ta azia izan dala Eusko Alderdi Jeltzalea, bere erailkilariaren jarratzaille izateko; orrela jaio zan kristau-demokrazia-  
ren ekintzetan, ondo sarturik egonda, egite ebazan billera orokorretan.

Ba-díra billera nagusiak ainbeste egiñak, PNV biltzen zala kristau-demokrazia-  
zako beste kide-ekin. Zer esanik ez, asko arduratu zirala kristauzko demokra-  
ziari, indar edo arnasa emoten, edestia ta Europa aberastuteko. Mami-aundiko  
gai-au, ikerlari-esku-artearen bearrean dago. Gaur, inoz baiño geiago.

Nabaritzen-da, gaurkoratu egin bear dala Eusko jator zaleen artean, ekintza  
auxe ber-bera.

\* Bigarren atalean laburpen baten bidez, kristau aldetik agertzen diran fede  
sakon-baten alderdiak, auek dira:

- Beren Nortasuna, beti JAINKOAri begira dago, ortik artzen daualako, bere argitasun osoa.
- Beren Nortasuna, JAINKOAri begira dago, ortik artzen daualako indar guztia.
- Gauza guztiak, JAINKOA'ren izenean egiten dauz, ez daualako nai bizitz au JAINKO'rik-gabe.
- JAINKOAri emoten dautsoz ezkerak, bere Aberria ezagutu ebalako.
- JAINKOA'z nai-du bizi daiten beren sendia eta bere Aberria, JAINKOA'gandik kanpo ez daualako jakin-gura ezer.

Ikusi dogu ba, pare gabeko fede aundi bat.

## **SABINO, ABERTZALE BEZELA**

\* **Leenengo:** Nolako abertzale giroan jaio-zan Sabino?.

Sabino jaio zanean, Euskalerría *il-zoriko* larritasunean bete-betea egon zan. Aberriko giza-barneko uts-oso baten.

Begitu noraiño izango zan Aberriko giza-barne gabeko-ori, Sabino'ren jaiotza eta gazte denboran, politika arloan zortzi talde egoteko; Katolikuak iru talde ziran: Karlistak, Integristak eta Fueristak; Monarkiko liberalak bi: Gordetzailak (conser-

vadores) eta Fusionistak; eta iru errepublika zaleak: Radikala, Federala eta Posibilistak. Bat!, bera esanda-be ez zan izan Euskalduna, danak ziran Espaiñolak.

Sabino, orren giroan asi zan Euskalerriko gazte-lez, baiña ez bere etxeko sendi-lez, beren aiton-amama eta guraso aldetik "ERLIJIOA eta FORUAK" izan zirelako elburuak. Eta ori, Abertzaleak izatea da.

Beren aita, guztiz beartuta egon zan karlistai laguntzen, etxerako kalte aundiak ekarri arren.

Ikusten dan lez, etxeko arnasa obiagoa ezin izan, eta oil berarentzat, erro zintzo ta sakonak, nai kristau-lez nai abertzale lez.

Au-da aurrez-aurre Sabino'k euki eban ikuskizuna, bere jaio eta gazte denboran: Nortasun arloan, bizia emon bear jakon eremu-baten ikus-begian.

\* Bigarren: Sabino'ren Abertzaletasuna non errotuten da?.

Atal onetan ikusi-gura doguna auxe da: "Sabino'ren Abertzaletasuna non errotuten dan".

Asiera erdiratu egiten da beren elburuari buruz Euskalerraren burutapenean (concepto), eta bera da gai nagusia, eta or dago erabagia artzeko almena beren etorkizunezko zorian, erri bat-lez beste guztiakin lotzen dala, bere azi-bideá ren indarra, guztientzako onura edo errien-ona billatzea dala, eraikuntzak (instituciones), lanaren elburuak, inguruaren etorpidea indartuaz eta etxeko senideen arteko gogoekin egiten diran egitamu-zaio guztiakaz batera. (Erritargo'en AITA. Padre de las nacionalidades. volumen I).

Euskalerraren burutapenak, Euskaltasuna indartzera beartzen dau, aaztu barik, Euskaraz berba egitea sarritan, barregarri agertzen zala, bere irabazpidearen askatasunagaitik, Euskerá ren birbaliota\_suna laguntza onekin indartuta bere erabilketa garatu daiten. (Gizona eta Beren Bidea 129 orri-aldean).

Erri-orren borondateak mugatzen dauz burutakizunak, eta apurka-apurka zeazkatzen dauz, beren erakundeen gogoá daukolako eta beren barruko batasuna erakutsi-nai daualako.

Gernika da, Erri-orren Nortasuna ondoen ikusten dan lekua ageriko izatean, beren millurte-asko daukiezan erakundeetan, Gernika'ko Arbola da, Euskalerrria'k daukan bertako eta jabetasunezko, Nortasun bizi-biziaren dirdira leiala.

Sabinok on-artzen dau, Euskalerrrian Euskal il-zoriko giza-barrena nola dagoan. Barru-barruan Sabino'k, erri guztiaren zatia izaten daki, eta azkenerarte gura-dau baieztu, beren zerbitzurako esanekoa.

Egizale aundi bat da, eta on-artzen dau dan burutakizuna, bere erria aurkitzen eta azaltzen dan mail-buruan, zazpi izatearekin osotuta eta zazpiak-bat-izendatzen jakonari, eta or asita goratzen dau Euskal-sendi guztiaren azalkuntza.

Sortzekoa da oldozmen au, eta Sabino'rekin dauka beren asiera. Gai onetan eskua sartu baiño arinago, Euskal politika izaera espaiñolista baten lan egiten dau, eta orren zentzutik ibiltzen joango da karlismo tradizio-zaleagaz gutxi goraberan lotuta dagoana. (Gizona eta Beren Bidea 95 orri-aldetik aurrera).

Lanaren egin-era au, guztiz ugaritasunezkoa da, erri-txikerrá ren azkerá ri balio-ko jakolako. Orregaitik ausartu gara, "ERRITARGO'en AITA SABINO'ri deitzera".

"Euskalerrirako gaur, Sabino ardura aundienetakoa da zalantzarik gabe".

"Nai-ta nai ez berrezkuratu egin bear dogu Sabino'ren dan eta gaur Euskalerrriaren osasun-onerako dan bidea".

1999'an Iraillá ko 20'an

Lizarrá ko Latxagá ren etxean, gabeko 11'k laurden gutxian.

\* Irugarrena: Sabino, endakeriaren zalea izan zan?. (Era racista?)

Giza-iztian (antropologia) jaiotzen da endakeria (racismo), 19<sup>o</sup>garren gizaldian.

Indar nabarmenak ezan bear da, endakeria, Europa guztian, giza-iztia ikas-kundearen fruitua dala, eta giza-izti fisikatik geien, gizaren nortasunezko berezitasunak asten danean ikasten.

Gure erriaren aurka, eraso-aldi asko bota dituzte bizi ez daiten, edo gure erriaren eriotzea gura dabenak, gure lur ontako ondasunak eurenak izan daitezcan, edo eurak kaizer-lez agintzeko. Nor da or endakerien zaletasunezkoa?

Sabino, zekula!, iñoiz ez zan izan endakeriaren zaletasunezkoa. Beren Aberriaz arduratua baiño; bakoitzak bere etxearen ardurea zaintzen dauan antzera, eta ABERRIA gure etxe nagusia da! Gainera esan bear da, itz-berri orren asiera edo oiñarria, Espainol ta Alamandar kaisal-erri auek, euren arrano aundia armari ta ikurrinetan daukienak, dirala itz-orren gurasoak:

Baina goazen itaunakaz:

a) Sabino"k, iñoiz esan eban maketoak bota! egin bear direla? Nik dakidanez, inoiz ez eban esan olakorik. Begitu daigun bestela, Larrinagako espetxean, Sabino"k euki eutsen amorrua ta gorrotoa gaztelarrai, Huertas il-tzaillaren gizakian. (Gizona eta Beren Bidea 43 orri-aldian).

Sabino"k ez eban bakarrik Huertas'ek biotzez damututa aitortzea lortu, beste abade biren laguntzaz, bai beren ilgarrietatik askatu be. Endakerien dabillen baten-batek, emongo leuke alango laguntzarik? Ez dot uzte!

b) Baten-batek esan dau Sabino"k auxe esan abala!: gu geu izateko, gure artean dagozan beste erribatekoak il egin bear dirala. Sekula ez! ez dau esan alangorik Sabino"k. JAINKO"zale eta Kristau aundia izan zan, bai-ta lotsakizun aundikoa orrek zikinkeriak esan eta egiteko.

Onek besteok bai, izan ziran gai eta orretarako egilleak: Hitler, Mussolini, Franco, Milosevik, Indonesia"ko Yusuf Habbie eta abar; euren armarietan eta ikurrinetan arrano aundiak daukiezanak.

c) Lotsakizunaz artu bear dira, gure artean bizi diran arrotzak? Bai! benetan, eta aundiagaz gaiñera, JAINKOA'ren Legeak aginduten dauskun-lez. Baiña, zer egin gure artean, gure etxe barruan, gu ez izateko eraso-larrian aurka egiten dauskuenai? Aurka! nai-ta naiez erasoan datozenai.

Nola? Sabino"k beti esan eban, Aberriaren, Nortasunaren giza-barrena osatu egin bear dogula Erri-bat izateko. Eta orretarako ez da bear borrokarik, ardurak zainduz, izatean, arrazoia baiño besterik ez. Or ez dago zalantzarik, Sabino"k esaten eban lez, erri bat izan ezkerro eta izaera orretan jokatu ez gero edozein etsaien arrazoiak nun geratuko ziren?

Nork, gure artean eta arrotzen artean esan dau Sabino ez dala gaur egunekoa? Sabino, gaurkoa eta bai etsikoa beti izango da; betiko oiñarriak diralako berak ibiltzen ebazanak; bestela Canovas del Castillo"ri itaun, zer gura eban esan, Bizkaiko Aldundiaren ordezkariari esan eutson orduan: "Ese, ve mucho y muy lejos".

d) RH'en gora-beran, azaldu bear dana, Euskaldunak sekula ez dogula erabili zertzelada ori endakeri lez. Guk, beti esan doguna da: berezitasun-ori, Euskalerrian aundia izateagaitik, eta gure artera etorri diran arrotzak, euren berezitasunak itxi-arren, oraindino geien daukana Euskalerria dala. Eta guzti ori, Erri-bat, bai zarrena be European garala, etsaiari esateko. Besterik ez! Jakintzaren ikerketarako dirala orrek, Erri guztiak daukaguzan berezitasunak; eta ludi onetako gizakiak, derrigorrezko antolamendu berezi bat bear dauan lez, lotsakizuna zainduaz bakean bizitzeko. Begitu orduan, nortzuk dira RH-ko endakerietan eta beste berezitasunakaz jokatzen dabenak eta zertarako.

Sabino"k, Euskalerrriaren bizitzarako "BETI! arrazoia dauka".

"Sabino gaurkoa da!".

\* Irugarren atalean, eta benetako abertzaletasunaren aldetik, agertzen jakuzan alderdi sakonak, auek dira:

- Nolako giroa abertzaletasunen aldetik euki eban Sabino'k jaio zanean.

- Sabino'ren Abertzaletasuna non errotuten dan.

- Zer aituten zan endakeri-lez Sabino'ren denboran, eta ia Sabino bera ba-zan endakeriá ren aldekoa ala ez.

"OR! ABERTZALETASUN PARE-GABEKO BIZI BAT"

### **SABINO, ERRI-GIZON BEZELA:**

1898"an Bizkaian, Aldundiko 20 ordezkariak, Espaiñol zaleak ziran ordurarte, eta ezertxo-be ez eben egiten Bizkaitarrak euki eben premiarekin.

Urte orretan, Aldundiak ber-aukeratu bear ebazan 8 ordezkari: lau Bilbokoak eta beste laurak Bizkaiko lurraldeetatik. Bilboko auteskundeen irabazleentzat iru ordezkari ziran eta bat aurkakoentzat.

Sabino'k Eusko Alderdi Jeltzalea iru urte ariñago sortu eban, eta BIZKAITARRA aldizkariaren bitartez, abertzaletasunaren giroa berotzen ibili zan, orko autoeskundeetarako, gogoan euki ebalako, ordua zala abertzaletasuna, politikako inguru-begian agertu egin bear zala Bizkaiko Aldundian, bere ordezkari-tza agertuaz.

1898"an Irailla ko 11 "an egin ziran auteskundeak, eta Sabino autarki askorekin aukeratua izan zan.

Aldundiko jaurkintza 1898"an Azillá ko 31an osotu zan.

Espainaren aldekoak, begi-bistan beintzat liberalak ziran, eta aurkakoak karlistak izan bear ziran, baiña gero ikusiko dogun lez, ez zan izan olan, danak batera Sabino"ren aurka jokatu ebelako. Danak Espaiñolak zirelako. Konturatu gaitetzan ba, nolako giro edo egoera zitala Sabino'rentzat eta nolako gizentasuna euki bear eban danon aurka egiteko eta ainbesteko urduritasuna euren artean sartzeko. (Gizona eta Beren Bidea 71 orrialdean).

Sabino"k, leenengo egunetik argi itzi gura-eban, Aldundi-ura, ez zala antzinako Foru-aldundi lakoa: aren jaurkintza Bizkaikoa eta Bizkaitarrentzat izan zalako, eta Madrillekin, ez ebalako zer ikusirik; eta orregaitik Aldundi-ori ez zala izan antzinako Bizkaitarren batzar-orokorretako oiñordezkoa (heredero).

Egoera larri-ori ikusita, begitu edo jakin bear doguna da: zeintzuk ziran Sabino'ren buruko minak.

a) Ego-Euskalerrriaren lau Foru-Aldundiak, ararte, bakotzak Madrillekin euki eben artu-emon bakarra, aurrerantzean lau-lurraldeen artean artu-emon estuagoak sortuz, Euskalerrriko onura (interes) zendotu daiten.

Orretarako leenengo batzarra 1898"an Azillá ko 24"an egin zanean, Sabino'k lau lurraldeetako aolku-batzar bat adierazi eban, lau lurralde bakotxatik ordezkari-bat izendatuaz, itaun-batzarre (junta consultiva) lez lan egin dagian, Madrillekin, nolako arremanak euki bear diren, euskal-zaletasuna indartzeko. Adierazpen ori ez zan autatu, aztertzeke itzi zalako; eta urte-bat ta erdi geroago, 1900 en Udarbarrian ain zuzen, ez zan onartua izan. (Gizona eta Beren Bidea 72-73 orrialdean).

Sabino"k, orren anaitasun lanarekin, argi dago Euskal Aberriaren itxura artu dagian Euskalerrria gura ebala. Eta eurak konturatu zirala be-bai, noski!

b) Lan-bidetik: Aldundiak atara egite-eban lana norgeiagora, ordain bardinean, Bizkaian jaiotako gurasoen erriko seme diranentzat gura eban izan daitela lan guztiori.

Zaintza bidetik: Miñoiak, 1839-ko urtea baiña ariñago Foru-zain ziranak-be gudaloztearen aginpetik askatuta gura ebazan; aldebatetik, Miñoi"en agintariak Espainako agintariak zirelako; eta bestetik, Euskalerrri"ko lurraldeak ordainduta egon ba-ziran be, Madrilgo gobernuaren, bai erki-jaurleri eta guda-jaurliaren agin-duak bakarrik betetan zituelako.

Sabino"k, Espainaren agindupetik kendu gura ebazan Miñoiak eta Aldundiko agindu-pean ipiñiaz, baiña ez eben ontzat artu. Iru urte geroago, Aldundiko lendakariak adierazpen bera egin eban eta on-artua izan zan, nai-ta denbora gutxi-rako izan, ostera be Espainiako gudalozte-pean ipiñi ebelako.

Sabino"k, Espainako gudaloztearen menpetik askatu gura eban Euskalerrria. Baiña laster ipinten eben osterabe espatea Euskalerrriaren buru gaiñean.

c) Omenaldi aldetik. Sabinok, erizpen (críticas) gogorrek egiten ebazan Bizkai-ko Aldundian, diru asko ordaintzen zalako omenaldietan, Espainatik etorten ziran agintariak, errege-alabak, Emilio Castela en omenaldirako, eta abar. Diru larregi bialtzen ebalako Bizkaiko Aldundiak Madrillera, Laterriaren ogi-pekoak zirenai emen eta an, ainbeste diru ordainduaz gure menperatzaillaren aintzarako. Bate-ra, ardura larregi geratzen zalako laguntzarik-gabe Bizkaiko nekazaritzan, arran-tzaleak, Baseleizatan eta abar; bear-bearrezkoak zirenak, Bizkaian erritarren artean buruzpiderako (economía).

Sabino"k, erizpen gogorra egite eban, ez goian esan dogunagaitik bakarrik, bai garrantziko arduraren aurka egiten zanagaitik, beste ardurabako edo berak deitzen ebanari: "gaiztotzaileko akasdun apainkerietan ordaintzen zanari". Antzerki, zezen tokiak eta abar. (Gizona eta Beren Bidea 75-91).

Danak arritu egiten ziran, Sabino berbetan asten zanean: iñork ezin eutsolako beren lojikazko arrazoiari geiago egin, benetako egi-zale izan zalako eta oso jakintsua.

Sabino, Aldundiko lanetan ordezkari-lez, esan leike unetxo baten, beren ozkarbitasuna galduko ebalak, egite eban lana sakona eta eten-bako aundia izan zalako, bakarrik danon aurka; eta orretarako aita Maurok daukaz batuta (Gizona eta Beren Bidea 90-91) "El Correo Vasko" aldizkaritik, kazetariak esandakoak, Sabino'ren ekintza gogorretan:

"Arana jaunak, lendakaritza"ri berbea eskatzen dautso "MINDU EZINAZ".

"Arana jaunak, LASAITASUN GUZTIAZ ESATEN DAU..."

"Arana jaunak, BETIKO BARETASUNAZ..."

"Arana jaunak, BARETASUN GUZTIAZ..."

Eta Sabino'ren erizpen gogorrenetako baten, Emilio Castelar, Bizkaiko lurraldearen AITA izendatu gure ebenean Bizkaiko Aldundi aldetik. "El Correo Vasko"k" esaten ebalak:

"BERE BERBA EGITEA, GOZOA IZAN ZALA".

Orregaitik, len errikoen ikus-entzun lekua utsirik egoten bazan, Sabino"gaz gero eta beteago agertzen zan; eta nolako sendimenarekin entzuten eban erriko ikus-entzuleak jakiteko, badago bai erakuskin bat: Eulalia errege-alabak Euskalerritik egin eban jostaketako-ibilbidea 1899"an Uztaillá ko 2"an asita, eta Bizkaiko Aldundiak egin eutson koipetsu-adiguriagaitik.

1 899"an Uztailla"ko 12"an, eskutiz bat idatzi eutson Sabino"k Aldundiko Lendakariá ri. Eskutitz-au aldizkarietan agertu zan, eta orregaitik Aldundiko Lendakariak, neurriz-gaineko batzar-bat agindu eban.



Sabino'k, beren txanda amaitu ebanean Cruceño jaunaren esanak bere lekuan itxita (Gizona eta Beren Bidea 84 orrialdean), entzuten ziran ikusleak bate-ra esan eben "Oso Ondo!" ("MUY BIEN!"), eta Aldundiko Lendakariak "ikus-entzuleak, danok kanpora!!", ("desalojen el salón de público!!").

d) Zergaitik gura eban Eusko Alderdi Jeltzalea askatasun-osokoa elburu-lez izanda, Espainol menpeko biurtzea?

Sabino'rentzat mirari aundia zan, gure erria nola eldu dan gaur-arte bizirik.

Euskalerrriaren il-zoriko larritasunak alegintzen dautso Sabino'ri, bizitzaren joko onetan, ikaragarritzko mailla politikako arloan erakutsita, esku izanda enbido aundi-ori joteko. Eusko Alderdi Jeltzalea, Espainol jokuan sartuta biurtzeko. Nik uste-dot emen asten dala gogoeta ori, ez dalako egun bateko fruitua, ondo auz-nartutako gogapena baiño.

Eta ori ikusteko artu daigun aita Mauro'ren Erritargo'en AITA, bigarren liburuan eta 378 orrialdetik, Arantzadi'tar igartzi'ri 1901'an Urtarrillá ko 5'an idazten dautson eskutizetik, garrantzi aundienetako lerroak, ausnartze zakon-au azaltzeko. Sabino'k ikusten dauelako emen, aberkideen itxitasunaren alako bat, edo aber-tzaleen artean biotz-galdu edo kikiltasun antzeko bat: "Gogoratzen azten naze-nean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi-au amaitu orduko".

"Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da!". (Espainolak ikusten dabelako euren aberriaren osotasuna arriskuan dagoala, espataren arrazoa ezartzeko).

"Aukera bakarra diruan dago, eta au, ez da aurkitzen". Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari.

Zuzenbide bakarra ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz... bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako bailo dagian, nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKOA Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena! Bearrezkoa da, Euskera naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño.

Bizkaian, bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko-oituraren azibidea, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be. Ai, nere laguna! Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza-bat bakarrik oartzen dau (experimentar): "biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbiderik aurkitu barik".

Gure aurrekoak zer egin dabe? Zer egin dau Eleizak?, elizkideen amak? Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euzkera berberan dago orren ezaugarria.

Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako biderik eta apai-zak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa.

Gaur-arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira.

Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baina JAINKOA'ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nor-berak itauna egiten dau: "izango da JAINKOA'k gura ez dauana au desagertzea? Emen garbi ikusten dana da: "ez dala amezlari bat. Ankak ondo ezarrira euki ebazala lur-gainean. Eta gutxiago zoratuta.

Sabino'k, ondo ikusi eta ikasi ebana zan, Espainolak euki eben espatearen indarraren aurka joatea zala, orma aundi baten aurka buruaz jotea bezela, eta orregaitik asmatzen dau 1901-ko urte barruan, Arriandiagak zeatzen dauan lez, (Gizona eta Beren Bidea 99-100 orrialdian) berari esan eutsola, espetxean lau illabete sartu orduko (1902 an Orrilla'ko 30'an sortu zana), Sabino'k, biribilduta euki ebala Espainol aldaketa ori, gero arantzadik ziurtu ebana, berari Sabino'k idatzi eutson eskutizetik. JAINKOAK laguntzen badausku, gizaldi onen asieran ikusiko doguzan barritasunak aundiak izango dira Aberriarentzat: Alderdiaren zabalkuntza; Bizkaian, bere antolamendua; Gipuzkoan eta Nafarroan be, euren antolamendua; erri nagusiari mezua emon; Katalana'kin, artu-emonak sakondu bion elburuari buruz; Galizia'n, Aragoian, Balentzia'n eta abar lurraldeen zaletasuna bizkortu, Espaini guztian, elkar-zaletasun (federal) aundi bat sortuaz, bide orretatik edo askatasun bidetik, dana-gaitik on-artua izango dana, Euskalerrriaren giza-barrena osatu daiten.

1902'an Bagilla"ko 22"an, "La Patria" aldizkari abertzalean, "Guztizko eta Garrantzidun" idatz lana argitaratzen dau.

Baiña illabete ariñago, bere abertzaletasuna erakusten dau, 1902'an Orrilla'ko 25'an Roosevelt"eri bialtzen dautson urrutiko idazkitik mezua, zorionak emoten Kuba'ri askatasuna emoteagaitik.

Orregaitik espetxeratu izan zan 1902"an Orrilla"ko 30'an; eta bertatik Ingelesen, Salisburi leenengo ministruari, zorionak emoten, Boers-en aurka gerta amaitzeagaitik.

Bai, argi itzi-be, bera Espainola ez dala, sagar-bat, oliarana ez dan antzera.

Sabino'k, Euskalerrriaren bizitasunean, giza-barrena osatuaz, Euskal Nortasuna irabazi gura eban; eta orregaitik, Euskalerrria il-zoriko larritasun aundi baten egonda, berarentzat ez dauka ardura aundirik, zein era izan bear zan, bere erriak jokatu bear ebena.

Berarentzat, estrategia utsa edo giza-trebetasun orokorrekin jokatu bear zala, bazekialako egitazko borrokaren bidez, ezinezkoa zala: "Bakarrik eskatzen dautsuet, neugaz itxaropena euki daizuela" eta "Aberriak buru-ukatzte ori eskatzen dausku", eskatuten eban, Euskalerrriak alako egoeratik urten dagian, Alderdi guztiak ondo eta benetan jokatu ez-gero, orretarako argitzen diran arauakaz.

Or daga, zergaitik gure dauan espainolaren jokoan sartu, Euskalerrriaren arnasa, biotzeko taupadak eta bizitasuna osatu-arte. Ze..., beragandik aldendu bagin, orren izateagaitik, zer egingo gendun gaur?

Egoera bardiñak dira, baina len bera bakarrik izan-da, erri guztia eraikitzen ipiñi ebana eta bide onean osasanaren billa iraun dagian; guk alper-zamarrak ez doguna egiten ainbeste izanda.

Osatu barik daukagu erria, zati aundi baten beintzat, eta orrek bakarrik urduritasun apur-bat sartu bear euskun gure giza-barrenean. Eta oil, berak asmatu ebazan bide barrien jokoan sartuta gagoz gura nai-ez.

Orrek bakarrik esan gura dau: SABINO, EUSKALERRIAREN AITA DALA; eta berezko errien arazo bardiñak diran lez, aita Mauro"ri txizt egiten dautson esanak "ERRITARGO'en AITA" dala dudarik gabe.

"SABINO, GIZON AUNDIA eta PARE-GABEKOA izan zan".

\* Laugarren atalean, laburpen baten bidez, erri gizon lez agertzen jakuzan alderdi argitsuak izar dirdiratsu-lez, oneik dira:

- "Sabino'k, lau lurraldeko Aldundi artean, arremanak estuak gura eban ezarri, Euskalerrriak erri baten itxura artu dagian".
- "Nolakako indarraz errotu jakon Abertzaletasuna, Euskalerrriari bizitza eta ondasunak ezkeini eta oso-osoa emoteko".

- "Bizkaiko Aldundian, Sabinok egin eban ulermen aundiko erizpidea: Bizkaia ri eta Bizkaitarrentzat onena gura ebalako, apurka apurka Euskaldunen giza-barrena irabaziaz".
- "Zergaitik gura eban espainolaren politikako jokoan Alderdia sartu".

\* "Bera da lendabizi, Euskaldun bakoitzari esaten dautsona: "EUSKALERRIA ZURE ABERRIA DA!!".

### "EUSKALERRIAREN AITA!! ZALANTZARIK GABE"

\* "Ikusi dogun-au guztiagaitik, esan dezaukegu Sabino dala, eta neurri bardi-nean, enda txiki guztientzat, beren mezuagaitik eta eraigilari izateagaitik:

#### "ERRITARGO"en AITA"

ATUTXA'tar PAUL

ZORNOTZAN 1999'an URRILLA'KO 14'an

### SABINO"ren LANA-k:

- l 888'an Euskal-zaleen orriak (pliegos Euskerafilos).
- l 888'an Bizkaiko Euskerá ren Gramatika.
- l 892'an Bizkaiko Askatasunagaitik liburua, argitaratzen dau.
- 1895'an Euskal-Abizeneko Itz-etorkien liburua.
- 1896'an Bizkaiko Euskera'ren Idazkera aldetik, Irakas-Aldiak.

### EUSKERAZ IDATZI EBANA:

Egutegi Bizkaitarra. Umiaren leenengo aizkidea. Leenengo egutegi Bizkaitarra. Euskaldunen edestia eta izkuntzá ren orriak. Euskerá ren Itz-Sustraiak. Aberria'ren babesean be nabarmendu zan, bere eten-bako olerti ekintzagaz.

1893'an Garagarrillá ren 3'an Larrazabaleko itzaldia emon eban.

1893'an Garagarrilla ren 6'an BIZKAITARRA aldizkaria'ren 19 zenbakia argitaratzen dau; 1895'eko Azillean gobernuko agintariak ezeztatu egin ebena. Sabinok BIZKAITARRA'rekin irabazi eban EZILKORTASUNA; aldizkaria onekin geiago izan zalako Espainako-latterria (estado) eta Canovas del Castillo baiño; eurak eta euren buruak garaitu-ezinekoak zirelako euren ustez. Eta Eusko Alderdi Jeltzalea andik aurrera, orren ekintzagaitik BIZKAITARRA deitu zan.

1893'an Uztailá ren 31'n, abertzaleen bizitasuna, politiko biurtu zan, Bizkaian jaio-ta.

l 894'an Uztaila'ko 15'an Euskaldun Batzokija sortu eban. 1895'an Iraila'ren 12'an sarratu zana, Madrileko gobernuaren aginduz.

1895'an Iraila'ren 12'an Euskaldun Batzokija sarratu zanean, 1895'an Iraila'ren 13'an, batzorde osoa epetxeratu eben Espainiako agintariak, Sabino aurrean dala. Danak bakartuaz eta Sabino, Baso-Jaun'en gezur-izena ez esatearren, 1896'en Urtarrillá ren erdi-ingururarte Espetxean euki eben.

l 897'an leenengo denboratan "Karlisten alderdia eta Euskal-Napartarran lege-zaar edo Foruak" argitu ebazan, karlisten alderdiari ikaragarritzko zartada emonaz; Bizkaian 10.000 eta Gipuzkoan 5.000 ale eginda, Euskadik ego-aldean daukazan lau lurraldetan bananduaz.

1897'an Maiatzá ren 2'an argitaratzen dau: "BASERRITARRA" asteroko aldizkariaren leenengo zenbakia. 18'n zenbakirarte iraun ebena, eta ortik aurrera Espainolen gobernuko agintariak debekatu ebena. Arantzadik diño: 1897'an Uztaila'ren 11'n eta 11'garren zenbakian, iru orri alde-

ko idatz-lan argitaratu ebana "ERASO-ALDIAREN-ONDORIOAK" (efectos de la invasión), naikoa zala BASERRITARRA betikoratzeko (inmortalizar); arada argitaratu ziran idatz-lan guztiak politikaren-esae-rako arloa baiño, askoz geiago zalako.

Eta emen, Koldobikak, Aratzadi"tar Ingartziri idatzi eutson eskutitza, esaten ebana: "Aberri au, atzerritarrak zapalduta dagoana". "Aberri au, gaur egun ibili bear dan lez zartada garbian izartu daiten". "Bere lo-aldi abere-antzekoa (brutal) ainbestekoa dalako, berezkoa dala ezin esan leike, gaisoa baiño".

Pizkunde egunean, "FUERISTA EGUNKARIA" espainolen tradiziozale Euskalerrian izan zanari, izena aldatzea lortu eben eta "JAINKOA ta LEGE ZARRAK" ipini eutson nabarmenduko irarkiakaz (destacados caracteres). Egunkari barri-orrek, eriotza bear zituena, espainolen gogoak jazar-arazi (soliviantar) ebelako, Kuba'ko gerla dala-ta. Ogei egun bakarrik iraun eben, bere bide barrian asi zanetik aurrera.

1898"an Iraila'ren auteskundeetan, Sabino, Bizkaitik Aldungo ordezkari auke-ratua izan zan.

1899"an Bagila'ren 4'an, beste aldizkari barri bat sortzen dabe, leenengo "PAIS VASCO" esan jakona, eta gero "EL CORREO VASCO" esan jakona. Sabinok, aldizkari orreri buruz esaten eban: "Abertzalea izango zala, baiña belarria erakutsi barik". Ez eban ezertxo be balio beragaz ipiñi-tako ardura guztiak, espainolen gobernuak, orko urtean, 'rallan ain zuzen, sarratu egiten daualako. Bere-ala, eta 1901 "ean beste aldizka-ri bat argitaratu eban EUZKADI izena euki ebana.

1900"an Otsaila'ren 2'an, ezkondu zan Atxikallende"tar Nikolasa'rekin, 25 urte-koa. Eta Lourdes'erako eztaibidaldian (viaje nupcial), gaizki gaisotu zan. Sabinok emen 35 urte eukazan. Adi-erazi merezitakoa da emen, berari egin eutsezan gaitz-etsiak (críticas), eta berak egin eban Biz-kaitarraren seme-xeegaitik (pueblo llano) babesa.

1901 "eko Epaillean, "EUZKADI" aldizkaria argitaratzen dau.

Irakas-bide bat asmatu, eta "BIZKAITARRA ren idatz-lan oberenak soda baten batu eta argitaratu ebazan.

Urrian, "LA PATRIA" agertzen da; bere laguntzaile izango da Sabino, gaisoak itziten dautson denborarte: Bertatik emango dautsez bere azkeneko mezuak abertzaleei, eta bertatik be agurtuko dauz.

Nai, beren neka-ezin egimenaz, Euskara desagertu ditekenezaren estu-tasuna sartzen jako; eta izkuntzagaz batera, enda-lez, erri-lez. Larri-tasun au agertzen da, 1901 "an, Arantzadi tar Ingartzi"ri idazten dau-tson eskutitzean: "Olan asten naizenean burua erabiltzen, Euskaran, nai endaren arloan, argi ikusten dot gurea ba-joakula; eta ba-joaku, asi dan gizaldia amaitu orduko. Aukera bakarra diruan dago, eta au, ez da aurkitzen.

Eskutitz onetan ikusten dogu, Sabino ez zala ameslari bat, ondo baiño obeto gogoratzen dauzalako, erriak euki ebazan il-biziko arazo larriak, bere izkuntzaren etorkizunerako, bai erria'ren bizitzarako.

Orregaitik Sabino, Euskerá ren idazkeragaitik arduratzen da, ego aldeko lau lurraldeen idazkera.bateratuaz.

1902'an Maiatzá ren 25'ean, Estatu Batuetako lendakariari bigaltzen dautso eskutitz bat, Kubá ko ugarte"ri askatasuna emoteagaitik. Urrutidaz-lariak ez eban eskutitz-ori bigaldu, eta gaiñera salatu egin eban Espaniako gobernariaren aurrean. Orregaitik, espetxean sartu eben Malatzáren 30'ean, eta askatu Azaro ren 8'an.

1902'an Azaro"ren 21 "ean, atxilotzeko arriskuan egon zalako, Balkaroz edo Orreagátik muga aldatzen dau Iparraldeko Euskalerrira, bere lagun mina zan Oiartzun'tar Prantzisko"rekin.

Erria desagertzeko arriskuan egon zalako, gogoetari agertzen da, eta espainolatu asmatzen dau alderdia, ia orko bidetik aal izaten dan Euskara eta erriaren indarra sendotzea. Asmo orren gogapena izkutuan eukinaz, berari alderdikideak uste osoa emon-arte, eta ainbeste bider eskatu eutsoena. Zori-txarrez, oso gutxik baiño ez eutsoen ulertzen. Eta ez eban eskatzen besterik gaur garana baiño; Kostituzioa ontzat artu ez arren.

Canovas'ek, arrazoia euki eban, Sabinok urrin ikusten ebala ezanaz. Orduko denboretan, Sabinok ikusten eban nire ustez, espataren arrazoia amaitu egin bear zala noz edo noz. Begitu or bestela, indarraren askeneko aleginak egin eta gero, gaur argi geratu da, egiaren arrazoiari bitartez izan bear dirala arrazoiari bideratzeak.

Nik uste dot, Bera pozez beterik egongo-dala, anai-arteko alkartasuna lortzen asi garalako!!.

Ikusten dogun lez, SABINO pare-gabekoa izan zan, eta noski, gure indar-barriztuaren AITA!!!

ATUTXA"tar PAUL  
ZORNOTZAN 1999'an URTARRILLA'ko 27'an

# EUSKERA DA GURE EDESTIAREN GORDELEKU, (DEBAKO JAKINGARRIAK)

Gaurdaino historia paperetatik ateratzen zan, eta gure Erriari buruzko paperak etsaien eskuetatik irten dute gizaldietan zear, franko eta gotoen garaitik asiez gero.

Orduko kronika zaarrak monjeen geletan sortzen ziran eta Campion gure euskaldun idazleak zionez "El odio de los campamentos había subido a la celda de los monjes".

Praille aiek izan ziran kronika idazleak eta aien lanetik ateratzen dana zera da, alegia, euskaldunak beti izan generala terrorista utsak. Eurok geure erriari egindako sarraskiak, berriz, oorez betetako ekintza zoragarrik ziran. Bitartean gu ixilik, ez bait genduan idazle kronika zalerik: "cortos en contallas y largos en facellas".

Gaurko egunez, ordea, ba dira beste bide batzuek edestia egiteko, paperak ez direnak: arkeologia bezela etnografia eta beste bidé geiago ere bai. Guk bade-gu, zorionez, beste bide eder-eder bat: EUSKERA.

Euskereak badu bere barnean, geure edestia argitzeko aalmena, baldin beure esan-naiak ikusteko argirik ba'degu. Deba'ko erria artuko det azter-gai ikusi dezagun, nola paperik gabe ere, erriaren aurreko bizia ikasi diteken.

## LABATAI

Bada Deba'ko errian kale-irteera bat LABATAI izenarekin. Egun batez Itziar'tik etorritako Olabetarrek taberna bateri ipiñi zioten izen ori. Eta or dago izena burni-bidearen geltoki aurreko enparantzan.

Don Manuel Lekuona'ren aotik daukat ikasita, euskaldunok oitura zaarra degula itz luzeak murriztekoa, iru silabetara menderatzen. Esate baterako or daukagu bere lagun D. Jose Migel Barandiaran'goa eta berak bere buruari Joxemiel esaten zion. Izketa zaarrak dira tolare torcularen orde, algara algazararen orde, beste izkeretatik artutako itzak aitatze...

Era orretakoa da LABATAI ere: LABE-ATARItik sortutako berba. Ataria edo Atea: Labe baterako erriko irteera. Deba bale-arrantzan egiñiko erria da eta Foruak agintzen zuen bale-urdaiak urtutze labeak erriatik at egon bear zutela. Erri-esitik irtetzeko atea zan Labatai: labera irtetzeko ataria. Zergaitik egon bear zuten labeak erriatik kanpora? Urtutze orretan sortzen zan atsagaitik, usai txarragaitik.

Beraz, Labatai izenetik ateratzen degu labe oiek nun egon zitekeen. Labe oiek ez dute beste arrastorik Deba'n utzi; Canada eta Terranova ingumarietan bai, an utzi dituzte aztarnak eta aurkitu ere airkitu dituzte zenbait euskaldunek paraje aietan jasotako labeak; baña, ez Deba'n eta ez Euskalerriko baztarretan ez dute bat bera ere aurkitu. Euskerak, ordea, berak gorde digu bere baitan, euskal labe baten (besterik ote da?) ingurua.

Deba'ko erria sortu zutenean, 1343'an, orduko erri-txikien erara, eraiki zuten: eliza bat, bere enparantzarekin mutur batean, eta kale sail bat, erri-esiaren barruan. Badegu era orretako marrazki bat eta marrazki orretan iru irteera ikusten dira: bat Labataikoa, beste bat Porturakoa eta irugarrena mendira, Itziar-aldera dijoana.

Labataiko irteerak Astillero kalea du berreun metrora aurrez-aurre eta gune aretan egongo ziran Jabeak, gaurko egunez etxeak tartean baldin ba-daude ere, are gañean jasoak. Balea urtutzeko, ordea, uretatik legorrera jaso bear zan. Orretarako bear ziran tramankuluak, labe-inguruan egongo ziran.

Gai oneri buruz badaude paperetan Lekeitio"ko berriak eta paperek esaten digutenez, elizak balearen mingañetik iru zatietatik bat eramaten zuen, baña, orren ordañez "manobrero" bat eduki bear zuen zutabe, polea eta bear ziran soke guztiekin baleak eta txalopak ondarrera ateratzeko. Deba'n ere beste orrenbeste gertatuko zan Labataitik labetarako bitarte orretan.

Labeak kana bat gora eta kana t"erdi zabal alde bakoitzeko. Goitik kaldarak sartzeko zuloa zuten. Eta kaldarak pipa Verdi, pipa bat eta pipa erdikoak ziran. Pipa bakoitzeko 450 kilo. Azpitik, berriz, labeak zulo txikia zeukan errekiñak sartu aal izateko. Suari eusteko labearen txingarrak erabiltzen zituzten.

Balea erre aurretik ordea, zatitu egiten zan tira luzeak atereaz burutik isatzeraiñoakoak. Gerora tira oiek ogei zentimetroko zatietan ebagi. Barruko aragi guztiak ere berdin zatitu koipeak ateratzeko. Lan orretarako aiztoak bear ziran alakoak eta neurri guztietakoak.

Bein koipeak urtutzen ziranean, tina aundi batera atera. Tina au erdirarte urez beteta zegoen eta koipeak uretan igari egiten zuan eta zaborrak ondora joan... Koipea galbai batetik pasa eta barrilletan sartu merkatura botatzeko. Erritik kanporako merkatuak bazuen lonja bat eta an dago oraindik Astillero kalea baño aurrerago, Maxpe kalean: Maxpe deritzan etxea. Ibai-ertzean dago eta badu mollatxo bat ere bere; alboan, itxasontziak inguratu eta bertatik bertara, etxetik barkura, merkagaiak errez asko pasatzeko, barrillak bezela, burniak, meatzak eta abar... Etxe orrek izan duen eginkizunik ez da gaur nabaritzen errian; baña, bertako biztanleak, gaur bertan ere, azpiko solairuari "lonja" deitzen diote, zertarako zan jakin barik.

Salgai zeuden barrikak lonjetan godetzen ziran eta edozein bale-ontziak bear zituzten maillatik gora. Gaur-egun ez dago errian barrillerorik; baña, orain 50 urte neronek ikusi nuen Jose Manuel Irureta, "Sagarmiña", bere etxe-aurrean barrillak egiten. Mutriku"ko Sagarmiña baserritik jeitxi zan Deba'ra ibaiaren ertzera eta, aroztegiak besterik ez zegoen errian, arotz ikasi zuen eta barrillak egiten ere bai. Egia esan, barrillak egitea ez zan etorkizun aundiko ofizioa Jose Manuel Deba'ra eldu zanean; aroztegiak, eurak ere, bata bestearen ondoren, geienak itxi dira. Garai batean bai, "carpinteros de ribera" zeritzenak ba'zuten lanik barkugintzan eta barrillak antolatzen. Jose Manuelek "Sagarmiñak" aurreko Deba argitzen digu bere bizitzarekin barrillak egiten diarduanean:

Gure historian badegu bi itxas-ontzien berri zeatza: bata zan "San Nicolas" 475 toneladako galeoia, Landaberde jaunak Portugaleten egiña. Bera zan armadorea ere eta berberak aukeratu zuen barkuaren kapitan Joan de Espilla debarra. 72 gizon barruan eta aien artean 6 arpoilari eta bost barrillero. 1564"aren udaberrian irten Gataritik eta udazkenean Bilbora biurtu 1.195 koipe-barrika barruen zituztela. Orra zenbat lan barrilleruentzako. Jose Manuel Sagarmiñak ez zuen orrelako egunik; baña ofizioari eutsi zion orain arte. Berarekin il zan Deba ibaiaren azken barrilleroa. Bera izan da denbora aietako lekuko bat, lekuko zanik jakin barik. Baña, orrek agertzen digu joandako historiaren zenbat testiguk dirauten duela oraindik gura artean.

Bigarren bale-ontzi ezaguna, Pasaia"ko "San Joan" ontzia degu, Espilla Canada"tik etorri ondorengo laugarren urtean, Labrador'en ondoratua. Udazkena zan, etxera itzultzeko ordua, eta 1.000 barrika-koipe beteak zituen ordurako barruan... Guztiak galdu: barkua, armamentuak, koipeak, gauza guztiak... Iparaldeko Joanes Etcheverry (1627) jaunak esan zuena:

"Biziaren gaitik / arriskatzen dugu bizia".


Ikusten degu zer lan izaten zuten barrillak egiten eta antolatzen. Batzuek eginda eramaten zituzten; baña, geienak pusketetan, barrika bakoizaren duelak zerbaki batekin banan-banan markatuta, gero an Terranova'n konpontzeko eta barrillak osatzeko. Lotzeko kurpillak ez ziran burnizkoak, urra-adarrez egiñak, baizik. Ala agertu da Labrador'en ondoratutako San Joan ontzian. Oñati'ko artxihoan aurkitu ziran iru dokumentuetatik, atera dute nun egon dan lurperatuta, orain lareun urte ondoratutako barkua. San Nicolas ontziak bost barrillero eraman zituzten lan oieta-rako: bi Baiona koak, biak maixu, bat Getari'koa, lenengo maillako ofiziala eta beste biak ez du nungoak ziran esaten: baña bi auek izan ziran gutxien irabazi zutenak.

Deba "Sagarmia"ko arotzak barrillak egiten zituen; baña, bere ondoren ez du beste batek barrillak egiten ikasi. Eta ortxe amaitu da gizaldietan zear zetorren barril-egite aria...

Orra zenbat gauza gordetzen dituen bere barnean Labatai itzak. Edestirako beste zenbait gauza ere bada Debá ko errian. Bale-gantza urtutzeko labeetatik aurreraxeago, or daukagu aldatpatxo baten asieran Astillero Kalea.

### ASTILLERO KALEA

Barku-gintzan abillak eta trebeak izan dira itxas-ertzeko, arotz euskaldunak: (carpinteros de ribera famatuak). Amabost eta amaseigarren gizaldietan Europa guztitik etorri oi ziran Euskalerrira itxas-ontzi billa... Castro'tik asi eta Baiona arteko itxas eta ibai bazterrak astilleroz beteta zeuden eta zitekeen; mota guztietako ontziak irtetzen zuten euren babesetik.



Deba'n aspaldian ez degu barku-gintzarik ikusi; artarako gizonik ere ez dago gure artean. Baña egun batez izan zirala argi erakusten digu Astillero Kaleak. Toki egokian zegoen: ordartzatik kanpo eta aldatpatxo batean, ontziak uretara botatzeko erreztasunez.

Era guztietako lanak sortzen zitun barku-gintzak: arotz bereziak, barrilleroak, basoak eta basa-gizonak zur egokiak lortzeko, karriotan ibiltzeko Burni-olak sortzen ziran barkugintzaren inguruan, ontziak bear zituzten burnikiak sortzeko. Olak, berriz ere, zura bear zuten egur-ikatza egiteko eta ikazkinak ugari. Oiekin batera mandoak eta gurdiak, mandozaiñak eta itzaiak.

Meatzak eta garraioak... olagizonak zer esanik ez. Meatza Bizkaia'tik ekarri oi zuten, bertan meatz-zulorik ez ba'zan.

Orra zer mundu dagoen Astillero-kalean gorderik. Gaur egun ez dago mundu ori Deba'n; baña, garai batean, bai. Badegu baita ere Errota-zar futbol-zelaia. Gaur egun jolastokia da, orduan berriz, maria-errota, eta aurrerago, burniola. Lastur auzoan daukagu Goiko-ola baserria, aldaparo ta guzti, andik beraxeago bi errota txiki alkarren parean, bata gorago bestea baiño; euren aurrean, ondoratutako Plaza-ola eta Lasturbean Leiza-ola... Zenbat ola mendi-zulo aretan. Ugarte-mendiko urak (Izarraitzeko ipar-malda luzean) Ugarte baserriko- alboan galtzen dira leize batean. Lastur'koak, berriz, Leiza-olako leizean. Ur oiek guztiak Sasiola'n agertzen dira aitz-artetik "Deba" ibaiaren ertzean.

Sasiola aurrean, Astigarribia'ko aldetik, bada baztartxo bat "astillero" izenakin eta astillero orren barkuentzat burni asko bear zan. Orra nundik-nora Lastur basatia burniolaz bete. Deba'rako ere izango ziran burni oiek... Zenbat izen baztarretan gure historia egiteko gai diranak!



## SOKAGIN KALEA (Cordeleria)

Elizako Plaza-Zaarretik portura dijoan kaleak du Sokagin edo Cordeleria kalea izena. Bela-barkuak soka mota asko bear zituen ojal zuriak zuzentzeko eta ontzia lurrera lotzeko. Mariñel baten lana izaten zan sokak lotzen ikastea, korapillo era guztietakoak egitea. Itxas-ertzeko erri guztietan egoten ziran sokagintzak, egon ere badagoz oraindik zenbait portutan. Deba onetan izena besterik ez dago; garai batean bazegoela, ordea, kale izen orrek erakusten digu.




Plaza Zaarretik Sokagin - kalera eskerretik **eta Bastiñora** eskubiko aldetik.

## PORTU-KALEA

Asierako erriaren erdian, geroagoko Plaza-berrian asita, berutz, ortxen dago Portu-kalea beste plaza batera, Donostiatik Bilbo'ra dijoan bide zabalera eta tren-bideraiño. Orain eun urte or zegoen portua, baña, tren-bidea (FEVE) egiteko bete zuten eta gelditu zan Deba porturik gabe. Gaurko Portu-kalea plaza batetik bestera dijoan kalea da. Izenak, ordea, dirau: Portu-kale.

Orduko "Ferrocarriles Vascongados" elkarteak agindu zUen, portua egingo zuela berritik. Ez zuen egin. Joan dan urtean, 1998, asi ziran euskal agintariek podutxo bat sortzen, lengoen inguruan, eta 1999-09 il onetan eman zaio amaiera lanari. Badegu portutxoa, Ez, ordea. Portu-kalean.



Portu kalea: bide zabala eta tren bidea. Plaza bat ere bai.

Debá ko barra ("Itxasoan laño dago/Baiona'ko barraraiño") beti izan da gaiztoa eta jende asko itto da bere olatuetan orain eta lenago. Alaz ere erromatarren garaiko zan "Deva" ibaiko kaia eta bertan zegoen Tritium Tuboricum Melo eta Ptolomeo idazle erromatarrek ziotenez... Itxasertzean beste iru erri aitatzen dituzte Getaria, Donosti-Pasai eta Oyarzun. Oyarzun (Oearso) zillarrezko minak zeudelako; Donosti-Pasai eta Getari dala edo Astigarribia mutrikuarra. An, ordea,

ez dago portu segururik, ez meatzik. Astigarribia aurrean dagoena, ura da ugari.

Erromatarrek egunez bakarrik ibiltzen ziran itxasoan eta gaez kaietara bñldu euren barkuak. Deba ko kaia beti izan da arriskutsua eta segurantzarik gabekoa. Beraz, portutarako ez zuen ainbeste balio; baña erreka beste aldetik eta ez Astigarribiátiak, ura dago, aitzen atzetik errekarra sartzen dana. Eta nai dan beste ur artzeko ez dago ontziarik jetxi bearrik, errekarra ematen bait du jturri ugariak. "Tritium Tuboricum Deva errekek ikutzen du", dio erromatar idazleak eta Deva errekarra dator zuzenean ura ugari. Izarraitz menditik beera Lastu era datozten urak, Lastur'en galtzen dira leizetan barrena eta gero Sasiolá n, Astigarribia aurrean, agertzen dira aitz artetik...

Orra erromatar ontzi eta gudarostearentzat arrazoi berezia: Tritium Tuboricum"go ur ugariak. Euren bideetan urtokia markatzen dituzte arreta bereziaz. Tritium Tuboricum

paperetan ematen digute antxiñako idazleek, zer dan argitu barik; baña inguru oietan daude "astillero" eta "mollatxua" izenak Astigarribia'ko aldean eta Lastui en an daude Goiko-ola, Plaza-ola, Leiza-ola, guztiok alkarrekin. Oiek ez daude: paperetan emanak gauzaetan, baizik, arkeologian baizik... Gure edestia egiten dute paperik gabe.

## ONDARTZA-KALEA

Ondartza kalea da baña ondarra urrutian dago. Kale orretan Donostia'tik Bilbora dijoan bide zabala dago. Aldamenean, berriz, itxasoruntz, Calbeton'en zumardi luze zabala. Itxasorago oraindik, etxe mordoxka bat eta akabera, orra or azkenik Deba ko ondartza. Nun gelditu da Ondartza Kalea? Bertan ondarrik ez dago zoru-azpitik ez ba'da; baña, izenak or gorde dute garai bateko lekuko, nai-zeta ondartzak aspaldian andik aldendu.

## BASTI ÑOIA

Arri-esi bulartsua, kaiaren babesa: "bulebard" ere esan oi diote... Erriko kaleak erritik irtetzean an zegoen bastiñoia. Gaur eguneko Ondartza-kalean... Ez arri-esirik, ez ondartzarik: Calbeton'en Zumardia, baizik. Ortik portura egongo zan bastiñoia. Gaur urrutiko kale bateri ipiñi diote Bastiñuixa-kalea. Izen ori berritan ipiñia da; baña, erriaren aotan ez zan galdu Bastiñoi itza. Euskeraz ari zirala esaten zuten Bastiñoia. Gaur egun ez dago ez bastiñoirik, ez ondarrik Ondartza kalean, ez porturik Portu-kalean... Gure izkera euskaldunak gorde ditu izen guztiak bere sabelean. Zenbaitetan, historia egiteko, ez da paperik bear.

## MAXPE- KALEA

Maxpe-kale Maxpe etxerako bidea da. Ibai-ertzean dago, Astillero-kalea baño ibaiean aurrerago. Uraren gañean ereikita dago eta badu bere mollatxoa ere. Bertako bizilagunek erritik kanpora bizi dira eta, udaran bakarrik, etortzen dira errira. Azpiko solairuari "lonja" izenakin deitzen diote etxe-barruan dabilzenean... Ate aundi bat badu beko solairutik ibaiera, mollatxua tartean dala. Aldi batean ontziak gerturatze-ko zan eta lonjatik ontzi-barrura, ala alderantziz, gauzak batetik bestera pasatzeko zan mollatxua. Deba ko portuan bearrezkoak ziran lonja auek. Bertara ekartzen zituzten Labataiko bale-koipeak, burni-oletako burnizkiak, oletarako meatza eta merkataritzako gai guztiak. Bertan gordetzen ziran saldu arteko guztian. Nagusi bakoitzak bazuen bere gauzen prezioa eta prezio artera makurtu bear zuten erosleak. Debá ko kaian bezela Euskalerrri'ko portu guztietan ikusten ziran Europa osoko merkatarik ontziak erosi eta saltzeko... Gantzak eta burnizkie-



Maxpe etxea, aspaldiko lonja bat. kin batera saltzen ziran Kastilla aldeko artilleak ere. Orretarako berealdiko askatasuna zegoen gure artean. Bada parroikiko artxiboan Londres'en egiñiko erosketa baten bost agiri: Barku bateko kapitanak Londres'en erosi, ordaindu eta elizarako ekarri zuen "piano-forte" bat. Kapitanak eskubide guztiak zeuzkan edonundik edozer ekartzeko.

Maxpe izan zan lonja nagusi bat; baña, ez bakarra. Aurreraxeago bada Loja-berri baserria, gaur lonjarik ez duena; baña, garai batean Lonja Berria izana. Dana dala, or daude izenak errenkadan, gure edestiaen ezaugarri.

ANES ARRINDA

# EUZKERAREN ARERIOAK



Ez dira gutxi, alajaña!, bizi ta edestian barna gure izkuntza onek izan dituen arerioak, beraren aurka, zer zegiten jakin ala jakin gabe, gogoeta isituki ari-izan diranak. Eta arerio guzti oyek zeintzuk izan diran eta beren egikerak nolakoak izan diran eza-gutzea egokia izango zaigulakoan nago, ain zuzen, oyen aurka jokatzeko bideak, bide egokienak, zelangoak izan ditezken begi-ratzeko ta oyetan barna bipilki joateko.

••

## EUSKERAZ EGITEKO LOTSEA

Lenengoa etxean bertan sortua dugu, etxekoa zearo, zoritxa ez; betidanik eta barnetik bere lan zitala burutzen ari-izan dana, ta oindiño ere ( )Pela ja aitzen zai-guna: euzkaldunen artean ain berezia dan zabarkeria du bere izena arerio orek, euzkerari buruz oso nabariturik ain zuzen agertzen dan zabarkeria, benetan guz-tiz ulerkaitza dan jokera deitoraga ia.

Bai, euzkera barnetik maite dugunontzat ule -eziña izan bea euzkerarekiko gure Erran egiazko ajola ez ikustea. Zergatik, baña, ez izan gure e'ritaren artean Erraren bizia dan beren izkuntzari buruz zaletasun geyago? Berez eta ororengan sortu ta bizia bear-izango litzaken maitasun aundi ta bizi-bizia? Ez da eraz, geron ustez, erantzun egokia aurkitzea ta, apika, azpegi batzuetan ikusi bear-izango litzake ori.

••

## KAN POKOA OBEA

Ba-dirudi, gurean, beti, lekorekoa etxekoa baño obetzat artzeko oso emanak izan gerala euzkaldunok, lekorekoa izateagatik bakarrik, eta gaur bertan jokera ori edozertarako zabaldurik ikus diteke.

Ondoriorz etxekoa ezestuta geratu bear, eta o engatik edo euskaldunak sari lotsatuta agertzen dira euskeraz egitean, baita erderaren au ean, etxeko izkuntza uzteko ta bere ordeaz erderaz ari-izateko yoranez beteta azaltzean.

••

## EZ-JAKIÑEN IZKERA

Euzkera ez jakiñen izkeratzat artzeko edo izan da; aitzitik, erdera jakitunen izkuntza bezela, ta nai ez, noski, ez jakina bezela agertzea. Orixe dala-ta, onela adierazi dute beren iritzi oke a, nunbait esaten: "Dakienak daki, eztakiena eztaki, Malko e'ko zaku ak erderaz el daki":

Ora nor izateko izan bear dana, erdalduna, ta euzkalduna basorako bakarrik edo: erdalduna gizonen artean ari-izateko, euzkalduna abereen artean bakarrik, lotsaga ia lez bere burua ikusteko.

Gero ikusiko dugunez, uste ori izateko, lekoretik eldu zaizkio euzkaldunari o'rela oldozteko kari batzuk, izpide aundiak bezela: ta noraño sartu zaigun gure artean iritzi ori!

Alegin aundietan barna agertzen dira guraso euzkaldunak beren semeek erde-raz jakin dezaten eta, guztiz itsuturik, etxean guztiak euzkeraz mintzatua en, beren semeai euzkeraz egiteko debekatu diete, orela beren alde jokutzen zutelakoan. Deitoragaha, egitan, jokera ori!

••

### **EUSKERA BARIK EUSKALERRIA**

Etzuten ikusi gure au ekoek gaur ain garbi azaltzen zaiguna, ta ez jakin ortan aurki diteke, ausaz, beren egite aren azalpenen bat. Ez, etzuten ikusi euzkera euzkal gogoari eutsi al dizayoken bide baka a dala, ta gaur bertan ere amaikatxo ari dira ain argi dagoen ori ikusi barik. Etzuten ikusi euzkera uztean, iltzean, E ia ere.

Eh bezela, iltzen zala, Ludi"aren zear lege oroka a bezela begira ditekenez; (Pela edozein Erran berbera gerta ditekela oartzeko, E i guztietan eta bakoitzean beren izkuntza beren gogoari eutsi dizayokena bide baka a be izanik.

Len ez baña orain bai, orain argi-argi agertzen zaigu jokera ori, ta o engatik ezin uler dezakegu gure artean oren zabarkeri aundia.

Oso beara izango zaigu, beraz, egikera ori gogoratzea ta gogora-eragitea, bertan baitago, argi ta garbi, nolako bidea ja aitua beai dugun. Baña ori ikusi gabe ere naikoa izan bear-izango litzake euzkera euzkaldunen betiko izkuntza dala oartztea, besterik gabe, gure begi-ninia bezela maitatzeko; ta aifñbeste mendeetan barna gurean bizi-izan dala gogoratuz, berez sortu bear ere gure artean ilik ez geratzeko alegiñetan gogor ari-izateko gogoa. Onela, bederen geron etxean bertan sortutako arerio aundia menperatzeko.

••

### **ALBOKO IZKUNTZAK**

Orixe da, alegia, gure euzkeraren etsai aundiena, enurarik gabe. Baña ba-dagoz lekoretik eldu ta eltzen zaizkigun beste arerio batzuk, eta ez gutxi a anopola!

Erdera diran alboko beste izkuntzak ditugu etsai aundienetakoak gure euzkerarentzat; asi lateraz eta onen semeak diran parantzera ta españeraz ja aitzean gure izkuntza zapaltzeko erabiliak izan dira mendeetan barna ta eten gabe.

Alboko late iek gure E ia menperatzen eta euzkaldunak alka en artetik bereiztean, bakoitzak bere aldetik beren izkuntzak inda ez erabiltzeko beartu gaituzte zin-zifnez, xede berezienaz ere.

Ondo ikusi dute au berenganatzeko bide egokiena izkuntza izan dala, ta gogor eta isituki orixe erabili dute buru-bela i.

eee

### **IRAKASKINTZAN**

O"rela inoiz ez dute utzi euzkera ikastoletan erabiltzea, ta erdera jari digute ikasteko guziaren bide bezela, ondo ere baitakite guztia erderaz ikastean erdal-gogoa ere sartzea egokienik lortzen dala.

O"rela jokatzean guztiok erderaz oldoztu dezagula iritxi dute, ta gaur, berez, orixe dagigu danok, erderaz oldoztu euzkeraz egin orde.

Ona emen guztiok ongi ikusi beá r-izango genukena: erderaz oldozteko ain bearturik geron burua ikustea, gure jopu-egokera be oso agirian agertzen dala.

Jopu izateko jayo ote gera euzkaldunok?. Nola ori onartu?; baña nola egokera ortatik gurean alegin aundienak egin gabe geratu?

Jakitun ala jakin gabe izan, lekoreko erdaldun guziek eldu zaizkigu beti irakasle, geuk zer egin bear dugun jakin-erazteko, ta guztiek berdin euzkerarekiko arbuyoz beterik, gure izkuntza utzi bear dugula esaten eta ortarako egin al izan duten guzia betetzen.

Gure biziaren alde jokatzeko beste biderik eztagoela eran digute bein eta beriz, egiazko beren xedea agertu gabe eiki, ots, gure E la menperatzeko bide egokienik izatean, ortarako jokatu dute eten gabe ajola aundienaz.

Eta oso ondo ikusi ta begiratu bear dugu geron aldetik joko ori, guztiz atzipe turik ez geratzeko.

### **LAN-BIDEETAN**

Gaur egun Late i"ak, itzez beñepein, erki araudiak onarturik izan dirala-ta, ba-dirudi euzkera be onarturik dagoela, ozta-ozta ta azalean bakarik bada ere. Itzak baño besterik ez, alegia, gurean irakasle geyenak erdaldun utzak diralako ta batez ere ikastoletan gai guziak erderaz ikasteko bearturik gagozelako.

Era ortaz gure elburuetatik oso u un bizi bear dugu oraindik, gure bizi-bea ak eskatzen dutenez gai guztiak euzkeraz irakasi ta ikastea ezinbestekoa izanik: ora beste arerio aundia nun ikus dezakegun gure aurka jokatzean.

Eta ez ori bakarik; gure udaletako landoletan langi leak artzeko, toki batzuetan baitezpadakoa danez, euzkera jakitea baldintza bezela jari ezker, bereala Late i'aren agintariak oren aurka bipil agertzen dira, euzkera ezta kienak ore la bazterzea dala salatuz.

Berdin esan lezakete beste edozein gayari buruz, o ezaz ezer ezta kitenak ere bazterturik geratzen dirala. Baña ori otu ere ez. euzkerari buruz bakarik ari dira ore la, euzkeraren aurkako beren jokera nabar, erakusten eta bost ajola era ortaz ari diranai euzkera bera ta Euzkale i guzia, egitan, bazterturik geratzen dirala izanik, ta beren etxean bertan gañera.

Ora gure arerioen beste jokera berezia.

### **EUSKERA BATUA**

Eta guzti ori naikoa izango ezpailitzan, ora etxe barnean ere beste arerio bat sortu zaigula "euskara batua" izena daramana.

Jokabide oren esker, egun, amaika erderakada be iak onarturik agertzen dira gurean, onela beste ainbeste euzkal itz jato ak lurperaturik uzteko.

Jakiña, jokera ori ezin esan dezakegu gurean joko oso baria danik, eta zabarkeriaz ala beara zan lana ez egiteko alperkeriaz, len ere erabilia izan da.

Oren aurka euzkaldun argi ta jakitun batzuk azaldu ziran, aipaga iak diran u engo bi iritziak erakusten dutenez. Ona emen zeintzuk diran eta nundik artu ditugun:

...

## **AZKUE TA OLABIDE EREDU**

Azkue'ren iztegia (50'gn. o'r.): "Bestelango berba á rotzak kendu bear dira, dagozanean izen euzkerazko garbi ta nekezarien artean artu ta aotuak" (Mogel, Per. Ab. 196-12).

Ona emen beste bat: "Enparau guziok ark bildutako kopurua geitu bear degu. iñu iak bezela, gure kizkia nork daramayogula, orok beriz erausketan eta idazketan tairik gabe erabiltzeko, erdelkeri guziek e alotuta, autsa aizeak be eyatu dezantzat", OLABIDE. "Giza-soña". Itzau ea. (E'retana iztegitik artuta, 1.476"gn. o ialdean. ERRALOTU itza).

O a oi- ospe aundiko bi euzkaldun jakitunen iritziak, ja aitzeko ezin obeak bezela agertzen zaizkigunak.

Nola, baña, izan diteke bere burua euzkaltzale bezela eukitean eta erderarako oren jokera oke ean ari-izatea?

Ben-benetan ulerkaitza guretzat. Ba-dakigu "euskara batua" oren eroan Arana Goiri"ren aurkako gorótoa dala, "batua" o én alde ari dan batek esanda. (Ikus: "Euskara batua zertan den", 77'gn. o ialdean. Larresoro'k idatzita); eta ortxe ikus-teko jokera ortan dagoen zio berezienetakoa .

Gure artean ari diran beste arerio batzuk aipa ta salatu genitzake. baña esandakoak naikotzat a ditzakegu geron aldetik nola jokatu bear dugun jakiteko. Ta barne-barnetik, emen edo an, gaur euzkerari buruz diarduten guziaz, be iro be, eskatu nai diegu euzkera gero ta geyago ikasteko, bere egitura sakon ezagutze-ko ta ondorioaz euzkera bera dan kezala erabiltzeko.

Urrestarazu"tar Andoni  
(Umandi)

# NERE BIZITZA

## JAIOTZA

ARAYA'n 1902'gn. urtean jayo nintzan, eta amar urte bete nituenean A ASATE"ra eraman ninduten, bertako BITERI ikastolan lenengo irakaskintza egiteko. Gero GASTEIZ'era etori nintzan biga ena bete arte.

...

## EUSKERA IKASTEN

1922"gn. urtean asi nintzan euskera ikasten "Euzkaltzale-Bazkun"aren eliztiz Gasteiz'en bertan bizi nintzalarik.

1925"ga enean Madrid'era joan nintzan ango landola batean lan egiteko; eta ango Ateneo'an "Eusko-Ikaskuntza-k eratuta zeuzkan euzkal-ikastaldietara joaten nintzan euskera ikasten ja aitzeko, orela 1935"gn. urterarte. Ikastaldi ayetan Tauer jaun txekoslobakiata a ezagutu nuen.

...

## DONOSTI" RA

DONOSTI"ra gero. An Udal"aren Oguzi-ikastolan ja ita zegozen ikastaldietara ere joaten nintzan, Alzagáta Toribio jauna ta Agi e'ta Miren Nekane anderea irakasleak izan nituelarik, 1936"gn. urterarte.

...

## GUDAN ETA ESPETXEAN

Orduan sortu zan gudan ibili bear-izan nuen, gero iru urte espetxean igarotzeko. Ta andik atera nintzanean GASTEIZ"ERA be iro, bereala euzkeraz irakasten asteko, nire etxean eta zortzi-amar bat ikasleekin.

...

## IRAKASTEN

Aldi artan eliztirik ez zegoelako, Azkue'ren "Morfologia"tik atera nituen nire ikastaldiak emateko gayak, bea ezkoak izan zitzaizkidan idazkiñoak egiten.

Asko egin nituen onelakoak, eta bein nire adiskide ona zan Etxaide"tar Jon jaunari batzuk bialdu nizkion berai buruz bere iritzia eskatzen; eta bereala erantzun zidan al-izan ezkeru guzia argitara nezala esondatzen.

...

## ERBESTEAN ADIZKARIAK

1953"gn. urtean, orduko ertzañaren jazarpenagatik, erbestera joan bear-izan nuen; PARIS'en amar urtetan bizi-izateko ta gero beste amasei BAYONA'n. Paris'en Euzko-Jaurilaritzá ren "Euzko Deya" aldizkariaren euzkal-atala bete izan nuen ilero, ta lan ortan ja aitu nuen oren argitaratzea amaitu arte, 1979"ga enean. EAJ'ren "Alderdi" aldizkarian ere nire euzkal-lantxoak atera ziran.

PARIS'en euzkal-ikastaldi batzuk eman nituen, bai ta idazkien bidez ere, Amerika'n ikasle batzuk izan nituela. BAYONA'n lan bi oyek egiten ja aitu nuen; eta "Euzko-Irazkintza" izenez irazkintzari buruzko aldizkari txiki bat atera nuen, urtebeteko bizi labu a zuelarik.

•..

### **GAZTEIZ" ERA**

1979"gn. urtean be iro GASTEIZ"era eto i nintzan. Bereala "Udabe ia" deitzen dan bazkunean sartu nintzan eta onek eraturako euzkal-ikastaldietan irakasle bezela asi nintzan, lan ortan azken ikastaroa amaitu arte ja aitzean.

Azken urte auetan GASTEIZ'en euzkerari buruzko zaletasun aundiagoa aurkitu dut, baña zoritxa ez, ene aburuz, "euskara batua" erabiltzen da toki geyenetan, noski "Euzko-Jaurlaritzak emandako norabidean barna, batez ere, joateagatik. Zoritxa ez diñot, ene ustez "euskara batua" deitzen dan jokera ori, euzkera il dedin bide egokiena dalako. Eztu ezer batutzen, beraz o i buruz bere izena gezu a da, ta aitzitik euzkal-kiak dira baztertzen dituen. Ona emen nire uste ori izateko ditudan izpideak.

..•

### **BATUA KALTEGARRI**

Guztiok ongi dakigunez, naiz Frantzia naiz España aspalditik alegin aundienak egiten ari dira, gu euzkaldunok beranganatzeko, ots, beren izaerazkoak izan gaitzen, euzkaldunena suntzitzean; ortarako al-izan dituzten bide guziak erabili dituzte gogo aundienaz, eta bide guztien artean beren xedeetarako egokiena bezela beren izkuntzak a'rerazi dizkigute.

Ondorioaz euzkerari ez diote utzi ikastoletan sartzea, bertatik eta toki guztietatik euzkera baztertu eta onen ordeaz beren izkuntzak inda ez sartu dizkigutela; itz batean euzkeraren tokian erdera ipintzeko.

Eta orixe bera da "euskara batua-k egiten duena, erderakadak eunka ta eunka sartzan, oí-ela euzkal-itx jato ak baztertzean.

O a o oke aundia, o a zergatik ezin ona dezakegun guk jokera ori, euzkeraren aurka ta erderaren alde bakai-ik dalako. Nola onartu diteke o elakorik? euzkeraren eta euzkal-biziaren aurka ta o en kaltega ia izanik?

### **IDAZ-LANAK**

Ona emen orain nire lanak zeintzuk diran:

GRAMATICA VASCA, iru aldiz argitaratua.

FORMAS VERBALES VIZCAINAS.

EUZKAL-BETEKIZUNAK

14 GALARTZU EDO KASETA. Galartzu auen norabidea bezela:

EUZKAL-ELIZTIAREN BETEBIDEA (bi idaztitan).

EUZKO-IRAZKINTZA

GENTZA-BEA EAN



Oyek idaztiak, eta gañera idaztiño auek:  
AU ERUNTZ  
LOS FUEROS  
EUZKERA  
A LOS HOMBRES Y MUJERES JOVENES DE MIS VIEJOS DIAS.  
EN EL DEVENIR DE LA HISTORIA DE EUZKADI.  
EUZKADI'REN EBAZKIZUNA.  
POR Y PARA LA UNIDAD DE TODOS LOS VASCOS.

Orain beste idazti au egiten ari naiz:  
ASMO-IZTEGIA.

### **EUSKALTZAINDIA - EUSKERAZAINTZA**

EUSKALTZAINDI'ari buruz nire iritzia eskatzen didazute.

Ona emen: 1918"ga enean jayo zanetik 1936"ga enerarte oso lan egoki ta ede a bete al-izan zuen "EUSKERA" bere aldizkarian ongi agertzen dana. Guda-gatik bere lana utzi bear-izan zuen, eta gero beriz zerbait egiteko garaya eldu zanean, 1968"ga enetik batez ere, bere jokera zearo aldatu zuen, "euskara batua" onartzean eta euzkaltzaleen batasuna guztiz po okatzean, ene iritiz euzkeraren-tzat oso norabide txa a onarturik. Eta bide ori ain gogor eta setati artu duten ez-kero, beste guzia bazterten dute itsutasun aundienean. Eta jokera ortan ain mukerkeri aundiaz ja aitzen dutelako, ori onartzen ez dutenak beste bazkun bat irasi dute EUSKERAZAINTZA izenaz euzkeraren alde lan egokiago betetzeko asmoz. Bertan sartuta nago ni ere.

..•

### **URTENBIDEA**

Orela kinka oso txa ean bizi gera guztiok, eta bertatik ateratzea oso beara dala iruditzen zait. Ortarako ta euzkera egiazko bere bideetan barna eraman al-izateko, barne-barnetik dei bat egitea nai-izango nuke, guziaz ta bakoitzari auxe eskatzen:

Gure izkuntza alik eta sakonenik ikastea, bere egitura, ots, bere eliztia egokie-nik ikasi arte, ta, asiera bezela, euzkera bera dan bezela onartzeko gogoaz ari-izan; Azkue, Altube ta lenengo eukaltzañak egin zituzten lanak irakurtzen eta ikasten.

Ez baztertu, iñola ere, euzkalki bat be guztiak euzkera diralako ta guztietan euzkera bizi dalako.

Izkelgien artean dagoen batasuna ezberdintasuna baño askoz aundiagoa dala oartu, onela: aditzaren egitura izkelgi guztietan berbera dala, orobat izen-jokoa-rena, berdin joskera ta atzizki geyenak izkelgi guztietan berberak dirala.

Ba-dagoz ala ere ezberdintasunak, baña ez izkelgien artean bakarrik, bakoi-tzean ere, bel ta aran bateko e ien artean be; argi ikus diteke ori Euskaltzaindiak bere lenengo urteetan egin zuen "Erizkizundi Irukoitza"n; bertan egiten ziran gal-derai egin zizkioten erantzunak "Euskera" aldizkarian argitaratuta dagozenez.

Ezberdintasunak bi aldetik sortu dira: bat euzkera ikastoletan ez ikasteagatik eta bestea alboko izkuntzaen eragiteagatik; lenengoak ikastoletan euzkera sakon ikasteaz ezabatuko dira, ta biga enak geron aldetik erderakadak astantzean.

## **EUROPA EREDU**

Europa'ko izkuntza au eratuak urteak ugari ta mendeak ere bear-izan dituzte gaur dagozen maleraño eldu al-izateko. Guri ezin eska dizaiguke iñork, lan luze ori urte gutxitan bete dezagula; geuk ere lan ori urteetan barna bete al-izango dugu ezinbestekoa danez, eta gaurkotz norabidea da ongi ta garbi aukeratu bear duguna, onela gure ustez: Gaurko gogo-lantze guziaren oña ia irakaskintza da; o engatik auxe da gurean antolatu bear dana lenengoaz astean beste maletan, gora gero igotzeko. Baña gure irakaskintza guzia euzkera utsez egiteko baldintzaz. Ikus dezagun guztiok argi bide ori bertan alka ekin eta gogoz beti yarduteko asmoz.

Gasteiz"en 1986"ko epal Áren 15"n  
U estarauzu"ta Andoni

# OLABIDEREN ASMOAK

## EUSKAL-ITZ BERRIERI BURUZ

Naiz pelota-joku izanik, naiz idi-dema edo aizkolarien geyakoka, edo bertsolarien leyaketa, ala nor goragokako zernairi buruz, mutillak izaten gera euskaldunok, alkarren aurka gogor eta bizi geron burua jartzeko.

Guzion bagien aurrean gaur, kondairaren zear len, orixe bera ikusteko gure Euskalerrian beti. Alderdikarreen txit zaleak gerala dirudi; norbait euki bear edo ba-daukagu beti aurrean, bera erasoteko; ala, onenean anai edo adiskidearekin ez joteagaitik, au ezko bidera jo egin bear, beste gogo-emanik izan gabe. Itz batez, sakerre izatea bide dugu geron izakera berezienetakoa.

Gizonaren biotzetik berez sortzen diran beste lera guziak bezela, norabide on ala txarraren zear joan dakiguke, aurka jotzeko dugun erreztasun ori. Baña ez ote da bera, baikor-zurrian, biziaren zantzua? Bizirik ez duena, gogo-arazo guzietan ala bedi'tarra agertzen da beti. Eta ura, sakerre izatea, batez ere geyegizkoa bada, ezin guzi-guzia ontzat artzeko, alegia.

Bide erdira joatea dagokigu; eta ortarako ezi egin bear geron baitan sortzen zaizkigun oldar egiteko naikari guztiak. Ez dugu uste beste biderik dagoela; ezi gugan bide txarrera dijoana; azi geron burua, adiskide edo anayari ezetz esan bear baldin badiogu, den dena ez mintzeko adeiera erabil dezagun.

Euskerari buruz geron goraberak ere sakarrez kutsuturik izan ditugu maiz gure artean. Gure izakeraren baranoan ibilli bear gura izkuntza gaxo au ere. Ez zan naikoa noski, arierioen erasoaldi gogorra, gure uzkeri guztiakin naspildurik ari-izan bear, tira-biraka, bilin-balan. Ez dagokigu, ala ere, ayenaka ibiltzea; euskera gurea ala gu berarena eukitzea. Orrela, sakerre jokabidea euskerak ere jasan bear, nai ta nai ez.

Ez da gaurkoa, eiki; baña azkenengo aldi auetan gero ta tinkatuago ditugu aurkako aburu berezi bi. Mendez-mende ta egun arte, euskeraren alde burutu izan diran lan guztiak azterkatuz, bi taldeetan kokatu nai dizkigute toki askotan euskeraren idaz-langille guztiak; emeretzigarren mendea amaitu arte ari izan ziranak, batean; ogeigarren ontan yardunik izan eta diardutenak, beste batean. Batzuentzat ayek izan ziran egiaz eta bearrezko euskera erabilli zutenak; beste batzuentzat auek, oraiñaldikoak ditugu jakintsu ta jatorrenak.

Ezin ditzakegu, geron aldetik ontzat artu iritzi auek; danetara ikusten dugu guziengan, eta iñola ere ez deritzagu on eta egoki, batzuek ala besteak urruñatzea; guziekin jo bear dugu aurreruntz, asmo batean itsu geratu gabe. Euskerari, biziaren legeak dagozkio ta bizidun guziak bezela gora ta beerako unealdi on eta txar asko izan bear. Bera erabiltzea dugu bearrena, bakoitza bera gardiz; eta onela, ibilli ta erabilliz, aurrera eramango du bere burua euskerak.

Dana dala, ez dugu oker, 1900"garren urtea, euskeraren bizian muga bezelako bat ikustea. Bai, obeto ala gaizkiago, ordudanik eneraño, lengo urte guzietan baño askoz geyago idatzi ta irakurri da euskeraz. Sarritan esan da au eta egia dugu. Ba-dago beste egi bat ere, ori bezin ona ez dana, aitzitik, oso txarra baño; euskera gero ta gutxiago mintzatzen dala. Ba ote da bigarren egi au lenengoaren ondorio? Oker aundi bat izango litzake, eskierki, emen bayetz erantzutea. Geron ustez, ostera, orrenbeste idatzi ta irakurri ezipazan, are aundiago izango genuke, gaur, itzegite uzte ori.

Bear ainbat ezipadira ere, lengoarekin erkaturik, burrustaz sortu zaizkigula esan bear, 1900"garrenetik ona euskal-idazle ta irakurleak. Arana-Goiri"k ereindako asmoak izan dira, zalantzik gabe, idazle ta irakurle geyen-geyen oyek euske-

rarengana, biotz-biotzetik eta leyaz beterik erduteko kari; batzuek zuzen-zuzen jo-ta, besteak zearka ta, apika, berak oartu gabe; eta ba-liteke ortan egotea len esan dugun zedarriaren erroa. Aurrekoak, noski, aberriaz ongi ikusten ez zutelarik, Euskalerrri"arenganako maitasunez ari-izan ziran; gerokoak, argi ezagutu duten sorterriarenganako kexutasunez beterik.

Beste aldetik, aurrekoek ere ez zituzten ezagutu gaurkoek ikasi dituzten izkun-tzaen gayaz gaur oso erabilliak diran ikasketa berriak. Gañera mende ontakoek ongi azterkatu dute antziñakoek idatzia; beraz, guziagaitik, gaurko idazle, olerkari eta yakintsuek, lengoek baño bide obe ta geyago dauzkate beren lumak erabiltzeko, beren idazlanak burutzeko. Ba-dugu, bai, zergaitik euskeraren egunen bidean alako muga berezi bat sortu zaigula ikusteko. Eta 1900"garren ar dezakegu gure muga orren urtetzat.

Idazle ta yakintsuen artean izen omengarri asko jarri genitzake emen, esandakoa egiztatzeko. Ala ere mende ontako bakarrik aipatuko dugu beraren aipurako, ain zuzen, lerro motz auek idazten baititugu: Aita Olabide, gasteiztarra.

Orainaldikoa dugu euskal-idazle ta yakintsu gorenetakoa au; euskera errotik ikasi zuena ta bere mami barneraño iritxi zana; gure mintzoera onen bizia edo-nork bezin ongi aztertu duena.

Argi ikusi zuen, bai, Alta Olabide"k gure Erria'ren auziari, euskera nola dagoen itsatsirik; ongi erakusten orixe bera, bere lan guziaren zear. Asieran erdalduna izanik, aurki egin zuen euskaldun bere burua; ta gogor jarri zan lanean, gure mintzoera zar au ikasten eta aztertzen. Gutxi izan edo dira, gure artean, bera bezin sakonki euskal-ikasketan sartu diranik; ez eta berak lortutako onura bezin aundirik burutzea ere.

Euskal-liburu ta lan askoren egille, Euskaltzaña izan genuen gure Euskaltzaindi'ren lenengo aldietatik. Eta naiz gure kulturazko ikas-toki goratu ortan, naiz "Eusko-Ikaskuntza-n edo euskeraren alde sortutako edo antolaturiko bazkun, aldizkari ta egipen guzietan, bera sartu ezker, berealeaxe nabarmentzen ziran beraren lan eta iritziak. Orren ederki ta sakon ikasi baitzuen sorterriaren izkuntza!

Ez dugu jarraituko Olabide'ren euskal-lan guzia; askoz geyago zedarrituko dugu gaurko gure iruzkiña, idazlan onen idazpuruaren arauz.

Euskera ta euskal-kultura bide ziran Olabide'ren iritiziz, euskaldun biziari dagozkion bearrenezko bide biak. Gure izkuntza au, mendez-mende, orren urruñatu ta bazterturik izan dala ikusirik, erdoya bezela, pipiaren antzeko, iristen ari zitzaion txirotasuna argi oartu zuen; txirotasun ori barren eta kanpoko bide askotatik eldua, gotor atsiki zitzaiolarik, alegia. Eta bide oyetako garrantzidun bateaz, itzena, iztegiarena aipatu ta oarrerazi zigun, Araba'ko gure idazleak.

Bearrezkoa; kultura orokorra, gurean, beti erderaz ikas eta irakatsi izan danezker, amaika ta amaika itz jator geratu edo zaikigu bazterretan galdurik erderazkoak sokoratuta; eta egiazko euskal-kulturaren bidez, ots, euskal-euskalkintzaren esker astiro ta egoki, urtez-urte eratu al izango zitzaiketean itz berriak ere, jayobidean gelditurik.

Ikus dezagun, bere "Giza-Soña" liburuan Olabide'k berak asmo ontaz azaltzen diguna. Onela diño 1916"garren urtean egiñiko lan aundi onen itzaurrean: "Izen pillo au argitara yaurtitzen det aizkide askoren onuz. Euskaltzaleak atsegiñez artzen badute, beste pillo batzuek darrayokete bildu ditzakedan euzkel-itzak, yakingai bakoitzak dauzkanez euzkel-idazleei dakarzkiedala, ayen arloa nolarebait arintzeko, ta bearra zaigun euzkel-idaztiyasa gertutzeko.

Euskaldunik asko yakite- sail oroetan ikastunak ditugu; dakitena euzkeraz idazteko gairikan ez. Erderaz orok dakiguna ikasi ta irakasi oi ditugu. Iñork iñoiz berri zerbait argitaldu nai ba-du, erderara yo ta erderaz idatzi bearrez aurkitzen

da; euzkel itzak, or andik sakabanatuak, ayen deyarekiko sor ta gor datzate, idazti yakintsuetarako bidetara ez ditualako iñork ere gaurdanik ekarri.

Okulluetatik eta baserrietatik, ordea, euzkeldunok gure ele eder mamitsu au etxera ekarri bear ta nai degu yakingai guziak azaltzeko: beste edozein ele bezain adiñoa bai-dalarik, Yainkoak emana degulako, bere oneskunetan eta gure azi-orrazietan erabilli dezaguntzat.

Yainkoak, baña, bai eta gure asabak, zoritxarrez, beste bat aspalditik nai izan dute. Gure asabak euzkera txokoratu ta sukalderratu dute ikastolarako ta erausi yakintsuetarako erdera beti erabillirik, eta Yainkoak yasandako izkera oroldiz estalita, erdoiz yanda, akatzez beteta, erabilgaitza ta elbarriz yeta oñordekoei utzi digutela.

Ez da, beraz, arritzeko, yakingai askotaz idatzi nairik guretartean ainbeste lagun egon-arren, ipuin eta gogo-arrotzaz izan-ezik idazti yakintsuren bat ere eza-du iñork egundako atera".

Pozik imiñiko genuke emen "Giza-Soña" ren itzaurre osoa. Orrela ezpadagigu eta jarritakoaz gure elbururako aski dalakoan egonarren, beste lerro batzuk gañeratu nai ditugu Olabideren asmoa noraño edo noruntz abiatu zegoen adierazteko.

"Neraunek -jarraitzen du geroxeago- al dezakedan apurtxoa ornitzen giza-sointzazko izen-pillo auenetan asi nai det, geoenean giza-gogoari, uzkurtzari, lugintzari, kimiari, t.a., dagozkien izen-pilloak argitaltzeko asmoa. Iñork ere ez beza pillo auetan euzkel-itz guziak aurkituko dituanik uste, beste itzik asko ortikan kukuldurik gelditu bai-dira: bildutako batzuek ere oilbearrak edo-dira".

Orra berrogei urte baño geyago joan dirala, yosulagun ospetsu arek ori idatzi zueneik; eta gogoangarri oso bere itz guziak. Gutxi bera bezin ondo, gure auziaren erroa nun dagoen ikusi dutenak. "Euzkaldunik asko yakite-sail oroetan ikastunak ditugu; dakitena euskeraz idazteko gairikan ez. Erderaz orok dakiguna ikasti ta irakatsi oi ditugula.

Itz oroigarri, bai oietxek, euskaltzale guzientzat, bertan argi baño argiago, ongien adierazten baita nundik datorkigun gure euskerari buruzko zorigabekoa, eta bide batez, nora joan bear dugun bereziki, alegin aundienak egiten, gure mintzoera onentzako osasunaren billa. Olabide" k erakutsi zigun bidea, garbiki gañera. Eta ordudanik ona igaro diran urteak eta jasan izan bear ditugun galera aundiak, nabarmenago agerrera ditzigute gure gasteiztarrek orren ikusi ta erakutsi zizkigun gaitzen kari ta zio, eta egokienak ditugun sandagarritzko bideak. Benetan, irakasle goragarria dugu Olabide, gero ta aipagarriago agertzen zaiguna.

Ez dugu naikoa, ezin, euskera, gai bat bezela bakarrik ikasi ta irakastea; euskera, bidez erabilli bear izango dugu, beste gai guztiak ikasi ta irakasteko; onela, bizia ta bizi mardula izan dezaken. "Okulluetatik eta baserrietatik, ordea, euzkaldunok gure ele eder mamitsu au etxera -idazti yakintsuetarako bidetara- erakarri bear ta nai dugu, yakingai guziak azaltzeko; beste edozein ele bezain adiñoa bai-dalarik".

"Yakintsuetarako bidetara", eskierki. Irakaskintzara, beraz, bearretsiz, Auxe, alegia, euskeraren alde jotzeko bearrezkoena zaigun norabidea. Olabide" k, ain zuzen, ongienik erakutsi ziguna. Eta erazo ontan azterkatzen ari ta berealaxe, argi ere atzeman zuen euskera bide oyetara joateko, bide oietan barna ibilli aal izateko, zer peitu ta bear zitzayon, lenen-lenengo urratsak ere emateko: yakintza-gai bakoitzerako ezinbestekoak diran itz bereziak.

Oker aundia izango litzake, itz berezi oyetan mintzatzen geranez, Olabide" k itz berriekiko zaletasun aundia zuela uste-izatea. Ez, berarentzat, "euzkel-itzak, or andik sakabanatuak, aren deyarekiko yakin-gai bakoitzarekiko -sor ta gor datza-

te". Bere "Giza-Soña" burutzeko 6.500 itz baño geyago bildu zituen gizonaren gorputzari dagozkionak. Itz oiek dirala-ta, ara zer diñoen esandako bere itzaurrean: "Azkue'ren itztegitik izen eta izengairik geyen-geyentsuak yetxi ditut". "Iñork ere ez beza pillo auetan euzkel-itz guziak aurkituko dituanik uste. Beste itzik asko ortikan kukuldurik gelditubai-dira; bildutako batzuek ere oilbearrak edo-dira". Ona apaltasunez, berak bere lana, bein-betikoa oso ez daukana; eta onela jarraitzen du; "Guzien begitara-ezker, utsuneak eta geyegikeriak erraz ageriko dira; ta urliak zerbait iausi ta berendiak zerbait eratsi ta kopuratzen ba-du, yakingai bakoitzarako laingo ornia laster izango degu".

Lanean abiatu zan Olabide, berandu gabe; eta lanerako zuen adore ta kemen aundia agerrerazten digu bere "Giza-Soña" ren asieran. "Bertan bildu ta moltzokatu ditut Euzkalerrian or andik zirpizindu ta bakanduta dauden euzkel-itz yatorrak, giza-sointzaz yarduteko erabilgarriak. Beste pillo baten giza-gogotzaz yardutekoak bereala argitalduko ditut. Eta bide ortaz, yakingai oroen zear igaroko naiz, porrokatutako ormaen arri banatuak iñondikan ere biltzen, yauregia osorik eraiki arteraño. Eraiki diteke, ba, noski, ta eguzkitan sendo ta ederraren ederrez oargarria nabariko da, orko utsuneak emango ala ango itzez betetzen ba-ditugu. Neraunek al dezakedan apurtxo ornitzen giza-sointzazko izen-pillo aunetaz asi nai det, geroanean giza-gogoari, uzkurtzari, lugintzari, kimiari, t.a., dagozkien izen-pilloak argitalzeko asmoz".

1916"garren urtean guzti au esan zigun, ordurako "Giza-Soña" buruturik zeukanean; ez ote zigun, gero, ezer egin bizi-izandako urte luzeetan? Lantzale purrukaturia izanik bayetzean egon bear eta "Giza-Gogoa-z bederik, lan oso zabal idatzita utzi duelakoan gaude. Omenaldi ederra, noski arentzat, naiz lan ori naiz berak egiñik izan ditezken beste guziak bildu ta argitaratuko balira.

Beste yakintza-gai batzuek aipatu zituen, berai buruz beste ainbeste egiteko gerturik zegoela esaten. Zenbat ote ikutu aal izan zituenak? Ba-liteke, naimenez, guziak buruan erabiltzea, osoraño eltzeke, ez beragan ez eta iñoizko gizon batengan ere, almenik izatea eziña bada ere. Eta aurrean egiteko lana nolako aundia zala ikustean, euskaldun eta euskaltzale guziengana zuzendu zan antsiz beterik. Azkue yakintsuaz mintzatzen, onela ziñoen: "Gizon bakar batek egin dezakena Azkue" k egin du, ta ederki gero. Enparatu guziok ark bildutako kopurua geitu bear degu, iñurriak bezela".

Irudi ona -"iñurriak bezela"- gure eginbearra nola izan bear dan adierazteko; eten gabeko lanean ari bear, alegia, bakoitzak geron garaua edo garauak, guzior txindurritegira eramaten: "iñurriak bezela", bai, lanean, guziok elbururuntz bertaruntz bideraturik; baña yakintsuki aukeratutako bideetan barna, ontan batez ere, gizon burutsuen antzera jokatzeko.

Elburu ta bideak ondo erakutsi zizkigun Olabide" k: Elburua ontzat arturik, bizi nai badugu alda-ezina baita, bideak ditugu azterkatzeko, ta guzien artean, onen eta ziurrenak autatzea guri dagokigu, oyen zear eta aren atzetik jarraitzeko.

Guziok lanean ari izatea nai zuen Olabide" k eta "guziok" auetatik ez dugu iñor alboratu bear. Guziok, Euzkadin jayotakoak oro ikusi nai ditugu alegiñetan, bearra baita gure Erri osoa ekintza aundi ortan yardutea, alegia, euskal-kultura, Euskal-erri osoarena izan bear; beraz, guziona, guziok burutzeko eta guziorntzat izan dedin. Geron kultura egiazko Erri-kultura izan dezagun.

Eta orrelakorik izan dedin, euskeraz eraturako irakaskintza dugu biderik egoki ta ibiltzeko bear-bearrena. Gure euskalduna, ben-benetako euskalduna izateko, txiki-txikitartu bear dugu, eta lenengo itzak irakasten, abede" an asi, euskal-irakaskintzaren mail guztietan barna eramateko, egiazko euskal-yakintsu egin arte. Orduan, eta orduan bakarrik izango genuke egiazko euskaldun osoa, orain arte ezagunik izan ez dana.

Gizon batek, bakarrik, asko ikasi dezake, eta Olabide bat bezela yakintzetan goikoeneraño eldu ere; alan eta guztiz be, ez da ori naikoa; yakintsu orri ere egurats egokia eukitzea dagokio. Zer izan zitekean Olabide bera, bere kultura aundia euskeraz eta euskal-eguratsean barna egin balu?

Orra zergaitik izan bear dan, geron xedea, Erri guzian lanean sartu nai izatea. Erritarrak oro, iñurri! Eta bidea da orrelakorik iristeko gureganatu bear duguna, ezinbestekoa dan irakaskintzarena, besterik ezpaita. Eta Euskal-irakaskintza gure-gurea izan bear, geuk antolatuta, geuk zuzendu, oraindu ta buruta, ta geuk ere bere arnarietaz gozatua.

Asmo guzti auek ez edo dira, Olabide" k berak azaldutakoan jarraitzailleak baño. Orobat gure Errian emandako amaika urrats.

1918" garren urtean Oñate'n egin zan euskal-ikaskuntzaren batzar aundienetako bat, egun arte aundiena eta onarutsuena ezpada. Amaika euskal-yakintsu alkartu ziran txoko ikusgarri artan. Merkado Zuazola" k sorreraziko Irakastola Naugsia'ren itzal gozoan; ezin orduan, ayen artean, gure Olabide ez agertzea. Euskal-kultura ta irakaskintzari buruzko lanetan, berebiziko arnari umotuak gure gasteiztarrak orduan aurkeztu zituenak.

Irakur eta ausnargarri oso ditugu, "Lexikologia y Lexicografía" izenez batzar artan erderaz eman zituen ikaskai bi ayek (primer Congreso de Estudios Vascos-Oñate-1918" an, Bilbao'n 1919-1920" garrenean argitaratutako liburua). Ona emen liburu orren 450" garren orrialdean irakur ditezken aren itz gogoangarriak.

"Bere mamian osoa ta bere eraz bidezkoa, iztegi bat zaigu noraezeko, orrela bildutako gayak errazki zabaldu aal-izateko, idasle ta irakaslearen lana erraza egiteko, eta mendez-mendeko sorayokeriz irauneko arloetan -orra, gurea-, yakintzaren adar guzien barna edaturik, euskal-elertia irazatea jarri diteken".

"Euskerenganako zaletasun utsatik asi-ta, naiz eleketan, naiz irakaskintza, naiz izparringietan, bidez erabiltzera igaro nai izan duzutenok egin atzeman baituzute, egiazko naimen oldartsuenak ere, lenengo urratsetatik poto-egin duela, bearrezkoa izan zaizuen izarian, esan nai duzutenerako itzak aurkitzea eziña zai-zuelako; gure mintzo-altxorrean dagoen guzia ezagutzen ez duzutelako, edo egitan peitzen danean, beraren utzak batzeko euskerak dituen almenak nolakoak diran ez dakizutelako. Eta gure izkuntzaren alde ainbeste ekiñaldi bete ondoren, ona nola gauden gaur oindiño, eragozpenez beterik, irteera ikusteke, euskeraren irabaztea lortzeko dagizkigun alegin eta leyaketa guztiak alperrik galtzean; eraikitzeko gure gayak oso barreyaturik egoteak eta berak ondo ez ezagutzeak, gure ibiltzearen aurka oztopoak jartzen dizkigutelarik, oiñen pean lurra kenduaz".

"Biztanlez gure txikitasunak eta gure elebitzak -ez mintzoera bientzako malla berean, txarragoa danez, betetzekoa izanik- euskal-eguratzat barneraño blai egite-bearra eginten dute, dagoneko euskeraren txirotasun aundiegia geldiearazteko, ta oraindik daukaguna indartsuki iraunerazteko. Blai-egite ori, alde batetik gai guzietako euskal-argitaratzeak beteko dute; eta bestetik, argitaratze oyentzako irakurleak erruz gertu ditzaten euskal-ikastolak.

Alegia, argitalpenak idazlerik izatea adierazten dute, eta ikastolek irakasleena. Baña gaurko ontan ez idazlerik ez eta irakaslerik, ezin orrelakoak izatea itzen bilduma aundi bat gabe; eta oraingo barrayadura dala-ta oso zala izkuntzaren gayak ayen eskuetan jarri ditzaken bildumarik izan".

Orra gure euskeraren auzi sakona, Olabide" k berrogei urte dirala, argi ta garbi azalduta. Irakurleak, idazleak; ikastolak, irakasleak; irakaskintza, gai guzietako argitalpenak; euskeran bertan dagoen lan-gai ugari, eta gai guzti oyek azaltzeko, bildurik izan ditzan iztegi betegarri oso ta bidezkoa.

Nolakoa ote, "idazle ta irakaslearen lana erraza egiteko" iztegia. Asmoai buruz egindakoa ala irakaskintzarako gayak azaltzeko bearrak diran itz berezienak? Bahliteke bietarako izatea Olabide'ren xedean.

Asmo ontan jarraitzen zuen Olabide'k geroxeago; 1919'garreneko ilbeltza ta otsaillean "Euskal-Esnalea" aldizkariak argitaraturika zenbaki bietan, "Itzezazkuna" (Lexicologia) izeneko lan eze ta mamitsuan. Bigarren zatian, otsaillean, agertu zanean, zeatz geyago ematen digu, bere ustez, "Euskal-Iztegia" nola eratu bear izango litzaken adierazteko; arlo oni garrantzirik aundiena ematen. Ona emen bere itzak:

"Itzetazkuna n aitatu ziran yakingayak -(Otsetazkuna (fonética), Ikurtzazkuna (semántica), Itzikur-edestiak (semántica histórica), Aldekako-Itzikurak (semántica geográfica; -laster ta erraz bururaño ikerriko lirake, Euzkal-Iztegi biribil ta mamitsu bat ba'geneuka. Antxe bapetan euzkelgai guziak ikusirik, ayen aotsari, ikurri ta ereduari dagozkien arati oro igerriko genituke. Ez da ori ordea, euzkaltzaleak alako iztegiaren irrikan jartzeko ziririk eraginkorrena. Euzkeraren bizitza bere auzi aunetarik dingilizka dago".

Euskalerria euskeraz okiturik ikusi nai bide zuen Olabide'k berarentzat ez edo zan naikoa zegoena bakarrik eustea; zabaldu nai zituen arek euskeraren zedarririk, sorterriarenekin bat egin arte. Eta onela jarraitzen du:

"Euzkel-eguratsa geroago ta aulago geratzen zaigu. Gutxi gera, ta erderaz beti yakinbide orotan aziak oro. Euzkera gotor ta mardulik bizi bear ba-da, euzkel-eguratsean murgildurik egon bear gera. Orrelako euzkel-eguratsa, berriz, sortuko dute, alde batetik euzkel-irakurgayak, eta bestetik euzkel-ikastolak irakurgai o-yentzat irakurle-samaldak aztekoak. Irakurgayak, ordea, idazlerik gabe ezin sortu; ikastolak irakaslerik gabe ezta ere. Eta oraindaño orandik sakabanatuta dauden euzkel-itzak bildu ta mordezka baño len, ez idazlerik, ez irakaslerik ezin ditugu; bearrak dituzten euzkel-itzak, oraingo barreyakeriz, eskumenean ez dituztelako, erabilli nai dituztenean".

Euskal-itz dirala-ta, bazter eta zokoetan erdi galdurik zeuden guziak bildu gura ebazan, euskal-iztegi aundian, euskal "Thesaurus" berezian egokiro metatzeko. Gura bakarrik ez, asiere asi zuen beste euzkaltzain batzuekin "Thesaurus" ori egiten; eta esan digutenez oso aurreratuta zijoan guda, zoritxarrez, eldu zitzaigunean; egindakoa Euzkaltzaindi" k edo dauka, eta oso lan ederra izango litzake bera burutu ta argitaratzea.

"Euzkel-itz guzi guziak- diño- beraz, iñongo zokoetatik bildu ta gero adiñonez moltzakatu bear ditugu. Orixe da Euzkel-iztegia egitea".

"Ta idatzi nai genukena, idatzi egokirik ez degu, ordea".

"Iztegirik asko aspalditik ditugu. Baña bear deguna, ez. Euzkeraz irakurtzeko, ta erderatik zerbait euzkeraltzeko egokiak dira Azkue'rena ta Bera-Mendizabal'ena. Euzkeraz egiteko ta euzkeraz idazteko geronez mintzatu ta idatzi nai genukena, idatzi egokirik ez degu, ordea".

"Iztegi egiterakoan, aurren-aurrena da euzkel-itz guztiak biltzea. Ta nora yo itzeske? Toki-izenak eta abizenak itz-kopuru ugari damaigukete. Idaztiak eta idaztaltxorrek itz yoritsu ere emango dizkigute. Baña uzta sorotik bezela, itzak eta izkerak euzkaldunen aotikan yaso bear dira. Ori gaitza da, ta eziña dirudi; lagun askorena, ez iñor batena: ez da axola! Euzkeltzai Bazkuna laster izango degu, ta Bazkun orrek arazoaren eredutzat artu ditzake, gaurdaño koan idekorik ez duten, orrelako lan aundi bi".

"Euzkelerri osoaren zear, sarea bezela, biltzalleak edatu bear dira, euzkel-itx bat ere ez dedin or galduta gelditu. Biltzalle oroie illabete bakoitzean Euzkeltzai



Bazkunak bidaliko lizkie: a) urrengo illabeterako salla, galde zeazka berizturik illabete artan eskatzen dizkien eta izkerak; b) ingurtze edo txartel-txorta bana, bilzalleak ayetan aurkitutako itzak yarri ditzatentzat".

"Itz-biltzea orrela egiñik, errazago izango dute iztegiak beren arloaren beste salla, saillik gaitzen ta zakarra, noski. Ainbeste itz nola moltzokatu, iñork nai luke-na erraz aurkitzeko? Gaurdaño orrelako axolarik ez bide zan. Bilkiñak agakaren yarraikeraz ipiñi... ta kitu. Baña agakaren yarraikera ona da ta danik errazena irakurzen diranetako itzen ikurra aurkitzeko, ta izkera batetik beste batera itzultzeko. Ez ordea, iñork bere izkeraz yardeteko ta idaztekotan. Alperrik iztegian orrek bere oldozkunarentzako itz egokia billatuko luke. Iztegiak, itz ezagun batek zer ikurtzen duan, dasayoke; ez ordea, esan nai duanari zein itz dagokion".

"Beste aurkibide berri batetik iztegian ibilli bear da. Itzak moltzokatu bear dira ikur-buruka; moltzoan berberan bildurik ikur bati ditxezkan itz guziak, bai ainbatekoak, bai aitzikoak, bai zera oso orri, bai bere zati bakoitzari dagozkienak".

"Orrelako iztegirik ez da gaurdaño ageri; baña bidea zabaldu ta erakusten yakitun batzuek ari dira. Doitxerrian, Saner; Engallerrian, Roget; Italia'n, Zannotto. Gurenean bide berri aunetatik dabil Giza-Soña"ren egillea. Aitatutako Thesaurus ta Diccionari izango dira gure Iztegia "ren\_aurrelari bakarrak, Euzkaltzai-Bazkuna laster ataratzen bada. Jainkoak argitu beza".

Asmo bikañak Olabide'renak. Aipagarri ta berriro nabarmentzeko auxe: "Agakaren yarraikera" 'z egindako iztegiak. "Itz ezagun batek zer ikurtzen duan, desayoke; ez, ordea, esan nai duanari zein itz dagokion".

Noski, azken bear oni buruz egin liteken iztegia -asmo-iztegia- bearrezkoa dugu. Eta ez, asmoetatik itzetara erraz eltzeko bide egokia izango litzaken alde-tik bakarrik. Gurean, onelako iztegiak beste zitu eder bat esango liguke: gauza bera baterako, izkelgietan sakabanaturik dauden ikur bateko itzak, alkarren ondo ikusiko genituzke; idazleentzako aberastasuna gizentzen eta, bide batez, euzkeraren batasuna eratzen.

Eta noraño bearra iruditzen zayon orrelakoa izatea, batez ere, euskaldunen sorayokeriak gure izkuntza, onen atzeratuta utzi duen ikusi ondoren. Bearra zaigu iraduz ibiltzea, Olabide'ren ustez; galerazko aldapa beera azkarregi baitoa gure mintzoera, eta onezkero galdutako aldia orren aundia izanik.

Argi ikusi zuen arek, bein gure auzia ondo azterkatu ezker, orren agirian dagoena; idazterakoan aurkitzen ez ditugun ainbeste itzen bearra. Euskerá k berak ez dauzkalako? Ez du orrelakorik uste Olabide'k.

Iñoiz eskoletan landu ez dan euskera alde guzietara barreyaturik, eta erbesteko kulturak diralakoari, amaika itz ibiltzearen kanpo geratu zaizkigu, azkenez itota ayenatzen. Eta asmo berri askotarako egiazki peitzen diranak eraitzeko, erro mamitsu ta ugari ikusten ditu arek izkuntzaren aberastasunean.

Galera ta utz guzti oyek betetzeko, benetako euskaltzaleak nai ditu Olabide'k iñurriak legez lan egiten. Eta ez noski aukerazko yakintsu kopuru txiki baterako, Erri osoarentzat baño. "Irakasleak erruz gertu ditzaten euzkel-ikastolak" eskatzen ditu gure josulagunak.

Eta guzientzako, irakurleentzat naiz yakintsuentzat, euskal-eguratsa gizona irrikaz nai du. Bera, irakasle izan zalarik, ongi ikusi edo zuen, irakaskuntzaren zear eta onen barano ta inguruan zabaltzen dan bizian, nola moldatzen dan ikasleen gogoia, beren bizi guzirako iraungo zayena. Irakaskintzak, bere eguratsa sorrerazirik, ikasle ta irakasleai bere giroa ezartzen die. Nolako iraskaskintza alako gizona, orra egia. Ez ote dugu, alakotz, alegin aundienak egin bear, gure euskal-irakaskintza antolatzeko, ondorioz ben-benetako euskaldun-gizonak izan ditzagun,

Euzkadi guziko bizia, euskal-bizia izan dedin? Argiagorik! Bai, noski, argi Olabide'rentzat; orrela, bere iritzia zuzen-zuzen eratu zan eta gure lanetarako norabidea ederkien erakutsi zigun.

Len ikusi dugun bezela, aiduri ibilli zan gure arabarra oartutako utz eta bearrak betetzeko alegin zolietan. Ez, irazean aztertu dugun "Giza-Soña" bakarrik. Ortxe utzi zigun bere "Itun Berria, itzetan yori esanayetan argi, azalpenetan garbi; ta oraintxe argitaratzen ildo sakon egiña utzi zigun gura euskeraren soloan.

Egia da; ez geuk, noski, diñogulako. Gure izkuntzak izan dituen idazle onenetakoa dan Orixe aundia, onela mintzatzen da Olabide"ri buruz:

"Olabide'ren orean auxe esan bear duen yakintza-bearrean euskeraz ira urtzera erdu aizen beingo bakarra, Paul Guren'aren eskutitzak irakurtzeko berak egingdako auen itzulpena izan da; bai eladeraz bai lateraz, naiz parantzeraz naiz gaztelera baño obeto, aren euskeraz ulertzen baititut"). Gernika 11 zenb. jorrailgaragarri, 25 gn. orrialdean).

"Ni Paul Guren"aren eskutitzak irakurtzeko, len ere esan izan dutana, ez noa bestetara". ("Bidalien egiñak", Zaitegi ta Plazaola"ta"r Yokin -itzaurrea- Orixe- 6 gn. orrialdean).

Nun aurkitzeko itz berezi ta garrantzidunago, Olabide"ren euskal-yakintza adierazi ta goratzeko, esandakoak baño? Eta nor Orixe bezin jakitunik ortaz aburua emateko?

Goyeneko maillean ari izan zitzaigun Olabide bere lan guztietan. Ona emen, auxe egiztatzeko, "Euzko-Gogoa" 'n irakur ditekene (11"gn. urtea 1951'garreneko Ilbeltza-Otsailla- 1-11 "garren zenbakiak); Orixe'k ere idatzita:

"Ba-dakizute zer esan zion A. Olabide"ri, Ladochowski yosulagun guzien Buru zanak?: "Esan didate akademiako euskera erabiltzen duzula. Jarrai ezazu ortik, aldi igaro-ta, orixe ederretsiko baita, nere Polonia-errian gertatu dan bezela". Euskeraz irakurtzen dutenen artean Olabide aña? Iñor ez, nere ustez. Eta irakurtzen dute apaiz oyeke, praile oyeke, atzerrietan; bai Ameriketan ere".

"Amar yakintsuek Olabide irakurtzea geyago da berreun erritarrek Kirikiño"ren Abarrak baño".

Orixe"ren iritzi oyeke ederki ta egokien erakusten digute Olabide"ren yakintasuna. Beste batzuek ere jarri genitake, Euskaltzaindi-ko bere lagun eta lankideek emandakoak. Ez da, baña, bearrik. Gaur gero ta geyago ezagutzen diran euskeraren langilleen artean, zalantzik gabe, Olabide dugu lendabiziko mallan agertzen zaiguna; dizdiratsu, bere adimen argiak eta bere abertzaletasun sakonak, aolkuak eskeintzen, bideak urratzen; sorteri ta euskeraren elbururuntz eskier joan gaitzen.

Eta lan kaskar ontan adierazi nai izan dugunez, euskal-irakaskintza eta onek bear dituen liburuetarako bearrak diran itz bereziak atontzen. Asieran aipatu dugun bere "Giza-Soña", ortarako itz-bilduma baño besterik ez da, bilduma aberatsa; yoria; gure irakaskintza, bear danez edatu dediñako txit egoki ta onuratsu izango zaiguna.

Itsu-itsuan jarraitzeko, Olabide dugu erdua. Onuak eman eta bideak erakutsi bakarrik ez; ben-benetako eredu yaukala izan zitzaigun, berak idarokitako bideetan barna ibiltzen. Nola, gañera: Zut, zaloi, euskaldun jatorra mendian gora dijoan ibilkera kementsuaz, adoretu beti, adimena elburuaren norabidean tinko, begi zoliek bide onenak idoroten, aurreruntz oldartua, oztopoak gañeratzeko bakarrik begiratzen, bide-lagun urkoari bere laguntza guzia eman...; mende onetako euskeraren bide zail eta nekegarrietan, aunditasunez beterik agertzen zaigu Olabide, nagusi ta garaille, gure euskeraren jokuan bere marra iraungarria egiten.

Gaurko amaika idazle dijoakigu Olabide 'ren urratsak jarraitzen, andietsi ta maite dan Irakaslétzat arturik. Bai, "eskola" egin digu, egiz, Olabidék euskeraren ikasketan; gai oni buruz mende ontan sortu zaigun langille ta irakasle yaukalenetakoa izanez.

Bere izen onaren alde egin genezaken omenaldi bikañena, enura gabe, berak ildokatu zigun lurra bera, gure lan eta izerdiaz lantzea izango da.

Euskal-irakaskintza dugu, lur orrezaz moldatzeko zai; yakin-gayak ditugu, euskal-liburuen begira; eta auek, atontzeko noraezekoak diran euskal-itz berezien bearrean, bear gorrian...

Gure euskal-ortze zabalean izar aratz ditzikor, Olabide'k erakusten digu bear aundi ori betetzeko bidea.

Urrestarazu'tar Andoni  
Paris'en 1958'garreneko dagonillean.

# ANDONI ETA EUZKERA

Euzkalerian ga antzizkoena euzkera jakitea zela eta 20 urte zituela ekin zion lan oni. A ezkerro ikasten-erakusten-idazten larogeitamaika urtetan il zan arte eten gabeko lana izan zuen.

Gasteiz'en asi zan Euzkaltzale Bazkunaren Eliztizaz.

Madrid"era joan zan lanera, eta an egin zituen urteetan ango Euzko Ikaskintzan R. de la Escalera irakasle zala ja aitu zuen.

Donosti"ra bizitzera (lanera) aldatu zuten eta an Udalako Oguzi ikasetxean, Alzagátar Toribio ta Agirre"tar Nekanerekin.

Espetxean egon zan guztietan ere lan ontan ari izaten zan -ikasten- eta ikasten zuena erakusten.

Guda ostean Gasteiz'en 20"ren bat ikasleei erakusten asi zan.

Paris'en erbesteraturik egon zanean izan zituen ikasleak eta andik Ego Ameriketako batzuei gutunen bidez erakusten alegindu zen.

1956'gn urtean E.K.A. (Euskal Kulturaren Alde) eratu zan eta Idazkaritzat Andoni izendatu zuten.

Ele-jakitunek Kaukaso'ko eta gure Izkuntzaren artean zer ikusia ba dagoela diote.

Paris'en bizi zela Kaukaso'ko bi gizon jakintsu ezagutu zituen. "Osettes-Alanos" eriko DZAMBULAT DANTZY eta Jeorgia'ko Alexandre Sollohub.

Lenengoak "Oss-Alanos" izeneko aldizkari zenbaki batzuk eraman zituen Jaurlaritzako lantokira eta antxe azaltzen ziran beren izkuntza eta gureak zituen antzeko itzak. Jeorjiata a ere askotan joaten zan gurekin alkar izketak egitera. Jeorjia ak eta euzkaldunak e'ri beretik eto"riak direla zion.

HAMIT KOSAY Ankará ko Ikastetxe Nagusiako irakaslearekin ere izan zituen aremanak. Bayona'ra etori zan "Musée Basque'n" gure e iaren zeaztasunak azteztzera. Berak zionez turkoak eta euzkaldunak (iñork ez dakien garayean) alka ekin egonak gera eta gero ez dakigu zergatik euzkaldunok alde batera eta aiek Turkia'runtz banatuak izan ziren.

Beren eta gure izkuntzaren artean antza zuten itzak bilduta zeuzkan.

Izan dira ba munduan gure e ia ta gure izkuntzak ga antzia dutela uste izan dutenak. Ez al da gu euzkaldunok alegintzeko arazoi bat?

Ameriketan ere ba zituen adiskide jakintsuak. (daho"ko Idaztegi"ko buru zan Stanley A. Shepard idaztegi artan ba daude Andoni'ren liburuak.

New York"en bizi ziren San Sebastian Jose Maria Apaiza -Fox Jauna.

Danekin izan zituen a emanen gaia beti-beti euzkera ta euzkal e ia izan ziran.

Gure izkuntzaren berpizteak benetan arduratzen zuen. Bere ekintza Jakintza ereitea zan. Bere ametsa Euzkale ia euzkalduntzea.

Euzkera dakitenek itzegiñez eta zabalduaz. Ez dakitenek ikasiaz.

Euzkaldun beri asko ba ditugu E"rikoak eta kanpota ak oyen artean.

Katalan'dar Espriu idazle ospetsuak eta aipatu dugun Tauer Jaunak, bere eliztizaz ikasi zuten.

Finlandia bat ere aipatzen zuen bere E ian ikasketa nagusiak egiten ari zala, jakin zuen ba zela Europa'ko e i txiki batean aintziñako izkuntza berezi bat, Euzkera. Euzkadi'ra etori eta ikasi egin zuen.

Israel"go Embajadore batek egindako gutun batean euzkera ezagutu naia azalduaz. Idazteuna euzkeraz eskatu zion. Andonik Olabide Aitarena bialdu zion. Oso gogokoa izan ornen zuen bere ikasketak egiteko.

Paris'tik (Euzko I atian) be iak ematen zituen, euzkeraz AZKON izen ordeaz. 1979'gn urtean bere ibillera la iak bukatu eta Gasteiz'ko bere arebaren etxera bildu zan bizitzera.

Bereala Udabe ia bazkunean irakasle lanean asi zan. Etxean ere ikasle asko izan zituen. Eten gabe bere azken egunak arte euzkera erakustea, eta idaztea izan ziran bere lanak.

Erakunde onen lanak asieran egokiak iruditzen zitzaizkion bañan, 1968'gn urtetik au era "Euskera batua" sortu eta Euskaltzaindiak ontzat artzea oso gaizki ikusten zuen. Bide au oke a zala zion.

Batetik: euzkerak zerbait e aza baldin bazuen idazkera zen eta zertarako ipiñi zailtasunak?

O a Haranburu Altuna'k (Haranburu Altuna-Literatura 72 Editorial Luí 11 oria) "H" da euskal e eboluzioaren sinbolo plastikoa. Bea ezkoa dala argi zegoen ez?

"H" otsik ez duen izkia ezertarako balio ez duna alpe ikakoa dela. LI, N, Y kendu eta ordeaz il-in-dd, zertarako naasketa oiek?.

Batu au ez du iñork itzegiten, batasuna bea ezkoa da, baño euskalkiak baztertu gabe. Euskalkiak iltzen ba dira euzkera galduko da. Euzkaldun bakoitzak bere euzkera jakin bearko luke eta eri guztiak euzkera baldin ba daki batasuna berez sortuko da.

Euskaltzaindiaren erabakia ontzat artu ez zutenek eta beren ustez egokia zan bidea ja aituaz lan egiteko asmotan "Euzkerazaintza Bazkuna" sortu zuten.

Andoni bertako batzarkide jakituna izendatu zuten.

Auen ustez euzkalki guztiekin BAT egingo zen, bañan bizirik daudenak baztertu eta beste beri bat sortu?

Ori ez zala bidea uste zuen Andonik.

Lu alde guztien Izkuntza Batza en eginkizun nagusiena beren Izkuntza garbitzea dela gogoan euki bear dela. Eta ez dala au izan Euskaltzaindiak egin duena.

Bizkay'era baztertu eta Gipuzko"era gaizki erabilli da egin dutena.

Paris'en "Museo del Hombre" eta "Grand Palais" 'ko lauki batzuetan ezagutzen diran izkuntza geienak sendika eta alkartuta daude eta danen gañean eta bakarrik EUSKERA (basque) azaltzen da.

## **ANDONI ETA BERE ERIOTZA**

Bere bizi luzean oso osasun ona izan zuen. Azkeneko urtean Prudentzi Donearean egunean Armentía ra joan zen, ta orixe izan zen bere azkeneko ibillaldia. Andik egun gutxira ongi ezik asi ta sendagilleak bere igarbidea eman zuen: biotzeko miña. Naiz eta alegiñak egin bere bizia itzaltzen zijoan eta urte bereko azillaren 21 "ean il zan.

Bere betiko atsedena bere e ian izatea nai zuen eta bere gorputza 1993'gñean azillaren 22'ean Arayá ko Andra Mari baseliza ondoan dagoen ille ian geratu zen. Goyan Bego.

E iak omenaldi txiki batean egin zion bere azken agu a.

Egun ortan Euzkale iak gizon aundi bat galdu zuen.

Neu i gabeko ontzia bete zuten bete bea ak, ordaindu ezin ba-ditugu Jainkoari eskatzen diogu eman dezaiola irabazi dun SARIA.

## **ANDONI ETA POLITIKA**

Arana Goiri"ren ja aitzale zintzoa zala esan daiteke. Onen iritziak ontzat ematen zituen. Bere ustez abertzaleentzat Arana'ren idaztiak irakurtzea eta bere esaneñ jaramon egitea bea ezkoa zen.

Gaztetan EAJ'an alderdikidetu zan eta Alderdi onen alde lanean eten gabe ibilli zan. 1936"ngngo otsailleko auteskundeetarako Aspa ená ko e ietan su ta gar-alderdiaren alde zabalkundeá egiten sayatu zan. Euzkadiren alde edozein gauza egitera ausartzen zan. Beti Euzkadiren onerako makiña bat asmo izaten zituen eta besteei jakin erazten sayatzen zen.

Bere egimen oiengatik espetxe bidean askotan ibilli zuten.

Bein "Pax Romana" talde bat Gasteiz'era etori zen: eta emengo abertzaleak aiei Andoni tartean zala Euzkadi'ko egoera jakin erazi naiean aiek zebiltzan inguru guztiak iku iñez bete zituzten eta zegozen ostatuan idazki batzuk Euskadiren ebazkizunak agertuaz banatu zituzten. Danak atxilotu eta sei illabete espetxean egin zituzten.

1957"ngango Azillaren 25 -egun berezian- (Arana'ren urteu ena) EBB"ri Europan zeuden, Euzkadi bezelako e iekin alkartu eta geyago indartuaz askatasuna lortu bear zala azalduaz idatzi zion eta Paris'ko EAJ"ren batzordeari idatzitako gutuna: Agur adiskideok: Luzaroan gutun au idazteko zalantzan egon natzaizue alde batetik bat edo beste minduta geratu litekelako eta ez dut nai bearik gabe iñor mintzea; bestetik ezinbestekoa iruditzen zaidan gure Abe iaren izkuntza maite onen aurka gure artean egindako ezezpenagaitik ostetzea. Gertatutakoa auxe izan zan: Euzkeraz ari zirelako bilkuran zegoen alderdikide bat gelatik iden zan.

EAJ'ak "Unión de Fuerzas Democráticas" elkargo baria ontzat adu zuen eta Andonirentzat ori etzan bide zuzena.

EBB"ri idatzi zion: Agur adiskideok: Gutun ortaz ziur naiz naigabea emango dizuédala, bañan ala ere aundienetakoa balitz ere, ez da nik barnean aspaldidantik daramadana baño aundiagoa izango, batez ere oraingo ontan artu dudan erabakia dala-ta. Barkatu, zuei naigabea ematea saminga ia zait oso, baña zuen eta nere atsegabe guztien gañetik erabaki au artzeko bea ean nago: EAJ uztea, zuenganako adei onez eta beti JEL"pean...

EAJ'an urte asko zeramazkien, lenengo egunetik Arana Goiri"ren asmoak ja ai-tuaz, abe 'riaren izkuntza ikasten, erakusten, idazten eta bere indar txikien neurian aal zuan guztia emanaz. Beraz artu zuen erabaki gogor au goibeltasunez artu zuen.

Beti Arana ren asmoak zintzo ja aitu zituen eta etzan beste iñongo alderdian sartu.

## **ANDONI ETA OMENALDIAK**

Arayá ko gudari taldeak:

1984"ean Gasteiz'ko Udalak eta E iak Uriko u ezko domiña emanaz Euzkera- ren alde ainbeste lan egin zuela ta. Andoni'ren erantzuna auxe izan zen: Euzke- raren alde saiatu naizelako ez zenidaten omenaldirik zor, egin bear nuena beste- rik ez bait nuen egin.

1990"ean Araya bere eri maiteak omenaldi eder bat egin zion. Eriko seme kut- tuna izendatuz kale bati bere izena jari eta u ezko domiña bat eskeiñiz.

1993"ngngo udabe ian Araban Euskaltzaindiaren ordezkaria dan Ruiz U estara- zu"tar Manu Andoni oorezko bazkide izendatzea eta bera ta beste euzkaldun ospetsu batzuei omenaldi bat egitea erabaki zuela jakin eraztea etori zitzaion.

Andonik Euskaltzaindiak gure izkuntzataz zeraman bidea ez zitziolako ongi iruditzen ez zuen erabaki au ontzat adu.

## **ANDONI ETA KRISTAUTASUNA**

Txikitandik sinismen giroan azitakoa izan zen, bañan berak zionez guda ostean bere sinismen ori sendotu egin zitzaion.

Bere bizitzan beti Jainkoa du bere gidari.

Ilñorenganako go otorik gabekoa. Egizalea eta pake maitalea zen.

Bere irakurketak beti Kristau kutsukoak ziren.

Orixeren Itun Berria ere bein baño geiagotan iraku i zuen.

Egunero Meza entzun eta E osaioa esaten zuen.

Estibaliz'ko Ama Birjiñaganako zaletasun berezia zuen Gasteiz era eto i zanetik igandero oiñez joaten zan ango Meza entzutera.

Azkeneko iru urtetan oiñez ezin joan eta adiskide batek berebillez eramaten zuen.

Estibaliz'ko anaidian sartuta zegoen eta ango batza etara ere beti joaten zen.

Bere lana euzkera eta Euzkale iaren alde izan zen eta bere gidaria beti Jainkoa.

Andoni'taz bai esan zitekeala "Euzkaldun Fededun".

Espetxean egin zituen egonaldi oyetako batean Perez Cuadrado'tar Andoni bere adiskide miñak auxe dio: 1951'gn urtean lan-uzte bat antolatzeagaitik atxilotu ginduzten. Comisari'an alka ekin gengozela izuga iak artu ondoren egoera e uka ian ikusi nuen, baña bere duintasunik galdu gabe, La Paz kaleko espetxean egin genituen 2 edo 3 illabete. Bere gizontasunaren lekuko izan mintzan: beti alai eta baikor. Ertzain galdeketaei gure erantzunak askatasunik gabekoak ziralako, ez zitezkeala egitazkoak izan. Beti egia esan bear dala eta egunen batean iñor salatu zezakealako erbestera joateko arazoi aundia ikusten zuen.

## ANDONI ETA BERE LANAK

Euskera ikasi alean erakusten ere asi zen eta lan ortarako gaiak, Azkue'ren "Euskal Morfologia" eta Altube, A igarai eta aba en idazketaetatik atera zituen.

Antolatuta zeuzkan lan aiek Etxaide'tar Yon bere adizkideak ikusi ondoren lan ede a zala ta, argitaratu egin bear zuela aolkatu zuen.

Eta lan auek osotu eta 1955'gn urtean Andoni Paris'en bizi zala "UMANDI" (bere e iko mendiaren izena) eliztia argitaratu zan lenengo aldiz 2000 alekoa izan zen eta Zarauzko Itxaropena iragarkian egiña.

2'gn argitalpena 1963'gnean (1500 ale) Auñamendi.

3'gn argitalpena 1976'gnean (2000 ale)

ESET Gasteizko Apaiztegian lenengoarekin batera Agi e'tar Yosebak eskatuta "Aditzerak bizkaieraz" argitaratu zen.

1967 urtean:

### EUZKAL BETEKIZUNAK

Eh bezela eriotzaren au ean burua geiegi makurtzea izan dela Gure e iaren bizi luzean bañan inda ik ez orain arte, gure E iaren biziareitza lur jota uzkaitezko.

Gure Eh au indartzeko asmo batzuk eskeintzen ditu.

1982'an "Au en izkuntza", "Agokora pilloak", "Goitzenak", "Igarkizunak", "Au en jokoak" .

1984'ean

### EUZKO IRAZKINTZA

Bayona'n erbestaturik bizi izan zen urteetan Andonik sortu zuzendu, ta idatzi zuen "Irazkintza" aldizkarian agertutako idazlanak.

1985'ean

## GENTZA BEA EAN

Iru gai berezi adierazten ditu gentza itza 150 bider agertzen da. Gu e iaren arazo nagusiak gizonen arteko lankidetasun asmoa.

1986"ean

## EUZKAL ELIZTI LABU A

Asimasiak erderaz eta 1987"an euskeraz.

Bi elizti labor oiek lan sakonagoa egin ezin dutenentzat eta gure izkuntzaren ezagupen txiki bat bederen euki dezaten egiñak dira.

1989"an

"UMANDI" euskal eliztia, dana euskeraz, len erderaz egindako ber bera da bañan eginkizun motak aldatuaz. Mintzoeraz euskaldunak direnentzat egiña dago.

## EUZKAL ELIZTIAREN BETEBIDEA

Bere ikasgaiak 14 galartzutan idaztitan norabide dutela.

1991 "ean

## EUZKERAREN EBAZKIZUN AUNDIA

Gure izkuntzaren egokera nolakoa den zeaztuz eta zeintzuk izan ditezken indartzeko zuzenbideak.

1993"an

Goi-Yakintzá runtz urbiltzeko naiean euskeraz egindako urats txikiak.

Goi-Yakintza: Izaki, asierak eta zioak aztertzen dituen jakintza. Gizon eta gogolantze guztien jo-muga bezela agertzen da.

Bidezkoa da euskeraz ere yakintza ortan ari-izatea.

Au izan zen bere azkeneko idaztia.

Beste Idaztiño labor batzuk ere utzi dizkigu.

Au eruntz (euskeraz ta erderaz)

1978"an

"LOS FUEROS" Moraza, Landazuri, Becerro de Bengoa eta beste batzuen iriztiak aipatzen ditu.

1981 "an

## EUZKERA

Euskeraren arazoa. Euzkadiren etorkizunerako bere beata gure e iaren kondairan bere zer ikusia.

## "A LOS HOMBRES Y MUJERES JOVENES DE MIS VIEJOS DIAS"

Asmo gertaera eta bestelako agerpenak aztertu eta gogoan erabiltzea. Oraingo egoera. Bere etorkizuna.

1985"ean

## "POR Y PARA LA UNIDAD DE TODOS LOS VASCOS"

Euzkadiko bizitzaren berezko arazoak.

Napa oa eta egiaz benetako euskal bizitza.

1985"ean



"EN EL DEVENIR DE LA HISTORIA DE EUZKADI"

Euskal Eriko leen orain eta gero aldia.  
Azterketa gisako diña alde ta gaiak.  
1985"ean

"EUZKADIREN EBAZKIZUNA"

Burubidezko oiña iak  
Itzaldi baten edapena:

Gure e iaren Izaera  
Gure e iaren Eskubidea  
Gure e iaren Bete-beara  
Gure e iaren Bea ak

Idaztiño auek euskeraz eta euskerari buruzko lantxoak. Euzkadiren lengo  
oraingo ta gerorako buruzko lantxoak.

Jakintza ereitea izan zen bere ekintza.

Lana egin, kezkek sortu eta bereziki euskera bizi, zabaldu ta landu zedin al  
zuan guztia saiatu zen. Dena ixtillurik gabe, ezer eskatu gabe.

Paris"ko EUZKO DEYA

Bayona'ko Alderdi

Guatemalá ko Euzko Gogoa

Capuchino taren KARMEL

GOIZ-ARGI

ESTIBALIZ

Bayona"ko EUZKO IDAZKINTZA

Gasteiz"ko Udal Informazioaren Aldizkari.

EUSKERAZAINTZA eta beste aldizkari batzuetan bere lanak azaltzen ziran.

Urte askotako lan eder bat ere utzi digu.

"ASMO IZTEGIA" Irureun millatik gorako fitxak egiñak zeuzkan. Lan au  
bukatu be'ria zuen gaxotu zanean.

Beraz ez zuen argitaratzeko astirik izan bañan norbaiten laguntzaz aterako al da!

Gasteiz"ko I"ratian ere iru urtetan berak antolatutako ikasgaiak eman ziran.

## EUSKERA ALDATZ GORA

1

Euskera dugu geure izkuntza,  
eta geiago, zer esan....?  
Noiztik ta nola ez bait dakigu,  
noribait sortu izan zan.  
Nola ibili ilumpe ortan?  
ez baita da argirik izan;  
mintza bedi, ba, nere biotza  
maitemunduaren gisan.

2

Leendabizian, oi u bat ote?  
ta agian irrintzia,  
mendi, zelai ta itsas ertzean  
gaurko utaren azia.  
Irudipenez ari naiz eta,  
Nola ote zan asia  
milaka urtez iraundu duena,  
gure mintzo berezia....?

3.

Izkuntza artean, European barne,  
zu ornem zera zaarrena;  
beraz, au beintzak horrela izanik,  
aspaldian duzu leena.  
Gaur-gero ere jarrai ezazu,  
ez betor zure azkena,  
Euskal Erriko mintzo maite, zu,  
euskera eder ozena!

4.

Euskera eder zure bidea,  
sasi arteko gainpean,  
bi aldetatik erasoturik  
jo ta jearen menpean.  
Nal ta ezina, orain ta antzina,  
bizi ezinik pakean,  
etsaiek gogor beti jo dute  
zure etxeko atean.

5.

Euskal eskola -geurerik ez da-  
antxe ume euskalduna!  
gurutz aundi bat bere gainean,  
pazko gabe, garizuna.  
Ama onaren altzo goxoan  
egin zularik laguna,  
auen bakarra, ura zulako  
zigor zuen eratzuna.

6.

Eraztunaren ekaizpe ortan  
gure kultura zegola,  
aurre eginez ortxe zebilen,  
bai al dakizue nola?  
Gure izkuntzak orrelakotan  
beti izan du txabola,  
babesleku ta suspergarri den,  
O, baserriko eskola!

7

Eraso bizi, ta ezin bizi,  
euskerak beti debeku,  
alarik ere baserriarrak  
bere osoan beretu.  
An-or-emengo erasotatik,  
nola ez, bada, jabetu  
beti izan dula baserri zaarra,  
suspergarri, bizileku?

8

Barne-muinetan euskerak deika,  
egina dut gaur jarduna.  
Biotz-begiak goruntz begira,  
goian guztion Aalduna.  
Arbaso zaarrak an dira, baina  
dantzut beren oiartzuna,  
aien mintzoa barnean bait dut,  
orrela naiz euskalduna.

Jm. Murua-k

# ESAERA JATORRAK

- Or-or (Gitxi gorabera).Ogeira eltzen ez ba'dira, or-or izango dira.
- Bildur naz (ez bildurra dot).
- Ba da be ez (Kontuan artu be ez). Maian dago ardaua, baiña etxeko jaunak bada be ez.
- Ezeze: (Geiago dana): Erregea ezeze, Gotzaiña be etorri zan.
- Sekula: (iñoz izan ez dan lakoa): Egun ederra! Sekulakoa.
- Oraingo onetan: (Aukera bat), Beti irabazi dau, baiña oraingo onetan galdu egin dau.
- Txakurrak jango zaitue (Ondamendia iragarteko) Amamak illobai: Ni ilten nazenean, txakurrak jango zaitue.
- Egonean egon (Geldi, atsedenean). -Zer egiten dozu?- Egonean nago, egoten nago.
- Txakur-ametsa (Utopia?). Euskaldunak nai daben bakea txakur ametsa da españatarrentzat.
- Mezea eraso: (Mezea esaten lagundu). Monagillo-lana egin.
- Ago bete azurregaz itzi (Zurtz eginda itzi). Laguntza-eske etorri zan aitagana eta artu eban erantzunak ago bete azurregaz itzi eban.
- Asko be asko-(gutziz asko esateko). Atzo batzarkide gitxi izan giñan baiña gaur asko be asko batu gara.
- Atan be: (erderazko "precisamente" ren antzera) Gizon askok, eta gizon aundiak atan be, berba egin eben.
- Ibilli ziran, ibilli, baiña dana alperrik.
- Etxeko-etxeko: (lagun aundiak edo artu-emon asko daukenak) alkarregaz dabiltzan mutiko orreik, etxeko-etxeko dira.
- Teillatupekoa da (Gugaz edo nigaz teillape baten bizi da) Nik ori ondo eza gutzen dot, gure teillatupekoa da.
- Latzak eta baltzak ikusi (egun larriak igaro). Guda-aldian Legutiano'n izan giñan eta latzak eta baltzak ikusi genduzan.
- Bizartsuak eta bulartsuak izan. (Adorea agertzeko esaten da). Gure gizarteak eragozpen asko daukaz, batez be langabezia dala-ta, baiña une larrietan bizartsuak eta bulartsuak izan bear gara, kikildu barik.
- A zan a! (Une garrantzitsu bat gogoratzean esaten da). Erdiameriketako aize zakarra ta euritea ikusi genduzan, a zan a ikuspegi negargarria.

- Aurrez aurre (erderazko, enfrentarse) Goliat aundia eta Dabid gaztea aurrez aurre dagoz beti gizartean.
- Gero gerokoak: Orain ondo bizi gaitезan eta gero gerokoak.
- Emon-emonak egin.
- Luzaroen Luzaroan (Aldi luze baten).
- Esanak esan.
- Bereak eta bost (Neke asko ta aundiak).
- Ori ez da auntzaren gaberdiko eztula (Garrantzi aundikoa da).
- Munduz-mundu (Asko ibili).
- Maite-minduta, txingar gori bat ala ala.
- Autu-Mautu (Alkar izketa).
- Barriren barri (Barriro).
- Amen baten (Arin).
- Jausi, ez jausi egoan.
- Eta gero gerokoak.
- Baztarrak bete (Asko).
- Onezkoak egin (Alkar parkatu).
- Ez itzik eta ez pitzik (Isilik egon).
- Piper itzi (Baliobako biurtu).
- Bere orretan jarraitzen dau (Ez da iritziz aldatu).
- Noiz ilgo dago aita (Agonian).
- Izter Begia (Erderaz ezkerreko begiaz. ikusi, txarto begiratu).
- Eziñaren ezina ta larriaren larria (Estualdi Aundia).
- Gure trena ordu-orduan etorri da (puntual).

## **ATSOTITZAK-1**

Mikel Zarate izan zan idazlearen HAURGINTZA MINETAN liburuan dagozan atsotitzetariko batzuk dakartsueguz oraingo onetan. Gogo-gogoko eban Mikel Zaratek berak egindako liburuetan atsotitzak parra-parra aitaturea, ez, baina, beti eztenkaren bat edo batzuk jaurtigi barik. Atsotitzik geienak bizkaierazko tradizioari jagokoz.

- Aita ordia tabernan eta ama ta alaba jokoan, ostera be egon dira gona barriak auzoan.
- Aita ta semea tabernan dagoz, ama ta alabea jokoan, txaltxu nabarrak auzoan.
- Alperra, beti gazte.

- Amak emon baleutso etxeko lotsea, ez ebala galduko urrezko boltsea.
- Antxina baten gaztea nintzan, orain egin naz agura, emazteak eta umeak be ez nabe ikusi gura.
- Arotzaren etxean, otzarea aurki.
- Asko daki zaarrak, erakutsi bearrak.
- Aurretik samur, atzetik txakur.
- Bagendu ta bagina, alperreko aalegina.
- Bagendu ta balitz, mutuaren bi itz.
- Bakotxak berea eta bakotxari berea.
- Balebe ta balira, besteen anaiak dira.
- Balizko erroteak, urunik ez.
- Balizko oleak, burdinik ez.
- Baneu ta banintz, ezaren irrintz.
- Bazendu ta bazina, ametsaren ezina.
- Bazendue ta bazinie, egin gura utsaren adiskide.
- Bilbao, an be dongeak birao.
- Dagoanean bonbon, ez dagoanean, egon.
- Daukanak dauka, ez daukanak baleuka.
- Egia, askoren erregarria.
- Egia biribila da, ta ezin batera osorik ikusi.
- Egia esateko ez daukat lotsarik; ez daust bete sekula guzurak boltsarik.
- Egia, zurraren ondoan begia.
- Epaila eurite, urtea ogite.
- Errementariaren etxean, zotza burduntzi.
- Geiago daki zoroak bere etxean, zuurrak besterenean baiño.
- Gero, otz ez dana, bero.
- Guzurra, belarriaren ondoan sudurra.
- Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura.
- Jesus, berba ona da, ez bada kunplimentuz.
- Jesus, Maria ta Jose, beti jan ta beti gose.
- Kanpoko etxera, etxekoa kanpora.
- Kanturik kantura, tragua barrura.
- Leen alan, orain olan, gero ez jakin zelan.
- Leengo zaarren esakerak, guztiak jazokerak.

- Negua zaarren ilgarria, gazteen zaargarria.
- Ona emen bertan Bilbo!
- Ordua doanean, doa mundua.
- Senitartekoak, baina bakotxa bere etxekoa.
- Txapela buruan eta ibili munduan.
- Txirikitin txonea, Durangon tronpea, Elorrion buzkantza, Ermuan seda; Ermuan seda barri, mutilok dantzari, neskak konbidetako libra maaspasea.
- Zaarra, traste txarra.
- Zer ikusi, a ikasi.
- Zereko zerean zera zertu da zerean.

## **BERBALAPIKOA**

ordi=mozkorti.

aurki=aulki.

balizko=ipotetiko.

donge=txar, oker.

birao= aiñen.

bonbon= esnetan egon, ederto egon.

ogite=ogi askoko sasoa

Iñaki Martiartu  
| 1999ko urtarrilean

# EUSKAL ESALDIAK

Andik eta ortik batutako erretratuak edo atsotitzak dira urrengok.

- Aalegina, amaika modutakoa izaten da.
- Arbola zaarrak, ez dauka apaintzerik.
- Arin eta ondo, antxina be asarre.
- Asko gura dauanak, guztia galdu,
- Bakotxa, bere zoroak bizi.
- Bidaide, gogaide.
- Danok diñoena, edo da, edo izango da.
- Egia, askoren egarria.
- Etxetik asago, zorionetik asago.
- Gero diñoanak, bego diño.
- Guztia/dana gura dauanak, guztia dana galduten dau.
- Guztia/dana gura izan, guztialdana galdu.
- Guztia/dana gura izatea, guztia dana galdutea.
- Aritik, dator arila.
- Errik bere lege, etxek bere aztura. -Il eta gero, salda bero.
- Irabaziak non, an begiak.
- Nagiaren urak tenple bi: batzuetan/baten otzegi, besteetan/bestean beroegi.
- Non fia, an gal.
- Non fiatu, an galdu.
- Onean bada, gozo; okerrean bada, larri eta otso.
- Orok diotena, edo da, edo izanen da.
- Txar jaiio/sortu ta txar azi, txar izango da beti.
- Zorribiztua baiño, pizti txarragorik ez.

## BERBALAPIKOA

aril= ari mataza, arilko.

bidaide= bidelagun.

gogaide= eriskide, pentsakeran kideko dana.

aztura= izakera, jite.

zorribiztu= denbora txikerrean aberastutako nonor.

Iniaki MARTIARTU  
1998ko abendua

## ESALDI TA ITZ TRAKETSAK

### **ETB' n**

---

Daukagu egiña...	Egiña daukagu
Kruela	Odol-zale/Biotz gogor
Kontatuan	Arremanean
Argumentua (razón, prueba) (tema, asunto)	Argibide/siñespide Gai (mintza-gai)/azalkizun
Titularrak	izen-buruak

### **Kili-Kolo' n**

---

Kodoa	Ukalondoa
Pertsonaia (pers. distinguida) (personaje en escena)	Aundiki/andizki Antzezki/antzez-lagun

### **Goenkale' n**

---

Tristezia	Itunaldi/goibeltasun
Natura	Izadia

### **Egunkaria'n**

---

Europar batasun honetan, non progre guztjak esaten dutenez...  
Europar batasun onetan "progre" guztiak esaten dutenez...

Argi frogatzen direnez...  
Argi egiztatzen direnez...

Akordio nazional baterantz  
Laterri arteko itun baterantz

### **Udaletxe baten**

---

Beterazpide-(Via Ejecutiva)  
Ordain eragiterako bidea